Historia eta fikzioa:
Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan



Karmele Artetxe Sánchez (arg.)

Udako Euskal Unibertsitatea

Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan

Karmele Artetxe Sánchez (arg.)

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2001

© Karmele Artetxe Sánchez
© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-016-5
Lege-gordailua: BI-1439-01

Inprimategia: RGM, Bilbo
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Jose Ramon Etxebarria Bilbao

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 94-6790546
e-mail: argitalpenak@ueu.org www.ueu.org
Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA telf. 943-310301

Argitalpen hau paper birziklatuan inprimatuta dago.

Aurkibidea

Sarrera 5

Gizartea eta ideologia Karlomagnoren garaian (VIII-IX. mendeak)
Jaione Agirre García 7

Iruñeko erresumaren sorrera (VIII. mendetik X. mendera arte): interpretazioaren bila
José Ángel Lema Pueyo 27

Goi Erdi Aroko arkeologiaren ikuspegi orokorra: Hego Euskal Herriaren kasua
Irati Iciar eta Karmele Artetxe 51

Antzinaro Berrantiarreko nekropoliak Euskal Herrian. Frankoen eragina Pirinioen ipar eta hegoaldean
Belén Bengoetxea Rementeria 93

Lehen euskal hagiografia kondaira eta historiaren artean
Roldán Jimeno Aranguren 121

Historia eta literatura: zurubi luzean gora eta behera
Anjel Lertxundi 135

Sarrera

Urte batzuk igaro dira UEUko Historia Sailak bere azken liburua argitaratu zuenetik. Hala ere, liburu hartan plazaraturiko kezka historiografiko nagusiek bizi-bizirik segitzen dute. *Historia: zientzia ala literatura?* Hori zen liburu haren izenburuak luzatutako galdera. Bertan Pruden Garzia eta Iban Zaldua argitaratzaileek, historiaren izaera konplexu eta maiz kontraesankorraz egin zuten gogoeta, arlo desberdinetako artikuluak bilduz. Bide beretik, esku artean duzun liburu honek historiaren gaineko debatea egiten segitu gura du. Helburua historiaren eta fikzioaren arteko harremanez hausnarketa egitea da.

Karlomagno. Horra legendaz inguraturiko pertsonaia historiko bat. Pertsonaia zinez aproposa, zientzia eta literatura, historia eta fikzioa, beren arteko erlazio korapilatsuan aztertzeko. Gainera, Karlomagnoz eta beraren garaiko Euskal Herriaz, gure historiografian, euskaraz bereziki, oraino bete gabeko hutsunea egon da. Gabezia horri erantzun nahiko lioke liburu honek. Horrela, bada, batetik, ikuspegi historikoa abiaburu dugula, Goi Erdi Aroko egoera eta testuingurua landu dira: Karlomagnoren sasoiko ideologia, gizartea, politika zein arkeologia, eta horiek guztiek Euskal Herrian izandako eragina. Bestetik, garai eta gertakari haiek, literaturaren arlo zabaletan nolako isla izan duten jorratu da. Beti ere ikerketa eta literaturaren arteko harreman lainotsuen zeinupean.

Liburua, Jaione Agirreren sintesi historiko zehatzak abiatzen du, Karlomagnoren testuinguru sozial eta ideologikoa irakurleari gerturatzeko asmoz. Irati Iciar eta Karmele Artetxeren artikulua dator jarraian, Hego Euskal Herrian aurkituriko Goi Erdi Aroko aztarnategi eta ikerketa arkeologikoen balantze gaurkotua jasotzen duena. Ildo arkeologiko berean, baina espezifikoki frankoen eraginean zentratuta, Belen Bengoetxearen artikuluak herri horrek euskaldunen artean utzitako eraginaz ondorio historiografiko berritzaileak eskaintzen ditu. Ondoren, Roldan Jimenok historiografian gutxi landu izan den santuen bizitza hartzen du ikergai, istorio hagiografikoak eta errealitate historikoa uztartuz. Legendatik abiatzen da, halaber, Jose Angel Lema, Iruñeko erresumaren historiaz argi berria ematen duen artikuluan. Amaitzeko, Anjel Lertxundik historia —bereziki, Erdi Aroa— literaturan nola lantzen den azaltzen du, idazleek iraganarekin eraikitako fikzioez gogoeta eginez.

Artikulu horiek guztiok, aurrenekoz, Biarritzen 1998ko uztailean aurkeztu ziren hitzaldi gisa, UEUko Historia Sailak antolaturiko ikastaroan. Jaione Agirre, Karmele Artetxe, Belen Bengoetxea, Irati Iciar, Roldan Jimeno, Jose Angel Lema eta Anjel Lertxundi izan genituen hizlari, eta beren ekarpenak liburu honek biltzen ditu. Orobat Manex Goihenetxe, Xabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra eta Patxi Zabaleta mintzatu ziren ikastaroan, baina ez dugu horien hitzaldiak argitaratzerik izan. Nolanahi ere, guztiei eskerrak eman gura dizkiegu. Liburu honetan ikastaro haren funtsa eta ikuspegia jaso delakoan gaude, eta horregatik Biarritzeko saioaren izen bera eman diogu liburuari: *Historia eta Fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*. Euskal historiografia aberasteaz gain, liburu hau irakurlearen gozagarri izango dela espero dugu.

Karmele Artetxe Sánchez (argitaratzailea)
UEUko Historia Saila

Gizartea eta ideologia Karlomagnoren garaian (VIII-IX. mendeak)

Jaione Agirre García
Historian lizentziaduna / Eusko Jaurlaritzaren bekaduna

"eta Orreagako gatazkan
lehen aldikotz
Karloman eta dotze pariak
galtzaille atera ziren"
(J. A. Irigaray)

1. SARRERA

VIII. mendean indar berriak agertu ziren jokoan Europa kristauan: bizantziarren gainbehera Islamen indartzeak markatu zuen (Poitiers-eraino iritsi ziren 732an). Islamek sortutako apurketa zen karolingiarren garrantzi hartzearen arrazoia, H. Pirenne bezalako historialarien ustez[1].

Karlomagno 768an iritsi zen frankoen errege izatera (hasieran Karloman anaiarekin batera), bere aita Pepin III.a *Laburra* hiltzean. Bere aitak, eta karolingiar dinastiaren sortzaile izandako arbasoek, aurrera eramandako ekintza eta boterearen une gorena izango zen bere erreinaldia.

Historian zein kondairan gai mitikoa bihurtu den Karlomagnoren erregetza, bi ikuspegi nagusitatik ikertu da, gakoa kronologia-izaeran egonik, bereziki. Erdi Aroaren lehen pausoetan une garrantzitsua dela denek onartu arren, batzuen ustez horixe da benetan Antzinaro Berantiarra bukatu eta Goi Erdi Aroa hasten den momentua ("apurketazale"en ustez, Marc Bloch aitzindaritik hasita, Louis Halphen, Henri Pirenne, Georges Duby, Guy Bois, Pierre Bonnassie-ren aldetik). Ikertzale horiek iraultza feudalaren aurrekariak izango ziren elementuetan oinarritu dira hori esateko: nekazari-sistema berrian, esklabutzaren desagerpenean, lurjabe txikien agerpenean eta jabego handien ustiaketa-sistema berrian, besteak beste, ahaztu gabe aurreko sistema historikoaren aztarnak geratzen zirela. Besteen iritziz, aldiz, Antzinaroarekiko loturak dira nagusi aldi honetan ("jarraipenzale"en iritziz, Robert

1. Henri Pirenne (1978): *Mahoma y Carlomagno*, Alianza Universidad, Madril, 152. or.

Fossier-en ustez, batez ere): estatuaren kontzeptzio zentralista, Elizaren egiturei erromatarren arabera eustea, aldaketa sozial eta ekonomikoak matizatuak izatea (lehengo nobleziaren jarraipena aristokrazia berria osatzean, kide berrien zein zaharren integrazioaren bidez[2]), esklabutzak irautea (gainbeheran bada ere), eta abar; beraz, aldaketak bai, baina aurreko sisteman, Antzinaro Berantiarraren barruan. Hau guztia polikiago aztertuko dugu aurrerago.

Gaiaren egoeraz hitz egingo dugu artikulu honetan, bibliografia erabiliz; baina ikerketa sakonagoa egiteko, oso garrantzitsua izango litzateke arkeologia, bizitza materiala aztertzekoan adibidez. Badira garai honetan, gizartea eta arlo politikoak eta ideien mun-dukoak aztertzeko iturri idatziak (geroagoko garai batzuetakoekin konparatuz, garai honetan eskasak badira ere): errege-agiriak, kronikak, urterokoak eta karolingiar gortean bultzatutako beste lanak, eta, azkenik, Elizaren inguruko lanak (liturgia-liburuak eta idatziak).

2. KAROLINGIARREN IRITSIERA BOTERERA

Karolingiarrak boterera nola iritsi ziren ikusteko, merobingiarren egoeraz hitz egin beharra dago aurrenik.

Nolabait esateko, 640ko hamarkadan dekadentzian zegoen merobingiar leinua eta berak zuzentzen zuen erreinua. Lurrak galdu zituzten eta ahuldurik ageri ziren: Italian eta Hispanian porrotak jasan zituzten, eta Germanian lurrak galdu. Bestalde, barneko gudu zibilak zeuden (erreinua beti patrimonioa balitz bezala semeen artean banatzen zelako), eta ume-erregeak egoteak are gehiago okertu zuen egoera, haien tutoretza eta boterearen jabetzarengatik. Ondorioz, errege merobingiarrak jauregiko maiordomoen eskuko txontxongiloak ziren, eta aristokrazia lurjabea indartuz joan zen, oro har. Kontrol osoa galdua zuten errege haiek, umeak izaki; baina baita ere ez baliabiderik, ez indar ekonomikorik ez zutelako: gerretako harrapakinak desagerturik eta bizantziar subsidioa ere galduta, lurralde-zerga gero eta jende gutxiagok ordaintzen zuen, eta bidesariak ere gutxitu egin ziren (exentzioengatik, eta merkataritza gainbeheran zegoelako, itsasoan indarra galtzearen ondorioz). Eliza bera ere desantolantuta zegoen eta populazioak berdintsu jarraitu arren, zibilizazioa aldatu egin zen, erromatar zibilizazioa deseginez, Pirenne-en esanetan[3] (horretan beste autore batzuk ados ez dauden arren).

Maiordomoak Austrasiako familia garrantzitsua ziren. Zonalde hau zen krisi txikiena jasan zuena, eta berez ez zen erromatar jatorrikoa (gaur egungo Belgika inguruan zegoen kokatuta). Pepinidarrek heredentziaz zeukaten kargua, eta istilutan bizi ziren Neustriako frankoen beste erreinuarekin. Beraien helburuetako bat erregetza lortzea zen (boterea lortu ostean), eta aristokrazia bere kontrolpean izatea, merobingiarren antzera txontxongilo ez izateko.

2. C. Amado da azken aldian hori aztertu duen autorea.

3. Henri Pirenne, *op. cit.*, 160. or.

Leinuaren izenak dioen bezala, Pepin Landen-goa izan zen fundatzailea, baina Pepin II.a Herstal-goa izan zen izen horretako garrantzitsuena: 680ko hamarkadan Neustriarekin bakea lortu eta bi erreinuen maiordomia eskuratu zuen ("erregetza paralelo" baten antzekoa osatuz, diosku Pirenne-k[4]). Bere lorpenetan, Frisia hartzea eta misiolari anglosaxoiak bidaltzea zeuden.

Bere seme Karlos Martel-ek (714-741) oinarriak sendotu zituen eta lurraldeak bildu (Frisia eta Alemania batuz). Bestalde, sendotze horretan, Islama garaitu zuen 732an, eta Borgoña eta Akitania —Bavaria bezala— menpeko duke baten bidez bereganatu zituen.

Haren semeen artean, Karloman monje sartu zen, eta honela Pepin III.a *Laburra* bakarrik geratu zen buruzagitzan. Hau funtsezkoa izan zen, zeren horrela Aita Santuaren laguntza bereganatu baitzuen frankoentzat, lonbardoen aurka borrokatzeagatik; eta, ondorioz, frankoen errege izendatua izan zen 752an.

Honek ere semeen artean banatu zuen erreinua, 768an hiltzean; baina Karloman izenekoa hil egin zen 771an, erregetza Karlomagnori utziz, bakarka. Beraz, Karlomagno 774tik aurrera lonbardiarren errege zen, eta Aita Santuaren babesle bihurtu zen, ez haren menpeko. Bizantziarrekin istiluak izan zituen, bere alaba baten bidez ezkontzazko familia-loturak egin arren. Botere handia lortu zuen, eta patrizio izatetik San Pedroren ordezkari militarra izatera pasatu zen, Aita Santuaren alboan ordezkari erlijiosoa bihurtuz, biek osatzen baitzuten *ecclesia*. Gainera, 800. urtean osotasunera iritsi zen hau guztia, Aita Santuak abenduaren 25ean enperadore egin zuenean, Mendebaldeko Kristandade guztia bere esku jarriz. Elizaren babeslea zen orduan, baina Aita Santuak bere independentzia gorde nahi zuen, berak izendatu baitzuen enperadore (bizantziar *acclamatio*-a herriak sinbolikoki egin arren); enperadore bakarra zen, Elizak izendatua izatean, eta, noski, Bizantziotik bereiztea zekarren honek. Bizantziar enperadoreak ez zuen onartu, 812an italiar lurraldea eman zitzaion arte. Pirenne-ren ustez Karlomagnoren figura posible egin zuena, Islamek Europa kristaua Mendebal Europara mugatzea izan zen.

Luis *Errukitsua*rekin egoera mantendu egin zen, koroa oraindik indartsua zenez (batez ere kultur loraldiak iraun zuen). Baina ondorengo erregeekin gainbehera etorri zen, eta merobingiarrekin agertutako kontraesan eta ahulguneak azaleratu ziren berriro, batik bat, errege ahulenen artean[5]; eta inbasio berriek (bikingoenak, kasu zehatz honi dagokionez) eman zioten azken kolpea, hauek zakuraketa zutelarik helburua hein handi batean, eta ez integrazioa (aurreko inbasioen eredua izan zena)[6].

4. Henri Pirenne, *op. cit.*, 164. or.

5. Zehaztasun gehiago izateko, ikus Oinarrizko Kronologia atala, artikuluaren amaieran.

6. Georges Duby (1998): *Arte y sociedad en la Edad Media*, Taurus de bolsillo, Madril, 34. or.

3. KAROLINGIAR IDEOLOGIA

Planteatzen zen arazo nagusienetako bat erreinua banatzeko ohitura zen. Soilik azkenean, pertsona bakar baten esku erortzeko halabeharra gertatzean bihurtzen zen erregea indartsu.

Errege izaera aldatu egin zen, Jainkoak egin baitzuen errege, aurrez laikoa zena. Honela Elizaren morala jarraituko zuen erregeak, kulturadun erakunde bakarrarena. Karlomagnok Mendebal Europa kristaua bildu zuen; indarra eta prestigio politikoa zituen; Elizaren eta Aita Santuaren babesle bihurtu zen, eta kristautasunaren erreforma bultzatu zuen, botere morala lortuz. San Agustinen teorietan oinarriturik (lurtar eta zerutar botereen bikoizketa), Gregorio Handia Aita Santuaren garaitik (VII. mendean) zetorren bizantziar zesaropapismoa (erlijioaren eta inperioaren burua pertsona bera izatea) mugatu nahi zen. Alkuino-k formulatzen zuen errege denboral edo lurtarraren balio moral eta erlijiosoaren arabera, *de facto*ko botere hori zela nagusiena: erregeak morala zaindu behar zuen, Elizaz gain. "Jainkoak gantzutua" zen, eta inperioa berregiten zuen (bizantziar onespena bilatuz, hasieran tratuz, eta horrela ez lortzean, guduz, italiar lurraldea itzultzearen truke).

Milites-ak —aristokrazia osoa— menpeko basailu bihurtu zituen, fideltasuna gorde ziezaioten (batez ere lurrak banatuz: lehenengo harrapakinetakoak, eta gero, ahulerian, errege-patrimoniokoak). Baina denborarekin aristokrazia indartuz joan zen, bere eragina zabalduz. Erregea bere erregalia guztiak galduz (txanponketa…) joan zen, printzerri independente eta feudalen garaiari ate eginez (840ko hamarkadatik aurrera hedatuko zena).

Elizaren erreforma ere bultzatzen zen, baina autore berriek dioskutenez, ez ziren Karlomagno edo bere aita (750eko hamarkadatik aurrera) izan horren asmatzaileak[7], uste zen bezala; izatez, pertsonaia horiek Elizaren ideiak aplikatu baino ez zituzten egin. Edonola ere, Elizaren legeak ziren jarraitu beharreko eredua, Erromaren eragina lortzeko (iraganarekiko lotura gisa edo Erromako boterearen laguntza lortzeko). Honela, ezkontza kristaua finkatu zen (franko eta anglosaxoien eraginez); eliz lurren jabegoa Elizari itzultzen zitzaion unea izan zen (zentsua eta hamarren-zergak ezarriz, eta aristokratek mozkin gisa mantenduz soilik); erregea *rex Dei gratia* zen, eta Eliza babestu behar zuen (frankoak ziren Jainkoaren herri aukeratu berria); elizgizonen bizitza erregulatu zen (erlijio eta latina ikas zezaten, erregularrek nahiz sekularrek); erromatar liturgia ezarri zen Pepin *Laburra*rekin 753-754 ostetik (Karlomagnok jarraitua); Eliz hierarkia berregin zen, baina, hala ere, erregeak zeresana izaten jarraituko zuen eta kontzilioak errege-jauregian egingo ziren. Erreforma hau aurrera eramateko, kultura bultzatu zen (aurrerago ikusiko dugunez). Oinarria Karlomagnok jarri zuen, batez ere, eta fruituak Luis *Errukitsua*rekin

7. Giles Brown (1994): "Introduction: the Carolingian Reinaissance" in Mckitterik, Rosamond (ed.), *Carolingian culture: emulation and innovation*, Cambrigde University Press, Cambridge, 1-51. orr.

ikusi ziren arlo horretan. Giles Brown-ek[8] Elizaren gaineko patronato-eran ikusten zuen Elizarekiko jarrera karolingiarra, erreinu hain hetereogeneoa integratzeko balio zuena, eta baita bere boterea legitimatzeko ere; indar militarrari esker, Italia eta Hispaniara —kulturalki aberatsago ziren lurretara— iritsi zen, eta Jainkoak irabaztera destinatu zituelako (erreformaren aurrera eramatearen babesaz) lortu zituen konkistak. Beraz, berpizkundea gobernuaren beharren ondorioz sortu zen.

4. KAROLINGIAR EKONOMIA, FEUDALISMORA BIDEAN

Aurreko kontzeptuetan oinarritu zen gizartea; eta baita gizartea ekonomian ere (edo ekonomia gizartean, nahiago bada).

Beti kontsideratu da hazkunde-aldia egon zela ekonomian garai honetan, merobingiar garaiarekin konparatuz. Ekonomia osoaren hazkundea VIII. mendearen bukaeran hasi omen zen[9]. Baina iritzi hori matizatu beharra dago.

Pirenne-ren ustez, gauzak ez dira horrela, bi ekonomia kontrastatu zeudela baizik[10]. Beraren ustez, VIII. mendean aurreko Antzinaroko ekonomiarekin apurtu zen, merkataritza minimoetara jaitsiz; eta lurra bihurtu zen gunea (iritzi horren aurka, dagoeneko Behe Inperioaren krisitik gertatzen ari zela esan genezake, hala ere). Dena den, Veneziarekin batera, Flandesen merkataritzari eutsi zioten, Britainiar Uharteetara espezieak eramanez eta trukean garia ekarriz, oihal flandestarren elkartrukeaz eta eskandinabiarrekin zeukaten tratuaz. Bestalde, Akisgranen kokapenak zirkulazioa areagotu zuen; eta hau guztia normandiar inbasioak gertatu arte, IX. mendearen bigarren erdian.

Baina zeinu hauek ezin dira hartu merkataritza indartsu baten iruditzat. Urrezko txanponik ez zen egiten, eta, oro har, txanponen zirkulazioa urria zen. Aitaren ereduari jarraituz, Karlomagnok urrearen balioa gutxitu egin zuen, eta zilarrean txanpondu zuen (Erdi Aroko txanpon-sistema jaio zen horrela, bizantziarraren aurrean, bi-txanpon sistema egonez), bertako merkataritza baterako zena, eta ez distantzia luzeko merkataritzarako. Erregresioagatik ezarri zuen, benetako egoera egokituz[11] (hori bai, bere balioa eta kalitatea mantentzen saiatuz); eta zergak kontrolatzearen bidez, pisu eta neurriak berdintzen saiatu zen.

Bestalde, ez da ahaztu behar interesdun maileguak galaraziak izan zirela, Eliza bitarteko izanda.

---

8. Giles Brown *op. cit*., 3. orrialdetik aurrera.

9. Minguez, Jose Mª (1991): *Las claves del Periodo Carolingio (723-879)*, Planeta, Bartzelona, 83. or. eta hurrengoak.

10. Henri Pirenne, *op. cit*., 190. or.

11. Gierson-en iritziz, Pirenne-ren iritziaren aurrean, Amancio Isla Frez-ek jasoa, in Amancio Isla Frez, (1993): *La Europa de los Carolingios*, Síntesis, Madril, 125-126. orr.

Dena den, garai hartako merkataritza bitan banatu behar da: hurbilekoa eta urrunekoa.

Judutar, veneziar edo frisoiren batzuk kenduta, ez zegoen ekialdearekin aritzen zen merkatari profesionalik. Handik iristen ziren produktu apurrak ekarriz zihardutenak, abenturazaleak edo gortea hornitzeko errege-agente hutsak ziren, edo gotzain edo monasterioren batek antolaturik (eta bidesaririk ordaindu gabe) zebiltzanak: Pirenne-ren hitzetan "hornikuntza pribilegiatua"[12] deituko genuena. Normalean Hispania atea izanik, lurrez egina zen joan-etorria, eta eskasa (balio handiko gauzak eta pisu txikikoak ziren ekartzen zirenak). Beraz, ez zegoen artisau edo merkatarien kokapen finkorik.

Hiriak ia gotorleku soilak ziren (merkataritza- eta artisautza-gune izatearen izaera galdu zuten), nahiz eta administrazio eta zirkulazio minimoa gordetzen zuten batzuek, erromatar jatorriko gotzain batzuen menpe. Nekazaritzara zuzendurik zegoen gizartea. Musulmanek Mediterraneoko ekialdea itxi zutenetik, Karlos Martel-ekin jada defentsiban zeuden; gainera, denboraz, gero eta gai gutxiago iristen ziren hirietara, zituak falta ziren, elizetarako olioa eta intzentsua. Behar militarrak asetzen ziren soilik (elizak ere zakuratuz, aberatsak eta hiriak berak).

Bigarren merkataritza-mota osatzen zutenak, herrietan egiten ziren merkatu ugariak ditugu; baina horiek eskulangintza lokalerako eta kinkilarientzako leku ziren, nekazari-produktuekin batera, batez ere. Irakurtzea eta idaztea elizgizonen esku zegoen soilik, merkatari garatuen talderik ez baitzegoen.

Nekazaritzari zegokionez, donazioen ondorioz lur asko Elizarenak ziren, eta elizgizonak nekazarien prestazioetatik bizi ziren; beste lurjabea aristokrazia laiko eta militarra zen, erregeak egindako emanaldiengatik aberastua (koroak honekin lurrak galduko zituelarik, bere sarrerak gutxituz, eta, horrekin, bere boterea). Beraz, lur-jabego handia nagusitu zen; baina merobingiarren garaian esklabuez ustiatutako erreserba edo latifundio handi baten eran zena, gutxituz joan zen.

Jabego handiak (*villae* karolingiarrak) hetereogeneoak ziren (sarri nekazari pobretuen kontura handituz), baina Frantziako ipar-mendebaldekoa da eredua: jabe handi edo ordezko *villicus* baten kontrolpean zegoena. Lanerako esklabuak gutxituz zihoazen, eta pixkanaka jabego handi horiek erreserba (*mansus dominicatus*-a, eta bertan zeuden *curtis* edo ikuilua, tailerrak, siloak eta abar) txikitu egiten zuten, eta mantsu (*mansus*) edo tenentzietan banatzen zuten, bertan menpeko nekazari libreen familiak (mantsu askea) eta esklabuen familiak (esklabu *casati*-ak mantsu *serviles*-etan) ezarriz. Honela birprodukzioa ziurtatzen zen (lan-eskuarena eta landutako produktuena). Menpeko haiek (nahiz libre izan eta batzuk alokairuan egon, morroi izan gabe) eta lurrean kokatutako esklabuak berdinduz joan ziren feudalismoaren barruan. Horiek ziren erreserba lantzen zutenak, lan-prestazioen

12. Henri Pirenne, *op. cit*., 203-204. orr.

bitartez (hori exijitzeko, jauna indartsua izan behar zen). Azkenean, denak jaunaren menpeko morroi bilakatuz joan ziren (esklabuek pertsona-izaera lortu zuten, tresna hiztuna izate hutsetik mailan igoz; bestalde, nekazariek askatasuna eta, horrekin batera, borrokatzeko eskubidea eta beste eskubideak galdu zituzten, beren egoera degradatuz).

Alemanian, aldiz, esklabuek pisu handiagoa zeukaten erreserba lantzerakoan (saxoniarrak erraz lortzen zirenez eta nekazari-komunitatea indartsua zenez, lotura tribal sakonagatik eta karolingiarren indar eskasagatik). Italian esklabu-mesnadek lantzen zuten lurra erreserban, eta mantsuak *libellarii* deitutako nekazariek (hots, askeek)— arrendamendu edo apartzeria-kontratuez lantzen zituzten, menpekotasunik gabe. Iberiar Penitsulan IX. mendera arte ez zen jabego handien sistemarik ia agertzen, eta lan-prestazioak X. mendera arte; agian, mugan izateagatik, aurrera-xeago azpimarratuko dugunez.

Jabego handi hauek bere kabuz irauten edo autoaski izaten saiatu ziren, eta hiriei administrazio-gune izateko izaera lapurtu zieten, batez ere karolingiar gainbeheran autonomia propioa hartzean aristokraten esku.

Horiez gain, une hartan nekazari independienteen taldeak agertu ziren, herri--komunitateetan (*vicus*-etan) bilduak, lehen unean askatasun handia lortuz (mundu populatuaren mugaldeko lurretan bereziki[13]: musulmanekiko mugan, baso eremuen mugan, Eki Europako lur gutxi populatuetan); baina gero, menpekotasunean eroriz joan ziren horietako asko.

Errege-patrimonioari edo jabegoari dagokionez, sarrerak hauexek ziren: fiskalitatate erromatarretik geratzen zena fosilduta zegoen, jabegoaren gaineko zerga (mantsuen gaineko zergatik kondeek herena bereganatzen zutelarik) zein pertsonen gaineko kapitazioa (*de capite*). Baina hauek ere ez ziren jasotzen leku askotan. Bestetik, osagarri ziren eta feudalismora bihurtzen zihoazen beste batzuk: *annua dona* izenekoa jaunek erregeari urtero eman beharrekoa; errege-ban edo boterearen kontra egindako lege hausturengatikako isunak; *teloneum* edo bidesariak; gerrako harrapakinak (partaideen artean banatu arren, zati bat errege-altxorrerako gordetzen zen, nahiz batzuetan erregeak Elizari ematen zion); saxoi edo bretoi menperatuen tributoak; errege-jabegoek emandako sarrera erregularrak (jana, txanponak, manufakturak); altxorra (luxuzko oihalez, bitxiz, urrez eta zilarrez… osatua), hiltzean semeen artean eta pobreei banatua. Urteroko zerga jasotzen ere saiatzen ziren, baina ez zuten lortzen. Ondorioz, lurjabea izan behar zen boterea izateko; eta altxorra eduki behar zen, noski, boterea erakusteko eta gauzatzeko era baitzen (opariak eta donazioak eginez, eta honek zekarren kontrapartida eskatzeko eran geratzeko; luzituz…)[14].

13. Pierre Bonnassie (1988): *Cataluña mil años atras (siglos X-XI)*, Peninsula, Bartzelona, 199. or.

14. Georges Duby, (1992): *Guerreros y campesinos: Desarrollo inicial de la economía europea. 500-1200*, 11. argitalpena, Siglo XXI, Madril, 63-65. orr.

Pepin eta Karlomagnoren garaian, erregeak indartsu zeuden oraindik, eta harrapakinen lurra zeukaten. Bestalde, eliz lurretatik merobingiarrek banatutakoaren arazoa gainditu zuten. Nobleei ez zieten lurra kendu (hori egitea haien fideltasuna galtzea zatekeen), eta, Elizarekin tratu ona izateko, jabegoa Elizari aitortu zitzaion (horren irudi truke gisa zentsu bat jasoz); baina nobleak ziren lur horren onuradunak. Honekin, batetik, feudalismoaren sorreraren aurrekaria ikusten da zenbait egileren ustez[15], eta bestetik, lehengo arazoak azaleratzen ziren. Ia zergarik biltzen ez zenez, lurrak esku pribatuetara pasatzen ziren, eta ez zegoen ia konkistarik. Gainera, *danegeld*-ak ordaindu behar zituzten (Karlos Burusoilaren garaitik ez erasotzearen truke normandoei egiten zitzaien sobornoa zen hori, diozesika banatua, eta merkatariei, lurjabeei eta abarri eskatua); ondorioz, aberastasuna —eta horrekin batera boterea— gutxituz zihoan erregeen eskuetan.

5. KAROLINGIAR GIZARTEA, FEUDALISMORA BIDEAN

Teorian hiru talde ziren: *oratores, bellatores* eta *laboratores*; baina praktikan, lehen biek aristokraziaren eta jabe handien taldea osatzen zuten, diferentzia "ofizioan" izango zutelarik: gerra edo liturgia (eta kultura). Baina elizgizonen artean ez zen hain argia bereizketa (gerrari zirenak ere baitzeuden). Gainera, berez, lehen banaketa askeen eta esklaboen artean zegoen.

Bestalde, aristokrazia germaniar eta erromatarra deseginez zihoan, aristokrazia berria sortuz. Hala ere, aurrekoarekiko odol-loturak nabariak ziren[16].

Nobleak produkzioaz jabetzen ziren (horrek indartsu egiten zituen) hiru bideren bitartez: produkzio bidea zen lurraz jabetuz (erregek emanda, indarrez), bere gaineko kontrol osoa lortuz edota lan-indarra (nekazariak) menperatuz eta nekazarien gainprodukzioaz jabetuz. Honek tentsioa sortu zuen nobleen presio-ahalmenaren eta nekazarien erresistentzia-ahalmenaren artean. Beraz, nobleak lurraren jabe egin ziren, hori aberastasunaren iturria izanik (txanponen zirkulazio eskasa eta zerga gutxi zeudenean). Bestalde, kanpoko erasoekin, aristokrazia militarrak ere garrantzia handiagoa lortu zuen; gainera, erregearen tokian tokiko ordezkari politikoak ziren. Lur- eta kargu-banaketa, sarri, fideltasunak lortzeko bide bakar modura izan zituen erregeak, horretarako tresna basailutzaren irudia izanik; eta honekin feudalita-tearen aurrekaria ezarri zen.

Basailutza *commendatio* zelakoaz (enkomendazioaz, alegia) egiten zen; horixe zen, gizarteko hierarkiari zentzua ematen ziona, fideltasun-modu berria. Menpeko basailuak feudoa (lehenengo, mantenua eta opariak, eta gero, sistema garatuagoa

15. Jose Mª Mínguez, *op. cit*., 18-19. orr.

16. Esan dugunez, apurketa-zale edo jarraipen-zale izatearen arabera, bati edo besteari ematen diote autoreek garrantzia; honela, Mínguez-ek apurketa azpimarratzen du, eta lotura ahazten ez duen arren, lotura biologikoa zela diosku, baina egituraz desberdina. Hala ere, Amado bezalako autoreek talde-solidaritzaz hitz egiten dute edo, gutxienean, kultur mestizajeaz.

zenean, *honor* izango zena, konde-karguaren —*beneficium*— eta jaurerriaren —lurra, *res comitatu*— esanahiaz) jasoko zuen, jaunari eskainitako laguntzaren truke (*auxilium* —laguntza militarra— eta *atque consilium* —aholkua—). Hasieran, zerbitzuaren truke jasoa zen jaurgoa edo feudoa; gero, feudoa jasotzearen truke eskaintzen zuen basailuak bere fideltasun eta zerbitzua (garai honetan sortu zen hori). Heriotzak edo bakoitzak bere betebeharrak ez betetzeak zekarten apurketa.

Erregeak indarra zuen heinean, *missi dominici* izeneko ikuskatzaileez kontrolatzen zituen kondeak (Karlomagnorekin), horiek funtzionario soilak zirelarik. Denboraz, fideltasun pribatua bihurtu zen hori ere, eta, azkenik, patrimonializatu egin zen jaurgoa, praktikan semeak heredatuz, bai lurra zein kargua. Merobingiarrekin gertatua birproduzitu zen Karlomagno hiltzean, eta bizkortu egin zen prozesua: koroa ahuldu egin zen (konkistarik gabe bere lurrak ere banatzean), eta nobleak indartu eta autonomo bihurtu ziren, IX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera batez ere. Botere ekonomikoa eta politikoa botere bakarrean identifikatu ziren, izaera zentrifugoa hartuz[17]. Ondorioz, gizarteak ez zuen dinamika bateratzailerik, eta karolingiar monarkiak egitura sendoa lortu zuen aldi batez, gerraren bidez eta elizaren lurrak nobleei ematean, aldi berean aristokrazia menpe izateak (bere fideltasuna lortzeak) indarra eman ziolarik[18].

Nekazariei dagokionez, lehenik eta behin bi talde bereizi behar dira: askeak eta esklabuak. Lehenen artean, guztiz aske zirenak (jabeak) eta menpekoak zeuden; baina, lan-prestazio eta zentsuek itota, ezin zuten merkatuan ezer saldu. Pobreak asko ziren, limosnatik biziz eta uzta-bilketan lan eginaz, gehienen aspirazioa monasterio baten babespean geratzea zelarik (haiek lurra emanez prestazioen truke, eta jaunen bortxakeriatik urruti). Erregea nekazariak babesten saiatzen zen; baina hori Karlomagnok lortu zuen soilik (indarra zuelako), eta hurrengoekin lurjabeen edo justiziaren jabeen menpe geratu ziren (feudalismoa). Honela, askatasuna galduta, libre eta ez-libreak berdinduz zihoazen; juridikoki libreak izaten jarraituko zuten, baina morrontzara degradaturik: zerbitzu militarrerako eskubidea eta batzarretan parte hartzeko eskubidea, Karlomagnorekin mugatuz zihoazen. Batzarrak (tribuen bileren aztarna zirenak[19]) kanpaina militarren aurretik egitera mugatu ziren, eta denboraz aristokrazia laiko eta eliztarraren esku geratu ziren (armamentu astunagoa ordain zezaketenen esku); borrokatzeko eskubidea izateko, hiru mantsu baino gehiago eduki beharra zegoen (batetik, pobreentzat abantaila zen hori galera handiak ekartzean, lan handiko unean faltatzean eta gastuak izatean; baina, bestetik, haien eskubideen galera zen). Hala eta guztiz ere, bazegoen, nola ez, erresistentzia, nobleei eginiko erasoak edo ihesek osatua.

17. José Mª Mínguez, *op. cit*., 71. orrialdea eta hurrengoak.
18. José Mª Mínguez, *op. cit*., 73. or.
19. José Mª Mínguez, *op. cit*., 84-85. orr.

Azkenean, Gizartea bitan banaturik zegoen: aristokrazia lurjabe handia, monopolio militarrean espezializatua (edo Jainkoarekiko bitartekari-lanean), eta nekazariak, aristokraziaren lurretan lanean (berenak galtzean) zebiltzanak, baina produkzio-bideen jabe zirenak (tresnak…). Baina garai hori trantsizio-unea zen; beraz, tarteko gizarte-talde ugari zeuden eta, bestetik, integrazio etnikoa falta zen. Hortaz, gizarte oso hetereogeneoa osatu zen orotara.

6. ERREINU KAROLINGIARRAREN EGITURA

Finkotasun eta oreka eskasa zeukan erreinuak (Karlomagnorekin Akisgranen kokatu arren, gortea ibiltaria zen, oro har), baina baieztapen hori ñabardura askorekin osa-tu beharra dago[20]. Izan ere, erregeek botere osoa zeukaten, eta merobingiar erregeen ondorengoak ziren (eta, ondorioz, erromatarrenak)[21], jarraipenzaleen hitzetan.

Palatium-a (jauregia) zen gortea eta gunea. Hor zegoen erregea. Ofizial laikoen izaera merobingiar garaikoaren berdina zen (jauregiko maiordomoaren figura izan ezik, karolingiarrekin badaezpada desagertu baitzen). *Senescal*-a (*senescalcus* edo *mensae praepositus*, hots, zerbitzari zaharra) jauregiaren janari-horniduraz arduratzen zen; botileroa (*buticularius* edo *magister pincernarum*) edari-horniduraren arduraduna zen (eskantziadore-taldearen burua); beraz, hauek errege-lurren produkzioa ere kontrolatzen zuten; kamareroa (*camerarius*) errege-gelaz eta altxorraz arduratzen zen, *sacellarii*-en laguntzaz; kondestablea (*comes stabuli*) zaldi eta garraioaren arduraduna zen, bere menpe palafreneroak (*marescalci*) zeudelarik; jauregiko kondea (*comes palatii*) jauregiko tribunalaren burua zen erregea falta zenean (goi-aristokrazia juzgatzean erregeari kontsultatu behar zion, dena den). Horiek guztiek osatzen zuten errege-etxea edo *domus regio*-a; hala ere, espezializazio-falta zegoen, eta ekintza militar eta diplomatikoez ere arduratzen ziren. Eliz dignatarioak ere baziren, gortearen erlijio beharretarako *capella* (San Martinen *cappa*-tik dator izena) osatuz, hots, *capellani*-ak. Haien burua eliz ordezkari garrantzitsu bat izan ohi zen: diplomazia-lanak egiten zituen eta *missi dominici* lanak ere. *Notarii*-ek (*cancellarius*-a buru zutela) idatzien kalitatea hobetu zuten. Ganshof egilearen arabera[22], Luis *Errukitsua*rekin audientziak garatu ziren, eta horiekin *magistri*-ak, gai desberdinei buruz arduratzen ziren magistratuak edo epaileak (*magistri ostiariorum*: audientzien erregulatzailea; *masgistri forestariorum*: izenak zioen bezala, basoen inguruko arazoez arduratzen zena…).

Hauek guztiek *consilium*-a osatzen zuten (beste partaide batzuekin batera). Batzar hori, aldakorra osaeran, arrazoi eta lekuaren arabera deitzen zen (tokian tokiko konderen bat sartuz edo) eta erregeak egiten zuen deia, gairen baten inguruan kontseilua eskatzeko.

20. Isla Frez, *op. cit*., 43. or. Autore honek ukatu egiten du Perroy bezalako egileek aipatzen duten kaos antzekoa.

21. *Idem*.

22. Ganshof-ek esana eta jasoa, in Isla Frez, *op. cit*., 45. or.

Asanblada edo batzarra (*synodus/conventus*) erreinuko handikien urteroko bilera zen, laiko nahiz eliztarrena. Urteroko kanpaina militarraren aurretik egiten zuten, eta *consensus*-a (onespena) eskatzen zuen erregeak bere erabakiak aurrera eramateko. Pepin III.arekin maiatzean egiten zen, zaldientzat nahiko zuhain izateko; baina Karlomagno bere semearekin, ekintza militarretatik bereizi zen, batzarra Akisgranen eginez.

Inperioaren administrazioa orain konderrietan (*comitatus*) zatiturik, kondeen (*comes*) menpe zegoen. Konderri haiek koiunturalki sortu ziren (Halphen-en ustez, lurralde eta populazioarekin zerikusiren bat zutela pentsatu arren). Lurraldearen hego eta mendebaldean hiriburu bat zeukan gunea zen konderria (*pagus*, alegia). Bertan kondeak defentsa-betebeharrak zeuzkan; horrez gain, zergak jaso, justizia banatu eta horietatik kopuru batekin geratzen zen. Gainera, lurrari zegozkion karguak (*ministe-rium* edo *comitatus*) eta, noski, kondeak berak bere patrimonioan zituenak gehitu behar zitzaizkion bere jabegoei. Bere ordezkoa *vicecomes*-a zen. Bere menpe, lurral-de txikiagoetan (*vicaria* eta *centena*-tan) *vicarii* edo *centenarii*-ak ziren (bikario edo zendeariak). Dukerriak ere baziren *dux* edo duke baten menpean; dukeak gutxi ziren, eta normalean mugako konderen bat izaten zen, ingurukoekiko boterea izan zezan. Mugako lurrak edo lur hartu berriak marketan (*marcha*) banatzen ziren, *comes marchae, praefectuz limitis* edo *marchio* deitutakoaren menpe (markesa); hori ere konderrietan banatzen zen, eta kondeetako bat zen burua, edo, bestela, markesa. Kondeen menpe gazteluzainak ere baziren, defentsarako gaztelu edo *castrum*-etan.

Missi dominici izenekoek, enperadorearen ordezkariek, kondeen lana ikuskatzen zuten; fideltasun-zinak eta zergak jasotzen zituzten, eta enperadorearen erabakiak jakinarazten zizkieten beste funtzionarioei (kondeei, kasu). Binaka bidaltzen ziren (eliztar bat eta laiko bat), edo hirunaka. Horretarako, komunikabideak hobetzen ere saiatu zen Karlomagno.

Konde zein *missi*-ak, oro har, austrasiar noblezian daukate jatorria; hauekin lekuan lekukoak ordezkatu zituen, eta goi-aristokraziakoak izanik, sobornoak ekiditen zituen[23] Karlomagnok, kontrola areagotzeko, autrasiarrak dinastiari lotuenak izanik. Lehengo funtzionarioen jarraipena ziren, baina erregeari basailutza eskaintzea exijitzen zitzaien. Ezaugarri publikodun fideltasuna konpromiso pribatu bihurtu zen, "paktista"[24]; eta hori, autore apurturazaleen ustez, iraultzailea zen. Basailutza tresna bihurtu zen lurrak eta funtzio politikoak lortzeko, hots, boterearen pilaketarako. Bestalde, piramide hierarkikoa osatu zen (jaun txikiak handien menpe ezarriz).

Herri bakoitzak bere legea zeukan; ondorioz epaituaren jatorri etnikoaren arabera (erromatarra, germaniarra), lege baten menpe edo bestearen menpe epaitua izaten zen. Kondeen tribunala *mallus*-a zen: kondea zen burua (edo kondearen

23. *Idem*.
24. Jose Mª Mínguez, *op. cit*., 75. or.

ordezkoa), eta laguntzaile modura *rachin burgi*-ak zeuden (Karlomagnorekin zazpi *scabini* edo *iudices*-ek ordezkatuta), guztiak ere *boni homines* edo *nobili viri*, hots, lurjabeak eta ohituren ezaguleak, baina ez bereziki legean espezializatuak. Erregea zen legea egiten zuena eta moralki boterea zuena; beraz, apelazio-epaitegia bere esku zegoen (epailea zen), eta justizia egitea garantizatzen zuen, *bannum* edo aginte- eta galerazpen-boterea izateaz gain. Horregatik saiatzen zen kondeak kontrolatzen eta legea idatziz jartzen.

Ondorio ezkorrak Karlomagno hil ostean azaldu ziren, horrek zatiketa ekarri baitzuen. Denboraldi baterako ziren karguak eta jaurgoak partimonial bihurtu ziren[25]. Konkistak geratuta, barruko errege-lurrak banatu behar izan zituzten erregeek. Gainera, nobleen arteko borrokak gertatu ziren boterearengatik, zeren erregeek, ahulezia erakutsiz, nobleen fideltasuna behar baitzuten dinastia barruko arazoak konpontzeko. Printzerri handien sorrera orduan izan zen: Bartzelonako kondeena, Tolosa eta Flandesko konderriak, Burgundia eta Proventzako erreinuak (denbora laburra iraun arren), Italiako eliz printzerriak (Modena, Parma…) eta printzerri laikoak (Toskana, Spoleto, Benevento…), Alemaniako Saxonia, Frankonia eta Bavaria… Baina prozesu hori mendebaleko Europa osoan orokorra izan zen (monarkia ahulez, Otondarren kasua edo printze txiki batzuena salbuespenak izanik: Flandes eta Bartzelonako konderriak, Akitania eta Normandiako dukerriak).

7. KAROLINGIAR KULTURA ETA ARTEA

Zibilizazio intelektualari zegokionez, frankoek latina ikasi zuten; baina VIII. mendean latina hizkuntza kultu gisa geratu zen Elizaren esku, dialekto erromantze bihurtuz herriaren ahotan. Gizartea germanizaturik zegoen, Pirenne-ren iritziz[26] (abesti germaniar zaharrak biltzen zituzten apaizak ere). G. Duby-k esan duenez, hegoaldeko Europako kultura ahuldu zutenak islamiar zibilizazioaren sarrera (Pirenne-rekin ados) eta izurriak izan ziren, gune zituzten eskualde eta hiriei eraso eginik. Aristokrazia berria sortu zen aristokrazia senatorial zaharraren ondorengoen eta aristokrazia germaniar berriaren nahasketatik, "era germaniarrak" hedatzen lagunduz (pentsaeran, konportamoldeetan eta imajinak tratatzerakoan). Baina kultura latindarrak kultura germaniarrean sortzen zuen "faszinazioa" ahaztu gabe, Inperio erromatarraren mugak gainditzean bilatzen zuten "zorionaren" eredua zen kulturak sortzen ziena, integratzea zutelarik helburu (latindar kultura bultzatuz eta, noski, kristautuz, Eliza kristauak gordetzen baitzuen kultura hori)[27].

Nahiz eta germanizaturik egon, Karlomagnoren garaian misiolari anglosaxoi ugari joan ziren erreinu frankora, eta baita Iberiar Penintsulakoak (asko musulma-

25. 877an Quercy-ko Kapitulareetan, Karlos Burusoilak promes egin zien bere kondeei, guduan hilez gero, automatikoki konde-izaera eta jaurgoa semeei igaroko zitzaiela. Erabaki edo promes hori, praktikan gertatzen zenaren errege-onespena baino ez zen.

26. Henri Pirenne, *op. cit*., 226-227. orr.

27. Georges Duby, *op. cit*., 18-20. orr.

nengandik ihesi joandako mozarabeak) eta italiarrak ere, horrela bere aitak hasitako ekimena bultzatuz. Honekin kulturaren "berpizkundea" (*renovatio*) gertatu zen, "*dark ages*" eta "berpizkunde" hitzak[28] matizatuz, beti ere.

Kristatasuna hedatuz zihoan eta latina hizkuntza sakratua zen (botere eta erlijioarena[29]). Mediterraneotik ekarritako latin garbiagoa hedatu zen, dogma ere garbituz eta erromatar errituala hedatuz. Letra-mota ere aldatu zen, asmatu ez arren, minuskula karolinoa hedatuz (argiagoa zena), VIII. mendetik aurrera liburuetan bakarrik erabiliko zena. Errege-liburutegiak garrantzitsuak izan ziren Karlomagno eta bere seme Luis Errukiatsuaren garaietan; liburuen bilketa hura jatorrizko testuen bila egiten zen (beraz, Biblia eta horren gaineko iruzkin ugari…). Eskola bultzatu zen jauregian (arte liberalak; *trivium*-a: gramatika, erretorika, dialektika; eta *quadrivium*-a: musika, aritmetika, geometria, astronomia), eztabaida intelektualak izateko eta elizgizonak prestatzeko, testu sakratuen bertsio depuratuak sor zitzaten. Etorkizunean kondeak izango zirenak eta menperatutako herrietako aristokraten semeak (bahitu-eran eramanak) ere hor hezten ziren, gero Karlomagnoren aldekoak izan zitezen.

Berpizkunde hori elizgizonen artean gertatu zen, eta ez zen iritsi herriarengana (laikoak analfabetoak ziren, erregea barne, baita Karlomagno bera ere). Aristokrataren batzuek ere ikasi zuten (Eginhardo, Nitardo, Angilberto…), baina horiek salbuespenak ziren; izan ere, burokrata gehienak Elizatik ateratzen ziren.

Intelektual garrantzitsu anitz zeuden monasterio garrantzitsuenetan, lonbardo eta anglosaxoien eskutik: Fulda, Tours, Corbie, Orleans, Saint Denis, San Wandrille, Corvey, Saint Gall, Reichenau eta Lorsch, Sena eta Weser ibaien artean. Kultura ere iparraldean zegoen. Izatez, idazle gehienak anglosaxoiak ziren: Alkuino, Eginhardo, Ermenriko, Tegan Treveris-koa; baina baziren mediterraneoarrak ere: Bertario, Montecassino-ko abadea… Bonifazio-k germaniar eliza antolatu zuen, eta Aita Santuaren eta Pepin *Laburra*ren arteko bitartekari-lanak ere egin zituen. Alkuino jauregi-eskolaren buru izan zen Karlomagnoren garaian, 782tik aurrera, eta literaturan eragin zuen.

Karolingiar ideologiaren plasmazioa edo gauzapena dugu artea. Arte aurrerromaniko edo germanikoaren artean, arte klasikoak eta bizantziarrak ere jarraitu zuten (harria erabiltzera itzuli ziren, basilika oinplanoaz eta dorreez apaindurik). Hain zuzen, 805ean konsakratutako kapera palatinoa da honen eredua (Ravena-ko San Vital famatuaren kopia zena). Miniatura-lanak ere egin zituzten, haien ekintza

28. Giles Brown-ek, *op. cit*., 44-46. orrialdeetan dioskunez, ez ziren hain ilun izan batzuk, ez hain argitsu besteak; Duby-ren arabera, Goi Erdi Aro osoa kontsideratu da "burdinaren aldi" edo "aldi ilun"; baina berak argiz betea izan zela esaten digu, karolingiar garaian agerrarazten hasiko zen hazkundearen unea sortuz baitzihoan, (Georges Duby, *op. cit*., 35 or.).

29. Janet L. Nelson (1994): "Kingship and empire in the Carolingian world", in Mckitterik, Rosamond (ed.), *Carolingian culture: emulation and innovation*, Cambrigde University Press, Cambridge, 61. or.

kulturalaren eta liburugintzaren barruan. Azkenik, marfilean erliebeak eta bitxigintza landu zituzten (germaniar arteari lotuagoa zena, azken hau). Irudi geometrikoak ziren eredu apaingarriak, oso germanikoak, baina, aldi berean, erlijio monoteisten ezaugarri. Hala ere, boterearen plasmaziorako, esanahi pedagogikoarengatik eta lurtar eta zerutarraren loturaren agerpen gisa, irudia kontserbatu zen, Goi Erdi Aro osoan bezala[30].

Tresna bat izan zen berpizkundea boterearen eskuetan, Elizatik hurbil egoteko, akulturazio eta menperaketa egiteko (bere ideologia hedatuz), eta, horrela, behar zuen barne-integrazioa lortzeko, hain jende hetereogeneoa biltzen zuenez eta boterea legitimatzen zuelako. Beraz, ez zen soilik tresna izan; boterearen beharra ere bazen berpizkunde hura, Eliza kristauari loturik beti ere[31]. Monasterioei esker gorde zen kulturaren eta hezkuntzaren oinarria Erdi Aroan zehar, zeren, politika-aldaketak egon arren, kultura mantendu egin baitzen gutxi gorabehera ondorengo mendeetan[32].

8. ONDORIOAK

Aurrekarien bideari jarraituz, aldiaren loraldia Karlomagno eta Luis *Errukitsua*ren garaian izan zen, gero gainbehera etorriz, oro har[33]: merobingiarrekin agertutakoen antzeko kontradikzioak agerian geratzean, errege boteretsuenen indarra galdu egin zen (anakronikoa zen, eta praktikoa zen bitartean iraun zuen soilik, Boussard-en hitzetan[34]). Dena den, esan bezala, Pepin *Laburra* izan zen batez ere Karlomagno hain famatu egin zuten ekintzen eta ezaugarrien sortzailea (edo, gutxienez, aurrekaria).

Gizarteko mailen fideltasuna paktu pribatuetan oinarritu zen (feudalismoaren aurrekaria zena). Honela, lehenengo, erregea piramidearen buru zen, eta gero, aristokraziak —erromatar senatoreen eta germaniar tribuetakoen ondorengoen elkarketatik sortua— bere kabuz autonomia lortuta, feudalismoaren lehen pausoak eman ziren, nekazarien menperaketa gauzatuz, hain zuzen ere, erromatar garaitik zetozen esklabuen (dekadentzian zeudenak) eta libre zirenen (dekadentzian hauek ere, eta botere-falta horretatik sortuak asko) arteko desberdintasuna desagertuz pixkanaka.

Transizio-unea izan zen hori. Apurketazaleen eta jarraipenzaleen tesiak nolabait uztartuz, batetik aldaketak sortzen ari ziren etorkizunerako oinarria ezarriz, eta, bestetik, jarraipena ere gertatu zen ezaugarri zaharrei eutsiz: batzuk desagertuz

30. Georges Duby, *op. cit*., 22. or.

31. Giles Brown, *op. cit*., 44-46. orr.

32. Rosamond Mckitterick (1994): "Conclusions", in Mckitterik, Rosamond (ed.), *Carolingian culture: emulation and innovation*, Cambrigde University Press, Cambridge, 317-323. orr.

33. Berez, kulturaren loraldiak Karlos Burusoila ondorengoarekin eta bere aristokrazia eta apezpikuekin ere (talde bereko partaide zirenak) jarraitu egin zuen arren, Georges Duby-k dioenez, *op. cit*., 31. or.

34. Jacques Boussard (1968): *La civilización carolingia*, Guadarrama, Madril, 118. or.

zihoazen, eta beste batzuk —Antzinaroko autoreen miresmena kasu— mantendu egin ziren eta ezaugarri karakteristikoak izan ziren Erdi Aro osoan zehar (ikuspegiak aldatu arren, autore kristauei begiratuz soilik, edo klasiko paganoei ere).

Azken ikerketak aristokrazia "berria" eta "zaharra" lotzen zituzten odol-, kultura- edo gizarte-solidaritzak aztertzen ari dira (C. Amado, R. McKitterick) ikerketa prosopografikoen bidez (biografia kolektibo baten antzera). Bestetik, ikerketa antropologikoak ere egiten ari dira, bizi-itxaropenaren inguruan adibidez. Edo Bonnassie-ren inguruko metodologiatik abiatuz beste hainbat arlo aztertuz, hala nola nekazaritzaren garapena eta lurren okupazioa, eliza proto-parrokialen sarearen sorrera (erlijioaren *incastillamento*-a, hau da, elizen inguruan biltzea nekazari-komunitatea), edo egitura feudalekiko harremana (Brunet, Baudren...). Berpizkundea bera ukatzen —edo, behintzat, matizatzen— ere ari dira autore batzuk (Mckitterick-en zirkulua), kulturaren ezaugarriak aztertuz.

Karlomagnok botereari indartsu eustea lortu zuen, Elizaren laguntzarekin. Kultura bultzatu zuen, Elizaren erreformaren barruan kristautasuna jatorrizkoa eta benetakoa izan zedin, bere betebehar morala zenez, Elizaren babesle izanik. Berpizkunde kulturala, esan bezala, erreinua indartzeko tresna izan zen baita ere, erromatar legatua frankoen egoerara moldatuz eta Erdi Aroari atea irekiz[35]; Elizarekin bat egitearen ondorioa zen, boterea eta ekintza militarrak zuritzeko balio ziena, baina baita ere herri paganoak errazago menperatzeko, kristau egin ostean[36].

Mito bihurtu zen *Carolus Magnus* eta etorkizuneko erregeen eredu (enperadore-eredua), Arturo erregearekin batera —Erdi Aroko kondaira nagusiena— jarraitu beharrekoa eta ispilua. Hala ere, dekadentzian erori ziren karolingiarrak beraren ostean, eta ez dezagun ahaztu beraren aita izan zela honen guztiaren aitzindari. Baina historiak beti begiratuko dio Karlomagnori.

9. GEHIGARRIAK

a) Bibliografia

Asimov, I. (1988): *La Alta Edad Media*, Alianza, Madril.

Balard, M.; Genet, J. P.; Rouche, M. (1994): *De los bárbaros al Renacimiento*, Akal, Madril.

Bonnassie, P. (1988): *Cataluña mil años atrás (siglos X-XI)*, Península, Bartzelona.

————————, (1993): *Del esclavismo al feudalismo en Europa occidental*, Crítica, Bartzelona.

35. Renée Mussot-Goulard (1986): *Carlomagno*, Mexico, Fondo de Cultura Económica, 151. orrialdea eta hurrengoak.

36. Georges Duby, *op. cit*., 26-27. orr.

————————, (1994): *Erdi Aroko historiarako berrogeitamar hitz nagusi*, Gaiak, Donostia

Boussard, J. (1968): *La civilización carolingia*, Guadarrama, Madril.

Brunel, G.; Lalou, E. (1992): *Sources d'historie médiévale: IXe milieu du XIVe siécle*, Larousse, Paris.

Chedeville, A. (1985): *La France au Moyen Age*, Presses Universitaires de France, Paris.

————————, (1988): *Coloquio sobre la circulación de manuscritos en la Península Ibérica durante los siglos VIII al XIII*, Universidad de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela.

Contreni, J. J. (1992): *Carolingian Learning, Masters and Manuscripts*, Variorum, Adershot (Bretainia Handia).

Devroey, J.-P. (1993): *Etudes sur le grand domaine carolingien*, Variorum, London.

Doehaerd, R. (1984): *Occidente durante la alta Edad Media. Economías y sociedades*, Labor Nueva Clío, Bartzelona.

Dopsch, A. (1951): *Fundamentos económicos y sociales de la cultura europea: de César a Carlomagno*, Fondo de Cultura Económica, Mexico.

Duby, G. (1992): *Guerreros y campesinos: Desarrollo inicial de la economía europea. 500-1200*, 11. argitalpena, Siglo XXI, Madril.

————————, (1998): *Arte y sociedad en la Edad Media*, Taurus de bolsillo, Madril.

Einhardus, (1986): *Vida de Carlomagno*, Riquer, A. (ed.), Promociones y Publicaciones Universitarias, Bartzelona.

Fortun Perez de Ciriza, L.; Jusue Simonena, C. (1993): *Historia de Navarra I: Antigüedad y Alta Edad Media*, Temas de Navarra 7, Gobierno de Navarra, Iruñea.

Garcia de Cortazar, J. A.; Sesma Muñoz, J. A. (1998): *Historia de la Edad Media: una síntesis interpretativa*, Alianza, Madril.

Gombrich, E. (1990): *Historia del Arte*, Alianza Forma, Madril.

Halpehn, L. (1968): *Charlemagne et l'empire carolingien*, Albin Michel, Paris.

Isla Frez, A. (1993): *La Europa de los Carolingios*, Síntesis, (testu aukeratuak ditu), Madril.

Kinder, H.; Hilgemann, W. (1990): *Atlas Histórico Mundial I*, 15. ed., Istmo, (mapak), Madril.

Kleinclausz, A. (1977): *Charlemagne*, Jules Tallandier, Paris.

Ladero Quesada, M. A. (1992): *Historia Universal volumen II: Edad Media*, 2. argitalpena, Vicens Vives, Bartzelona.

Larrañaga, K. (1992): *Euskal Herria antzinate berantiarrean eta lehen ertaroan: materiale eta agiriak*, Euskal HerriKo Unibertsitatea, (testuak euskaraz), Leioa.

Lomas, F.; Devis, F. (1992): *De Constantino a Carlomagno: disidentes, heterodoxos, marginados*, Universidad de Cádiz, Cadiz.

Lyon, B. (1987): *Carlomagno y Mahoma*, Encuentro, Madril.
Macdonald, F.; James, J. (1992): *En Francia con Carlomagno*, Anaya, Madril.
McKitterick, R. (ed.) (1994): *Carolingian Culture: Emulation and Innovation*, Cambridge University Press, Cambridge.
————, (1995): *The New Cambridge Medieval History vol. II: c. 700 - c. 900*, Cambridge University Press, Cambridge.
Mussot-Goulard, R. (1986): *Carlomagno*, Fondo de Cultura Económica, Mexico.
Pirenne, H. (1978): *Mahoma y Carlomagno*, Alianza Universidad, Madril.

b) Oinarrizko kronologia

732 "Poitiers-ko gudua", zeinetan Karlos Martel-ek islamdarrak menperatu zituen (harrez gero ez zirelarik hain iparraldera itzuli).

752 Pepin III.a *Laburra*, Pepin I.a errege bihurtu zen, Txilderiko III.a azken errege merobingiarra tronutik kenduta.

768 Pepin *Laburra* hil zen, ondorengotzan Karlos (geroko Karlomagno, Karlos "Handia") eta Karloman bere semeak utziz.

771 Karloman hil zen, Karlomagno errege bakar gisa geratuz.

778 Orreagako gudua.

780 Alkuino York-ekoa, Karlomagnoren gortera iritsi zen.

795 Leon III.a Aita Santua.

799 Leon III.a Erromatik bidalia eta Karlomagnok berrezarria.

800 Leon III.ak Karlomagno enperadore izendatu zuen.

812 Mikel I.a enperadore bizantziarrak enperadoretzat onartu zuen Karlomagno.

814 Karlomagnoren heriotza. Luis I.a *Errukitsua*k jarraitu zion.

816 Esteban Aita Santuak enperadore egin zuen Luis I.a.

840 Luis *Errukitsua* hil eta semeen artean banatu ziren karguak: Lotario I.a, enperadorea; Luis Germaniarra, ekialdeko zatiaren erregea; Karlos Burusoila, mendebaldeko zatiaren erregea.

842 “Strasburg-eko Zinegitea”, zeinean frantses eta alemanaren jaiotzea gertatu zen dokumentazioan. Horrek Fontenoy-ko bataila eragin zuen.

843 “Verdun-go Hitzarmena”: Frantzia eta Alemania bereizi zituzten anaiek (Karlos Burusoilaren eta Luis Germaniarraren artean).

845 Musulmanen harrapaketez gain bikingoenak hasi ziren.

855 Lotario I.ak abdikatzean, Italian zegoen semearentzat — Luis II.a— izan zen inperioa (bere anaia Lotario II.ak zeukan Lotaringia —Lorena—).

870 Lotario II.a 869an hilda, Lotaringia Karlos Burusoilaren eta Luis Germaniarraren artean banatu zuten.

875 Luis II.a enperadorea hiltzean, Karlos Burusoila egin zuen enperadore Joan VIII.a Aita Santuak.

876 Luis Germaniarra hil zen, bere ordez Karloman semea geratuz.

877 Karlos Burusoila hil zen, Luis II.a Totela semeak jarraituz.

879 Luis II.a Totela hil zen, Luis III.a semeak ordezkatuz.

880 Karloman hil zen, Italiako erregetza bere anaia Karlos Lodiak hartuz.

884 Karlos Lodia franko guztien errege.

887 885ean bikingoek Paris inguratu ostean, Karlos Lodia kanporatu eta ordutik aurrera zatituta egon zen erreinua.

987 Luis V.a hil zen, azken errege karolingiarra. Hugo Kapeto Frantzia-ko (frankoen mendebaldeko zatiko) errege izendatu zuten.

c) Feudalismoari buruzko oinarrizko hiztegia

alodioa: nekazari libreen jabegoa, askea eta inoren menpe ez zegoena.

ban* / *bann edo ***imperium***-a: tribu germaniarren buruzagiaren agintzeko boterea, erregeen behartzeko eta debekatzeko botere bihurtu zena.

bidesaria (***telloneum***, *peaje*): bide bat gurutzatzeagatik jaun batzuek eska zezaketen zerga da; antzekoak ziren zubiak gurutzatzeagatik edo hirietako ateak gurutzatzeagatik eska zitezkeenak ere (*pontazgo*, *pontaje*; *portazgo*); zirkulazio-baimena zen, aitzakia gisa babesaren eta eraikuntzaren truke eskatzen zena.

erreserba: jabego handi batean, jaunak zuzenean ustiatzen zuen zatia (edo *villicus*, ordezkari batekin). Horretarako, esklabuak erabiltzen zituen; eta, Goi Erdi Aroa aurrera joan ahala, menpeko nekazariak, lan-prestazioen bidez.

esklabu kasatiak (***servi casati***): esklabuak izan arren, jabeak lur-zati batean kokatzen zituen bere familiarekin, lur hori beren kontura landu zezaten (produkzioaren zati bat eskatuz), baina birprodukzioa beren kontura izanik (mantenua…).

exentzioa eta **inmunizazioa**: exentzioa instituzio bati edo norbaiti botereak ematen zion abantaila bat zen, zerga bat ez ordaintzeko. Inmunea, zerga baten ordainketak egin behar ez zituena zen.

feudalismoa (zentzu zabalean): produkzio-sistema bat, zeinean nobleak, indarra erabiliz, nekazarien gainprodukzioaz jabetzen ziren, baina extraekonomikoki (hots, produkzioan zuzenki parte hartu gabe, nekazaria produkzio indar eta bideen jabea baitzen; hortaz, zergekin, lan-prestazioekin eta beste ohitura txarrekin).

feudalitatea (feudalismoa, zentzu hertsian): basailutza eta enkomendazioaren bidez gizartean sortzen ziren harremanak, hierarkia bat osatuz.

gizarte-talde edo ***ordo***-ak (*oratores, bellatores, laboratores*): gizartea osatzen zuten taldeak, Erdi Aroko ideien arabera (Alkuino eta gero Adalberon Laon-goa izan zen formulatu zituena), lehenak —*oratores*— espirituaren zaindariak ziren eta, beraz, inportanteenak; bigarrenek —*bellatores*— defentsa militarra egin behar zuten; eta hirugarrenek —*laboratores* edo nekazariak— lurra landu eta babesten zuten, aurreko bi taldeak mantentzeko.

hamarrena (*diezmo*): Elizak nekazari-munduan produzitutako edozein uztatatik (zitu, abere,…) eskatzen zuen zerga, produkzio totalaren hamarretik bat zena.

iuniores: nekazari askeei ematen zitzaien izenetako bat.

Jainkoaren Bakea: X. mendearen bukaeran sortu zen (karolingiar garaian sustraiak izan arren) eta horrek esan nahi zuen, eliza eta bere inguruko lur-zatian babesa hartzen zuen pertsona ezin zutela erasotu gerrako jaunek; aldi batzuetako bakealdiekin ere osatu zen, Jainkoaren Tregoa izenaz.

jauna (*dominus, senior*): basailutzaren loturan, menpekoarekiko nagusia zena, menpekoari mantenua eta babesa emanez, fideltasun eta laguntzaren truke.

jaurerria: jaun baten menpe zegoen lurra (bere jaurgoaren parte izanik).

jaurgoa (*feudum*): zerbitzu baten truke soldata modura sortu zen, eta basailutza eskaintzearen truke jasotzen zen eskubidea edo jabegoa zen (jaunak menpekoari emana, fideltasun-zinaren truke). Bi motatakoak ziren:

- jaurgo territoriala edo lurralde-jaurgoa: lurralde bat eskaintzen zitzaion.
- jaurgo jurisdikzionala: lurralde baten gaineko epaiketa-eskubidea eskaintzen zitzaion.

Dena den, denborarekin jatorrian izan zuten izaera galduz joan ziren eta nahastu egin ziren mota biak, jurisdikzioa jaso zuenak lurrarekiko jabegoa balu bezala jokatuz, eta alderantziz.

lan-prestazioak (*corbea*, *serna*): menpeko nekazariek jaunaren erreserban egin beharrekoak, haren lurretan mantsu bat izateagatik tenentzian: lurra landu, garraio-lanak, konponketa-lanak eraikinetan…

mantsua (*mansum*): jaunak menpeko nekazariei uzten zien tenentzia, —lur zatia landu zezaten, jabegoa jaunarena baitzen—, zentsu bat eta, zenbait kasutan, lan-prestazioak ere eskatuz trukean edo beste zerga batzuk (mantsu *injenuo* edo askea nekazari aske baten esku zegoen, eta *serbila* esklabu —*casati*— baten menpe, teorian behintzat; gero, nahastuz joan zen dena).

menpekoa / basailua (*vassus*): Jaun baten menpe enkomendatuta zegoena, basailutzako irudi eta erritualarekin, fideltasun eta laguntzaren truke (normalean laguntza militarra edo kontseilua, *auxilium et consilium*) mantenua eta babesa lortzen zituen.

morroia —jopua, serbua— (*servus; mancipia; praebendarii*): jaun baten menpe zegoen nekazaria, juridikoki librea zena berez, baina sarri, lurrari lotuta zegoena, askatasunak mugaturik, lan-prestazio eta zentsu eta zerga batzuen ordainketarekin.

usadio txarrak (*malos usos*): jaun batek bere menpeko nekazariei beharturik ezartzen zizkien zenbait zerga eta eskubide, berez legezkoak ez zirenak (ogia jaunaren labean egostera behartu eta horregatik kobratu, lan-prestazioak emanarazi…).

servus: esklabua eta morroia kronologikoki bereizten dira; izatez, oso izaera desberdinak ziren maila juridikoaren arabera (bata librea zen eta bestea ez); baina izendapen bera jaso zuten. Beraz, puntu hau kontuz ikusi beharrekoa da dokumentazioan.

zalduneria (*milites*): berez, borroka zaldiz egiten zutenak ziren —*caballarius*—, denboraz *milites* (edozein eratako borrokalaria) kontzeptua bereganatu zutelarik, borrokatzeko era garrantzitsuena zelako.

zentsua (*censum*): menpeko batek bere jaunari ordaintzen zion zerga, lurra ustiatzearen truke.

(argitasun gehiagotarako, ikus Pierre Bonnassie-ren hiztegia)

Eskerrak emanez: Ez nuke ahaztu nahi Nora Igartua Ugarte-ri eskerrak ematea, lan honetan bibliografia-oharrak emanez eta gaiaren ikerketa-lerroak nondik nora zebiltzan laburtuz lagundu zidalako. Laguntza hori gabe zailagoa egingo zitzai-dan garaiko egoerari buruzko laburpen txiki hau, bera baita garai honen ezagule zuzenagoa. Ez nituzke ahaztu nahi, ezta ere, zuzenketak egiten lagundu didaten beste batzuk ere: Karmele Artetxe Sanchez eta Jurgi Kintana; edo neure aita, kasu.

Iruñeko erresumaren sorrera (VIII. mendetik X. mendera arte): interpretazioaren bila

José Ángel Lema Pueyo

1. SARRERA: GAIA HISTORIOGRAFIAREN AURREAN

Lantxo hau aurkezterakoan, egoki iritzi diogu geure helburuak azaltzeari. Iruñeko erresumaren sorrera prozesu historiko baten ondorioa edo emaitza izan zen. Nola sintetizatu aztergai honetaz dakiguna? Galderari erantzun ahal izateko lehen pausoa, egindako ekarpen historiografikoak iruzkintzea litzateke.

Mende honetako historiografiara mugaturik, egile bat izango da gure abiapuntua: José María Lacarra, hain zuzen. Berak egindako lanek Erdi Aroko Nafarroako historia ezagutzen lagundu digute, gertakizun politikoak —askotan ondo dataturik ez zeudenak— ez ezik, beste zenbait alderdi ere argituz: erresumako hiribilduen sorrera eta hasierako garapena, XI eta XII. mendeetan kristau eta musulmanen arteko harremanak, frantsesen inmigrazioa eta abar. Interesatzen zaigun garairako, Lacarra-ren bi lan aipatzea merezi du. Lehena *Textos navarros del Códice de Roda* izeneko artikulua da, IX eta X. mendeetako subirano eta printze nafarren genealogiak azaltzen dituena, eta bigarrena, bere *Historia política del reino de Navarra* (1973). Obra honen lehen ataletan, Iruñeko erresumaren sorrera eta lehen garapena argitzen dira, eta funtsezko oinarria izan da geroago ageri ziren sintesi- eta dibulgazio-lan askotarako. Lacarra-ren ahaleginek eta, aldi berean, argibide berria agertzen zuten kronika musulmanen edizio eta itzulpenek bultzatu zituzten ikerketak. Nafarroako Unibertsitatean Ángel J. Martin Duque izan da Lacarra-ren jarratzailerik garrantzitsuena. Oso interesgarriak —batzuetan eztabaidagarriak ere bai— dira Iruñeko monarkiaren ideologiari buruz egin zituen hausnarketak. Aldi berean, historialari nafarren artean, gogoragarriak dira Alberto Cañada Juste-ren ekarpenak (Banukasitarrei edo 924. urteko kanpaina musulmanari buruzkoak, adibidez). Arkeologiaren arlotik, Carmen Jusue-ri esker, hobeto ezagutzen da Goi Erdi Aroko Nafarroako landa-populaketa.

Iruñeko erresumaren sorrerak Nafarroatik at ere interes handia piztu du. Helburu polemiko —eta politiko— batekin, Claudio Sánchez Albornoz-ek zenbait lan eta artikulu bildu zituen *Orígenes del reino de Navarra y su vinculación con el valle del Ebro* liburuan. Orain hiru urte, Juan José Larrea EHUko iraskaleak bere dokto-

rego-tesia, *La Navarre du IV^e au XII^e siècle*, argitaratu zuen. Baliagarria da liburua, ikuspuntu eta kezka berriak azaltzen dituen heinean. Gaur egun, ezinbesteko obra dugu Goi Erdi Aroko Nafarroako populaketa-sareak, gizarte-egitura eta Iruñeko monarkiaren oinarri ekonomikoa aztertzeko[1].

Esandakoa kontuan harturik, sintesia egiten saiatuko gara ondoko lerroetan. Ezin dugu narrazio politikoa —ikusi dugun bezala tradizionalki landua izan dena— alde batera utzi, baina gertaera politiko eta belikoen berri ematea ez da nahikoa. Lan honen izenburuak berak dioenez, X. menderako, erresuma berri bat osatu zen Iruñeko lurretan, geroago, XII. mendetik aitzina, *Nafarroako erresuma* izen ofiziala hartuko zuena. Zer nolako ezaugarriak zituen monarkia hark? Antolamendu politiko edo —Erdi Arorako hitz anakronikoegia ez bada— "estatu" baten atzean gizarte-eredu bat agertu zen. Gizarte hori zen boterearen oinarria, eta botereak bere iraupena segurtatzeko ahaleginak egin zituen. Nolakoa zen gizarte hori? Arazo hauek argitzen arituko gara. Azkenean, irakurleak erabakiko du zer neurritan bete dituen sintesi honek bere helburuak.

2. IRUÑEA ETA INGURUKO LURRAK VIII. MENDEAREN HASIERAN

Konkista musulmana gure lanaren abiapuntua da; VIII. mendean arabiarrak eta berbereak Iruñeko inguruetara iristean, zer egoera topatu zuten? Oraintsu arte pentsatu den ez bezala, bere berezitasun etnografiko eta kulturalak gorabehera, lurralde horiek Toledoko erresumaren partea izan bide ziren. Bisigodoak Inperio Berantiarreko erregimena luzatzen eta iraunarazten saiatu ziren, antzinako gizartea krisialdian zegoenean. Ondorioak larriak izan ziren: monarkiaren gastuak sostengatzeko biztanleriak zerga-sistema zapaltzailea jasan behar izan zuen, nekazari libre asko zorpetuz eta pobretuz. Gauzak korapilatzeko, ezegonkortasun politikoak eta etengabeko gerrek krisialdia areagotu zuten. Emaitzak erraz asmatzekoak dira: goseteak eta despopulaketak. Egoera ezin ilunago horretan, gizarte-gatazka saihestezina zen. Gehienetan, biztanleriaren egonezina bidelapurren ekintzek adierazten digute, baina batzuetan egonezina eta protesta soziala monarkia bisigodoaren aurkako erronka bihurtu ziren. Horrela ulertu beharko genituzke *bagaudak* deituriko mugimenduak. Dirudienez, matxinada horiek hemen, Iruñeko lurretan, beste inon baino goiztiarragoak eta iraunkorragoak izan ziren.

Errege bisigodoek beste oztopo bat aurkitu zuten: tokiko aristokrazia, Iruñeko apezpiku-egoitzaren inguruan antolatuta zegoena. Aristokrazia horrek *Tarraconensis* eta *Narbonensis* probintzietako nobleziarekin batera parte hartu zuen errebolta eta altxamendu politikoetan (672-673. urteetan, adibidez, gauzak horrela gertatu

1. Lan hau ez luzatzeagatik, nahiago izan dut hemen aipatutako liburu eta artikuluen argitalpen-datuak hurrengo oharretan eta bibliografia-zerrendan aurkeztea.

zirela susma daiteke), maiz Toledoko aginpidetzatik askatzeko asmotan. Saialdi horietan, noiz-behinka legez kanpoko taldeekin —aipatu *bidelapur* edo *erreboltariekin*[2]— aliatu zen aristokrazia baskoia. Beste askotan, koroaren ondorengotzak ekarritako gerra zibiletan nahastu zen, erregegai baten alde jokatuz[3].

Testuinguru horretan gertatu zen musulmanen etorrera. Witiza errege bisigodoa hildakoan, lehenago behin eta berriro gertatu zen eran, gerra zibila piztu zen. Aristokrata-talde batek Rodrigo —Betikako dukea— aukeratu zuen errege, antza; *Tarraconensis* probintziako nobleziak, ordea, Akila —Witiza-ren semeetako bat— aldarrikatu zuen, monarka izan zedin. Gertakizunek adierazten dutenez, aristokrazia baskoia ere aritu zen Akila-ren jarratzaileen artean. Rodrigo-ren lehen erabakia Iruñeko lurrak erasotzea izan zen; eta 711an, bertan borrokatzen ari zelarik, musulmanak, Witiza-ren semeei laguntzeko asmotan, Penintsulan lehorreratu berriak zirelako albistea heldu zitzaion[4]. Badakigu zer agituko zen gero…

3. MUSULMANEN ERAGINA: DAMASKO, KORDOBA ETA BANUKASITARRAK

Konkistaren ondorioz, gaurko Nafarroa eta bere inguruetako lurrak bi zatitan banatu ziren: alde batetik, Iruñeko distritua; beste aldetik, Ebroko Erribera eta Ejea hiria. Arabiarrak Penintsulara iristean, bigarren alde hori, Kasio konde bisigodoaren babespean zegoen. Zirkunstantzia politikoek egoera korapilatsua sorrarazi zuten. Kasio Islamera konbertitzearekin batera (714 edo 715ean), legez, Damaskoko kalifa omeiatarrekiko menpekotasuna onartu zuen, eta, teorian behintzat, kalifaren izenean gobernatu behar zituen aipatutako lurrak. Izatez, Kasio-k eta bere ondorengoek aukera guztiei heldu zieten, lehenik Damaskorekiko autonomia sendotzeko, eta gero Kordobarekikoa[5].

Iruñeak ere men egin behar izan zien inbaditzaileei 718. urte inguruan. Susmatzekoa da, musulmanen eta iruindarren arteko ituna edo konpromisoa hitzartua izan zela orduan. Akordioaren arabera, zergak ordaintzearen truke, iruindarrek beren agintariak, ondasunak eta erlijioa mantendu ahal izan zituzten, Islamaren

2 Garai horretako kronikak irakurrita, garbi dago bi hitz horien arteko esanahi-ezberdintasuna oso txikia dela.

3 Ik. Juan José Larrea (1998): *La Navarre du IVe au XIIe siècle: Peuplement et société*, Paris-Bruxelles, 134-160. orr.

4. Rodrigoren kanpainaren interpretazio honetarako, ikus Ángel J. Martín Duque (1987): "Horizontes de la investigación en historia altomedieval navarra", in *Primer Congreso General de Historia de Navarra. I. Ponencias*, Iruñea, 132. or. Egile berarena, (1986): "Tardoantigüedad", in *Gran Atlas de Navarra*, 33. or.; aipatutako lanean, Larrea-k jarraitzen dio (158-159. orr.).

5. Ik. Alberto Cañada Juste (1980): "Los Banu Qasi (714-924)", *Príncipe de Viana*, **41**, 6-7. orr. Kronika musulmanen arabera, Kasio kondeak al-Walid kalifari menpekotasuna aitortzera bidaiatu zuen Damaskora.

babespean[6]. Hala ere, botere berria ahula zen eta urruntasunak (Iruñeko inguruak oso egoera periferikoan zeuden Damaskoko gobernarientzat) larriagotu egiten zuen ahulezia. Zirkunstantzia horiek erresistentziaren alde jokatzen zuten. Poitiers-ko guduak (732an) bultzatu ote zuen erresistentziarako joera? Horrela izan zenentz ez dakigu zehazki, baina egia da islamiarrek Iruñearen kontrola galdu zutela eta Ukba *vali*ak (734-741) hiria berriro okupatu eta goarnizioa ezarri behar izan zuela. Gertaerek frogatuko zutenez, okupazio musulman hori alferrikakoa izango zen, VIII. mendearen erdian (756) aurkaritza eta matxinada piztuko baitziren berriro.

Denbora igaro ahala, gauzak korapilatuz joan ziren, Abd ar-Rahman I.ak (756-788) Kordoban Emirrerria fundatu zuenetik, batik bat. Horrela, Al-Andalusek Damaskorekiko menpekotasuna eten zuen. Erregimen berria egonkorrago suertatu zen, eta Iruñetik askoz hurbilago zegoen. Horregatik, hurrengo hamarkadetan agintari musulmanen eragina eta itzala zabaltzekoak ziren. Banukasitarrek, bitartean, batzuetan iruindarrekin aliatuz, beste batzuetan Kordobako subiranoaren laguntza bilatuz (dinastia horren estrategia politikoa ez zen inoiz sinplea izan), Ebroko arroan finkatu zuten beren boterea, eta benetako "estatu" autonomo bat eratu zuten Nafarroako hegoaldean, Errioxan eta Tarazonan.

4. KAROLINGIOEN ITZALA. ORREAGA: GESTA BATEN OIHARTZUNA

Baina musulmanekiko harremanez gain, beste elementu batzuk ere badira kontuan hartzekoak. Izan ere, Pirinioen beste aldetik frankoen eragina iritsi zen *baskoien* lurraldeetara. Hiru aldiz nabarmentzen dugu garbi Frantziatik etorritako eragin hori. Lehena VIII. mendearen azken hamarkadetan koka daiteke. Pepin *Laburra*-ren garaitik aurrera, frankoek beren boterea indartu eta Akitanian inposatu zuten (760-768). Pepinen ondorengoek —dinastia karolingiokoek— hedapen-prozesua jarraituko zuten. Emirerrian izandako sator-lan batek eman zion Karlomagnori, Pepinen semeari, Pirinioetatik hegoaldera esku hartzeko aukera. Xehetasunak ezagunak dira: Zaragozako gobernadoreak, Sulaiman-ek, matxinada bat prestatu zuen Kordobako emirraren kontra, eta frankoen laguntza militarra eskatu zuen (horretarako enbaxada bidalia izan zen Alemaniako Paderborn hirira, 777an). Ebroko hiriko gobernariak Zaragozako giltzak eskaini zizkion Karlomagnori karolingioen partaidetzaren truke. Kanpainarako prestatu zen armadak Zaragozarako bidaia egin zuen, baina ezin izan zen hirian sartu, Sulaiman-en ordezkariak frankoei ateak ixteko agindu baitzuen. Itzuleran, Karlomagnok, baskoiekiko mesfidantzak eraginda, Iruñeko harresiak suntsiarazi zituen. Mendekua etortzekoa zen. Ibañeta ondoan, kokatzea zaila den leku batean, segada jasan zuen erretagoardiak 778.

6. Martín Duque-k *protectorado tributario* hitzekin definitzen du egoera politiko berria: ik. (1999): "Imagen histórica medieval de Navarra: Un bosquejo", *Príncipe de Viana*, **217**, 429. orr.; eta (1999): "Nobleza navarra altomedieval", in *La Nobleza Peninsular en la Edad Media*, Ávila, 231. or.

urtean. Eginardo-k, Karlomagnoren kronista ofizialak, eman zigun gertaeraren berri *Vita Karoli* lanean:

> Saxoien aurka sarritan eta ia etengabe borrokatu bitartean, bere mugetako leku egokietan goarnizioak jarri ostean, ahalik eta armada handienarekin erasotu zuen Espainia. Pirinioetako oztopoa gaindituta, bere bidean aurkitu zituen gaztelu eta gotorlekuek men egin zioten. Esan daiteke bere armada ia inolako kalterik jasotzeke bueltatu zela, zenbait arazo salbu. Izan ere, itzuleran, baskoien gaiztakeria eta traizioa nozitu zituen. Lekuaren estutasunagatik armada ilara luzeetan zebilelarik, baskoiek mendi-tontorrean segada bat prestatu zioten, bertako baso itxiak eta ugariak zirela medio, tokia ezin aproposagoa baitzen segadak prestatzeko. Baskoiek, bidera azkar eta lasterka jaitsita, fardeleria zeraman erretagoardia eta armadaren zati handienaren atzeraegitea babesten zuten gerrariak erasotu zituzten, eta, borrokan hasita, guzti-guztiak akabatu. Gero, ekipaiak eta fardelak hartutakoan, arratsean, iluntasunaren babespean, sakabanatu egin ziren. Beren arma arinek eta lur horien ezaugarri menditsuek jokatzen zuten baskoien alde; frankoak, ordea, arma astunez eta gaizki kokaturik borrokatzen zirenak, egoera txarragoan zeuden. Guda horretan, Egiardo, errege-seneskala, Anselmo, jauregiko kondea, eta Rolando, Bretainiako markako dukea, hil ziren beste askorekin batera. Ezinezkoa suertatu zen galera hori mendekatzea, erasoa egin ondoan, etsaia sakabanatu baitzen. Ondorioz, munduko zer partetan zegoen jakiteko inolako biderik ez zen[7].

Segidan, Kordobako emirrak Pirinioetako kristau lurraldeak bere kontrolpean jarri zituen berriro, eta Iruñean goarnizioa sartu. Porrota gorabehera, frankoek ez zuten etsi beren ahaleginetan. Izan ere, kolaboratzaileak tokiko aristokraziaren artean bilatu zituzten: Belaskotarren familia, hain zuzen. Baina karolingioen eta tokiko jarraitzaileen kontra beste leinu eragingarri bat aritu zen: Enekotarrak. 799an frankoen aldekoek Iruñeko gobernari musulmana —Mutarrif— hil zuten, baina arrakasta honek ez zuen iraun. Enekotarren familiak, egoera politikoa orekatzeko, Kordobako laguntza eskatu zuen, eta bere nagusitasuna inposatu. Garbi dago frankoen ekintzaren ondorioz barneko gatazka piztu zela.

Frankoen ahaleginek jarraituko zuten. Horrela, 812. urtean, Ludoviko Pio —Karlomagnoren semea— saiatu zen, eta emaitza hobeak lortu zituen, antza: *Pirinioetako mendateak zeharkatuta, Iruñeraino jaitsi zen, eta, lurralde horietan zegoela, egokia iruditu zitzaion eran gobernatu zuen*. Iruñeko lurrak lagatu baino lehenago, lurraldea gobernatzeko, Belasko al-Galaski —tokiko noble bat, agian— izendatu zuen ordezkari. Iruñeko konderri karolingiorik izan al zen? Ez dakigu. Ludoviko-k antolatu bazuen, bere bizitza ez zen oso luzea izan. Ludoviko joandakoan, frankoen eraginak ezin izan zen luzaro iraun —Akisgran eta bere gortea oso urruti zeuden, Iruñeko arazo politikoak era zuzenean kontrolatu ahal izateko— eta, karolingioen ausentzia eta ahuleziaz baliaturik, Enekotarrek erdietsi zuten boterea.

7. Eginardo (1986): *Vida del emperador Carlomagno (Vita Karoli Magni Imperatoris)*, Bartzelona, 38-39. orr.

Azken atala idazteke zegoen oraindik. Izan ere, 824. urtean karolingioak agertu ziren. Dakigunez, urte horretan Eblo eta Aznar kondeek gidaturiko armada bat Iruñeko lurretara abiatu zen, baina bere helburura ailegatu aurretik, Pirinioetan desegina izan zen (*menditarren traizio eta gaiztakeriagatik*, kronikek diotenez). Badirudi Orreagako bigarren gudu honetan, musulmanak eta baskoiak aliaturik borrokatu zirela. Eblo kondea Kordobara bidalia izan zen gerra-trofeo gisa; Aznar, aldiz, askatu egin zuten eta Frantziara itzultzen utzi zioten. Egia esan, Orreagako lehen gudua legenda poetikoan sartu bazen, errealitate politikoaren ikuspuntutik ez zen hau bezain garrantzitsua izan, zeren, bigarren porrotaren ondoren, karolingioek Iruñeko lurraldea menderatzeko asmoari behin-betiko egin baitzioten uko.

Agidanez, eragin karolingioa ez zen nahikoa izan Iruñeko eskualdea menderatzeko. Aitzitik, azkenez, tokiko botereak edo, hobeto esanda, tokiko nobleziako familiak, indartu eta garaile atera ziren. IX. mendean zehar, haietako bat, Eneko Aritzarena (Enekotarrak), nagusitasunera iritsi zen. Frankoen eskuhartzeari ez ezik, Kordobako musulmanen botereari ere egin zion aurre familiak. Normalean, zigor-espedizioen ondoren, kapitulazio-itunetan edo zenbait kasutan, frankoen eragina orekatzeko soilik onartzen zen emirren nagusitasuna.

Ez dugu ahaztu behar ezen Kordobaren eta Iruñearen artean hirugarren botere batek jokatzen zuela: Banukasitarrek beren nagusitasun-aldia izan zuten IX. mendearen bigarren erdian Ebroko arroan: Musa ibn Musa (839tik 862era) eta bere ondorengoen urteetan hain zuzen (872tik 885era arte, batez ere). Dinastiak kontrolatutako lurraldeen mugak oso aldakorrak izan baziren ere, momenturik hoberenetan Erriberri, Tafalla eta Naiaratik Lleidaraino hedatu ziren, eta Huescatik Zaragozaraino. Toledo hiria ere eduki zuten beren eskuetan, hiru aldiz behintzat. Penintsulako eta Al-Andalusko politika orokorrean garrantzi erabakigarria izatera heldu ziren zenbait urtetan (Musa ibn Musa, adibidez, *Espainiako hirugarren erregea* deitua izan zen, Leongo kronika batek zioenez)[8].

Iruñeari dagokionez, Eneko Aritzaren familiaren boterea finkatzen hasi zen, gero eta autonomoagoa bihurtuz. Egoera berri hori adierazi nahian, kanpoko kronistek *dux* eta *princeps* izenak erabili ohi zituzten Iruñeko buruzagiak deitzeko. Zerbait aldatzen ari zelako seinale adierazgarriak ziren hitz horiek. Azkar, hamarkada batzuen barruan, erresuma berri bat eratzeko asmoa sortu zen. Eredurik bazegoen inguruko lurraldeetan. Alde batetik, iparretik zetorren inspirazioa. Inperio karolingioa zatikatzen eta desegiten ari zen, eta, prozesu horren ondorioz, erresuma berriak jaio ziren (879-889). Zergatik ezin zuten iruindarrek beren erresuma berezia eratu? Beste adibide bat mendebaldetik iritsi zen. Asturiasko

8. Sintesiak ezartzen dituen mugapenek gauzak sinplifikatzera behartzen gaituzte. Gertakizun politikoak askoz korapilatsuagoak izan ziren. Banukasitarren nagusitasunaz, ikus, batez ere, Cañada Juste-ren lana (*op. cit.* 13-74. orr.). Tamalez, gertaera politikoak nahiko ondo eta xeheki ezagutzen baditugu ere, ia ezin daiteke ezer esan Banukasitarren erakundeez.

erresuma, VIII. mendean jaioa, pausoka Kantabriar mendikatetik hedatzen hasi eta IX. mendearen bigarren erdian Dueroko arrora iritsi zen. Hurbiltasunak kolaborazioa ekarri zuen, eta berarekin batera, ideia politiko monarkikoak.

5. FUNTSEZKO ALDAKETA BAT: ANTSO GARTZES I.A (905-925) ETA HASIERAKO HEDATZE-PROZESUA

Aipatutako prozesuaren ondorioz, monarkia ezarri zen Iruñeko lurretan. Noiz eratu zen? Historialari askoren ustez, 905. urtean aurkitzen dugu ziurtasun osoz ezagutzen dugun lehen errege nafarra, Ximenotarren familiakoa: Antso Gartzes. Aldaketa dinastikoaz gain[9] (Enekotarrek lehentasuna galdu zuten), gertaera horrek funtsezko aldaketa adierazten du: Nafarroako, edo hobeto esanda, Iruñeko monarkiaren sorrera, eta, horrekin batera, botere politikoaren garapena eta finkapena. Hauxe da iritzirik zabalduena, Nafarroako Unibertsitateko historialarien artean behintzat. Beste batzuen aburuz, ordea, Iruñeko erregetzaren sorrera zaharxeagoa izan liteke. Arazoa argitzeke dago[10]. Hala ere, ukaezina da dinastia berriak era erabakigarrian bultzatu zuela Iruñeko erresumaren garapena.

Antso Gartzes I.ak hedapenari ekin zion ia lehen momentutik, konkista militarraren bitartez. Zergatik? Nola bideratu zen? Lehen urteetan, koiuntura politikoak lagundu zuen zabaltze-prozesuan, X. mendeko lehen urteetan Al Andalus-ko lurrek, krisi politiko sakona nozitu baitzuten. Abd ar-Rahman III.a tronura iritsi zenean (912an), Kordobako Emirerria zatikatuta zegoen, barneko gatazkak eta matxinadak zirela medio (Sevillan eta Carmonan, 913 eta 917ra arte, hurrenez hurren). Garbi dago musulmanentzat hori ez zela unerik egokiena Iberiar Penintsulako kristau botereak geldiarazteko. Kordobako agintarien ahuleziagatik, kristauek aurkitu zuten aurkaritza tokikoa izan zen, koordinaziorik gabekoa. IX. mendeko nagusitasunaren ondoren, banukasitarrak ahulduta zeuden[11]. Zirkunstantzia

9. Aldaketaren xehetasunak argitzea zaila da. Badirudi Ximenotarren eta Enekotarren familien arteko ezkontza-harremanei eta zegozkien aliantza politikoei esker, urratsez urrats, Ximenotarren dinastiako kideak tronura hurbildu zirela. Familia-estrategia hori Gartzia Santxez-ek, Antso Gartzes-en anaiak, gidatu zuela susma daiteke. Claudio Sánchez Albornoz-ek uste zuen, aurreko dinastia egotzi ahal izateko, Antso Gartzes-ek *estatu-kolpe* baten bitartez eskuratu zuela aginpidetza, Leon-go Alfontso III.aren eta Pallars-ko kondearen laguntzaz baliaturik; baina, egileak berak zioenez, hori hipotesi hutsa baino ez da: ik. Sánchez Albornoz, Claudio (1985): *Orígenes del reino de Navarra: su vinculación con el Valle del Ebro*, Iruñea, 89-94. orr.

10. Interpretazio tradizionala ikusteko: Martín Duque (1986): "Algunas observaciones sobre el carácter originario de la monarquía pamplonesa", in *Homenaje a José María Lacarra, Príncipe de Viana*, Anejo 3, 527. orr. Egile berarena: "Horizontes", 133-134. orr. Badira interpretazio honekin ados ez daudenak edo zalantzan jartzen dutenak, bederen: esate baterako, Larrea-ren ustez, gehiegizko garrantzia eman zaie Ximenotarren dinastiaren agintaldiak narratzen dituzten kronikei. Bestalde, kronikek ematen dituzten argibideak X. mendetik aitzina askoz ugariagoak izatea engainagarria izan daiteke arazo hau argitu ahal izateko. Ikus aipatutako lana, 213-217. orr.

11. 885etik aurrera hasi ziren zailtasunak Banukasitarrentzat: urte horretan Kordobako emirrak Zaragoza, Ebro arroako hiririk inportanteena, kendu zien. Aldi berean, orduan, Banukasitarrek

politikoez aparte, konkista militarraren atzean, beste kausa bat sumatzen da, epe luzera jokatuko zuena: IX eta X. mendeetan Mendebaldeko Europa osoan eta Nafarroan ere garatu zen nekazaritza-hazkundea. Hazkundeari esker, Iruñeko subiranoek eskura izan zituzten beren hedapenerako eta hartutako lur berrien populaketarako behar ziren baliabideak.

Kordobako agintarien arazoak gogoan baditugu, ez da harritzekoa 905etik 915era bitartean Iruñeko erregeak, Antso Gartzes I.ak, hasierako arrakastak lortzea. Lehen ekimena 907 urtearen inguruan gertatu zen, eta operazioen helburua Lizarrako lurraldea izan zen, garai hartan Banukasitarren menpean zegoena. Erresistentziarik izan zen, baina Iruñeko gerrariek garaitu egin zituzten Banukasitarrak irailaren 30ean. Garaipenaren fruituak eta emaitzak ez ziren arbuiatzeko modukoak: Monjardin eta Deierri-ko lurrak hartu ziren Ebro eta Ega ibaien elkarguneraino. Eta Errioxa mehatxatu nahian, erregeak Karkar eta Resa-ko gotorlekuak eraikiarazi zituen Kalahorra ondoan. Horiexek izan ziren Iruñeko agintari batek musulmanei egin zizkien lehen konkista militar iraunkorrak.

Erantzuna ematea inoiz baino beharrezkoagoa eta premiazkoagoa zen. Horrela, 911. urteak erreakzio musulmanaren lehen seinaleak ikusi zituen. Horrelako beste kasu askotan bezala, erantzunak zigor-kanpaina edo inbasioa izan behar zuen. Horretarako, Banukasitarrek eta Huesca-ko errege musulmanak beren armadak bildu zituzten. Erasotzaileak iruindarren lurretan sartu ziren Valdonsella-tik, gaur egungo historialariek kokatu ezin duten *Hisn al Barber* gazteluraino. Musulmanen helburua iruindarren ausardia zigortzea zen, Antso Gartzes-en erresuman ahalik eta kalterik handiena eginez, baina ez zuten konkista iraunkorrik egiterik pentsatu. Horregatik, kontraerasoaren kalteak gorabehera, jarraikako urteetan Iruñearen hedatzeak jarraitu egin zuen, ekialdera orain. Ondorioz, Cercastiel, Uncastillo eta Luesia —gaur egun Aragoiko iparrean— erregearen eskuetara pasatu ziren. Garaipen eta konkista berriak etortzekoak ziren. Musulmanen aurka berriro mugiturik, 915eko uztailaren 20an beste gudu bat irabazi ostean, Antso I.ak, Kaparroso eta Faltzes hartu zituen, Erriberako lurretara urratsez urrats hurbilduz.

Hurrengo urteeran ere, kanpainek era berean jarraitu zuten. Antso I.ak bere erregealdiaren bigarren erdian Errioxa menderatzen jardun zuen. Kasu horretan, helburua ez zen soilik erresuma zabaltzea; bazegoen beste asmo bat ere: Kordobako armadek kristau lurraldeen mugak erasotzeko erabiltzen zituzten Errioxako bideak kontrol-pean edukitzea. Anakronismoa barkatzen bazaigu, kanpaina berriek "nazioarteko" kutsua izan zutela esan daiteke, Leon-go erresumak eta Iruñekoak elkarlana egin baitzuten ekimen haietan. Leon-en laguntza ez da harrigarria, Kordobako musulmanek erresuma horren ekialdeko mugak Errioxatik erasotzen

lehiakide arriskutsu bat aurkitu zuten: Tutxibi dinastia musulmana, urteotan lurralde horretako arazo politikoetan sartu berria zena. Kordobako subiranoek familia berri hau erabili zuten Banukasitarren eragina orekatu eta mugatzeko.

zituztela gogoratuta. Bestalde, tokiko baldintzak aldekoak ziren, Banukasitarrak gero eta gehiago ahultzen ari baitziren.

Indarrak erakutsi nahian, 918an iruindar eta leondarrak Errioxa osoan zehar igaro ziren, Tutera ondoraino iritsiz; baina ez zuten konkistarik burutu. Hurrengo kanpainak prestatzeko asmotan, zenbait lani ekin zioten. Garrantzitsuena Kantabriako muinoa —Logroño-ren aldamenean eta Viguera-ko gazteluaren parean— gotortzea izan zen.

Erreakzioa azkar ailegatu zen Al Andalus-tik. Banukasitarrak kristau erasoei aurka egiteko ahulegiak baziren, Kordobako subiranoak, Andaluzian bere boterea finkatutakoan, baliabide nahiko zeuzkan iruindarren erronkari erantzun ahal izateko. Abd ar-Rahman III.ak berak zuzendu zuen kontraerasoa, jomuga bikoitza zuena: Antso erregea geldiaraztea eta Errioxako lurrak babestea. Ibilbidea ezaguna da: Tuteratik ateratakoan, Karkar eta Kalahorra zeharkatu ostean, Ega ibaian gora Gesalatz haranera heldu ziren emirraren tropak. Uztailaren 25ean Valdejunquera-n zelai beteko gudu bat irabazi ostean, Muetze-ko gaztelua hartu eta Kantabria-ko gotorlekua suntsitu zuten.

Kolpe gogorra izan bazen ere, emaitzek ez zuten iraun, eta ez zituen geldiarazi Antso I.aren lorpenak. Izan ere, 923rako Errioxa gehiena (zehatzago esanda, Mendebaldeko partea, batez ere) okupatu zuten iruindar eta leondarrek. Ekialderantz mugituta, Naiara eta Kalahorra ere kendu zizkieten Banukasitarrei. Gertakizun horiek asaldaturik, mehatxu honen aurrean, Abd ar-Rahman-ek soldaduak Tuterara igortzea erabaki zuen.

Lehenago gertatu zen erara, kristau aurrerakadak Kordobako erantzuna ekarri zuen berriro: beste zigor-kanpaina bat, hain zuzen. 924an Kordobako tropek Antso Gartzes-en erresuma zeharkatu zuten[12]. Berriro erdietsi zuten garaipena, baina ondoriorik gabeko arrakasta izan zen. Izan ere, kontraeraso hori gorabehera, mugak ez ziren aldatu eta iruindarrek beren gazteluak mantendu zituzten. Musulmanak, momentuz, ez ziren Kalahorra berreskuratzeko gai izan. Al-Andalus-era itzultzerakoan Abd ar-Rahman-ek erabaki berezi bat hartu zuen; erabaki interesgarria da, garai baten amaiera adierazten duen heinean. Mugak defenditzeko agertu zuten ezgaitasuna zela eta, Tuterako eta Errioxako Banukasitarrak beren kargu eta arduretatik egotzi zituen. Horrela bukatu zen Ebroko arroa menderatu zuen dinastia boteretsu hori[13].

Konkista hauek nabarmenki handitu, hobetu eta sendotu zuten erresumaren oinarri ekonomikoa, lur berriek landaketa eta belardiak zabaltzeko aukera ezin hobea eskaini baitzuten. Baina, hau guztia garrantzitsua izanik, lorpenen artean ba-

12. Kanpaina honetaz, badago lan monografiko bat. Alberto Cañada Juste (1976): *La campaña musulmana de Pamplona (año 942)*, Iruñea.

13. Dinastiaren amaieraz, ikus Cañada Juste: "Los Banu Qasi", 89-90. orr. Familiaren beste adar bat 927ra arte mantendu zen Lleida-n eta Ayera-n (Ekialdeko Aragoin).

zegoen elementu berri bat. Iruindarrek benetako hiri bat hartu zuten: Naiara. Honekin batera, hiriko bizimoduak —ordura arte ezezagunak— sartu ziren erresuman, eta baita biztanle-mota berri bat ere: Naiaran eta Errioxako hainbat herrialdetan bizi ziren mozarabiar ohiak, kultura bisigotikoaren oroipenari eusten ziotenak.

Aragoi ere sartu zen Antso I.aren eta bere ondorengoen eraginpean. Hasieran, enperadore karolingioak eratutako konderria izan zen Aragoi. Gauzak aldatzekoak ziren, ordea. Frankoen eragina ahulduz joan zen IX. mendearen amaieran, eta Iruñekoa indartuz eta nagusituz. Ekintza belikoa ez zen Iruñeko erresumaren eragina zabaltzeko baliabide bakarra. Europako beste leku askotan bezala, ezkontza-aliantza tresna baliagarria suertatzen zen; eta erabilia izan zen kasu honetan. Aragoiko azken bi kondeak Iruñeko printzesekin ezkondu ziren. Nolabaiteko erresistentzia gorabehera, Galindo Aznar kondeak Iruñeko nagusitasuna onartu zuen. Horren truke, Antso I.ak Galindo mantendu zuen konderriaren aginpidetzan. Gainera, Iruñearen eta Aragoiren arteko lotura politiko eta dinastikoa bultzatu zuen, bere semea —Gartzia— Galindoren alabarekin —Andregoto-rekin— ezkontaraziz. Horrela, Iruñeko erresuma Ebro arroako kristau lurraldeen antolatzaile bihurtu zen.

Gertaera horien garrantzia ukaezina da. Garaipen horiei esker, erresuma jaio berriak bere lurralde-esparrua eratu ahal izan zuen, horrela hurrengo mendeetan zehar bere iraupena segurtatuz.

6. ERRESUMAREN FINKAPENA ETA BIZIRAUPENA (925-1000)

Hurrengo hamarkadetan, X. mendea amaitu arte, Ximenotarren dinastia tronuan finkatu zen. Hasierako krisialdi labur bat gorabehera, Gartzia Santxez (933-970) eta Antso Gartzes II.aren (970-994) erregealdietan, dinastiaren aginpidetza onartua izan zen inolako arazo barik. Benetako erronkak kanpotik etorri ziren. Ximenotarrek, familiaren interesak zabaldu nahian, lotura sendoak eta sarriak eduki zituzten, Leongo eta Gaztelako agintariekin ezkontza-politikaren bitartez. Maiz, familia-politika horretaz gain, Islam eta, zehatzago, Kordobako kaliferriarekiko[14] harremanak izan ziren problemarik iraunkorrena eta arriskutsuena. Kronikariek narratu dituzten eran, gertaerak ugariak badira ere, behin eta berriro agertzen den joera bat nabari daiteke gehienetan. Ahulezia-koiunturetan, Ximenotarren dinastiako kideek Kordobaren nagusitasuna aldarrikatzen zuten, eta menpekotasun-aitorpen horren truke, kalifak Iruñeko erregeen subirotasuna onartzen zuen. Abd ar-Rahman III.ak bi aldiz lortu zituen horrelako aitorpenak (934ean eta 958an). Beste zenbaitetan, zirkunstantziek alde jokatzen zutenean, Leongo erregeekin aliantza bilatuz edo Kaliferriko barneko istiluez baliaturik, iruindarrek jarrera erasokorragoa agertzen zuten musulmanen aurrean. Noizean behin eraso-ekimenak arrakastatsuak ziren: esate baterako, 939an, Simankas-en, nafarrek Leongo Ramiro II.ari lagundu zioten musulmanei irabazten. Hala ere, ekimen guztiak ez ziren beti

14. Abd ar-Rahman III.ak 929an bere burua kalifa izendatu zuen.

arrakastatsuak izan. Batzuetan, erasoek Kordobako erreakzioa ekarri zuten eta erreakzio horrekin, galerak eta porrotak: horrela, 968an Al-Hakam II.ak Kalahorra berreskuratu zuen, eta hiriarekin batera Beheko Errioxa galdu zen iruindarrentzat. Porrotak eraginda, nafarrek Kordobarako enbaxada antolatu eta kalifari menpekotasuna eta fideltasuna aitortu zioten; bestetik, 975ean gaztelarrekin batera egindako kanpaina (Gormaz-ko setioa) hondamen hutsa izan zen.

Almantzor eta bere semearen garaian (976-1008), musulmanen presioa inoiz baino gehiago larriagotu zen Iruñean, eta baita beste kristau lurraldeetan ere. Erasoak, hondamenak eta menpekotasun-aitorpenak kolpatu ziren urte haietan, X. mendearen bukaeran, batez ere. Iruñearen aurkako lehen kolpea 978an heldu zen; 982an zirkunstantzia militarrek Antso II.ak akordio bat sinatzera behartu zuten, eta, horrela, hamar urtetarako bakea segurtatu ahal izan zuen; 993an, aurreko urtean Uncastillo galduta, Antso II.aren enbaxadak Kordobarako bidaia egin zuen obedientzia eta leialtasuna eskaintzera; baina aitorpen haien balioa ez zen oso handia, beste erasoak etortzekoak baitziren 994ean, 998an eta 999an. Almantzor-en tropek iruindarren eta gaztelarren arteko aliantza bat garaitu zuten Cervera-n (1000. urtean). Azken erasoa 1002an gertatu zen, musulmanek Donemiliaga-ko monasterioa suntsitu zutenean.

Orain arte esandakoa laburbildurik, egia da Antso I.aren erregealdia erabakigarria suertatu zela erresumaren eraketarako. Beraren ondorengoen garaietan, ordea, hedapen-prozesua gelditu egin zen. Gogoan izan dezagun X. mendearen bigarren erdialdean Al-Andalus-ko musulmanen botere militarrak bere goreneko ahalmena agertu eta erakutsi zuela. Ez zen koiuntura aproposa konkistak egiteko. Hala ere, Kalahorra eta Uncastillo-ren galerak izan ezik, iruindarrek edo nafarrek ez zuten lurralde garrantzitsurik galdu. Nahiz eta umiliazioren prezioa ordaindu behar izan, erresumak biziraun egin zuen, erronka eta frogarik gogorrenak gaindituz. Antso III.arekin egun hobeak etorriko ziren nafarrentzat.

7. GIZARTEA FEUDALA OTE ZEN?

Baina zer ezkutatzen da, Lacarra-ren ekarpenetatik hona gero eta hobeto ezagutzen diren gertaera politikoen atzean? Edo galdera bestela eginda, garai hartako gizartea feudala ote zen Nafarroan? Hona hemen eztabaidarako eta ikerketarako esparru handi bat. Printzipioz, bi ikuspegi edo bi azalpen kontrajartzen dira. Bata Nafarroako Unibertsitateko irakasleek edo beren jarratzaileek sostengatzen dute. Bestea, Juan Jose Larrea irakasleak proposatu du aurreko lerroetan aipatutako lanean.

Lehen azalpenaren arabera —talde horretako historialariei, oso ulergarriak ez diren arrazoiengatik, *feudalismo* hitza erabiltzea gustatzen ez bazaie ere[15]—,

15. Martin Duque-k, adibidez, eufemismora joz, sistema "*vasallático-beneficial*" delakoaz hitz egitea nahiago du "*feudal*" hitza erabiltzea baino: ik. "Nobleza navarra", 231-232. orr.

feudalismoaren ezarpena ukaezina da Goi Erdi Aroko Nafarroan. Bestela esanda, Iruñeko erresumako gizarteaz hitz egiten dutenean, egiten duten deskribapenetik ondorio hori atera daiteke behintzat. Ikus ditzagun azalpen honen ideia nagusiak.

Nobleziak goreneko lekua hartu zuen gizarte-hierarkian. Nobleziako kideek —izen ezberdinak izan zitzaketenek (*domini, milites, seniores*)— lurra beren menpe zuten; eta honekin batera, funtzio belikoa. Guztiak ez ziren berdinak, jakina; izan ere, era hierarkikoan ordenaturik zeuden. Goreneko mailan "baroiak" (*barones* edo *ricoshombres*) zeuden. Errege-familiarekin erlazionaturiko leinuek osatzen zuten talde hori.

Beheko mailetan infantzoiak zeuden, XIII. mendetik aurrera "aitonseme" (*hidalgo*) izenarekin ezagutuko zirenak. Kategorien artean ez zegoen muga teorikorik; familia-zirkunstantzia edo gertaera politiko eta belikoek lagundu ahal zuten goi-mailara iristen. Bi talde horietako kideek pribilegio komunak zituzten, eta handiena hauxe zen: ondasun higiezinak edukitzeko ahalmena, jabego horrengatik zergarik ordaindu gabe eta zerbitzurik egin gabe. Are gehiago, lur horietan bizi ziren nekazariei ezar ziezazkieketen horrelako zergak eta zerbitzuak.

Bestetik, nekazariak zeuden, biztanleriaren gehiengoa osatzen zutena. Horietako asko noble edo infantzoi baten menpean zeuden. Hona hemen talde horretako kideen jatorrizko izenak: *meschinus, minor* (pobrea, txikia), *subditus, pedisecus* (menpekotasuna adierazteko), *rusticus*, *debitor, peitarius* (zergak ordaintzen zituena), *caserus* (landetxe jakin batean bizi zena), *excusatus* (salbuespenen bat zuena). Horietatik nabarmentzekoak dira *meschini* zirelakoak, belaunaldiz belaunaldi transmititzen zen morrontza-egoeran bizi baitziren.

Gehienetan, askatasun pertsonalik eza zen nekazarien gizarte-taldearen ezaugarria. Nekazarien askatasuna mugatuta zegoen, beren pertsonei zein ondasunei zegokienean. Bizi zireneko lurrak erabil zitzaketen, baina ez zuten askatasun osoa lur horietako ondasun higiezinak saltzeko. Eroslea ere menpeko nekazaria bazen, orduan soilik sal zitzaketen ondasunak. Lurrari lotuta zeudenez gero, jaunak lurrak eman edo saltzen bazituen, bertako nekazariak ere eman edo saltzen zituen aldi berean.

Honarte, ikuspuntu tradizionala azaldu dugu, sintesia-lan arruntetan agertzen dena[16]. Hitza bera aipatzen ez bada ere, gizarte feudaltzat jo dezakegu azaldutako antolamendua. Hala ere, hemen sortzen dira zalantzak eta galderak: X. mendean edo XI. mendearen hasieran hain hierarkizaturik ote zegoen dagoeneko Nafarroako

16. Ikus, adibidez, Luis Javier Fortún Pérez de Ciriza eta Carmen Jusué Simonena (1993): *Historia de Navarra. I. Antigüedad y Edad Media*, Iruñea, 60-62. orr. Lan hau iruzkinduz, P. Bonnassie-k honela zioen: *pour le Haute Moyen Age et l'époque féodale le texte en s'écarte guère du récit dynastique que pour tomber dans des généralités* (Larrea, *Peuplement*, 5. orr.). Lan orokorrez aparte, zenbait hausnarketa ikusteko: Martín Duque, "Horizontes", 133. orr. eta 142. orr., eta egile berarena, "Imagen", 420-421. orr.

gizartea? Ezin ote liteke erresumako eskualdeen arteko bereizketarik egin? Bestelako interpretaziorik posiblea al da?

Geroago ikusiko dugun legez, interpretazio-arazo guztiak konpontzen ez baditu ere, bada beste azalpen kontrajarri bat, mutazio feudalaren kontzeptuan oinarritzen dena. Zenbait historialarik (Pierre Bonnassie-k, Pierre Toubert-ek, Guy Bois-ek, Charles Whickham-ek, J. P. Poly-k, E. Bournazel-ek edo J. M. Salrach-ek, beste askoren artean) kontzeptu honetara jo dute Erdi Aroko gizarte europarren bilakaera ulertzeko Hegoko lurraldeetan, behintzat. Badakigu teoria edo hipotesi honen jarraitzaileen artean ezberdintasunak direla. Hala ere, ideia komun batzuei eusten diete guztiek. Historialari mutazionisten iritziz, feudalismoaren ezarketa, nahiz eta oso sustrai zaharrak izan, azken fasean edo aldian hiruzpalau hamarkada jakinetan areagotu eta bizkortu zen. Horregatik, denbora-tarte labur batean aldaketak pilatzen zirenez, benetako iraultza edo mutazioa gertatu zela esan daiteke. Noiz izan zen mutazioaren aldia, hots, noiz izan ziren 30 edo 40 urte erabakigarri horiek? Kronologia lurraldeen arabera alda daiteke, baina gehienetan 1000. urtearen inguruan kokatzen da (ondorioz, joera honetako ikerlariek *1000. urteko iraultzaz* hitz egiten dute).

Interpretazio orokor honi jarraiki, Larrea saiatu egin zen Goi Erdi Aroko Nafarroako gizartea ulertzen. Bere ustez, Iruñeko erresumara feudalismoa ekarri zuen krisialdia beranduxeago kokatu behar da: XI. mendearen erdialdean, hain zuzen. Beraz, aurreko lerroetan aurkeztu dugun gizarte nafarraren deskribapena —inolako baliorik badu— hobeto dagokio XI. mendearen amaierari edo hurrengo mendeari lan honetan aztertzen ari garen garaiari baino. Bestela esanda, ideia nolabait adierazteko, IX edo X. mendeko gizarte nafarra, orain interesatzen zaiguna, "*feudalismo aurrekoa*" litzateke.

Zer ondorio atera daiteke aipatutako ikuspuntu berritik? Hasteko, nobleziaren nagusitasuna ukatzen da. Beraren boterearen oinarri materiala ahula zen oraindik (berdin esan dezakegu Elizaren ondareaz, oro har). Iruñeko erresumako nobleen ondasun higiezinak aztertuz gero, bi ezaugarri ikusten dira garbi. Alde batetik, ondasun horiek ez zeuden egitaratuta eta antolatuta esplotazio handietan; bestetik, nobleziaren jabegoak oso sakabanaturik eta zatikaturik agertzen ziren. Gainera, VII. mendeko egoerarekin alderatuta, aristokraziaren ondareak askoz mugatuagoak ziren. Kasu adierazgarri batek komentatzea merezi du: Oriol Iñigez-ena. Gorteko *senior* edo jaun garrantzitsu horrek 1059an egin zuen hilburukoa. Data interesgarria da, zeren urte horretarako nobleziaren boterea eta eragina sendotuko zuen iraultza feudala hasi berria baitzen (edo hastear zegoen). Beraz, Oriol Iñigez-en testamentuak, neurri batean, iraganeko egoera islatzen du, mutazioaren aurrekoa edo mutazioaren bezperetakoa. Nolako ondarea aurkitzen dugu dokumentuan? Lehen mailako pertsonaia izateko, ez zen oso handia: Nafarroan edo Aragoin sakabanatutako bost landetxe eta bi mahasti (gauzak orekatzeko, ondasun higigarriak ugari eta baliagarriagoak zituen: urrezko txanponak, luxuzko altzariak eta arropak, eta gerrarako ekipamenduak).

Erregea zerbitzatzea —barruti publikoak administratuz, batik bat— zen Nafarroako nobleentzat beren egoera hobetzeko bide nagusia, eta ia bakarra. Hala ere, subiranoak muga estuak eta zorrotzak inposatzen zizkien: nobleen ardura eta kargu publikoak alda eta ken zitezkeen erregearen borondatearen arabera; zerbitzuen ordainketa erregearen eskuetan zegoen. Hona hemen etortzekoa zen gatazka baten erroa: nolabaiteko eragina izateko, nobleek zerbitzu publikora jo behar zuten; baina zerbitzu horren baldintzak beren klase-interesen aurkakoak ziren. Egia esan, noblezia bere boterearen hedapena oztopatzen zuten mugak gainditzen saiatu zen: gobernatzen zituzten barrutietan ondasunak (estortsioaren bitartez?) erosiz edo monarkarentzat nekazariek egiten zituzten lan-zerbitzu batzuk bereganatuz, hain zuzen. Baina prozedura horiek ez ziren behar adinakoak nobleziari nagusitasun erabakigarria emateko. Zergatiak ulertuko baditugu, nekazariak hartu behar ditugu aztergai[17].

Erregeez eta aristokraziaz aritu gara orain arte, baina biztanle gehienak kategoria horretatik at geratzen ziren. Erregeen egitandiak goresten zituzten kronika ofizialak alde batera uzten baditugu ere, nekazariak ditugu benetako protagonistak. Laborariek basoetako eta mugetako basamortuak populatu eta kolonizatu zituzten, Europako beste lurralde askotan bezala, Goi Erdi Aroko nekazaritza-hazkundea bultzatuz; aldi berean, monarkia eta botere publikoarentzat giza-talde hori ezinbesteko oinarri soziala izan zen. Berari esker, bere odol eta izerdiaz, musulmanei buru egin eta lurrak konkistatu zitzaizkien. Nolako egoera zuten X. mendean eta hurrengo mendea hasterakoan? Herrixka eta herrietan, landa-munduan, askatasuna nagusi zen edonon. Salbuespenak agertzen dira, baina oso gutxi. Aurkitzeko, errege-gortean bilatu behar ditugu. Izan ere, geroago ikusiko dugun bezala, monarkaren zerbitzari pertsonal batzuk jopuak ziren. Aintzinako esklabutasunaren hondakintzat jo ditzakegu. Egia da nekazari batzuk *colliberti* ("*liberto*") izenaz aipatzen zirela agirietan. Berba horrek garai erromatarreko joputasuna gogorarazten badigu ere, 1000. urtearen inguruan jatorrizko esanahia galdua zuen, eta horrela deituriko nekazarien gizarte-kondizioa erresumako laborari libreen antzekoa zen, ia berdina.

X. mendeko nekazariek alodioak zituzten, hau da, lantzen zituzten lur-zatien jabeak ziren, eta gizon askeen erara, zerbitzu publikoak egitera beharturik zeuden. Tokiko ezberdintasunak gorabehera, nekazaritza-komunitateek populaketarako eredu karakteristikoa zuten erresuma osoan, hegoaldean izan ezik: "*villa*"-sarea. Zer zen "*villa"* bat garai horretan? Hitza nahasgarri suerta daiteke. Geroago, XIII. mendetik aurrera, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, "*villa*"-k edo hiribilduak fundatu ziren. Goi Erdi Aroko "*villa"* nafarrak ez zeukan zerikusirik horiekin. Iruñeko erresuman nekazaritza-komunitate baten egoitza zen "*villa*", ekoizpen eta populaketarako funtsezko unitatea. Herrixka horiek bazituzten xeheki mugatutako lurraldeak, aldameneko nekazaritza-komunitateetatik bereizten zituztenak. Ugariak izan ziren mugak zedarritzeagatik sortutako auziak. Nola banatzen zen lurraren jabegoa?

17. Larrea (1998): *Peuplement*, 282-310. orr.

Badirudi alde bat laborariek landutako alodio txikiek osatzen zutela. Gehienetan, oso zatikatuta eta barreiatuta zeuden. Labore-lur horietaz gain, beste aldea —basoak, mendiak— erabilpen kolektiborako gordetzen zen. Banaketa horrek baldintzatzen zuen populaketa. Izan ere, herriko etxeak bi parte horien arteko kontaktu-aldean eraikitzen ziren. Baina "*villa*" ez zen soilik gune ekonomikoa. Funtzio honetaz gain, erresumako antolamendu erlijiosoaren oinarria ere izan zen, Goi Erdi Aroan ia "*villa*" guztietan eliza edo elizatxo bana aurkitzen baitugu[18].

Gizarte-ezberdintasuna agertzen zen herri haietako biztanleen artean, nahiz eta gehiegizkoa ez izan. Biztanle batzuk nolabaiteko aberastasunagatik nabarmentzen ziren. Horrelako kasuak eraskusten dizkigute agiriek. Adibidez, X. mendea bukatzear zegoenean, Cordovilla-ko Galindo-k baliabide nahikoa bildua zuen bost lur-zati erosi ahal izateko. Beste zenbaitetan, funtzio bereziak izateak ematen zuen garrantzi soziala: horrela ikusten da apaizen edo "*saiones*" deiturikoen kasuetan. Azken horiek, oso gaizki ezagutuak, "*villa*"-ren jaunaren behe-mailako ordezkariak —erregearenak sarritan— bide ziren.

Hala ere, badira Goi Erdi Aroko landa-komunitate horietan arreta merezi duten beste bi talde: "*boni homines*" (literalki "*gizon onak*") eta "*filli bonorum patres*" (euskaraz, itzulpena arriskutsua izan daitekeen arren: "*aitonen semeak*" edo literalkiago "*aita onen semeak*") izenekoak. Lehenak, *viri honesti* ere deiturikoak, herrixkako beste biztanleen artetik beren prestigioagatik edo ondasunengatik gailentzen ziren. Ekintza juridiko askotan lekukoak izaten ziren, eta batzar judizialetan parte hartzen zuten, epaileei aholkatuz. Beste inork baino hobeto ezagutzen zituzten herrien arteko mugak, eta beraiengana jotzen zen arazo horrek sortutako auzietan. Komunitate bereko bi kidek gatazkaren bat izanez gero, maiz "*boni homines*"-ek konpondu ohi zuten, errege-epaileei deitu barik. Gainera, salerosketetan eta mailegueta kontuan hartzen ziren haien iritziak prezioak eta tasak ezartzeko. Nafarroan ez ezik, Katalunian, Septimanian edo Italia karolingioan ere, horrelako gizarte-taldeak ageri ziren landa-munduan, antza.

Eta zer ziren aipatu *"aitonen semeak"* edo *"aita zintzoen semeak*" X. mendean? Nafarroako erresuman aurkitu diren agiri-aipamen urriak eta beste lurraldeetan (Galizian, Gaztelan, Aragoin, baita Iparreko Italian ere) egindako ikerketen ondorioak konbinatuz, behin-behineko hipotesia proposa liteke. Nekazaritza-komunitateen goreneko taldea lirateke, alodiodunek osatzen zutena. Monarkiaren babes berezia jasotzen zuten, zerbitzu publikoak —belikoak, batez ere— hobeto bete ahal zitzaten. Denbora igaro ahala, koroarekiko babes eta harreman hori egoera eta baldintza pribilegiatua bihurtu zen; eta, aldi berean, nekazaritza-komunitateetako beste biztanleekiko ezberdintasunak areagotzekoak ziren. Prozesu horretatik sortu zen Behe Erdi Aroko nobleziaren beheko maila: *infantzoiak*.

18. Landa-populaketaz, ikus Larrea (1998): 164-211, 255-258 eta 323-326. orr. Beste ikuspuntuak ezagutzeko: Martín Duque, "Imagen", 413-415. orr.; Jusué (1988): *Poblamiento rural de Navarra en la Edad Media: bases arqueológicas*, Iruñea, eta (1990): "La arqueología histórica en Navarra en los últimos 25 años: La arqueología medieval", *Munibe*, **42**, 354-364. orr.

8. MONARKIA SENDOA

Iruñeko erregetzaren oinarriak IX. mendean bilatu behar badira ere, Antso Gartzes-en garaian finkatu zen monarkia berri hori. Zein zen beraren justifikazio ideologikoa? Nahiz eta originala ez izan, eragingarri suertatu zen, oso: Europako beste kristau monarkietan gertatzen zen antzera, justifikazioak erlijio-kutsua agertzen zuen. Subiranoaren boterea probidentzialki Jainkoarengadik zetorrela aldarrikatzen zuten behin eta berriro gorteko propagandistek —idazten zekitenek, hau da, elizgizonek, jakina—. Gainera, erregea musulmanen aurkako kristau fedearen babesle eta defendatzailea zen Elizaren ikuspuntutik[19]. Kristau monarkia sendoa, beraz: erregea zuzenbide eta justiziaren "iturria" edo sorrera zen, errege bisigodoen ereduari jarraiki; are gehiago, subiranoak ez zuen inoren menpe egon behar bere erresuman.

Zehatzago, Iruñeko erregeen ideologiaren sustraiak bi lanetan bila daitezke. Bata, Leodegundia-ren ezkontitzei buruzko abesti epitalamikoa da. Besteak Errioxako Albelda-ko monasteriora garamatza. Lehenengo iturriari dagokionez, kronologia eztabaidagarria bada ere, badirudi X. mendearen hasieran hitzartu zirela Leodegundia —Leongo printzesa— eta Iruñeko printze bat ezkontzeko akordioak. Gertaera ospatzeko, latinezko olerki bat konposatu zen. Bertan, erreginak izan behar zituen bertute eta nolakotasunak aipatu eta goresten ziren. Hona hemen bere egitekoak: behartsuak babestea, Jaungoikoaren legea errespetatzea, apaltasuna agertzea. Bisigodoen garaiko estereotipoa da. Izan ere, Sevillako San Isidoro-k, *Etymologiae* liburuan, pobreez arduratzen zen eta legea errespetatzen zuen monarka jainkotiar, apal eta neurritsuaren eredua aurkeztu eta laudatu zuen.

Bigarren iturria berezia da: kasu honetan, hitzek ez ezik irudiek ere hitz egiten digute. Albeldan, X. mendearen amaieran, *Vigilano*-a deituriko kodizea idatzi eta irudiztatu zen. Eskuizkribuan —*Liber Iudicum* legezko bilduma bisigotikoa— Ximenotarren dinastiaren laudorio bat eta Asturiasko erresumaren sorrerari buruzko kronikak kopiatu zituzten. Baina, elementurik interesgarriena liburuko miniatura batean dugu: erdialdean Iruñeko Antso Gartzes II.a agertzen da; erregearen bi alboetan, erregina eta Ramiro (azken hau Antsoren anaia eta Viguera-ko tenentea zen); talde hirukoitz honen azpian, kodizearen egileak ikus daitezke. Baina begira dezagun zein den errege-familiaren gainean irudikatutako taldea: Rezesvinto,

19. Albeldako kronikak zioenez: *Iruñean, aro hispaniarreko 943. urtean (905. urtean), Antso Gartzes deituriko erregea sortu zen. Oso fededuna eta debotua izan zen eta kristau zintzoei nahiz musulmanek zapaldutako katoliko guztiei erruki handia agertu zien. Zer gehiago? Bere lanetan ez zuen inoiz etsi. Musulmanen aurka oso gogor borrokatu zen eta sarritan sarrazenoen lurrak suntsitu zituen. Kantabria zeharkatuta, Naiaratik Tuterarainoko gotorleku guztiak hartu zituen. Deierriko lurra eskuratu zuen bere gaztelu ororekin, bere aginpidean Iruñeko lurraldea jarriz. Era berean, Aragoiko lurraldea eta bertako gazteluak bereganatu zituen. Horrela, gaizto guztiak botata, bere erregealdiko 20. urtean lagatu zuen mundua. San Esteban elizako portiko azpian ehortzi zuten. Zeruan Kristorekin erreinatzen du* (ik. Martín Duque: "Algunas observaciones", 527-528. orr.).

Txindasvinto eta Egika errege bisigodoak. Garbi dago Albelda-ko monjeek Iruñeko monarkia eta Toledoko erresumaren arteko lotura azpimarratu nahi zutela. Mezua ez da dudagarria: Iruñeko erregea autonomoa da, eta boterea erabiltzen du subiranotasun osoz, Toledokoek egin zuten bezala[20].

Aldi berean, Antso II.aren erregealdian, beharbada, izan zen idatzia *Iruñearen Laudorioa* (*De laude Pampilone*) testua. Testu sinboliko eta literario honetan, koroaren zerbitzurako elizgizonek Iruñea goretsi zuten: Jaungoikoak berak babesten zuen hiria, Ebroko "*barbaroen*" (musulmanen) aurka. Egileentzat, hiria martirien erlikiak gordetzeagatik eta bere santutasunagatik nabarmentzen zen. Are gehiago, *Laudorioa*-n Iruñea antzinako Erromarekin alderatzen zuten[21].

Printzipio teoriko horien agerpen praktikoak monarkaren ahalmen judiziala eta agintaritza militarra —gerra-garaian— ziren. Erregea gerra-burua zen. Argibide dokumentalek, eta baita kronista musulmanek ere, bere protagonismoa agertzen digute, zalantzarik gabe, bai konkista edo arpilaketarako kanpainetan, bai lurraldearen babesean ere. Maiz, ekintza belikoaren etekinak eliz erakundeen artean banatzen ziren, koroaren eta kleroaren arteko aliantza sendotzeko asmotan.

Eskumen judizialak erabiliz, subiranoak nekazarien edo herrixken arteko auziak ebazten zituen, baita nobleek sorrarazten zituztenak ere. Landa-auzietako prozedura judiziala deskribatzea merezi du. Adibidez, 880. urtean Fillera, Añues eta Lerda-ko nekazariak liskarrean ari ziren herri arteko mugak zedarritu eta ezartzeagatik. Gartzia Iñigez-ek eta bere aholkulariek aipatutako lekuetara joan behar izan zuten, gatazka konpondu ahal izateko. Urte batzuk igarota, Fortun Gartzes-ek, Gartzia Iñigez-en semeak, berdin jokatu zuen antzeko auzi batean. Subiranoak gaur egun xelebrea suertatzen den modu batean konpondu zuen arazoa: bere zaldiak igaro zitueneko lekuetan jarri zituzten mugak.

> Fortun Gartzes erregea bere semeekin eta aberriko gizon noble, abade eta apaizekin etorri zen zedarritzeari buruzko auzia ebaztera. Erregea eta gizon-pilo bat etorri ziren, eta mugak jarri zituzten. Erregea guztien aurretik zaldiz zebilen mugak markatzen; atzetik beste gizon guztiak zihoazen. Izugarrizko jendetzak berretsi zuen ebazpena, baina erregea beti aurretik zebilen.

Geroago, auzia berriz piztu zenean, erregeak markatutako lerroari jarraitzearekin nahikoa izan zen gatazka konpontzeko; segidan, lehen zedarritzearen

20. Xehetasun ikonografikoez, ikus S. Silva y Verastegui (1980): "Los primeros retratos reales en la miniatura hispánica altomedieval: Los monarcas de Pamplona y de Viguera", *Príncipe de Viana*, **41**, 257-261. orr.; egile berarena, (1984): *Iconografía del siglo X en el reino de Pamplona-Nájera*; Iruñea. Beste iruzkin batzuk: Martín Duque (1997): "Singularidades de la realeza medieval navarra", in *Poderes públicos en la Europa medieval*, 299-316. orr.; egile berarena, (1986): "Algunas observaciones"; 529. orr.

21. Ik. Martín Duque (1999): "Imagen", 433. orr.

lekukoei zina eskatu zitzaien. Nabarmena denez, monarka bakearen bermea zen herriaren ikuspuntutik[22].

Beste zenbaitetan, erregea eta bere gortea auzia ebaztera mugitu beharrean, beren jauregietan entzuten zuten. Tradizioak ezarritako sistema bati jarraitzen zitzaion. Lehendabizi, *querimonia* edo demanda aurkezten zen. Arazoa konpontzeko, subiranoak aholkulariei dei egiten zien berarekin bil zitezen. Asanblada hasitakoan, auzian erabaki ahal izateko, nahiz eta agiri idatziak frogatzeko balio izan, lekukoak ziren froga-sistema garrantzitsuena. Segidan, erregeak epaia ematen zuen, eta zegokion agiria idazteko agintzen. Dirudienez, prozedura horiek tradizio erromatar eta bisigotikoaren heredentzia islatzen dute, baina endekatuta: auzietan, lege bisigotikoek lehentasuna agiri idatziei ematen zieten; Iruñeko erresuman —Asturias eta Leonen gertatu ohi zen legez—, ordea, ahozko lekukotasunek zuten nagusitasuna (lehen esan bezala, noiz-behinka dokumentuak ere erabiliak izan arren).

Honi guztiari Elizaren gaineko boterea gehitzen zitzaion. Subiranoak zerbitzu bereziak eta garrantzi handikoak lortzen zituen elizgizonengandik. Ez da harritzekoa. Iruñeko apezpiku-egoitzan tronuarekiko leialtasuna agertzen zuten prelatuak zeuden, errege-jarraigoko kideak zirenak eta administrazio-lanetan laguntzen zutenak. Azken finean, elizgizonei zor zieten erregeek monarkiaren justifikazio ideologikoa.

Ondoregotzari dagokionez, erresuma seme zaharrenarenari transmitizen zitzaion oso-osorik. Beste anaiak ez ziren ahaztuak: errege-ondasunetatik hartutako ondare handia, zenbait ardura publiko eta askotan errege-titulua bera ere jaso ohi zuten; baina ez dago esan beharrik titulu horrek ohorezko balio hutsa zuela.

Erdi Aroan arrunta zen bezala, erregea eta bere gortea (aholkulariek eta zerbitzari pertsonalek osatua) ibiltaria zen; egoitzaz egoitza mugitu ohi zen momentuko beharren arabera. Erregea zebileneko lekuan zegoen botere eta administrazioaren gunea. Beraz, ez zegoen hiribururik, *stricto sensu*. Hala ere, tradizioaren poderioz, baziren bi gune garrantzitsu bere biztanlego eta jarduera ekonomikoagatik, subiranoek maiz bisitatu zituztenak: bata, Iruñea, apezpikuaren egoitza; bestea, Naiara, XI. mendean errege-abadia izan zuena[23].

Jauregiaren oinarria erregearen jarraigoa (latinez, *scola, toga palatii* edo *curia*) zen: bere senide, kapilau eta eskribauek (maiz bi azken funtzio hauek pertsona berberak bete zitzakeen) osatzen zuten, baita aholkua ematen zuten zenbait handikik ere (prelatu, elizgizon eta goi-mailako nobleak). Familiaren funtzio

22. Ik. Larrea (1998): *Peuplement*, 217-220. orr. Eliz erakundeetan ere agertzen dira eskumen judizialak: Iruñeko apezpikuak bere epaimahai berezia zuen klerigoen arteko auziak ez ezik, auzi zibilak ere ebazteko. Zenbait monasteriotan, badirudi horrelako botereak gozatzen zituztela abadeek.

23. Erregearen ibilbideez, ikus Ángel J. Martín Duque (1992): "Monarcas y cortes itinerantes en el reino de Navarra", in *Viajeros, peregrinos y mercaderes en el Occidente medieval*, Iruñea, 249-252. orr.

politiko eta administratiboa ukaezina da: erregearen senideek epaiketetan parte hartzen zuten, kanpoko subiranoengana enbaxadetan joaten ziren eta gotorleku edo gaztelurik garrantzitsuenez arduratzen ziren. Ahaideez gain, beste zenbait handikik ere jarraitzen zioten monarkari. Horietatik talde berezi bat azpimarratzekoa zen: *fideles* edo "fidelak" deiturikoak, izenak adierazten duenez, erregearekiko leialtasunagatik nabarmentzen zirenak. Tronuaren inguruan bigarren mailako zerbitzariak ere mugitzen ziren: ohaideak, neskameak eta otseinak, hain zuzen. Beren artean jopuak zeuden, aintzinako esklabutzaren azken hondarrak, beharbada. Otseinetako batzuk eunukoak ziren. Nahiz eta harrigarri suertatu, ez dugu pentsatu behar beren kondizioa beti penagarria zenik. Tronutik hurbil ibiltzeak behe-mailako zerbitzariei ere aberasteko aukerak eman ziezaizkiekeen. Aipa dezagun kasu ezaugarritsu bat: Gartzia-k, gorteko irenduak, beti boterearen zerbitzura bizi izan zenak, ondasun higiezin ugari bildutakoan, "*villa*" edo herrixka bat erosi zuen, eta, hiltzeko zorian zegoela, donazio handiak egin zizkien erresumako monasterioei.

Botere monarkikoaren oinarri materiala ez zen mesprezagarria. Hasteko, aginpidetza izateagatik erregeak ondare publikoa administratzen zuen, eta ondasun-multzo horretatik errentak jasotzen zituen. IX eta X. mendeetako froga dokumentalek erakusten dutenez, ukaezina da koroaren eskuetan mendiak, basoak eta belardiak zeudela. Printzipioz, beren ustiapenerako kobratzen ziren tasa bereziak (belardi-saria edo *herbaticum*-a), baina monarkak, leku jakin batzuetan populaketa bultzatzearren, salbuespenak eman ziezazkiekeen bai monasterioei, bai landa-komunitateei. Bestalde, nahiz eta ur korronte eta bideen errege-kontrola frogatzeko garai horretako agiririk ez izan, geroko dokumentazioa ikusita eta beste erresumetako egoerarekin alderatuta, pentsatzekoa da Iruñeko lurretan ere subiranoak horrelako eskumenak eta eskubideak bazituela jadanik. Eta aduanak? Erantzuna ez da erraza. Erdi Aroan, Santiago-bidetik salgaiak ekartzen zituzten merkatariek Iruñean tasak ordaindu ohi zituzten. Noiztik? Ohitura frogatzen duen lehen dokumentua, Antso Ramirez-ek (1065-1094) emandako tarifa-zerrenda bat da. Hala ere, erregeak berak, tasa hauek ezartzeko, bere aurrekoen usadioen arabera jokatu zuela aitortu zuen. Dokumentuko beste zenbait aipamenek ere praktika zaharrak islatzen dituzte. Lacarra-ren ustez, Antso III.aren garaian (1000-1035) bilatu behar dira zerrendaren aurrekin historikoak. Beste historialari batzuen aburuz, ordea, ezinezkoa da Iruñeak Goi Erdi Arotik edo Antzinarotik, agian, aduanarik edo ate-saririk ez edukitzea. Bestalde, barneko merkataritzagatik monarkari zegozkion zergez, ia ezer ez dakigu. Badirudi koroak zergak hartzen zituela gatza ekoizten zuten herrietan. Nekazaritzaren hedakundeak soberakinak ekoitzi bazituen, erregeak kontrolatutako tokiko azokak sortu zirela pentsatu beharra dago; baina, zoritxarrez, ez dago horrelako jarduerei buruzko aipamenik 1092. urtera arte.

Erregearen abere-aziendaren tamaina eta garrantzia handiak izan ziren, antza. Monarka mendiez eta belardiez hainbeste kezkatzeak horrelako zerbait adieraz lezake. Era berean, subiranoaren ondasun higiezinak ugariak ziren. Erregeek egin-

dako donazioek ondare horren parte bat ezagutzeko aukera ematen digute: labore--lurrak, mahastiak, errotak, egoitzak, etxeak, monasterioak, elizak eta abar. Horiei esker, koroak nagusitasun ekonomikoa izan zuen noble eta handikien aurrean. Nola ustiatzen ziren jakiteko, Apardues herriko kasua argigarri suerta dakiguke. Urte osoan zehar bertako jauregiaz arduratzen ziren zerbitzariez gain, egun jakin batzuetan herriko biztanleek koroaren lurrak goldatu, erein eta igitatu behar izaten zituzten; gainera, erregearen garagarra bihitegian gordetzea eta bere mahastiak mendematzea eskatzen zitzaien. Emakume alargunak, familia edo etxearen arduradunak zirenez, zenbait zerbitzu egitera behartuta zeuden, baina zerbitzu horiek beste biztanleenak baino arinagoak ziren: kanaberak hartzea, batez ere (mahastiak sostengatzeko ote?). Badirudi, lan-zerbitzu horiek erresumako gizon libreen eginbeharren partea zirela —beste egiteko publikoak armadara joatea eta erregearen gotorlekuak zaintzea ziren—.

Aipatutako sarrerekin batera, koroak zerga berezi bat hartzen zuen erresumako biztanleengandik, herri jakinetan bizitzeagatik. *Tributum*, *censum* edo *parata* hitzekin aipatzen den zerga edo zentsu publiko hori ordaintzea gizon libreen betebeharra zen. Goi Erdi Aroan, Iberiar Penintsulako beste lurraldeetan ere antzekorik aurkitzen da, baina izen ezberdinekin: zerga fiskala (Katalunian), *mogata* eta *oublia* (Ribagortzan), *parata* (Errioxan) edo *vectigalia* (Galizian). Iruñeari eta Aragoiko konderriari dagokienez, argibide dokumentalak urriak izanik ere, sistema honen ezaugarri orokorrak deskribatu ahal ditugu; izan ere, oso sinplea zen, zerga kobratu aurretik har zitezkeen kopuruak kalkulatzeko, katastroaren antzeko erroldarik ez baitzegoen. Nekazariei eskatzen zitzaizkien kopuruak oso mugatuak ziren: etxe edo familia bakoitzeko hiruzpalau ogi, ardo- eta zereal-kopuru txiki batzuk (garagarra edo zekalea, batez ere), eta haragia.

Lurraldearen administrazioa sinplea zen, txikia eta erraz mendetzeko modukoa zen erresuma bati zegokion bezala. Ez zegoen konderririk, Aragoiren kasua salbuetsita. Izan ere, tradizio karolingioa errespetatuz, Aragoik, konderri-maila mantenduko zuen X. mendean zehar. Ohi zenez, bertako administrazioa lehen semeari edo ospe handiko noble bati ematen zitzaion. Hala ere, kasu honetaz aparte[24], erresumako gainerako lurrak distritu edo barrutietan banaturik zeuden. Barruti bakoitzean herri batzuk sar zitezkeen askotan, edo beste zenbaitetan, haran edo eskualde oso bat. Badirudi barrutien tamaina ezaugarri geografiko edo populaketa-sistemaren arabera aldatzen zela. Baina kasu guztietan egitura berbera ezartzen zen: *ohore* edo *tenentzia* izenekoa, hain zuzen.

24. Egia da musulmanekiko mugetan, bai Viguera-n, bai Naiara-n, konde edo *comes* titulua erabiltzen zuten tokiko agintariak agertzen direla: Flain Bermudez (943, 947) eta Gartzia (947). Baina haien eskumenak beste errege-gobernarienak bezalakoak ziren —ikus Alberto Cañada Juste (1986): "Honores y tenencias en la monarquía pamplonesa del siglo X", in *Homenaje a José María Lacarra*, 72. or—.

Zer ereduri jarraitu zitzaion horrelako barruti-sarea antolatzeko? Karolingioari, bisigodoari, agian? Noiztik jo zuten erregeek *tenentzia*-sistemara? Lacarra eta Antonio Ubieto-ren iritziz, Antso III.aren erregealdian (1000-1035) bilatu behar dira sistemaren sustraiak. Urteak igaro ahala, beste iritzi batzuk azaldu dira. Orain hamabost urte Cañada Juste-k erakundearen sorrera Antso I.aren garaian kokatzea proposatu zuen. Autore horrekin beste arazoetan erabateko ezadostasuna agertu arren, Larrea-k antzeko datazioa onartzen bide du[25]. *Tenentzien* edo barrutien gobernurako erregeak nobleren bat izendatzen zuen, eta horrek eskumen fiskalak, militarrak eta judizialak izaten zituen. Hemen, arazo saihestezin bat aipatu behar dugu, nahitaez. Administrazio-sistema hau benetan feudala ote zen jadanik? Ez dirudi. Feudalismoaren ezaugarri bat botere publikoaren patrimonializazioa da, baina tokiko gobernari horien *potestas* edo boterea, subiranoak erabiltzen uzten ziena zen. Oraindik ezin zizkieten ardura eta kargu hauek ondorengoei utzi edo legatu. Dokumentuetan *senior* edo jaun titulua erabiltzen zuten, baina errege-karguak zituzten heinean soilik. Beraz, garai hartan, jaun titulua ez zen beren ondarearen partea. Nobleen aurrean, monarkaren nagusitasuna hobeto nabarmentzeko, X. mendean eta hurrengo mendearen hasieran, erregea bera zen *dominus* titulua zuen ia pertsona bakarra.

Printzipio horren ondorioz, tokiko gobernariek erregearen boterearen ordezkaritza hartzen zuten barruti batzuetan, eta beraren izenean zenbait eskumen erabiltzen zituzten: epaiketetan parte hartzen zuten (isunak eta zigorrak inposatuz) eta —barruti guztietan beti ez— gaztelu batetik lurraldearen babesaz arduratzen ziren, gerrari-talde baten laguntzaz. Zerbitzu horien guztien truke, barrutiko herri jakin batzuetan erregeak kobratzen zituen errenten parte bat jasotzeko eskubidea ematen zitzaien gobernariei, eta baita zenbait ondasunen jabegoa ere. Mugetako *tenentzietan* maiz gastuak sarrerak baino handiagoak zirenez gero, nolabaiteko oreka lortzearren, aldi berean, barneko barrutiak banatzen zizkieten, horrelakoetan errentak askoz hobeak eta seguruagoak baitziren. Nolanahi ere, gobernariak ez ziren tokiko agintari bakarrak, beren aldamenean behe-mailako beste errege-ofizialak baitzeuden.

9. AZKEN GALDERA

Azaldu dugun interpretazio mutazionistan, konpondu gabeko arazo bat geratzen da, oraindik erantzunik ez duen galdera. Gertaera politikoak narratzean, garbi ikusi da VIII. eta IX. mendeetan tokiko aristokraziaren garrantzi politikoa handia zela, erabakigarria askotan, bai Kordoba edo Banukasitarren aurrean, bai karolingioei buru egiteko ere. Horrela bazen, nola erdietsi zuen monarkiak, dinastia batek, nobleziako familien gainean nabarmentzea? Nola lortu zuen deskribatutako ondare eskerga hori menderatzea? Zergatik onartu zuen Iruñeko nobleziak erregeak hain boteretsu bihurtzea, egoera hori bere klase-interesentzat oztopoa bazen? Egunen batean historilariek erantzun ahal izatea espero dugu.

25. Ik. Larrea (1998): 265. orr.

BIBLIOGRAFIA

Álvarez Urcelay, M.; Floristán Imízcoz, A.; Fortún Pérez de Ciriza, L. J. (1991): *Historia de Navarra*, Iruñea.

Cañada Juste, A. (1980): "Los Banu-Qasi (714-924)", *Príncipe de Viana*, **41**, 5-96. orr.

————, (1976*)*: *La campaña musulmana de Pamplona. Año 924*, Iruñea.

————, (1987): "El círculo nobiliario y la "familia regis" en la monarquía pamplonesa hasta el siglo XI", in *I Congreso General de Historia de Navarra. T. 3. Comunicaciones: Edad Media*, 19-25. orr.

————, (1987): "Endogamia en la dinastía regia de Pamplona (siglos IX-XI)", *Príncipe de Viana*, **48**, 781-788. orr.

————, (1986):"Honores y tenencias en la monarquía pamplonesa del siglo X: Precedentes de una institución", in *Homenaje a José María Lacarra*, T. 1, 67-73. orr.

————, (1985): "Revisión de la campaña de Muez. Año 920", *Príncipe de Viana*, **46**, 117-143. orr.

————, (1987): *De Sancho Garcés I a Sancho Garcés III el Mayor (926-1004)*, Iruñea.

Fortún Pérez de Ciriza, L. J.; Jusué Simonena, C. (1993): *Historia de Navarra. I. Antigüedad y Edad Media*, Iruñea.

Jusué Simonena, C. (1988): *Poblamiento rural en Navarra en la Edad Media: Bases arqueológicas*, Iruñea.

————, (1990): "La Arqueología Histórica en Navarra en los últimos 25 años: La Arqueología Medieval", *Munibe*, **42**, 357-364. orr.

Lacarra, José María (1973): *Historia del reino de Navarra: desde sus orígenes a su incorporación a Castilla*, Iruñea, hiru liburuki.

————, (1945): "Textos navarros del Códice de Roda", *Estudios de Edad Media de la Corona de Aragón*, 1, 193-284. orr.

Larrea Conde, J. J. (1998): *La Navarre du IV^{e} au XII^{e} siécle: Peuplement et société*, De Boeck, Paris-Bruxelles.

Martín Duque, Á. J. (1986): "Algunas observaciones sobre el carácter originario de la monarquía pamplonesa", in *Homenaje a José María Lacarra*, T. II, 525-530. orr.

————, (1996): "Del espejo a la memoria propia", in *Signos de identidad histórica para Navarra*, Iruñea, 21-40. orr.

————, (1987): "Horizontes de investigación en historia altomedieval navarra", in *Primer Congreso General de Historia de Navarra, T. I. Ponencias*, 124-143. orr.

————, (1999): "Imagen histórica medieval de Navarra: Un bosquejo", *Príncipe de Viana*, **217**, 401-458 orr.

————, (1999): "Nobleza navarra altomedieval", in *La Nobleza Peninsular en la Edad Media*, Ávila, 227-254 orr.

————————, (1992): "Monarcas y cortes itinerantes en el reino de Navarra", in *Viajeros, peregrinos y mercaderes en el Occidente medieval. Actas de la XVIII Semana de Estudios Medievales de Estella*, Iruñea, 245-270. orr.

————————, (1997): "Singularidades de la realeza medieval navarra", in *Poderes públicos en la Europa Medieval: Principados, Reinos y Coronas. Actas de la XXIII Semana de Estudios Medievales de Estella*, Iruñea, 299-346. orr.

————————, (1986): "Tardoantigüedad", in *Gran Atlas de Navarra, T. II. Historia*, Iruñea, 33. or.

Martín Duque, Á. J.; Ramírez Vaquero, E. (1992): "Aragón y Navarra: Instituciones, sociedad, economía (siglos XI y XII)", in *Historia de España Menéndez Pidal*, Madril.

Sánchez Albornoz, C. (1985): *Orígenes del reino de Navarra: su vinculación con el valle del Ebro*, Iruñea.

Silva y Verastegui, S. (1984*): Iconografía del siglo X en el reino de Pamplona-Nájera*, Iruñea.

————————, (1980): "Los primeros retratos reales en la miniatura hispánica altomedieval: Los monarcas de Pamplona y de Viguera", *Príncipe de Viana*, **41**, 257-261. orr.

Goi Erdi Aroko Arkeologiaren ikuspegi orokorra: Hego Euskal Herriaren kasua

Irati Iciar eta Karmele Artetxe
Historian lizentziatuak

SARRERA

Goi Erdi Aroari dagokionez, Hego Euskal Herrian[1] dauden aztarna materialak oso urriak dira, eta berreskuratutako gehienak erlijiosoak izanik, ezer gutxi idatzi ahal izan da gai honen inguruan, ikertzaile batzuen lanak kenduta[2]. Hala ere, orain arte gaiaren inguruan argitaratu denaren sintesia egiten saiatu gara artikulu honen egileok. Artikulua idaztera bultzatu gaituzten arrazoiak ugariak dira. Batetik, gaur egungo joera historiografikoek aldarrikatutako *historia osoa* egiteko, arkeologiak dioenari so egitea ezinbestekoa delako, are gehiago agiri gutxi batzuk baino ez daudenean. Bestetik, arkeologiari buruzko argitalpenak, Goi Erdi Aroari buruzkoak barne, oso zehatzak eta berezituegiak direlako eta, beraz, sintesi-lanak falta direlako.

Kanporako ezagutzera ematen ez diren memoria arkeologikoetan (museo zein aldundietarako egindakoak) gelditzen dira ikerketa arkeologiko asko, ilun-ilunpetan. *Iluntasun* hau ez da diziplina arkeologikoarena bakarrik, baina are arazo larriagoa da arkeologian, aztarnategi baten indusketa behin baino egin ezin denean eta bertako informazioa zuzendariarentzako bakarrik gelditzen denean. Horregatik, behar-beharrezkoak dira argitalpen zientifikoak zein dibulgazio-mailakoak.

1.1. Arkeologia historikoaz

Arkeologia historikoa definitzeko, oinarrizko hiru kontzeptu daude: batetik esan behar da, *jakintzagai historikoa* dela, arkeologiaren helburua azken finean

1. Hego Euskal Herriaz arduratu gara, hau da, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiaz, tamalez errazena zelako, eta, tamalez, Iparraldean burutzen diren ikerketei buruzko informaziorik heltzen ez zaigulako. Dena den, Iparraldeari buruz zerbait jakin nahi izanez gero, Manex Goyhenetche-ren liburura (*Historia general del País Vasco. Prehistoria-Epoca Romana-Edad Media*, 1999) jotzea gomendatzen dugu.

2. Horien artean I. García Camino aipatu nahiko genuke. Tesia oraindik aurkeztu ez baldin badu ere, jada oso agerikoa da gauza berri asko esango dituela eta "egia historiografikoak" baino ez diren beste asko aldaraziko dituela.

historia egitea delako. Bigarrenik aipatu behar da, *iraganeko aztarna materialak* bere informazio iturria direla; baina, kontuz, ez bakarrik indusketakoak, baita artxiboetako agiriak ere. Hirugarrenik, muga kronologikoei dagokienez, beti bezala, muga artifizialak erabiltzen direla esan behar da, eta tradizioz[3], aurrehistoria bukatu eta ondoko garaian kokatzen dela arkeologia historikoaren hasiera, erromatarrekin alegia, eta *bukaera* Aro Garaikidekoa den arkeologia industrialean. Azkenik *diziplina zientifikoa* dela, teknika eta metodo zientifikoak erabiltzen dituelako (analisi estratigrafikoa, altxaerako irakurketa, lurraldearen analisia...).

Erdi Aroko arkeologiak Europako arkeologia historikoaren epealdirik luzeena osatzen du. Tradizionalki onartu denez, Erdi Aroa hamar mende dituen epealdi historikoa da. Historiografiak azpigarai desberdinak bereizi ditu. Batzuen arabera —ingeles eta alemanen arabera—, Erdi Aroa hiru momentu nagusitan bana daiteke: Antzinaro Berantiarra (V-VII/VIII. mendeak), Goi Erdi Aroa (VII/VIII-XIII. mendeak) eta Behe Erdi Aroa (XIV-XV. mendeak); besteek —espainiar zein italiar ikertzaileek— darabilten sailkapenak, aldiz, bi epe baino ez ditu bereizten: Goi Erdi Aroa (V-XII. mendeak) eta Behe Erdi Aroa (XIII-XV. mendeak)[4]. Gu azken joera honi atxiki gara erabatean, eta gure lanean Karlomagnoren aurreko eta ondorengo mendeetako Hego Euskal Herriko kultura materialean murgildu nahi izan dugu.

Erdi Aroko arkeologia oso gaztea da gure artean. Unibertsitate-plangintzetan oraindik integraturik ez egotea horren isla zuzena da. Hasiera ezin hobea izan bazuen ere, XIX. mendean alegia, beti ere antikuarismoari esker, benetan XX. mendeko 30eko hamarkadara iritsi arte ez zen martxan jarri Europan, Alemania esandakoaren adibidetzat har daitekeelarik. Frantzian, aldiz, Erdi Aroko arkeologia historialarien eskutik garatu zen, *Annales* eskolari esker. Izan ere, historialariek artxibategian konpondu ezin zituzten arazoen erantzuna bilatu nahian, landa-lanera jo baitzuten.

Izatez, 70eko hamarkadara arte Erdi Aroko aztarna materialek, aztarna arkeologiko gisa, ez zuten interesik sortu espainiar erkidego zientifikoan. Momentu horretan, Erdi Aroko aztarnategi batzuk indusken hasi ziren. Ondorioz, arkeologia andalusiarrak (hispano-musulmanera) eta kristauak bultzada handia jaso zuten. Baina zergatik gertatu zen aldaketa hori? Alde batetik momentu horretan arkeologiak, orokorrean hartuta, garapen eta hedapeneko aldia bizi zuelako, Aurrehistoria zein Antzinaroko arloetan batez ere; eta inertziaz, beste horren garapena ere bazekarren. Bestetik, garai hartan epealdi horren gaineko interes nabarmena piztu zen. Gainera, agirietatik atera zitekeen informazioa agortuta zegoela ematen zuen. Ondorioz, Erdi Aroko arkeologiak eskain zitzakeen aukera berrietarako norabidea hartuz, Erdi Aroko espainiar arkeologiak aurre egin zion Europako beste herrial-

3. García, E. (1990): "Perspectivas de futuro de la Arqueología Medieval en Álava" *Munibe (Antropologia-Arkeologia),* Donostia, **42**, 380. or.

4. *Idem*.

deekin konparatuz zeraman atzerapenari (Europan jadanik existitzen zelako). Ondorioz, *Asociación de Arqueología Medieval*[5] delakoa sortu zen.

Espainian ertaroko arkeologia sortzeko lehen saiakera serioa 1985eko apirilaren 17, 18 eta 19an egin zen. Honela, lehen aldiz kongresu monografiko batean landu zen Erdi Aroko arkeologia[6], ordura arte nortasun berezitu gabeko ikergai orokorragoetan aipatzen zena. Ondorioz, Erdi Aroko arkeologia espainiarra duela gutxi jaio dela esan dezakegu, gaur egun erabat gaztea den espezialitatea izanik.

Erdi Aroko arkeologia espainiarraren garapen urria eragiten duten faktoreak honako hauek dira:

1. Arkeologo oso espezializatuen beharra, bi arrazoirengatik: batetik, epealdiaren zabaltasuna dela medio, Erdi Aroa hamar mendetan zehar luzatzen delako; eta bestetik, penintsulan Erdi Aroan kultur mosaiko konplexua zegoelako (hasiera batean bisigodoak zeuden, Antzinaro Berantiarraren lekukoa jasoz; 711tik aurrera islamiar mundua, 1492 arte; eta aldi berean kristauak, *birkonkista* delakoa egin omen zutenak). Beraz garai historiko hau lantzeko beharrezkoa zen arkeologoen prestakuntza handia izatea.

   > ... áreas geopolíticas diferenciadas, que presentaban sus propias peculiaridades arqueológicas. Ello, por consiguiente, dotaba a la Edad Media peninsular de una mayor complejidad arqueológica y exigía una mayor preparación para el arqueológo que pretendiese abordarla en su conjunto[7].

2. Aipatutako kultur eta erlijio-aniztasunak Erdi Aroko arkeologiak ikerketa-objektu mugagabea edukitzea ekarri du. Gertaera hori bera desabantaila bihurtu da, ikerketa gehienak tokian tokikoak direlako. Inor gutxi saiatu da informazio hori guztia sistematizatzen, eta, ondorioz, Erdi Aroko arkeologiak nekez egin ahal izan du aurrera.

3. Erdi Aroak agiri-bilduma esanguratsua duenez, ez da uste izan arkeologiak garai honetaz ekarpenik egin dezakeenik. Adibidez, askok feudalismoari buruzko arkeologiarik egin zitekeenik ez du sinesten izan. Baina arkeologiak lurren banaketa zaharraz edo partzelarioaz, jendearen bizimoduaz eta

5. Elkarte zientifiko honen lorpen nagusiak hauexek dira: 1968tik aurrera *Boletín de Arqueología Medieval* aldizkaria urtero kaleratu du, eta Erdi Aroko arkeologiari buruzko *Congresos Nacionales de Arqueología Medieval* antolatu ditu. Orain arte bost antolatu dituzte: Huesca-n 1985ean, Madril-en 1987an, Oviedo-n 1989an, Alacant-en 1993an eta Valladolid-en 1999an.

6. Erdi Aroko arkeologiari buruzko lehenengo kongresuan, 1985ean, joera historiografikoari jarraituz, hau da, tradizioaren eraginpean, Erdi Aroko ohiko banaketa tematiko eta kronologikoa erabili zen, honako arlo hauek ezberdinduz: bisigodoen garaiko arkeologia (hispano-bisigodoena), arkeologia andalusiarra (hispano-musulmanena), arkeologia kristaua eta, honen barnean, arkeologia mudejarra. Arkeologia mozarabiarra eta juduari buruz ez dago ia ezer, eta dagoena, beti zeharka.

7. Izquierdo, R. (1994): "La arqueología medieval en España: antecedentes y estado actual" *Arqueología y Territorio Medieval*, Jaén, **1**, 119. orr.

abarri buruzko informazioa eskain diezaguke. Hala ere, ia gaur egun arte historialari askok mespretxatu egin dute. Esaterako, Erdi Aroko arkeologiari buruz *medievalistek* izan duten jarrera akademizista aldarazteko asmoz, M. Barceló-k honako izenburua jarri zion bere liburuari: *Arqueología Medieval a las afueras del medievalismo* (1988).

Euskal Herrian arkeologiak —Historiaurreko arkeologiak, alegia— tradizio luzea du. Gaur egun, askok, euskal nortasunari buruzko zerbait esan nahi dutenean, oraindik ere ezezaguna izaten jarraitzen duen Historiaurrea erabiltzen dute halako edo bestelako ideiak aldezteko.

Arkeologia historikoari dagokionez, Euskal Herrian, egia esan, gauza gutxi egin da, Historiaurrekoarekin konparatzen baldin bada. Hala ere, gaur egun gauzak asko aldatzen ari dira, gero eta ikerketa-esparru gehiago zabaltzen ari baita (Aro Berriko arkeologia, arkeologia industriala, arkitekturaren arkeologia, hiri-arkeologia...).

Zer esanik ez, erromatarrei buruzko ikerketa-lanek Erdi Arokoek baino osasun hobea izan dute. Euskal Herrian erromatar arkeologiaren hastapenak XVIII. mendearen bukaeran egin ziren, testuinguru intelektual zehatz batean. Neoklazismo eta despotismo ilustratuaren giropean, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kideek erromatar aztarnen gaineko interesa izan zuten. Elkartearen Gasteizko etxean, adibidez, hauxe topa zitekeen: "En la misma hallará el observador una librería, monetario, y colección de inscripciones romanas, traídas de varios pueblos de esta Provincia de Álava"[8]. Hitz batean esateko eta I. Hodder-i jarraituz[9], arkeologoa bere garaiko semea edo alaba da, bere testuinguru historikoaren (intelektualaren, ideologikoaren, kulturalaren, politikoaren...) isla.

1.2. Sarrera historikoa

Mendebaldeko Pirinio inguruetan Erromatar Inperioaren krisia hasi eta VIII-IX. mendeetako lehen erreferentziak agertu arte iluntasuna da nagusi. Aipamen idatziak oso urriak dira eta Euskal Herriaren kasuan X. mendean sartu arte erreferentzia guztiak "etsaien" dokumentuetan agertzen dira. Gauzak honela, garai hori argitzeko, behar-beharrezkoa gertatzen da metodo arkeologikoa[10].

Europako historiografian IV-XI. mendeen arteko garaia *dark ages* edo "garai ilun" izenaz ezagutzen da, gaur egungo europar zibilizazioaren garapenean mende garrantzitsuak izanik, ilunenak badira ere.

8. Arabako Lurraldearen Agiritegi Historikoan dagoen *Guía de Forasteros en Gasteiz por lo respectivo á las tres bellas artes de la Pintura, escultura y arquitectura, con otras noticias curiosas que nacen de ellas* liburuxkaren 112. orrialdetik aterata dago aipamen hori.

9. Hodder, I. (1994): *Interpretación en arqueología. Corrientes actuales*, Crítica, Bartzelona.

10. Renfrew-l ondo aipatu zuen bezala "herri batek dokumenturik ez duenean, [bere iragana] arkeologian aurkitzen da" (Azkarate, 1990: 346).

Europako historia sakonki markatu zuen *Migrazio Handien* mugimendua —orain gutxi arte *Germaniar Inbasioa* deiturikoa— iraupen luzeko fenomeno modura ikusi behar da, eta protohistorian hasi eta XIII. mendean mongolek Errusia presionatzen hasi arte luzatu zen.

Migrazio horiek fase ezberdinetan eragin zuten Europan K. o. IV. mendetik aurrera:

– Lehen mugimenduek eragin traumatikoa izan zuten Erromatar Inperioan: hunoak, alanoak, bandaloak, sueboak, etab. mugitu ziren, eraketa politiko laburrak sortuz.

– V-VI. mendeetako mugimenduek Inperioaren zati handiagoa okupatu zuten, baita eraketa politiko iraunkorragoak sortu ere: frankoak, bisigodoak, alamanoak, etab. ezartzen joan ziren.

– VI. mendetik aurrera, migrazio nahasien ondorioz, Europako mapa politikoa oso zatituta geratu zen: frankoek Galia ia osoa kontrolatu zuten; anglo eta saxoiak Britainia Handira iritsi ziren; eta ostrogodoek Italia hartu zuten.

– VII. mendeko hala-nolako egonkortasunaren ondoren, VIII. mendean bigarren oldar handia gertatu zen: herri eslaboak mugitzen hasi ziren eta mendebaldean potentzia berria agertu zen: Islama.

Inbasio edo migrazio handien hasieratik agertoki garrantzitsua izan zen Mendebaldeko Pirinioen eskualde hau. Hain zuzen, V. mendean suebo, alano eta bandaloen Hispaniarako sarrera-gunea izan zen; ondoren bisigodoak sartu ziren, hasieran inperioaren federatu modura, polizia-lanak eginez. VI. mendearen hasiera bitartean, Euskal Herriko lurraldeak sueboen zabalkundea, bagauden mugimendua eta bisigodoen kontrol eta ordena-kanpainak jasan behar izan zituen. Eta ondorengo mendeetan, VI. mendetik aurrera, inguruko bi monarkia handien —bisigodoak eta merobingiarrak— arteko tirabira bukaezinen leku izan zen[11].

Klotario I.ak sortutako *Regnum Francorum* zelakoa orduko Europako lurralde indartsuena bihurtu zen. Akitania, ordea, frankoentzat betidanik izan zen buruhauste-iturri; Karlomagnok berak ere ezin izan zuen taxuz konpondu arazo akitaniarra.

VII. mendearen lehen erdian, Akitaniako indarrek monarkia merobingiarraren ahultze-momentua aprobetxatu zuten, botere frankoari aurre egiteko. Burujabetze-prozesu luzean, Akitaniako aristokrazia eta baskoi-taldeak elkarlanean ibili ziren. Baskoiak oinarrizko tresna izan ziren akitaniar armadan, VII-VIII. mendeetako merobingiarren aurkako borroketan eta karolingiarren aurkako erresistentzia-lanetan.

11. J. Caro Baroja-ren arabera VI. mendetik aurrera, Mendebaldeko Pirinio ingurua "una especie de punto de fricción entre la monarquía merovingia y la visigótica" bihurtu zen. Cfr. Azkarate, A. (1997): "El nacimiento de Gasteiz", in *Vitoria-Gasteiz en el Arte I*, Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Gasteizeko Udala.

Frankoen aurka borrokatuz, burujabetze-prozesua batez ere Eudon kondearekin gauzatu zen. Azkenik, 721.ean *regnum* titulua lortu zuen Akitaniar lurraldearentzat, aurrerantzean testuetan Eudon *princeps* edo *rex* izenaz agertzen delarik.

VIII. mendean zehar akitaniarren errege-dinastia berriaren eta dinastia karolingiarraren arteko borrokek etengabe jarraitu zuten. Hala ere, musulmanen gaineko garaipen famatuen ondoren (732.ean Poitiers-en eta Tours-en) karolingiarren boterearen sendotzea eta akitaniarren ahultzea bateratsu joan ziren.

Azkenean, Pepin *Laburrak* berezitasun akitaniarra zapaltzea lortu zuen bederatzi urteko kanpaina (760-768) baten ondoren. Hala ere, hemen ez ziren akitaniarrekin zituzten arazoak bukatu: Karlomagnok, batez ere Erronkariko gertaeraren ondoren, Akitanian artikulazio politiko berezia behar zela ikusi zuen, bertako bakantasun sendoa onartuz; honela, bere semea —Luis *Errukitsua*— Akitaniako errege izendatu zuen (781ean).[12]

Aldiz, Bisigodoak 507an Vouille-ko borrokaldian frankoen aurrean garaituak izan zirenean, definitiboki Penintsulara pasatu ziren, eta denbora laburrean erreinu berria sortu zuten: *Regnum Toletum*. Erromatar garaian baketsuak ziruditen baskoiak (testuetan aurkako erreferentziarik ez da agertzen) VI. mendetik aurrera, bisigodoen aurka borrokan agertu ziren eta guztira bederatzi errege bisigodok baskoien aurkako kanpainak egin behar izan zituzten.

Leovigildo-k, erreinua finkatu zuen erregeak, baskoien aurkako lehen ekintza burutu behar izan zuen 581ean: Joanes Biklarokoak bere kronikan dioenez, Vaskoniaren zati bat menperatu ondoren, *Victoriacum* fundatu zuen.

Beste errege bisigodoen kanpainen artean, bat aukeratu dugu adibide bezala, erreferentzia interesgarria ematen duelako. Hain zuzen, 653an Tarrakonense-an nobleteriaren errebolta hasi zen, Froia probintziako dukea Toledoren aurka altxatu eta Zaragoza setiatu zuen. Tajon (Taio) Zaragozako apezpikuak setioa deskribatu zuen. Froiak baskoiak zituen laguntzaile, eta hauek bisigodoen alderdi baten alboan agertzen zaizkigu, ohiko adjetiboekin deskribatuta: basatiak dira; elizak zakuratzen dituzte, sakrilegioak eginez; etab. Baskoiak xehetasun osoz deskribatu zituen apezpikuak[13]. Azkenik, 711n musulmanak Algeciras-era heltzean, Rodrigo erregea Iruñea aldean zegoen, Witiza erregearen alderdikoekin batera zeuden baskoien aurka borrokan.

Antzinaro Berantiarreko Waskoniaren muga zehatzak ez ditugu ezagutzen, ezta barne-antolaketa ere. Toponimo honek, batez ere, kultura-antzekotasuna adierazten du. VIII. mendetik aurrera, lurralde-errealitate ezberdinak sortu ziren,

12. Bitxikeria: 785.ean Luis Errukitsua Padeborn-eko asanbladan “euskal erara jantzita” aurkeztu zuen Karlomagnok. Horiek baskoien izen ona adierazten du. (Azkarate, 1995a).

13. Baskoiei buruzko estereotipo edo irudi txarra Antzinaro Berantiarraren hasieratik agertzen zaigu.

eta *Wascones* etnonimoak leku egin zion errealitate anitz bati, kanpoko begiraleek ere antzeman zutena. Honen adibide dugu Alfonso III.aren kronika, Alfonso I.aren ekintzak aipatzean: " (...) *eo tempore (...) Subporta, Carrantia, Bardulies, qui nunc vociatur Castella (...) Alabanque, Biscaj, Alaon et Urdunia, a suis reperitur semper esse possesas sicut Pampilonia atque Berroza (...)*"[14].

2. GOI ERDI AROKO ARKEOLOGIA HEGO EUSKAL HERRIAN: BIZIGUNEAK

Goi Erdi Aroko Gipuzkoa eta Bizkaiko nekazari-munduko populamendu-ereduak ez dira ezagutzen, bizilekuak aurkitzea zaila baita. Erdi Aroko ezarkuntzak aurkitzeko zailtasuna faktore hauek kontuan hartuta uler daiteke:

– Ezarkuntzen kokapen geografikoa ematen duen erreferentzia dokumentalik ez edukitzea.

– Euskal lurraldearen geografia, orografia eta landaretza ugariak lurrazaleko miaketa oztopatzen du.

– Egurra, orain gutxi arte, eraikuntza eta kultura materialerako oinarri izan da, honek dakarren kontserbazio-arazoarekin.

– Ezarpenen jarraipena: gaur egungo bizitokiak Erdi Arokoen gainean eraiki dira.

Hala ere, faktore horiek oztopo igaroezin modura ikustea errekurtso topikoa da. Gainera, ez dira aski, eta arriskutsuak izatera hel daitezke, Euskal Herriko zenbait eskualdetako arkeologia-aztarnen urritasunaren azalpena emateko, eta batez ere, "si se utiliza como arma arrojadiza para conceder prioridad a unos períodos sobre otros en función de la espectacularidad de sus resultados"[15].

Gipuzkoa eta Bizkaian, batez ere, arazo larria da Antzinaro Berantirraren eta Erromanikoaren tarteko aztarna arkeologikorik ez aurkitzea. Eraikuntzan izandako egurraren erabilerak isiltasuna azal dezake, baina heriotzaren eta bere inguruko erritualen iluntasuna da arraroena:

> ... carecemos de informacion sobre su existen-cia (Gipuzkoa eta Bizkaiako biztanleena) porque la búsqueda ha sido insuficiente, o, quizá mejor, porque lo que se espera encontrar y lo que existe realmente son tan dispares que nos sentimos incapaces de ver lo que, probablemente, haya estado en algunas ocasiones a nuestro alcance[16].

14. cfr. Azkarate, A. (1988): *Arqueología cristiana De la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 24. or.

15. *Ibidem*, 515. orr.

16. *Idem.*

2.1. Gipuzkoa

Gipuzkoaren kasuan dokumentu-gabezia ezaguna da, XI. mendera arte ez baitira bertan egindako lehen dokumentuak agertzen, eta 1000-1200. urteen tartean dokumentuen multzoa txikia baita. Hiribilduen sorrerarekin, XIII. mendetik aurrera agiriak ugariagoak dira.

Gipuzkoako Erdi Aroko arkeologiak bi arlo landu ditu gehien:

1) Gazteluak: 1191.ean Alfonso VIII.ak Gaztelako koroara batutako gazteluak, hain zuzen. Lortutako datu urriek Behe Erdi Aroko datazioak eman dituzte.

2) Ermitak eta elizak: Arrasateko Udalaitzeko Igokunde ermita; Astigarribiako San Andres, etab.

Ezustez, datu oso interesgarriak aurkitu dira Gipuzkoan, adibidez nekazari-populamenduari buruzkoak, habitatik aurkitu ez den arren. Hona hemen horrelako batzuk:

– **Igartubeiti baserria (Ezkio-Itsaso).** Foru Aldundiak XVII. mendeko baserri hau berritzeko lanak hasi zituen. Bi solairuko eraikuntza da, isuri biko teilatua eta etxearen aurrealde edo fatxadan egurrezko eraikuntza du. Bi egitura arkitektonikoz osatutako eraikuntza da: XVI. mendeko dolare-baserri bat (sagar-prentsa handi bat du egituraren oinarri) eta XVII. mendeko gehiketak (alboetan eta fatxadan). XIV-XV. mendetik dokumentatuta dago baserria familia berak okupatu izan duela, Yartu edo Iartua familiak, hain zuzen.

  Zaharberritze-lanetan arkeologia-diziplina erabili zuten eraikuntza-aldi ezberdinak dokumentatzeko, honela, *Baserrri Arkeologia*ri hasiera emanez. Ikerketaren emaitzak benetan interesgarriak izan dira: XVI. mendeko eraikuntzaren aurretik Erdi Aroko beste estruktura bat egon zen. Zehazki, etxola-hondo (*fondo de cabaña*) baten arrastoak agertu dira: oinplanta obala, lurrean erdi induskatutako esparrua eta 35 m^2-ko azalera zuen. Pareten perimetroa zutoin-zuloek markatzen zuten, estalkiari eutsi eta barne-egituraketa osatzeko zutoinen lekuko zirenak. Europa germaniarrean antzeko egiturak K. a. IV. mendetik aurrera (La Tène kultura) eta Erdi Aroan (XI-XIII. mendean desagertu arte) azaldu ziren.

  XVI. mendeko orubean indusketa zehatzagoak egin ziren. Espazio-banaketa eta eraikuntza-estruktura berri bat agertu zen: bi horma eta zutoin-zulo gehiago pareten alde bietan, estalkiaren seinale. Behe Erdi Aroko *cluck*-a izan zitekeela pentsatu zen, hau da, XIII-XV. mendeen tartean mendebaldeko Europa germaniarrean hedatutako nekazari-etxearen antzeko bat.

  Laburbilduz, baserri horren ezaugarri nagusia hauxe da: orubearen okupazio jarraia Goi Erdi Arotik gaur egun arte[17].

17. Torrecilla, Mª J. eta Santana, A. (1995): "Igartubeiti Baserria (Ezkio–Itsaso)." *Arkeoikuska*, 460-468 orr.

Gipuzkoako beste leku batzuetan aurkikuntza isolatuak gertatu dira. Horrela, Goi Erdi Aroko mailak ezustean agertu dira beste testuinguru historiko bateko indusketen barruan.

– **Iruaxpe-III koba (Aretxabaleta)**: bertan, erromatar garaitik Erdi Aroko trantsiziorainoko garaia argitzeko datuak agertu ziren. 9 m^2-ko harpe txikia da Iruaxpe, Iruaitz kobaren azpian kokatuta. Araba eta udako larreen arteko iraganbidean dago, trashumantziako artzainekin lotutako gunean. Bertan, goiko mailetan, K. o. IV-VI. mendeetako arrasto materialak agertu ziren, erromatar kulturakoak; okupazio-momentu gorenak VI. mendearen bukaerakoak ziren.

– **Urbia** inguruan, Neolito eta Brontze Aroko aztarnategi bila ibili dira ikerketa-proiektu planifikatu baten barnean, 1987tik aurrera: giza habitaten katalogoa egiten aritu dira, eta hogeita hamar aztarnategi baino gehiago aurkitu dituzte. Aizkorri aldean Erdi Aroko datazioak eman dituzten arrastoak agertu dira, C-14arekin datatuak: aipatutako garai ilunekoak dira, Erromatar Inperiotik XI. mendera bitartekoak:

  – Kronologia zaharrenak K. o. 91-331. urteen tartekoak dira; erromatar garaikoak, beraz.

  – K. o. IV-VII. mendeen tarteko kronologia-datazioa eman du eraikuntza-arrasto batek: planta errektangularra zuen, eta bertako kareharria aprobetxatuz hiru horma erantsi zitzaizkion, terraza artifizial batekin osatuz. Materialak: ikatz-arrastoak, zeramika-zatiak (oso arruntak, eskuz eginak) eta suharri-printza bat.

  – K. o. IX-XII mendeen tarteko kronologia eman zuen beste estruktura batek, aurrekotik oso gertu: zulo natural bat aprobetxatuz, itxidura-horma bat egin zitzaion, eta zorua nibelatu. Barruan harlauza handi bat agertu zen, oinarri landua zuena; hilarria zela pentsatu zen, eta azpian eskuz egindako zeramika-zati asko agertu ziren[18].

Behe Erdi Aroko gizarte-eraldaketek hiribilduak —espazio-antolaketa berria— eta dokumentu idatzien ugaritzea ekarri zituen, ezagupen historiko eta arkeologikorako elementu gehiago sortuz.

18. Gandiaga, B.; Ugarte, T. eta Urteaga, M. (1989): "Prospecciones arqueológicas en Urbia: yacimientos catalogados en las campañas de 1988 y 1989", *Kobie (paleoantropologia),* Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1989, 18 zkia, 123-166 orr.; "Prospecciones arqueológicas en Urbia: yacimientos catalogados en las campañas de 1990 id. 1991" *Kobie (paleoantropologia),* Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993, 20 zkia, 57-58 orr.

2.2. Bizkaia

Goi Erdi Aroko idatzizko iturriek zein erregistro arkeologikoak eskaintzen duten informazioaren %95 hileta- zein erlijio-aztarnei dagokie, alegia, nekropoli zein elizen aztarnei. Beraz, alde atlantikoko ezarkuntzei buruz oraindik ere oso gutxi dakigu. Goi Erdi Arorako dauden testu idatzi apurrek hauexek aipatzen dituzte: monasterioak edo jabegozko elizak batetik, eta *villa*-k bestetik. Era berean *villa* edo herribildu buruzko aipamenak ere oso urriak dira; hiru aipamen baino ez daude: Arstegizako villa, segur aski egungo Bediako Asteiza auzunean kokatuta egongo zena; Durangaldeko Garai (*villa quos dicitur Garaio*); eta azkenik Mondacha edo Mundakako hiribildua. Hegoaldean *villa* hitzak habitat-gunea aipatzen baldin badu ere, alde atlantikoan zein-nolako errealitatea ezkutatzen duen ez dago hain argi.

Iturri idatziek eskainitako datu hauek, erregistro arkeologikoarekin harremanetan jarri zituen I. García Camino-k. Durangaldeko Garai hiribilduan topaturiko bi nekropolien indusketa eta miaketa-zuloen emaitzek —ehorzketen datuek eta XI. mendeko elizatxoak— hauxe ondorioztatzera eraman zuten, alegia, Garain Goi Erdi Aroan hiribilduen itxurako inongo habitat bildurik ez zela egon. Zentzu honetan egileak García de Cortazar-ekin bat egiten du, alde atlantikoko *villa* direlakoen aipamenak monasterioa adierazteko erabiliko zirela esatean. Horrela, esaterako, Mundaka hasiera batean *villa* gisa izendatu bazen ere, urte batzuk beranduago monasterio modura aipatu zen. Errealitate juridiko berdinaren aurrean topatzen diren izendapen-aniztasunak, García de Cortazar-en arabera, berauen berria jaso zutenen akulturatze-maila ezberdinaren ondorio lirateke.

Hau guztia kontuan izanik, tenplu, monasterio zein dekaniak izango lirateke Goi Erdi Aroko espazioaren antolatzaileak. Beraiek abeltzantza ibiltarira dedikatzen zen biztanleria mugikorraren erreferentzia-guneak lirateke. Beraz, arlo espiritual eta materialari dagokionez, populazioa gune hauen menpe legoke.

Abeltzantzan eta etxegintzan erabilitako iraupen laburreko materialek —Europan garai honetan zura erabiltzen baitzen— baldintzatu dute Goi Erdi Aroko bizigunerik ez aurkitzea.

Denborak aurrera egin ahala eta hegoaldetik zetorren akulturatze-prozesuaren ondorioz, populazioa gero eta lurraldeari lotuago egon zen, eta populamendu horiek izan ziren gaur egungo nekazari-munduko auzoen jatorria.

Erregistro arkeologikoari X-XI. mendeetako agiri idatzien informazioa gehituz, I. García Camino-k[19] Bizkaiko giza biziguneak lau motatako kokapen topografikoak zituztela dio, hala nola, aldapa erdian, mendixkatan, kostaldean eta haranetan. Habitat gehienak beren nekropoli eta elizei esker dokumentatu dira.

19. García Camino, I. (1992): "Bizkaiko populaketa Erdi Aroan, datu arkeologikoen bidez (X-XIII. mendeak)", *Illunzar/92*, AGIRI, Gernika, 21-22. orr.

1. *Malden erdialdeko terraza lauetako ezarkuntzak*: leku hauetan daude Goi Erdi Arorako ezagutzen ditugun habitat gehienak. Hegoaldera eta ekialdera begira dauden kokaguneak dira. Mota honetako finkamenduek bi abantaila zituzten: batetik, iparraldeko haizeetatik babestuta egotea eta, bestetik, ia egun osoan eguzki gehiena hartzea. Aldi berean, kokagune estrategikoak ziren, kosta, ibaiak, haranak, mendien arteko pasabideak eta beste ezarkuntzak ikus zitezkeelako. Iñaki García Camino-ren arabera «... kokaguneen aukeraketa, lan-prozesuak garatzeko baldintza klimatiko eta ekologiko egokiak bilatzeko asmoak bultzatuta egin omen zuten»[20], eta ez arrazoi militarrengatik, ez baita inongo ezarkuntzan defentsazko elementurik aurkitu.

   Kokagune honetan aurkitutako biziguneen kronologiari dagokionez, gehienak XI. mendekoak dira —Zumetxaga, Santimamiñe, Igorreko Elgezuko San Cristobal, Bakioko San Pelaio...—; hala ere, aurrreko mendekorik ere aurkitu da —Oizko nekropoliak, Argiñeta, Memaia, etab.—. Gaur egun kokagune hauek auzo txikiak dira; beraz, habitataren erabilpenaren jarraipena egon da, eta oso gutxitan despopulatu dira.

2. *Hegi malkartsuetako ezarkuntzak*: aurrekoan ez bezala, kasu honetan ez da habitataren jarraipenik egon; antzinako ezarkuntza horiek despopulatuta daude gaur egun, eta gehien jota baselizaren bat gelditzen da. Gainera, lurraldearen kontrolerako kokaguneak zirela ematen du, inoiz ez giza biziguneak, ezta Goi Erdi Aroan ere; batetik, mendi-gailurretan egindako ezarpenak zirelako (beraz, haize guztiak jasaten zituzten babesik gabe, eta, erliebe oso malkartsua zenez, bertara heltzea zaila zen), eta bestetik, mendibideen eta portu-sarreren kontrolerako kokaguneak zirelako. Adibidez, Ereñozarrek (Ereño) Gernikako itsasadarra menperatzen du, Zarragoitik Bermeoko portua, eta Unzuetak (Orozko) Arabar lautadarako pasabidea. Aitzitik, Atxispe oso bestelako ezarkuntza zen, bi haran kontrolatzen zituen kokapen altua bazen ere, bi elementu bereizgarri baitzituen: bata, harkaitzean indusitako sasibaseliza, eta bestea, harkaitzean egindako hilobi monolitikoa, X edo XI. mendekoa. Hau guztia kontuan izanik, kokapen eremitikoa zela esan dezakegu.

3. *Kostaldeko ezarkuntzak:* Kokapenaren arabera, ezarkuntza hauek bi aldaera zituzten: batetik labarretakoak, eta bestetik erreka-ahoen inguruko muinoetan kokatutakoak. Horien artean, Barrika, Bermeo, Gaztelugatxe, Mundaka eta Busturiako bizilekuak XI. mendean dokumentatuta daude, Baskonia inguruko eliz jabego handien baitan (Naiarako Santa Maria, San Juan de la Peña eta Donemiliaga Kukullakoa). Honek argi erakusten du, eliz ja-bego hauek produkzioa dibertsifikatzeko eta itsas ondasunak lortzeko zuten interesa.

20. *Idem*.

4. *Haranetako biziguneak:* Mota honetako hamabi ezarkuntza ezagutzen dira, eta denak ez diote kokapen-eredu berdinari jarraitzen: batzuk harana zabaltzen den lekuan zeuden (Mungia, Iona, Tabira, Arandia, Arrigorriagako Santa Maria); beste batzuk mendi-magaletan, hegien oinean (Kortezubi, Arteaga, Fruniz, Etxebarriako San Agustin, Abadiño); baina haranaren sakon-sakonean kokatutakoak ere bazeuden. Gehienak XI. mendekoak dira.

Argi dago aipatutako lau bizigune hauetara lotutako pertsona guztiak ez zirela abeltzantzara bakarrik dedikatzen. Burdina ere produzitzera dedikatuko zirela ematen du. Trapagaranen dagoen Oiola edo Loiola urtegiaren inguruan, izaera arkeo-metalurgikoa duten indusketek kronologia nahiko zabal bateko aztarnategiak topatzea ahalbidetu dute. Bertan aritutako arkeologoak[21] Oiola-II delakoa Behe Inperiokotzat hartzen duen heinean, Oiola-IV Goi Erdi Arokoa litzateke —gu azken honetan barneratuko gara—, dirudienez.

Burdingintzak Euskal Herrian historia luze samarra du, hiru garai nagusi bizi izan baititu: batetik, haizeolen garaia, non burdinolak aire zabalekoak baitziren; bestetik, zeharrolak edo burdinola hidraulikoak; eta azkenik, Aro Garaikidean, industrializazioaren garaiko labe garaietako burdin lantegiak. Agerikoa denez, guretzako garai ezezaguna lehenengoa da, eta arkeologiak informazio-iturri ezinbestekoa eman diezaguke momentu hartako burdin produkzioaren oinarri teknologikoak ezagutu ahal izateko.

Honi dagokionez, 1989. urtetik aurrera Trapagaranen buruturiko lau indusketa-kanpainek Goi Erdi Aroko burdingintzaren inguruko aztarnak eskaini zituzten. Aztarna horien garrantzia ukaezina da, zeren, garaiko ekonomia zein garapen teknologikoari buruzko informazioa eskaintzeaz gain, orduko gizartearen garapen ekonomiko urriaren ideia baztertzeko aukera ematen baitute. Hola, dirudienez, haizeolak produkzio-gune garrantzitsuak izango ziren, eta, beraz, artzaintzara bakarrik dedikatu-tako garapen gutxiko gizataldeen ideia zehaztu egin beharko litzateke; hau da, gizatalde mugikorrak ala uste baino egonkorragoak eta aberatsagoak ote ziren? Bestalde, argi dago, haizeolak garaiko beste aztarna arkeologiko batzuekin harremanetan jarri beharrean gaudela, hala nola, Aldaieta eta bestelako nekropolietan aurkitutako ostilamenduekin.

Inguruneare eta burdingintzaren azterketa makroskopikoetan zein mikroskopikoetan oinarriturik, burdin zepen analisi kimikoan batik bat, I. Pereda-k egindako ikerlanean hauxe ikusi da argi: Oiola-IVko kokalekua oso ondo pentsatua zegoen. Batetik, burdin mea lortzeko leku aproposa zen, inguruaren formazio geologikoaren ondorioz hematite ugari baitago. Mea-mota honetatik burdina erraz ateratzen da.

21. Pereda, I. (1992/1993): "La metalurgia prehidraúlica del hierro en Bizkaia: el caso de los alrededores del pantano de Oiola (Trapagaran, Bizkaia*)", Kobie (Serie Paleoantropología)*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, **20**, 109-122. orr.

Bestetik, kokalekuak lehengaia edukitzeaz gain, mendialdean zegoenez, landare-errekin ugari eskaintzen zuen. Ikerketen arabera, 100 kg egur-ikatz behar dira 1 kg burdina ateratzeko. Horren arabera, erregai ugari edukitzea lehengaia bera edukitzea baino garrantzitsuagoa litzateke.

Era berean, uraren beharrizanaren ondorioz, iturriren batek hurbil egon behar zuen. Oiola-IV kokalekua Carvanas izeneko errekastotik hurbil dago.

Azkenik, labearen eraikuntzarako, beharrezkoa izango litzateke materialak erraz eta hurbil edukitzea. Oiolako ingurunea, adibidez, hareharriz eta marga beltzez osatu zen Behe Kretazikoan, eta gainean kareharriak ezarri ziren. Oiola-IVko labean erabilitako harriak hareharriak izan ziren, tenperatura altuak jasateko gai eta kareharriak baino errefraktarioagoak baitira.

Beraz, honako hau da ondorioa: produkzio-kostu ahalik eta murriztuenera jo zuten kokalekua aukeratzean. Arrazionalizatutako burdingintzaren aurrean gaude.

Bestalde, Toponimia bera oso esanguratsua da, —nahiz eta agian beranduagokoagoa izan—, ingurune hori Oiola edo Loiola izenaz ezagutzen baita.

Aipatu bezala, indusketak 1989an hasi ziren, Oiola izenaz ezagutzen den ingurunea lau zonaldetan zatituz. Hasierako miaketekin argi geratu zen, bigarren eta laugarren zonaldeak emankorrak zirela. Azkenean, eskuhartzea laugarrenean zentratu zen, hain zuzen ere, Goi Erdi Aroko kronologia duen hartan. Karbono erradiaktiboaz (C-14) eginiko datazioaren arabera, kokalekua iraupen luzeko giza ustiapenerako gune bat izan zen, alegia, X. mendetik XIII. mendera bitartean luzatu zena. Bestalde, 1.000 m^2-ko azalera duen indusketak zenbait egitura agerrarazi ditu, labe bi gutxienez, ikatz-metaketa, sutegi bat labe baten alboan, eta dena inguratuz interpretatzeko zaila den harrizko egitura semizirkularra.

2.3. Araba

Historiografia tradizionalaren aburuz, Araban Erromatar Garaiko eta Antzinaro Berantiarreko —III-V. mende tartea— *villae* zirelakoen garapen-momentutik Goi Erdi Aroko despopulamendura pasatu zen. Gainbeheraren garaia izan zen, ordea: urbanizazio handiak desagertu egin ziren, *villae*-ak abandonatuta geratu, eta inguruan populamendu berriak sortu ziren.

XI. mendeko dokumentu batean ondorengo mendeetako populamenduaren ereduak ikusi ahal dira: 1025ean, Donemiliagako Botua edo “la Reja” izenaz ezagutzen den dokumentuan, arabar lurraldeko hainbat herrixka aipatzen dira.

Populamendua nolakoa izan zen ikertzeko, Araban indusketa-lanak egin dira jenderik gabeko eremu batzuetan, urriak hala ere. Batzuk aipatuko ditugu:

– **Los Castros de Lastra (Karanka)**: 1975-1997. urteen artean induskatua. Brontze Aroaren bukaeraren eta Burdin Aroko sekuentziaren ondoren, bertan behera utzitako garai bat azaldu zen, eta gero Goi eta Behe Erdi

Aroko aztarnak agertu ziren. IX-XI. mendeen artean datatutako ermita bat agertu zen, inguruan berrogeita hemezortzi hilobiko nekropolia, eta alboan harlangaitzezko estruktura batzuk, bizilekuak. Horien guztien gainean, XII-XV. mendeetako datazioko bizigune-egitura batzuk ikusi ziren, material ugaria eman zutenak.

– **Berbeiako kastroa (Barrio)**: Brontze Aroaren bukaera eta Burdin Aroa inguruko aztarnategi honetan Goi Erdi Aroko mailak ere aurkitu ziren, IX. mendekoak. Berbeia edo Ibarbeia herrixka, eta baita Barrio eta San Zadornil ere, IX-X. mendeetan datatuta daude, Donemiliaga kukullako-ko kartularioan aipatzen baitira.

– **Buradongo Kastroa (Duradon Gatzaga):** Hemengo ezarkuntza-sekuentzia Brontze Aroaren bukaera eta lehen Burdin Aro bitartekoa da; Antzinaro Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan ere bizileku izan zen, eta multzo garrantzitsuenak eliza eta nekropolia dira (ikus *infra*).

Habitataren ikerketan oso gauza interesgarriak aurkitu dira azken denboraldian Gasteiz hiriaren lehen populamenduei buruz. Gauza jakina da, Gasteiz hiria XII. mendean Antso VI.a erregeak fundatu zuela, aurretik Gasteiz izena zuen herrixkari Victoria izena emanez: "*Placuit mihi libenti animo et sanamente populare uos in prefata villa cui nouun nomen imposi scilicet Victoria, que antea vocabatur Gasteiz*"[22].

Gasteiz muinoaren lehen populaketen jatorria bilatu nahian, indusketak egin ziren 1967-68 tartean —J. Fariña-k, D. Fdez. Medrano-k eta A. Llanos-ek 1971n argitaratuak—, baina XII. mendea baino arrasto zaharragorik ez omen zuten aurkitu. Arrasto arkeologikoak Gasteizko Parte Zaharrean egindako obretan ere agertu dira: joan zen mendean Landatxon egindako lanetan (Escuela Normal de Maestros, 1864; Portal de la Soledad-en suntsiketa, 1865; Gorbeiako uren ekarrera eta biltegiaren eraiketa, 1883) hainbat material arkeologiko jaso ziren, erakusketa eta argitalpenak ere egin zirelarik. Baina ez zitzaien kasu gehiegi egin, eta ez ziren ondo katalogatu eta identifikatu.

Orain interpretazio berria eman zaie material hauei guztiei, Antzinaro Berantiarreko material modura hartuz. Aurreko indusketa eta lanetan jasotako materialek Antzinaro Berantiarrean kokatuak izateko tipologia osoa erakusten dute, Aldaieta, Finaga eta San Pelayo-n agertu diren materialen antzekoak baitira, eta haiek ondo identifikatuta baitaude VI-VIII. mendeen artean[23]. Material hauek honako hau adie-

22. Azkarate, A. (1997): "El nacimiento de Gasteiz", *Gasteiz-Gasteiz en el Arte I*, Eusko Jaurlaritza-Arabako Foru Aldundia eta Gasteizeko Udala.

23. Adibidez: Armeria Museoan, aho lantzeolatudun eta kirten tubular irekidun bi lantza-puntek, —Antzinaro Berantiarreko nekropolien ezaugarri— Aldaieta, Finaga eta San Pelayo-n aurkitutakoen antzeko direnek, VI-VII. mendeetako datazioa dute. Halaber, *scramasax* motz batzuek, sastagai gisa gaizki klasifikatuta agertzen direnek, VI-VIII. mendeetako kronologia dute (cfr. Azkarate, A. "El nacimiento…", 150. or.).

razten dute, alegia, muinoa gutxienez VI. mendetik aurrera populatuta zegoela eta jende horrek Aldaieta eta San Pelayo-n hilobiratzen zirenen antzeko kultura materiala zuela.[24]

Azken urteotan Gasteizko Santa Maria katedral zaharrean egindako lanetan ere datu berriak agertu dira. Katedral zaharraren arazo estrukturalei aurre egiteko plan orokor bat jarri zen martxan, eta indusketa arkeologikoa ezinbestekoa zen. Bertako aurkikuntzek Gasteizen jatorria argitzen lagundu dute: kronologia zehatzeko zeramikaren eta txanponen aurkikuntza ugari; eliza erromanikoaren katedralaren oinetan zimentuak; hauen azpian eta inguruan, harkaitzean induskatutako estruktura aurreerromanikoak, eta baita kronologia zaharragoko zeramikak ere (*terra sigilatta* motako sei zati, K. o. II-III. mendekoak eta Antzinaro Berantiarreko beste batzuk). Honela, Gasteiz muinoan Antzinaro Berantiarraren aurreko populamendua egon izanaren hipotesia sortu zen, egiteko dauden indusketekin baieztatua izan beharko dena[25].

2.4. Nafarroa


1980-1987. urteen bitartean Nafarroako nekazari-populamenduari buruz C. Jusue-k buruturiko ikerlana jaso behar dugu hemen (1988). Urraul Beheko haranean kokatutako zenbait despopulamendutan —Aizpe, Apardues, Ascoz, Argiroz, Muro eta Puio-n, hurrenez-hurren— eginiko indusketen arabera[26], espazioaren giza okupazio handia sumatzen da. Sei toki horiek Nafarroa nuklearrean kokatuta daude, eta indusketa arkeologikoen bidez ikertu ondoren, guztiek honako ezaugarri komun hauek erakusten dituztela frogatu da:

1. Aldez aurreko aztarnak topatu dira, Erdi Aroa baino lehenagokoak. Apardues-en adibidez, zeramika protohistorikoa eta erromatarra topatu da. Hala ere, garai zaharragoei dagozkien aztarna hauek ez dute nahiko nortasunik giza ezarkuntzaren izaera nolakoa zen adierazteko. Agian, giza ezarkuntza txiki batzuk baino ez dira. Dena den, honek guztiak ondokoa baino ez du erakusten, alegia, lurraldearen okupaziorako ereduari dagokionez, Erdi Aroko nukleoek aurreko aldi bateko ereduari jarraitzen ziotela.
2. Kokapenari dagokionez, ondo pentsatutako giza ezarlekuak dira; hau da, irizpide batzuei jarraitzen diete giza habitata ezartzeko orduan, bai irizpide ekonomikoei, bai politikoei, eta baita baldintzapen naturalei ere (klima,

24. Nekropoli hauen garrantzia nabarmena da, azken urteotako bibliografia ikusita. Hemen ez ditugu iruzkinduko, eta bibliografiara bideratzen zaituztegu, batez ere, A. Azkarateren lanetara hain zuzen.

25. Azkarate, A. (1997): "El nacimiento de Gasteiz", *Gasteiz-Gasteiz en el Arte I*, Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala.

26. Beste despopulamendu batzuk ez ziren induskatu, horien artean Aldunate, Artieda, Grez, Nardues Aldunate, Nardues Andurra, Ripodas, Sansoain, San Vicente eta Tabar. Hauei buruzko berriak agiri idatzien bitartez izanik, datuak erregistro arkeologikoaren osagarritzat erabili dituzte.




C. Jusue, 1988)

landaretza, zoluaren ezaugarri geologikoak...). Beraz, nekazaritzaren eta abeltzantzaren ustiakuntzarako egokienak ziren inguruneak okupatzen ziren, hots, bizitzeko baldintzarik onenak eskaintzen zituztenak, beti ere ur--iturrietatik eta lautadetatik hurbil.

3. Espazioaren antolakuntza sumatzen da. Habitat hauetako biztanleak gehienbat nekazariak zirenez, ezarkuntza egonkorrak sortu zituzten. Jarduera ekonomiko horren arabera, inguruneko paisaia antolatu zuten, nekazaritza-paisaia eratuz.

4. Eraikuntza-aztarnak. Induskatutakoaren arabera, etxebizitzatzat hartzen ziren egiturak agertu dira batez ere. Eraikuntzaren aldetik oso itxura homogeneoa daukate, bai espazioaren kontzepzioari dagokionez, eta baita euskarri materialei zein erabilitako teknikei dagokienez ere.

Etxebizitzen oinplanta gehienak errektangeluarrak dira; hala ere, bestelako formarik ere ager dezakete, hala nola, karratua, trapezoidala, zein L-itxurakoa. Oinplano errektangeluarrari dagokionez, herrixka guztietan daude dokumentaturik, azalera ezberdinetakoak. Apardues-en, adibidez, 61 m^2-tik 35,3 m^2-rako tartekoak dira. Edozein oinplanta-mota edo azalera izanik ere, eraikuntza sinpleak dira eta bibliografian *oinarrizko etxeak* izenaz ezagutzen dira. Hain zuzen ere, Europarako ezagutzen den etxebizitzaren ereduaren parekoa da etxe-mota hau.



Askoz, C. Jusue, 1988)

Horrez gain, etxebizitza gehienak horma baten bitartez bi ataletan banatuta daude, etxe barneko espazioaren kontsiderazio funtzionalista erakutsiz. Horrela, barrunbe handienean supazter modura erabiliko zen, eta txikienean, logela modura. Bestalde, etxebizitzak bata bestetik banatuta daude; *etxe aske* hauen arteko eraiki gabeko tartea 50-60 cm-koa zen. Eraikuntza independenteak izatea zailtasun gehitu bat zen, etxe guztientzako estalki bakar batek balio ez zuelako eta bakoitzak berea eduki behar zuelako. Etxe askeez osatutako herrixka hauek, Kantabria eta Iparraldeko habitat-ereduen bitarteko ereduari jarraitzen zioten. Iparraldekoa habitat

sakabanatua zen, baina Erriberan habitat konpaktuetan biltzen ziren, bai herrixketan, bai hiribilduetan.

Bestalde, etxebizitzez gain beste eraikuntza-mota batzuk ere badaude. Eraikuntza erabat independenteak dira; segur aski, biltegiak izango ziren, edo etxeko animalientzako eskortak.

Etxebizitzen altxaera eraikitzeko erabilitako material bakarra harria zen, inguruko harri-baliabide ugariak aprobetxatuz. Hala ere, harrizko eraikuntzak ezohikoak ziren Europako mendebaldean XI. mendera arte, Jusue-ren arabera. Hona hemen habitat hauen beste berezitasun bat Europarekiko.

Hareharriz altxatzen ziren hormak. Oro har, harri txikiak erabiltzen ziren (20/40 cm × 10/15 cm), horizontalki jarriz, kanpoaldea leunduta zeramatela, sarritan ilara horizontal erregularrak osatuz. Horma hauen lodiera nahiko homogeneoa zen, 50-60 cm-koa, Apardues salbuespena izanik, hango hormen lodiera metro batera heltzen baita, eta harlanduek tamaina handiagoa dutelako. Horrez gain, hormek ez dute gaineztadurarik, eta pentsatzekoa da nahiko itxura latza edukiko zutela harria bistan gelditzean.

Topatu diren lurzoruak oso xumeak dira. Buztinez eta xehatutako kareharrizko edo hareharrizko nahasketaren ondoriozko orea lurrera bota eta prentsatuz, zolu sendoak baina irregularrak lortzen zituzten. Teknika hau etxebizitza guztietan erabiltzen zen, baina horietako batzuetan, oreaz eginiko zoluaz gain, harrizko zoladurak ere aurkitu dira (zoladura mistoak) etxebizitzarako sarreran eta supazterrean.

Eraikuntzek hiru geruzatako teiladura zeramaten: lehenengo teilatua ondo eraikitzeko, 6-8 cm-ko diametrodun enborrak jartzen ziren, gainean pezo-geruza bat, eta azkenik harlauzak. Etxe barruetan ez da zutoinik antzeman teilatua sostengatzeko; Jusue-ren arabera[27], pentsatzekoa da bi isurialdeko teilatua izango zela. Beraz, teilarik gabe eraikitako teiladurak izango ziren, Europan egiten zirenekin antz handia zeukatenak.

Etxeen batezbesteko tamaina 55 m^2-koa zen, eta, ziur asko, familia bakar batek okupatuko zuen etxe bakoitza. Oro har, etxe gehienetan bi espazio bereizten ziren: batetik, sarrerakoa —dintelduna eta egurrezkoa— eguneroko bizitza egitekoa zena, non supazterra baitzegoen; eta bigarrenik, logela. Hala ere, badaude hiru gela edo gela bakar bat duten etxebizitzak ere. Europan supazterra etxearen sarreratik hurbil eta hormetatik urrun kokatzen zen arren, Nafarroan hormak harrizkoak zirenez, hormaren alboan jartzen zen, suhartzeko arriskurik ez zegoelako. Etxe hauen antzekoak leku askotan topatu dira: Alemanian, Britainia Handiko Uharteetan, Frantzian eta Espainian[28].

27. Jusue, C. (1988): *Poblamiento rural de Navarra en la Edad Media. Bases arqueológicas. Valle de Urraul Bajo*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 305-306 orr.

28. *Ibidem*, 310. or.

3. ESPAZIO ERLIJIOSOAK

3.1. Alde atlantikoa

Alde atlantikoan garaturiko arkitektura aurrerromanikoaren aztarna bakarrak leihoak dira, baita Bizkaiko arkitektura-aztarna zaharrenak ere. Orain arte historiografia tradizionalak Goi Erdi Aroko bizimodu materiala zurezkoa zela pentsatu badu ere, argi dago harrizko eliz elementu monolitiko hauek eraikuntza sendoen barnean kokatzen zirela; hau da, horma sendoek, harrizkoek alegia, sostengatzen zituztela. Dena den, eliza aurrerromaniko horiek desagertu egin ziren, eta gaur egun leihoak nekazari-giroan kokaturiko eraikuntza erlijiosoetan berrerabilitako elementuak dira.

Euskal Herrian, Bizkaian agertu dira batez ere —hogei bat—; Gipuzkoan (Astigarribia-n) eta Nafarroan (Uxue-n) beste bana topatu dira eta Araban lau (Los Castros de Lastra-n bi, eta Zalduondo-n eta Ermua-n beste bana). Horien antzeko eraikuntzak Penintsularen iparralde guztian zehar aurkitu dira, mendebaldean batez ere, hau da, gune astur-galaikoan. Ekialdean, aldiz, gutxiago aurkitu dira, erromanikoaren agerpen goiztiarraren ondorioz, dirudienez.

Leihoen lanketan erabilitako teknika oso gutxi garatuta zegoen, nahiko itxura zakarrekoak baitira. Beraz, harginaren aldetik ez da ageri inolako saiakerarik, ezta ahalmen tekniko zein artistikorik ere. Horman sartu baino lehenagokoa zen lanketa: lehenengo, harria zizelaz arbastatzen zen, forma errentangeluarra edo karratua emateko; ondoren, puntero batekin argiak zabaltzen ziren eta harri gogorren batekin ajimeza leuntzen zen. Erabilitako materiala beti hareharria izaten zen. Azkeneko emaitza bi baldintzapen nagusiren araberakoa zen: batetik, harri beraren kalitatearen araberakoa, eta bestetik, harginaren maisutasun eta teknikaren mailakoa.

Euskal Herriko leihoek antzekotasunak dituzte Asturiasko leiho aurrerromanikoekin eta baita Galiziako mozarabiarrekin ere. Hala ere, gure lurraldekoek ez dituzte aipatutako eredu biak bete-betean jarraitzen, ez tipologikoki, ezta kronologikoki ere. Hemengo leihoek luzetarako irekidura bakarrak, bikoitzak edo hirukoitzak dituzte, baina beti ere txikiak, erremate batekin, bai puntu erdiko arku batekin eta baita arku ultrapasatu batekin ere; eta batzuetan, argi irekidurek errematerik ez dutenean, okuluak eduki ditzakete. Gutxi batzuek apaindura ere badute, erresaltean batez ere, eta ebakidurazkoa izaten da; sarritan lerro zuzen paraleloak edota sokatuak —erronbo itxurakoak— agertzen dira leihoaren markoa inguratuz. Aipatutakoaren salpuespen bakarra, Zeberion aurkitutako bi leihotxo dira (Argiñanoko San Adrian eta Barañanoko San Antonio). Hauek biak bloke lauangeluarrak dira, argiaren irekidura zirkularra ez daukate zentratuta, eta barruan beso lodiko gurutzea dute argi kalatuarekin.

Leiho hauen guztien antzekoak Galizian eta Asturiasen daude. Ribas Fernandez-ek Galiziaren kasurako eginiko azterlanaren ondorio nagusiena ondokoa da,

alegia, leiho monolitikoen eredu zaharrenak tradizio mozarabiarrekoak direla, hau da, X. mendekoa baino lehenagokoa den eredu kultukoak, non argien irekiduren erreматean arku ultrapasatuak erabiltzen baitziren. X. mendetik aurrera eredu hori degeneratuz joan zen, hau da, gero eta herrikoiagoa bihurtuz, eta, ondorioz, XI. menderako erremateko arku ultrapasatuak okulu independienteak izatera heldu ziren. Asturiasko leihoek antzeko bilakaera izan zuten; baina erremateko arkuak ixtera jo bazuten ere, ez ziren independizatu. Kantabrian ez da honelako leihorik aurkitu; eta Gipuzkoan bakarra dago, Astigarribiako San Andres-en. Bere testuinguru hurbilean, beraz, Bizkaia leiho aurrerromanikoen uharte bat da, zeinetara mendebaldeko eskualdeko leihoen azken ereduak, hau da, berantiarrenak eta degeneratuenak heldu baitziren.

Bizkaiko leihoen kronologia zehazterako orduan kontuan izan behar diren zenbait elementu, honako hauek dira: lehenik, leiho monolitikoak, gaur egun baseliza gotiko errenazentistetan topatzen direnak, bere garaiko beste aztarna arkeolgiko batzuekin batera (hilarriak, sarkofago askeak, hilobi-estalkiak...); bigarrenik, zenbait leihotxotan aurkitutako bi adbokaziok (San Lorentzo —mozarabiarren artean oso ezaguna— eta San Salvador —Asturiasko erregetzaren figura garrantzitsua—) erakusten dutenez, leiho hauei dagozkien elizak fundazio aurrerromanikoak dira; hirugarrenik, datu dokumentalak; eta azkenik, leihoetan aurkitutako inskripzio epigrafikoak. Adibidez, Lamikiz-ko San Juan eta San Lorentzo baselizako (Mendata) leihoko inskripzioen letrakeragatik —kapital erromatarra— eta inskripzioen berezitasun fonetikoengatik, leihotxoa XI. mendekoa dela esan daiteke.


Laburbilduz, Bizkaiko leiho monolitikoak lan herrikoiak dira; baina eredua ez da populazio xehearena, mendebaldetik datorren eredu kultu edo landu baten degenerazioa baizik. Harginak traketsak eta herri-mailakoak izatearen ondorioz, leihoek are eredu herrikoiago bati jarraitzen diotela ematen du.

Zer esanik ez, leihotxo monolitikoak harrizko eraikuntzetan barneraturik egongo ziren. Horrelako egiturek ez dute iraun gaur egun arte, desagertu direlako edota eraldaketa sakonak jasan dituztelako (garai bakoitzeko orientazio estetiko zein funtzionalen ondorioz). Beraz, gaur egun Goi Erdi Aroko eliza bizkaitarrak indusketen bitartez bakarrik ezagut daitezke. Horietako biren berri emango dugu hemen:

1. **Cerrada de Ranes-**en (Abanto-Zierbena), Erdi Aroko hilerriaren induskeeta egitean harlangaitzez eginiko eraikin baten oinplanta errektangeluarra (6,5 m × 4,5 m) aurkitu zuten. Eki-mendebaldeko norabidea zuen, eta estalkia teilazkoa zen. Zenbait arrazoirengatik (batetik inguruan hilerria kokatzea eta bestetik barruan hilobirik topatu ez izana, XIII. mendera arte eliz legeek eta lege zibilek hilobiratzeak elizen kanpoan egitea agintzen zutelako), izaera erlijiosodun eraikuntza zela uste da. Hala ere, sarrera ekialderantz begira izatea, gertaera ezohikoa da tenplu kristauetan, hor absidea kokatzen baituzten. Beraz, bi aukera daude: bata, ezohiko banaketa espaziala duen

tenplu kristaua izatea; eta bestea, ekialdeko banoa sarrera izan beharrean leiho batentzako hutsunea izatea, indusketan bertan ez baitzen argi geratu berau nola interpretatu. Ikertzaileek[29] XI. mendekoa baino pixka bat lehenagokoa dela uste dute.

2. **Momoitioko San Juan-**ek (Garai) ere aurreko eraikuntzarekiko antzekotasun handiak ditu: batetik kronologia, XI. mendekoa, bestalde tamaina oso txikia (4,2 m × 3,1 m). Hala ere, honek ipar-hegoaldeko orientazioa dauka. Eraikuntza-teknikari dagokionez, antzemandako baselizaren perimetroko hiru hormetan harlangaitzezko horma bikoitza dokumentatu da, 45 cm-ko betegarriarekin. Morteroa betegarriz eta hareaz eta kareaz osaturiko orez eginda dago. Eraikuntzaren teilatua gangarik gabea izango zen, kontrahormarik ez zuelako. Paramentuetan zura eta harria konbinaturik egongo ziren. Estalkia landarezkoa eta buztinezko izango zen, arkeologia-lanetan bestelako elementurik —harlauza edo teilarik esaterako— aurkitu ez zelako.



(García Camino; González Cembellin; Santana, 1987)

29. García Camino, I.; González Cembellin, J. M. eta Santana, A. (1987): "La arquitectura prerrománica vizcaína", *Kobie (Serie Bellas Artes),* Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 21. or.

Beraz, Momoitio-ko San Juan egitura sinple eta txikia da, garaiko beste etxebizitzen antzekoa; berezitasun batekin, zeren, ziur asko, Momoition etxebizitzetan baino harlangaitz gehiago erabiliko zen, eraikinaren iraupen beharrarengatik. Bestalde, aztertutako eliza honen ezaugarriak eta leihotxo aurrerromanikoen ezaugarriak kontuan izanik, litekeena da Bizkaiko XI. mendeko elizatxo gehienak Momoitiokoaren antzekoak izatea:

> "... podemos suponer que la mayor parte de las iglesias vizcaínas del siglo XI respondían a un modelo común donde los rasgos más destacables eran la sencillez constructiva, los volúmenes reducidos y la concepción simple del espacio, en contraposición con la compleja compartimentación que caracteriza a los edificios típicamente mozárabes construidos en esta centuria o en la anterior"[30].

Elizatxo gehienak ezaugarri hauek eduki arren, bazeuden oso bestelako itxura eduki behar zuten espazio erlijiosoak ere. Batetik, agiri idatzien bitartez argi dago elizen artean hierarkia edo mailaketa zegoela; kasurako, Abadiñok, Mungiak, Ziortzak edo Axpek barruti baten kontrola edukiko zuten, baita eliza txikiagoen kontrola ere. Bestalde indusketek erakusten dutenez, eliza konplexuagoak ere bazeuden; adibidez, Mutrikuko Astigarribiako San Andres (ikus *supra*), 10,5 m × 8,75 m-ko oinplantarekin, aurrekoak baino bi aldiz handiagoa da, tamainaz behintzat.

Gipuzkoan eraikuntza erlijiosoen ikerketak egin dira, eliza- eta ermita-barneetan indusketak eginez.

Ezusteko datazio zaharrak eman zituen indusketa famatu bat, Ama Xantalen ermitakoa izan zen: 1971. urtean berriztapen-lanak hasi zirenean, lehen aldiz arkeologia erabili zuten I. Barandiaran-en gidaritzapean. Indusketa eginda aurkituriko serie estratigrafikoa harrigarria izan zen: K. o. II. mendean hasita, eraikuntzaren eboluzioan, Erromatar Garaia (nekropoli-arrastoak), Goi Erdi Aroa, Behe Erdi Aroa eta Erdi Aroaren ondorengo mailak agertu ziren. K. o. II-IV. tartean ziurrenez eraikuntza erromatarra egon zen; ondoren, pareten parte bat botata, eraikuntza txiki bat egiteko berrerabilia izan zen, kultu kristauko tenplu modura hain zuzen (aldare prismatikoak adierazten duenez). Tenplu kristau izaterako aldaketa-momentu hori zoruan aurkitutako txanponen bidez datatu daiteke, 977 eta 985. urteen tartean, Guillermo Antso Bordeleko kondeak eginak izan baitziren.

Ikerketa honek iragan erromatar ia ezezaguna aurkeztu eta agertu zuen; eta tradizioak, toponimiak eta legendek adierazitako lekuetan antzerako aurkikuntzak egiteko posibilitatea ireki zuen.

Astigarribiako San Andres Eliza (Mutriku). 1968an, garbiketa eta zaharberritze-lanak hasi ziren. Elizak egitura berezia zuen, antzeko bakarra Aralarko Mikel Goiaingeruaren elizakoa izanik: bi barrutiko eliza, hots, bi eliza bata bestea-

30. *Ibidem*, 22 or.

ren barnean sartuta, estalki berdinarekin. Eliza zaharrena barrukoa da, oinplanta originala duena, itxura errektangeluarrekoa; Eliza bisigotikotzat hartu izan da tradizionalki, barneko elizako horman dagoen ferra arku itxiko leihotxoa izanik. Barnean egindako indusketek, ordea, XIII-XVII. mendeetako kronologia eman zuten.

3.2. Alde mediterraneoa

Euskal eremuan lehen arrasto kristauak **Arabako koba artifizialetan** daude. Hain zuzen, VI-VII. mendeen inguruan talde kristau batzuk, aszesia egiteko, modu eremitikoan bizitzen jarri ziren bertan. Koba hauetan monjeek elizak landu zituzten, garaiko erlijiosotasunaren isla bereizgarria osatuz.

Ehundik gora daude katalogatuta. XIX. mendearen bukaeran piztu zen koba hauek aztertzeko interesa. Preseski, 1917an Barandiaran-ek, Eguren-ek eta Aranzadi-k laurogeita zazpi kobazulo deskribatu zituzten lehen katalogo batean. Indusketak 1965etik aurrera egiten hasi ziren: 1965-66an, Montico de Charratu-n historiaurreko mailak agertu ziren. Inguruan, Sarracho-n, Erromatar Garaian irekitako tenpluak Goi Erdi Aroan berrerabiliak izan ziren. Geroago, 70eko hamarkadan optika berri batetik bestelako analisiak egin ziren, egoera, kokapena, deskripzioa, graffitiak eta bestelako datuak bildu, eta okupazio-fase ezberdinak ikusteko. Koben kronologiaren arazoa zela-eta, zundaketa estratigrafikorako programa bat sortu zen: Los Moros (Corro) kobazuloa aukeratu zen, posibilitate handienak zituelako. Kobaren inguruan indusiz, bost eskeleto aurkitu ziren, batek garai bisigotikoko dataketa eman zuelarik (C–14aren bidez 620±80 urte-tartea lortu zen, hau da, 540-700 urte-tartea). Agustin Azkarate-k bere tesi-lanean koba artifizialak sakonkia ikertu zituen, eremitismoaren kasua Euskal Herriko testuinguruan kokatuz[31].

Orain urte gutxi, koba eta hilarriei buruzko lan bateratua kaleratu zen. Trebiñoko koba artifizialen ezaugarri nagusia hormetako inskripzioak dira, elementu bereizgarri eta ikerketarako gai izanik. Inskripzioak epigrafikoak —analisi paleografikoekin datatuak izan daitezkeenak— eta anepigrafikoak —datatzeko arazotsuak— dira, eta kronologia-arazoak argitu ditzakete[32]:

a) *Epigrafikoak*: ez dira ugariak, baina bai oso interesgarriak, koben fenomenoa ulertzen laguntzen baitute, kronologia eta funtzionalitatea argituz. Mota honetako inskripzioak Arabako Kruzia-1, NS de la Peña-3 eta 4, Las Gobas-4 eta 6 eta Santorkaria kobetan ezagutzen dira; baina interesgarrienak Las Gobas-6koak dira.


31. Azkarate, A., (1988): *Arqueología cristiana De la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

32. Azkarate, A. eta Garcia Camino, I. (1996): *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. mendeak). I. Euskal Herriko Mendebaldea*, EHU eta Eusko Jaurlaritza, Bilbo.

Inskripzio edo idatzi hauen gaiak adbokazioak dira: kobazulo barnean dauden eliza txikien titularitatea ematen dute; adibidez, Laño-ko kobako San Primitivo eta San Atanasio santuen izenak. Aklamazio eta inbokazioak[33] ere azaltzen dira.


Inskripzioak gehienbat kurtsiba bisigotikoz idatzita daude; hizki-mota horren muga paleografikoak VI-VII. mendeetako kronologia ematen du. VI. mendearen bukaeratik VII. mendearen bukaera arte, ehun urtetan eginak, esku ezberdinak ikusten dira, ezarkuntza jarraitua dokumentatuz.

b) Ez-epigrafikoak: multzo honek sortzen ditu arazorik handienak jatorri, kronologia eta esanahiaren aldetik. Gaiak anitzak dira: antropomorfoak, zoomorfoak, gurutze formakoak, hanka-itxurakoak (*vestigia pedis*), golde nabarrak, itsasontzi-itxurako egiturak, landare itxurakoak, etab. Irudi hauetako batzuen esanahi sinbolikoa ezaguna da; adibidez, zaldiak eta paumak ikonografia paleokristauan ezagunak dira. Elementu bi hauek dira, batez ere, inskripzio ez-epigrafikoen kronologiara hurbiltzeko modu bakarra (jatorri paleokristaua baitute, VI. mende ingurukoa).



Las Gobas-6 kobaren oinplanta.

33. Bereziki interesgarriak dira Las Gobas-6ko bi inbokazio: *"orate lectores sic dominum abeatis adiutorem"* eta *"orate/ pro me/ lectores/ sic dominum/ adiutorem/ protectorem"*. Goi Erdi Aroko eskuizkribuetan agertzen dira horrelakoak, eta kristautasunaren lehen mendeetan dute jatorria.



35. Las Gobas 6-G. Kobako inskripzioak. (A. Azkarate eta I. Gª Camino, 1996)

Bestalde, Arabako lurraldean datazio oso zaharrak eman dituzten eliza-arrasto batzuk agertu eta ikertu dira. Horien artean ikusgarrienak ondoren azaltzen diren bi hauek dira: Buradon-go Kastroko multzo arkeologikoan agertutako eliza mozarabiarra eta Tobillas-ko San Roman elizaren azpiko mailak.

Buradon-go Kastroko multzo arkeologikoa (Buradon Gatzaga). Kastroa Arabar Errioxan dago kokatuta, Conchas de Haro izenaz ezagutzen den jende- eta kultura-iraganbide naturalaren inguruan. Errepide baten eraikuntza-lanetan tunela egiteko zulatze-lanak hasi zirenean agertu zen kastroa, mendi-malda batean. Interbentziozko indusketa egin behar izan zen, materialak, kronologia eta sekuentzia ezagutzeko.

Maila arkeologikoak oso konplexuak zirela ikusi zen hasieratik, Brontze Aroaren bukaerako eta Burdin Aroko mailetatik hasi eta Erromatar Garaiko, Antzinaro Berantiarreko eta Erdi Arokoak ere agertu baitziren. Hemen Erdi Aroko mailak dira gehien interesatzen zaizkigunak. Elizaren egitura aztarnategiaren mendebaldean atzeman zen. Aurreko garaietako elementu berrerabiliez eraikitako nabe bakarra zuen elizatxoak, 5 m-ko zabaleraz eta luzera ezezagunaz (hamabi bat metrotakoa zela uste da); sarrera hegoaldetik zuen, arkupedunaz. Burualdea oso berezia da, aurrerromanikoa, Araban dagoen bakarra; ferra-arku itxiko oinplanta eta aldarearen harri bakarreko euskarria agertu zen lekuan. Hormaren kontra, barruan, lau euskarri berrerabili, presbiteroen eserleku. Horman *loculus* bat —erlikiak jartzeko hutsunea— agertu zen. Ezaugarri estilistikoek X. mendearen erdialdean datatzen dute estruktura.


Elizaren burualde-inguruan —gehienbat— nekropolia agertu zen: guztira 227 hilobiratze, gehienak harlauzaz osatutako zistatan. Gorpuak E-M norabidean *decubito supino* eran (ahozgora etzanda) jarrita zeuden. Ostilamendu bakarra, bi eraztun. Elizaren garaiko hilobiratzeak direla pentsatu behar da.

Aukikuntza honen garrantzia ezarkuntzaren jarraitasunean datza. Hala ere, Antzinaro Berantiarraren eta Erdi Aroaren arteko jarraitasunak —V-X. mendeen tartean— interpretazio-arazoak agertzen ditu[34].

Tobillas-ko San Roman elizaren berritze- -lanetan bi ikerketa-mota erabili ziren —barne-indusketa eta kanpoaldeko altxaeren irakurketa— ondoko emaitza txundigarriak emanez: elementu apaingarriak bakarrik kontuan hartuta luzaroan erromanikotzat katalogatua izandako eliza hau, askoz beranduago erabat berreraikia izan zela ikusi zen.

Elizatxo honek beste ezaugarri berezi bat du: fase aurre-erromanikoak datatzeko, bi idatzizko erreferentzia daude (gero ikerketa arkeologikoarekin egiaztatuak izan direnak). Batetik, Oña-ko kartularioan Avito abadearen testamentua gordetzen da, 822. urtekoa, eta bertan Tobillas-ko monasterioa fundatu zuela esaten du, honek *ante quem* data emanez. Bigarren erreferentzia harrian landutako epigrafe batean dago: Vigila presbiteroak 939an tenplua berregin zuela adierazten du.

34. Cepeda Campo, J. J. eta Martínez Salcedo, A., (1993): "Buradongo arkeologia multzoa (Buradon – Gatzaga)", *Arkeoikuska*, 257-269. orr.



Buradongo kastroa. Buradon-Gatzaga..
(A. Martinez Salcedo eta J.J. Cepeda Campo, 1993)


Tobillas-eko San Roman.



10. Tobillas.

Epigrafea: Renoval[tum est] hoc templum/
vigilâni Presviteri in /
honore s(an)E(t)i Romani et S(an)c(t)i Cipriani pro re /
medio anime sue/
era DCCCCLXXVII A.

(A. Azkarate eta I. Gª Camino, 1996)



Eraikuntzaren eboluzioa/garapena.

(A. Azkarate, 1995b. 203. or.)

Ikerketan garai ezberdinetako arrastoak identifikatu ziren: Erromatar Garai Berantiarra, absidearen inguruan harkaitzean induskatuako egitura zirkular batzuetan; Aurrerromanikoa, IX-X. mendeetan datatuta (idatzizko kronologiak lagunduta); Erromanikoa, XII. mendekoa; eta ondorengo garaiak: Behe Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea.

Garai aurrerromanikoan bi fase egon zirela erakutsi zuen indusketak, biak idatziz datatuak izan ahal direnak. Batetik, IX. mendeko fasean harkaitzean landutako egoitza batzuk agertu ziren: monasterioaren erdi.labarretako partea, eta elizaren oinplanta ia osoa. Bestetik, X. mendeko berritzean, elizaren nabearen orientazioa aldatu, eta harkaitzean egindako barrunbeak mantendu ziren.

Fase erromanikoan (XII. mendea) oso bereizgarri diren apaindura-elementuak egin ziren (gero berrerabili eta lekuz aldatuak izango direnak). Eraikuntzak hainbat eraldaketa izan zituen (sarreran eta altxaeran). Baina Behe Erdi Aroa da elizarentzat aipagarri, hondamen-garaia izan baitzen. Ziurrenez, nabeak jasandako norabide- eta egitura-aldaketak zirela-eta, eraikuntza erori egin zen. Aro berrian monasterioa parrokia bihurtu eta berreraiketa eta aldaketa morfologiko ugari jasan zituen. Portada berregin zen, baina apaindura-elementuekin kontu handirik izan gabe. Horrela, sakristian ere agertu dira antzinako portada erromanikoko elementuak. Ondorengo mendeetan hainbat lanketa gehiago jasan zituen eraikuntzak. Beraz, indusketak eliza propioki erromanikoa ez dela erakutsi du[35].

Nafarroari dagokionez, arestian aipatutako zenbait despopulamendu —horien artean Aizpe, Argiroz, Askoz eta Puio— elizaz horniturik zeuden. Beraien indusketek argitara ekarri dutenez, elizek honako ezaugarri komunak zituzten:

– Oinplanta errektangeluarra.

– Elizek despopulamenduko etxebizitzek baino kalitate hobeko eraikuntza-teknika ageri dute. Kontrahormak gutxitan ageri badira ere (Puion, adibidez), ez du ematen gaineztadura gangaturik edukiko zutenik.


– Orientazioari dagokionez, elizak ekialdera begira daude, eta irteera —arkupeduna izan daitekeena— hegoalderantz dute.

– Zoladuraren bitartez barneko espazioak bereizten dira elizetan; batetik, presbiterioa, eta bestetik, fidelen aldea (esate baterako, adreiluzko zoladura Argiroz-en), hauek hormei atxikitako banku luzeetan jezartzen zirelarik.

– Teilatuaren gaineztadurari dagokionez, egurrezko egitura eta harlauzak tartekatzen dira.

35. Azkarate, A. (1995): "Aportaciones al debate sobre la arquitectura prerrománica peninsular: la iglesia de San Román de Tobillas", *Archivo Español de Arqueología*, Madril, **68**, 189-214. or.

Kronologiari dagokionez, indusketaz arduratu denak[36] eliza horiek ezarkuntzen garaikideak direla defenditzen du, hau da, X-XII. mendeetako eraikuntza aurrerromanikoak direla.



(C. Jusue, 1988)

36. Jusue, C., (1988): *Poblamiento rural de Navarra en la Edad Media. Bases arqueológicas. Valle de Urraul Bajo*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 311-315 orr.

3.3. Heriotza

I. García Camino-ren arabera[37], **Bizkaian** Goi Erdi Aroan lurperaketa elizatik kanpo egiten zen, eta antolaketa ez zen familia nuklearraren araberakoa. Aitzitik, Behe Erdi Aroan, gorpuak espazio erlijiosoaren barruan familiaren inguruan hilobiratzen ziren. Horrez gain, Goi Erdi Aroko hilerrien antolaketari dagokionez, baselizak eta beronen absideak prestigiozko ingurunea osatzen zutenez, lurperaketak bertan kontzentratuko ziren, azkenean gainjartzera ere helduko zirelarik —Mendraka-n, adibidez—. Beraz, gune hauetatik urruntzen garen heinean, bai hegoalderantz zein iparralderantz, zenbat eta leku ilunagoak eta hezeagoak izan, orduan eta ehorzketa gutxiago topatuko ditugu; sakabanatuagoak, gainera.

Laburtuz, lurperatzeko tartekatzen diren irizpideak honako hauek dira:

1) Irizpide sinbolikoak: elizaren ingurunea prestigiozko espazioa da, absidea batez ere.
2) Irizpide geografikoak: aukeran ekialde eta mendebaldera begira dauden tokiak nahiago dira, eguzkitsuagoak eta beroagoak direlako.

Beraz, honek guztiak giza ezarkuntza eta nekropolien antolaketa zein hobiratzerako tokiaren aukeraketan irizpide berdinak zeudela erakusten du.

Goi Erdi Aroko ehorzketek eki-mendebaldeko norabidea dute eta gehienetan ostilamendurik gabe agertzen dira. Mota honetako lurperaketak topatuko ditugu:

1) Hilobi askeak (edo sarkofagoak), bi isurialdeko estalkiarekin[38].
2) Zista-hilobiak edo harlauzadunak.
3) Hormadun hilobiak.
4) Lurpeko tuparrietan industuriko hilobiak.
5) Hobi sinpleko hilobiak.

Hilobiratze-erritуei dagokionez, oro har, izaera kristaua dutela esan behar da, baina erritu aurrekristauen aztarnarik ere aurkitu da, Momoitio-n (Garai) adibidez. Bertan burututako indusketa-lanen ostean topatutako hogeita hiru estakildun hilobietatik, hamalauk zuloa daukate burualdean. Horietako batean 10 cm-ko ikatz-maila bat aurkitu zenez, García Camino-ren iritziz «kristautasun aurreko errituale-

37. García Camino, I., (1992): "Bizkaiko populaketa Erdi Aroan, datu arkeologikoen bidez (X-XIII. mendeak)", *Illunzar/92*, AGIRI, Gernika, 17-27. orr.

38. Giza komunitate bateko kiderik garrantzitsuenak nabarmentzeko izango ziren, estalkiak garestiak zirelako eta hilerrira arteko garraioak lan neketsua izan behar zuelako. Gehienak Oiz-ko harriarekin eginda daude, eta *in situ* batere ez badago ere, multzorik handiena Durangaldean dago. Ehorzketa hauen jatorriak erromatar eta bisigotikoak dira; beraz, berauen agerpena hegoaldetik datorren akulturatze-prozesuaren islatzat hartzen da.

tako lekukotasun materialen aurrean gaude»[39]. Hilobiaren inguruan sute bat egongo zen, eta errauts batzuk zulotik sartu zituzten, ondorioz hildakoaren hezurdura belztu egin zelarik.

Araban nekropoli ugari aurkitu dira, gehienak Erdi Arokoak, eta ikerketa asko egin dira beraiei buruz. Agian, azken urteotako hilerri edo nekropoli famatuena Aldaieta-n (Landa) agertutakoa izan da, bai hilobi kopuruagatik, bai ostilamenduaren jatorriagatik eta bai ikerketak eragin duen Antzinaro Berantiarraren ikuspegi berritzaileagatik ere.

Nekropolietan hilobi-tipologia anitza agertu ohi da: lurraren gainean zuzenean, zulo gabeko hilobiak (Aldaieta); harkaitzean landutako hilobi antropomorfoak; hormatxodunak, errektangeluarrak; harlauzaz egindakoak, poligonalak; eta sarkofagoak. Luzaroan nekropoliak elizaren inguruan egon ohi ziren. XIV. mendetik aurrera, ordea, eliza barruan hilobiratzen hasi ziren, hilobi familiarretan batez ere, XIX.ean ohitura hori arrazoi higienikoen-gatik debekatua izan zen arte.

Nekropolien ikerketa arkeologikoa 1972an hasi zela esan daiteke, Remelluri-ko (Labastida) Santa Eulalia-ko nekropoliaren indusketarekin. Gaur arte, asko induskatu dira, gehienak premiazko lanetan.

Arabar Errioxa aldeko nekropolien ikerketen hurbilketa A. Llanos-ek[40] egin zuen. Inguru honetan zazpi nekropoli ikertu zituen, bi Arabar lurraldearen barnean eta besteak Errioxan. Toloño mendizerraren eta Ebroren tartean, orografiak harkaitz berezia —hareharria— eskaintzen du, eta harri horietan landu/induskatu ziren hilobiak. Nekropoli hauek hilobi-multzo handiz osatuta zeuden; zehazki ezin da jakin zenbat izan ziren benetan, zeren, ondorengo mendeetan harrobi modura erabiliak izan baitira harkaitz horiek eta hilobi/nekropoli asko hondatu dira. Ikertutako nekropolien artean, interesgarrienak honako hauek dira:

- **Las Sepulturas**: Bastida inguruan, 83 hilobi ondo kontserbatuak, trapezoidalak eta antropomorfoak. Nekropoliaren hegoaldean erdi-labarretako eliza baten trazaketa nabari da.
- **San Martin** nekropolia: inguruko handienetakoa, harkaitzaren irtengune batean hilobi antropomorfikoak indusi ziren. Harrobi modura erabilia izan denez, ezin da ikusi nekropoliaren antolaketa (adinaren araberakoa zela uste da). Gainaldean ermita baten arrastoak daude.
- Labastidako **Santa Eulalia**: harkaitzean induskatutako hilobiak etxe bat eraikitzeko lanak hasi zirenean aurkitu ziren. Nekropoli honen garrantzia espoliatu gabe aurkitu izatean datza: hilobi ia guztiak kontserbatu dira eta

39. García Camino, I., (1992): "Bizkaiko populaketa Erdi Aroan, datu arkeologikoen bidez (X-XIII. mendeak)", *Illunzar/92*, AGIRI, Gernika, 22-23. orr.

40. Llanos, A., (1972): "Necropolis altomedievales en la zona occidental de la Rioja Alavesa", *Estudios de Arqueologia Alavesa*, **5**, 219-235. orr.

indusketa egin ahal izan da. Guztira 56 hilobi ukitu gabe aurkitu ziren: norabidea E-M, burua mendebaldean, ekialdera begira; lanketa, karratu itxurakoa; estalkia, harlauza handiak, landu gabeko blokeak; hilotza, *decubito supino* jarrita; ostilamendurik gabe. Harkaitzean landutako zanga batzuk agertu ziren; eraikuntza baten zimentu-zangak zirela uste da. Hegoalderago harkaitzean landutako zuloek herrixkaren arrastoa ematen dutela dirudi.

Mota honetako nekropoliak Araba osoan agertu dira, barreiatuta, bai nekropoli moduan, bai kobazuloetan. X. mendeko kronologia onartzen da.



Bastidako Santa Eulalia nekropoliko holobiak.

(Llanos, A., 1972, 235 or.)

Nafarroako ezarkuntzen artean bitan baino ez dira nekropoliak aurkitu, Argiroz-en eta Puio-n, besteetan aurkikuntza isolatuak egon direlarik. Argiroz-koa elizaren hegoaldeko alboan topatu zen. Aurkitu zireneko hamaika (11) lurperaketak, maldan behera daude antolatuta, hiru mailatan. Zenbait ehorzketaren inguruan hilarri diskoidalak kontserbatzen ziren oraindik ere —seguraski lurperaketen burualdean egongo ziren—. Salbuespenezko egoera hori —hilarriak *in situ* topatzea, hots, bere testuinguru arkeologikoaren barnean—, ez da batere ohikoa, eta horien barnean zein beren testuingurutik kanpo topatutako beste hilarri askoren kronologia ezagutzeko balio du.

Puio-ko nekropolian ere ehorzketen orientazioa eki-mendebaldekoa da. Hobia harlauza bertikalez eraikita dago, eta horizontalean jarritako harlauzek estalirik.

Oro har, hilobiek forma errektangeluarra edo trapezoidala dute. Gorpuak *decubito supino* eran ehorzten ziren, ostilamendurik gabe. Nekropoliak elizen inguruan agertu dira.

Honelako ezaugarriak dituzten lurperaketak oso arruntak ziren XI. mendetik XIII. mendera. Nafarroan honelako ezaugarriak dituzten beste zenbait ehorzketa ere topatu dira; Santa Cruz-ko ermitaren hilerrian, Iruñean katedralaren lurzoruan, Soracoiz-ko despopulamenduan, Gares-ko Gomacin eremuan, Zurun-dain-go despopulamenduan edota Baigorri-ko Erdi Aroko eremuan**.**

3.4. Hilarriak

Gorago kobazuloetako inskripzioak aipatu ditugu Antzinaro Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko arkeologiako elementu harrigarri gisa. Orain euskal eremuan ikerketa-gai garrantzitsua osatzen duen beste multzo arkeologiko bat tratatuko dugu: hilarriak.

Araba eta Bizkaiko lurretan agertutako hainbat hilarriren azterketa bateratua proposatu da ikerketa berri batean[41], datu eta ikuspegi oso interesgarriak emanez. Bizkaian hirurogeita hamabi hilarri aurkitu dira, Durangaldean (%72) eta Arrigorriaga aldean batez ere. Araban beste hogei bat, Valdegobia inguruan (%40), Ekialdean eta Errioxa arabarrean.


Hilarriak eliza eta nekropoliekin lotuta agertu dira. Gehienbat funerarioak dira (%95) eta badaude oroigarrizkoak ere (elizetako fundazioak):

– Funerarioak: gutxi agertu dira *in situ*, gehienak mugituta edo berrerabilita baitaude. Berezko lekuan indusketa-lanen ondoren bakarrik aurkitu dira: Los Castros de Lastra, Momoitio, etab.

41. Azkarate, A. eta Garcia Camino, I. (1996): *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. mendeak). I. Euskal Herriko Mendebaldea*, EHU eta Eusko Jaurlaritza, Bilbo.

– Oroigarrizkoak: tenpluaren fundazioa edo berritzea oroitu edo ospatzen dute eta hormetan txertatuta egoten dira.

Hilarriak morfologia aldetik gehienbat lau motatakoak dira: diskoidalak, tabularrak, hilobi-estalkiak eta harlanduak.



Hilarrien tipometria.

Azkarate, A. eta García Camino, I., 1996)

– Diskoidalak: lurrean sartzeko oin prismatiko bat izaten dute. Hiru azpitalde ikusi dira: disko handiak, 70 cm ingurukoak (Argiñeta); txikiak, Araban batez ere; eta diskoideoak, biribil-itxura osoa lortzen ez dutenak.

– Tabularrak: egitura prismatiko altuak dira, gehienak 50-100 cm-koak. Batzuk kalitate handiko lanketa dute, altuak eta lirainak, eta apainduta egoten dira (Arrigorriaga).

– Hilobi-estalkiak: Argiñeta-ko nekropolian lauak, dekoratuak eta IX. mendeko inskripziodunak agertu dira.

– Harlanduak: tenpluetako hormetan agertzen diren inskripzioak dira.

Aipatutako lanean aurkezten den interpretazio-proposamenak hilarrien ezaugarriak batu eta kronologikoki artikulatzen ditu, paradigmak sortuz:

VI-VII. mendeak

Lehen paradigma. Arabako koba artifizialetako graffitiak: Antzinaro Berantiarreko errealitatera hurbiltzen dute.

VII-VIII. mendeak

Bizkaian bi hilarri-talde agertzen dira, denboran bat eginik baina morfologikoki oso ezberdinak.

Bigarren paradigma. Hilarri tabularrak eta diskoidalak, Pirinioz iparraldeko apaindura: Arrigorriaga-ko taldea, adibidez, hilarri tabular lirainak, ondo landuak. Antzekoak, Pirinioz bestaldeko mundu merobingiarrean bakarrik agertu ziren. Dekorazioa: *paté* gurutzeak (hankadun gurutzeen irudiak), inguruan grabatuta biribilak, hortzak, etab. dituztelarik.

Hirugarren paradigma. Izar-dekorazioa duten hilarri diskoidal handiak: dekorazio hau kronologia zabalean agertzen da. Argiñeta-ko izar-itxurako eta zerrenda horzduneko diskoak dira.

VII-X. mendeak

Laugarren paradigma. Arabako hilarri diskoidal txikiak: Los Castros de Lastran-go indusketan agertutako multzo txikia, izar-dekorazioduna.

Bosgarren paradigma. Arabako inskripzioak: 3 funerarioak eta 1 oroigarrizkoa; ez dute hilarri-formarik (batez ere, errektangeluarrak dira), epigrafikoak dira eta ez dute ikonografiarik. Elementu latino-kristauak dira (adibidez, Tobillas-ko Vigila abadearen epigrafea).

Seigarren paradigma. Dekorazio nahasia duten hilarri tabularrak. 2, 3 eta 5. paradigmen batuketa: hegoaldeko eraginez, forma prismatikoa dute; dekorazioa eta epigrafeak ere badituzte.

X-XI. mendeak

Zazpigarren paradigma. Bizkaiko hilarri funerarioak, forma ez-erregularrekoak; epigrafikoak dira eta ez dute apaingarririk. Hegoaldetik etorritako kultura latino-kristau mozarabearen eragina sumatzen zaie.

Material hauek VI-X. mendeen tarte luzeko kronologia ematen dute, eta garai hartan euskal eremuan bizi ziren gizataldeen erakusgarri dira: Argiñeta-ko hilarriek jatorri arkaikoa duten heinean, Arrigorriaga-koek kanpoko eraginak erakusten dituzte. Denbora pasatuz, hegoaldeko eraginak nabariago egin ziren.

BIBLIOGRAFIA

1. Diziplina arkeologikorako oinarrizko bibliografia

Bahn, P. eta Renfrew, C. (1993): *Arqueología teoría, métodos y práctica,* Akal, Madril.

Boüard, M. de eta Riu, M. (1977): *Manual de arqueología medieval: de la prospección a la historia*, Teide/Base, Bartzelona.

Caballero, L eta Escribano, C. (1996): *Arqueología de la arquitectura*, Junta de Castilla y León, Burgos.

Carandini, A. (1997): *Historias en la tierra,* Crítica, Bartzelona.

Carl-Axel, M. (1992): *Introducción a la arqueología*, Cátedra, Madril.

Garcia Trocoli, I. eta Sospedro, R. (1992): *Harris Matrix, sistemes de registre en Archéologie. Recording systems in archaeology,* El Fil d'Ariadna, Lleida, 2 liburuki.

Gutierrez, S. (1997): *Arqueología. Introducción a la historia material de las sociedades del pasado*, Universidad de Alicante, Valencia.

Harris, E. (1991): *Principios de estratigrafía arqueológica*, Crítica, Bartzelona.

Harris, E. C. (1989): *Principles of archaeological stratigraphy*, Academy Press, London.

Hodder, I. (1994): *Interpretación en arqueología. Corrientes actuales*, Crítica, Bartzelona.

Nazioarteko ihardunaldiak, Interbentzio Arkeologia. Jornadas Internacionales Arqueología de Intervención. Intervention Archaeology International Sessions, Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1992.

Trigger, B. G. (1992): *Historia del pensamiento arqueológico*, Crítica, Bartzelona.

Wheeler, M. (1977): *Arqueología de campo*, Fondo de Cultura Económica, Madril.

Erdi Aroko arkeologiako bibliografia orokorra

I Congreso de Arqueología Medieval Española, Asociación Española de Arqueología Medieval, Huesca, 1986, 5 liburuki.

II Congreso de Arqueología Medieval Española, Asociación Española de Arqueología Medieval, Madril, 1987, 3 liburuki.

III Congreso de Arqueología Medieval Española, Asociación Española de Arqueología Medieval, Oviedo, 1989, 2 liburuki.

IV Congreso de Arqueología Medieval Española, Asociación Española de Arqueología Medieval, Alikante, 1993, 3 liburuki.

Archeologia Medievale, All´insegna del Giglio, Firenze.
Archéologie du Midi Medieval, Centre d´Archéologie Médiévale du Languedoc, Carcassonne.
Archivo Español de Arqueología, CSIC, Madril.
Arkeoikuska, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
Arqueología y territorio medieval, Universidad de Jaén, Jaén.
Barceló, M. eta beste (1988): *Arqueología medieval a las afueras del medievalismo*, Crítica, Bartzelona.
Boletín de arqueología medieval, Asociación Española de Arqueología Medieval, Madril.
Cuadernos de Arqueología de la Universidad de Navarra, Universidad de Navarra, Iruñea.
Estudios de arqueología alavesa, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
Garcia de Castro, C. (1995): *Arqueología cristiana de la Alta Edad Media en Asturias*, Cincuentenario del Real Instituto de Estudios asturianos 1945-1995, Oviedo.
Hilarriari buruzko nazioarteko IV. Kongresua, (1991ean Donostian), Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994.
Isturitz. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
Izquierdo, R. (1994): "La arqueología medieval en España: antecedentes y estado actual", *Arqueología y Territorio Medieval*, Jaén, **1**, 119-127. orr.
Kobie, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
Munibe, Aranzadi Zientzi Elkartea, Donostia.
Salvatierra, V. (1990): *Cien años de arqueología medieval. Perspectivas desde la periferia*, Granada.
Trabajos de Arqueología Navarra, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

2.1. Euskal Herriko Goi Erdi Aroko arkeologia

Aldama, J. P. eta Lorenzo, F. A. (1990): "Sondeo arqueometalúrgico en Loiola (Trapagarán): contribución al estudio de las ferrerías de monte por el método arqueológico. Zonas, fases y primeros resultados", *Kobie (Serie Paleoantropología)*, Bizkaiko Foru Aldundia, **19**, 209-214. orr., Bilbo.
Askoren artean, *Illunzar/92. Erdi Aroko Arkeologi Ihardunaldiak*, Agiri ("Illunzar" Geo-Arkeologia Ikuskapen eta Ikerketarako Elkartea), Bilbo, 1992.
Azkarate, A. (1985): "Bizkaitar lurraldearen okupazio xehetasunak Goi Erdi Aroko mendeetan, ezagutzen ditugun datu arkeologikoen arauera", *Euskal Herriaren historiaz I*, 99-119. orr., EHU, Bilbo
————————, (1988): *Arqueología cristiana De la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
————————, (1990): "Algunas consideraciones sobre la arqueología de Epoca Germánica en Euskal Herria", *Munibe* (*Antropologia-Arkeologia*), **42**, 345-355 orr., Donostia.

————————, (1993): "Francos, aquitanos y vascones. Testimonios arqueológicos al sur de los Pirineos", *Archivo Español de Arqueología*, **66**, 149-176. orr., Madril.

————————, (1994): "Wasconia", *Gran Atlas del Mundo Vasco*, 49-65. orr., Lur, Bilbo.

————————, (1995): "Aportaciones al debate sobre la arquitectura prerrománica peninsular: la iglesia de San Román de Tobillas", *Archivo Español de Arqueología*, **68**, 189-214. orr., Madril.

————————, (1996): "Algunos ejemplos de análisis estratigráfico en la arquitectura del País Vasco", *Arqueología de la arquitectura*, Junta de Castilla y León, 123-139. orr., Burgos.

————————, (1997): "El nacimiento de Gasteiz", *Vitoria-Gasteiz en el Arte I*, Eusko Jaurlaritza-Arabako Foru Aldundia eta Gasteizeko Udala.

Azkarate, A. eta Fernandez de Jauregui, A. eta Nuñez, J. (1995): "Documentación y análisis arquitectónico en el País Vasco. Algunas experiencias llevadas a cabo en Álava-España", *Informes de la construcción*, Instituto Eduardo Torroja, 46. bol , **435**, 65-77 orr.

Azkarate, A. eta Garcia Camino, I. eta Urteaga, M. (1986): "Arqueología medieval en el País Vasco. Estado actual de las provincias de Guipuzcoa y Vizcaya", *I Congreso de Arqueología Medieval Española*, Asociación Española de Arqueología Medieval, 131-146. orr., Zaragoza.

Azkarate, A. eta Garcia Camino, I. (1992): "Pervivencias rituales precristianas en las necrópolis del País Vasco durante el medievo", *Testimonios arqueológicos",* III Congreso de Arqueología Medieval Española, **2**, 483-492., Oviedo.

————————, (1996): *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. mendeak). I. Euskal Herriko Mendebaldea*, EHU eta Eusko Jaurlaritza, Bilbo.

Cepeda Campo, J.J. eta Martinez Salcedo, A. (1993): "Buradon-go arkeologia multzoa (Buradon - Gatzaga)", *Arkeoikuska*, 257-269. orr.

Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa, (1995): *Hilarriak/Estelas*, autoedizioa, Bilbo.

Gandiaga, B., Ugarte, T. eta Urteaga, M. (1989): "Prospecciones arqueológicas en Urbia: yacimientos catalogados en las campañas de 1988 y 1989", *Kobie (paleoantropologia),* Bizkaiko Foru Aldundia, **18**, 123-166. orr., Bilbo.

————————, (1993): "Prospecciones arqueológicas en Urbia: yacimientos catalogados en las campañas de 1990 y 1991", *Kobie (paleoantropologia),* Bizkaiko Foru Aldundia, **20**, 57-58. orr., Bilbo.

Garcia, E. (1990): "Perspectivas de futuro de la Arqueología Medieval en Álava", *Munibe (Antropologia-Arkeologia),* **42**, 373-377. orr., Donostia.

Garcia Camino, I. (1989): "La cerámica medieval no esmaltada en la vertiente marítima del País Vasco: los territorios de Bizkaia y Gipuzkoa", in Bohigas, R. eta Gutierrez, J. A. (ed), *La cerámica medieval en el Norte y Noroeste de la Península Iberica*, 87-103. orr., Universidad de León, León.

————————, (1990): "La Arqueología Histórica en Bizkaia en los últimos años", *Munibe (Antropologia-Arkeologia),* **42**, 379-388. orr., Donostia.

————————, (1992): "Bizkaiko populaketa Erdi Aroan, datu arkeologikoen bidez (X-XIII. mendeak)", *Illunzar/92*, AGIRI, 17-27. orr., Gernika.

Garcia Camino, I.; Gonzalez Cembellin, J. M. eta Santana, A. (1987): "La arquitectura prerrománica vizcaína", *Kobie (Serie Bellas Artes),* Bizkaiko Foru Aldundia, 7-30. orr., Bilbo.

————————, (1991): "El mozarabismo periférico", *Actas del I Curso de Cultura Medieval,* 115-129. orr., Aguilar de Campoo.

Garcia Camino, I. eta Torrecilla, M. J. (1999): "Las iglesias, centros de poder y organización territorial (el papel de las iglesias en la reorganización del poblamiento en los de Bizkaia y Ayala: siglos IX-XIII)", *V Congreso de arqueología medieval española (preactas),* Asociación Española de Arqueología Medieval eta Junta de Castilla y León, 68. orr., Valladolid.

Goyhenetche, M. (1999): *Historia general de Pais Vasco. Prehistoria – Epoca Romana – Edad Media*, Ttarttalo, Donostia.

Jusue, C. (1988): *Poblamiento rural de Navarra en la Edad Media. Bases arqueológicas. Valle de Urraul Bajo*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

————————, (1990): "La Arqueología Histórica en Navarra en los últimos 25 años: La Arqueología Medieval", *Munibe (Antropologia-Arkeologia),* **42**, 357-364. orr., Donostia.

Jusue, C. eta Tabar, I. (1989): "Notas sobre cerámica medieval Navarra no vidriada", in Bohigas, R. eta Gutierrez, J.A. (ed), *La cerámica medieval en el Norte y Noroeste de la Península Iberica*, Universidad de León, 13-51. orr., León.

Larrañaga Elorza, K. (1992): *Euskal Herria aintzinate berantiarrean eta lehen Erdi Aroan. Materiale eta agiriak*, EHUko argitalpen zerbitzua, Leioa.

————————, (1993): "El pasaje Pseudo-Fredegario sobre el Dux Francio de Cantabria y otros indicios de naturaleza testual y onomástica sobre presencia franca", *Archivo Español de Arqueología*, **66**, 177-206. orr., Madril.

Llanos, A. (1972): "Necrópolis altomedievales en la zona occidental de la Rioja Alavesa", *Estudios de Arqueología Alavesa*, **5**, 219-235. orr.

Pereda, I. (1993): "La metalurgia prehidraulica del hierro en Bizkaia: el caso de los alrededores del pantano de Oiola (Trapagarán, Bizkaia*)", Kobie (Serie Paleoantropología)*, Bizkaiko Foru Aldundia, **20**, 109-122. orr., Bilbo.

Saenz de Urturi, F. (1989): "La cerámica medieval no esmaltada en yacimientos alaveses", in Bohigas, R. eta Gutierrez, J.A. (ed), *La cerámica medieval en el Norte y Noroeste de la Península Iberica*, Universidad de León, 53-85. orr., León.

————————, (1990): "La Arqueología Histórica (Medieval) en Álava en los últimos 25 años", *Munibe (Antropologia-Arkeologia),* **42**, 365-372. orr., Donostia.

Torrecilla, Mª J. eta Santana, A. (1995): "Igartubeiti Baserria (Ezkio-Itsaso)." *Arkeoikuska*, 460-468 orr.

Urteaga, M. M. (1990): "Arqueología medieval en Guipuzcoa. Estado actual y perspectivas de futuro", *Munibe (Antropologia-Arkeologia)*, **42**, 389-398. orr., Donostia

Antzirano Berantiarreko nekropoliak Euskal Herrian. Frankoen eragina Pirinioen ipar eta hegoaldean[1]

Belén Bengoetxea Rementeria
EHUko Arkeologia Saila

Gure Historiari dagokionez, Antzinaro Berantiarra esatea "Garai Iluna" esatea da. Denboraldi honi dagozkion iturri idatziak ez dira gehiegi, eta horrez gain, eskaintzen diguten informazioaren partzialtasuna ere nabaria da. Dena den, zorionez, "iluntasun" hau argituz doa azken aurkikuntza arkeologikoei esker. Beraz, testu honetan aurkikuntza horien berri emango dugu, eta Iruñea, Buzaga, Aldaieta eta Finaga-ko nekropoliak aipatu eta azalduko ditugu, beraien hainbat ezaugarri aztertuz: nekropolien barne-antolaketa eta hilobietan aurkitutako materialen ezaugarriak, hain zuzen. Ildo berean, dokumentatu diren ehorzketa erritualak ere kontuan hartu beharko ditugu, talde horiek bizitza eta heriotzarekiko izan zituzten sinismenak adierazten baitituzte erritualek.

Lan honetan ezin izango dugu, materialen garapen tipologikoan sakondu, baina pieza-mota bakoitzaren ezaugarri orokorrak adieraziko ditugu. Egia esan, ostilamenduak aztertzeko hainbat tipologia asmatu eta erabili izan dira, autore bakoitzak bere taula tipokronologikoak erabiliz[2]. Horregatik, gai nahiko zaila da, baita adituentzat ere. Dena den, azaletik bada ere, garai hauetako nekropolien ezaugarri orokorrak adierazten saiatuko gara. Beraz, mundu hau ezagutzeko lehen pausotzat har dezakezue hemengo artikulu hau.

Izenburuan aurreratutako gaiari dagokionez, gure hegoaldeko nekropolietan frankoek izandako eragina nolakoa izan zen ikusteko, ezinbestekoa izango da ostilamendu merobingiarrekin (ipar Pirinioetakoekin) konparazioak egitea, horretarako material grafikoa ere eskainiko dugularik. Era berean, bidezkoa iruditzen zaigu ostilamendu bisigotikoekin ere konparazioak egitea eta ezberdintasunak nabaritzea, zeren eta orain denbora gutxi arte gure lurraldea ere esparru bisigotikoaren barruan konsideratu izan baita, bai zentzu politikoan, bai kulturalean. Baina hori guztia iturri

1. Hasi baino lehen ohar bat egin nahi nuke: gai eta garai honetan espezialista ez naizenez gero, testu hau Agustin Azkarate-ren lan eta argitalpenetan oinarrituz eta berari esker egin ahal izan da. Berak eskaini digu baita material grafikoa ere. Bibliografian aipatzen dira erabilitako artikulu eta liburuen izenburu eta erreferentzia guztiak.

2. Sailkapenak irizpide ezberdinen arabera egiten dira: apaindura, erabilitako teknika, formak...

arkeologikoei esker zalantzan jarri da[3], eta horrela ikerketa historikorako bide berriak zabaldu dira, azken ondorioetan ikusiko ditugunak.

Aurrekoaren harira, nekropoliekin edo Heriotzaren arkeologiarekin lotuta, beste gai bat ere aipatuko dugu, hots, hilarriena, zeren eta, azken lanen arabera, orain arte XI eta XIV. mendeetan fetxatutako bi hilarri-multzo kultura merobingiar akitaniarraren eraginpean ulertu behar baitira, eta, jakina, kronologia mende batzuk aurreratu egin beharko baita, VII-VIII. mendeetara arte, alegia.

Badakigu aurkikuntza hauen kontestualizazio historikoa egitea ez dela batere lan erraza, eta gaia ezin dugula hemen azaletik baino aztertu. Espezialistek berek ere joera erabat kontrajarriak azaltzen dizkigute. Garai Iluna ez ezik, "garai polemikoa" ere badela esan dezakegu. Dena den, gure arloa denez gero, datu arkeologikoetara mugatuko gara.

Agian, ondoko galdera egingo diozue zeuen buruari: zergatik nekropoliak azaldu, eta ez biziguneak? Hau da, zergatik mugatu hileta-arkeologiara? Erantzuna oso argia da: Europan, merobingioen kulturaren eragina jaso zuten lurraldeetan, nekropoliak askoz ere ugariagoak direlako, eta hobeto ikertuta eta argitaratuta daudelako, horrela, konparazio tipokronologikoak egitea askoz ere errazagoa suertatzen delarik. Horixe da, hain zuzen, arkeologia merobingiarraren barnean gehien tratatu izan den gaia. Eta, zer esanik ez, Euskal Herrian, hemen nekropoliak baino ez dira aurkitu eta. Merobingiarren arkitektura eta habitatari buruz benetan gutxi dakigu, oraingoz behintzat. Beraz, hildakoen bitartez bizien munduaren berri edukiko dugu.

Arestian esan dugunez, garai honetan eta esparru geografiko berdinetan tradizio kultural ezberdinak azaldu ziren, eta horregatik komenigarria litzateke herri bietan agertzen diren ezaugarri materialak azaltzea[4]. Has gaitezen ezaugarri bisigotikoekin.

1. ARKEOLOGIA HISPANO-BISIGOTIKOA

Gaiarekin zuzenean hasi orduko, komenigarria da erabilitako terminoaren ("hispano-bisigotikoa") esangura argitzea. "Hispano-bisigotikoa" terminoak adierazten duena hauxe da, alegia, nolabaiteko nahasketa sortu zela Penintsulan bisigodoak bertara heldu zirenean, eta nahasketa sozial, ekonomiko eta kultural horren isla

3. Aipagarria da, halaber, baita bisigodoen kultura materialaren barnean orain urte gutxi sortutako beste eztabaida. Kasu honetan arkitektura bisigotikoari buruz ari gara. Izan ere, L. Caballero Zoreda izan da gai honi buruzko teoria berria plazaratu duena. Hitz gutxitan laburbilduta, honetan datza teoria berri hori: L. Caballero-k, argumentu oso ezberdinak erabiliz, orain arte bisigotikotzat hartu izan diren elizen kronologia atzeratu egin du, eta tenplu hauen ezaugarri asko kontuan hartuta, Omeien eragina ikusten du hauetan. Honek esan nahi du IX-X. mendeetara arte atzeratzen dituela. Bere argumentuetariko bat orain arte kronologia zehazteko erabilitako irizpideen ahultasuna da.

4. Nahitaez laburpena egin beharko dugu, eta hau ere azaletik, bakoitzaren irudi tipiko-tipikoa eskainiz. Dena den, kontuan hartu behar da barietate asko dagoela tokien arabera.

material arkeologikoetan nabaritzen dela. Horregatik, ezaugarri germaniar-bisigotikoak (Penintsulara etorri orduko sortuak eta finkatuak) nahastu egin ziren, Penintsulan momentu horretan bizi zen jendearen ezaugarriekin, horrela "*facies*" edo bariante ezberdin bat sortuz.

Oro har, bisigodoen nekropolietako ezaugarririk nagusienetarikoa hilobietan arma oso gutxi edo —normalean— bat ere ez agertzea da. Berezitasun hori mendebaldeko Europan ez ezik, Penintsulara etorri orduko bisigodoen aztarnategi guztietan atzeman izan da.

Oinarrizko ezaugarri horretaz gain, nekropoli bisigotikoetan aurkitutako materialak (tresneria, etab.) ere bereziak dira, bisigodoei dagozkienak (1. irudia):

– Gerrikoen zarrailuak. Mota honetako gerrikoen zarrailuen *belarriak* eraztun obalatu baten itxura hartzen du. Plaka errektangeluarra izaten da, eta plaka hori apainduta egoten da. Kabujoiak[5] erabilten dira horretarako, modu soltean antolatuta. Plaka eta belarria artikulatu edo giltzatu egiten dira, hau da, bi pieza elkartuz osatzen da zarrailua.

  Gerrikoen zarrailuen artean beste mota batekoak ere oso tipikoak dira: arestian deskribaturikoen antzekoak dira, baina plakaren apaindura erdiko kabujoi handiago batez errematatzen da, eta beirazko zeldatxoz osaturiko mosaikoz betetzen da.

– Arkudun fibulak. Aniztasun tipologikoa murriztuagoa ageri da fibuletan, zeren eta ia beti oinarrizko eredua errepikatzen baitute: zirkuluerdi-formako erresortedun plaka, eta krokagailu errektangeluarreko plaka. Barianteak ere badaude: erresorte-plakak irtenuneak izan ditzake. Apaindura geometrikoa edo landarezkoa izaten da beti.


  Gehien erabilitako pieza, Mesetako lantegiren batean eginiko bat da. Arkudun fibula da, kordontzez apaindua. Erresorte-plakan zazpi irtenune ditu, hiru krokagailu plakan, eta azken honetan, gurutze-itxurako apaindura. Pieza hauek VI. mendearen azkenetarantz desagertu ziren.

– Dena den, agian, Penintsulako ostilamenduetan ageri diren piezen artean aro bisigotikoko ezaugarritzat har daitekeen piezarik bereziena plaka liriformea da. Plaka zurrunekoak[6] dira —ez artikulatuak— eta belarriak eraztun obalatu baten itxura hartzen du, soslai liriformedun plaka bati giltzaturik. Honelako plakak lehen aipatutako gerrikoen zarrailu eta arkudun fibulen desagerpena suertatu zenean sortu ziren Penintsulan, VIII. mendera arte iraun zutelarik.

– Ostilamendu hispano-bisigotikoetako beste pieza berantiar bat gurutze-itxura hartzen duen plaka da.

5. Kabujoia itxura konkaboa duen harri bitxia da, leundua, baina landu gabea.

6. Hau da, pieza bakarra osatzen dute belarriak eta plakak.


LA TOREUTICA VISIGODA DE LA PENINSULA IBERICA SIGLOS V - VIII.-
480
490
NIVEL -II-
525
525
NIVEL -III-
560
580
NIVEL -IV-
600
640
NIVEL -V-
71..
G. RIPOLL, dibujo O.L-A.

1. irudia.

2. ARKEOLOGIA MEROBINGIARRA. PIRINIOEN IPARRALDEKO EZAUGARRIAK

A) Kokapena eta barne-antolaketa

Normalean, VI eta VII. mendeetan batez ere, jende arrunta nekazari-munduan kokaturiko nekropolietan lurperatzen zen. Jakina, beste mota bateko hilobiak ere bazeuden, baina, oro har, berantiarragoak direla esan daiteke. Eliza barruetan eginikoez ari gara, edota monumentu ikusgarrietan eginikoez (Poitiers-ko hipogeoa aipa daiteke, adibide moduan). Hala ere, askoz ere gutxiago izango dira hauetarikoak.

Hasiera batean, nekropoli merobingiarrak lerrotan eta norabidea ondo jarraituz antolatzen zirela uste zen. Hala ere, azken ikerketen arabera ikusi denez, aldakortasuna da ezaugarri nagusia. Salbuespenak benetan asko dira, eta errealitate arkeologikoa ulertzeko faktore oso anitzak hartu beharko ditugu kontuan, lurralde bakoitzeko tradizio, praktika edo ezaugarri topografikoei dagozkienak, esate baterako.

Nolanahi den, merobingiarren hilobietan tradizio ezberdinen eragina ikus daiteke: tradizio galo-erromatarra alde batetik, eta germaniarra beste batetik.

B) Materialak eta ostilamenduak

Hileta-ostilamendu merobingiarraren irudi tipikoa adierazi behar badugu, banaketa oso argia egin beharko dugu: gizonezkoen hilobiak alde batetik, eta emakumezkoenak bestetik.


Gizonezkoen hilobietan nahiko normala da armaren bat agertzea. Normalean, "buruzagiaren hilobian" izan ezik, arma bakarra agertzen da. Armekin lotuta, belarriak eta gerriko-plakak agertzen dira. Armekin lotuta diogu, arma hauek guda--gizonen gerritik zintzilik geratzen baitziren. Hauez gain, poltsa-herstailuak ere berreskuratu dira, eta baita poltsa barruan (larruzkoa izango zena) zeramatzaten gauzak ere: pizkailuak, depilatzeko pintzak, orraziak, suharrizko piezak, kutunak, etab. Zeramikazko piezaren bat ere ez da normalean faltatzen.


Emakumezkoen ostilamendua guztiz ezberdina izaten da, aberatsagoa eta anitzagoa. Batez ere, apaindurazko elementuak ikusiko ditugu horrelakoetan: idunekoak, belarriak, gerriko brotxeak, besokoak, belarritakoak, eraztunak, orratzak, orraziak, oinetakoetan erabilitako belarri txikiak, etab. Gizonezkoenetan gertatzen den bezalaxe, zeramikazko ontziak ere azaldu ohi dira emakumezkoen hilobietan.

Goazen orain pixkanaka-pixkanaka ostilamenduaren barnean egin ditugun multzoak gehiago aztertzera.


1. Armak


Arestian esan dugunez, armak dira frankoen gizonezkoen hilobien elementu karakteristikoena. Berezitasun horri esker inolako zalantzarik gabe bereiz daitezke bisigodo edo burgundioengandik (2. irudia).







2. irudia. Ostilamendu merobingiarra. Taula tipokronologikoak. Armak eta gerrikoen goarnizioak.





2. irudia. Jarraipena.





2. irudia. Jarraipena.

Gerra-gizon frankoa *infantea* zen batez ere, hau da, oinez egiten zuen borroka, eta oinez zihoan leku batetik bestera. Jakina, egoera honek bere armamentuan izan zuen isla. Zaldiz zihoazen buruzagiek baino ez zuten aho biko ezpata luzea edukiko (*spatha*). Bestalde, oinezkoek *francisca*-k erabiltzen zituzten. *Francisca* deritzon aizkora, aizkora asimetriko jaurtikaria da[7]. Oinezkoen beste arma karakteristikoa *scramasax*-a da, hau da, aho bakarreko ezpata laburra.

7. Kontuan hartu ezen arma honi frankoek erabiltzen zutelako jarri ziotela *francisca* izena.

Ehorzketa berean arma bat baino gehiago ere agertu dira batzuetan, nahiz eta arma bakarra agertzea maizago suertatu.

a) *Scramasax* izenekoa aho bateko ezpata laburra da. Horixe da armarik ohikoena. Militarra edo egunerokoa izango zen ezpata txiki honen erabilera. Merobingioei dagokienez, V-VI. mendeetako hilobietan agertu da; eta VII. mendean gainontzeko lurralde germaniarretara zabaldu zen. Arma hau larruzko zorro batean eramaten zuten, eta zorroek botoiz eginiko apaindura zuten.

b) *Spatha* izenekoa aho biko ezpata luzea da. Arma hau merobingioen artean gutxiagotan ikusiko dugu. Litekeena da "buruzagien arma" izatea. V eta VI. mendeetan *spatha* arrunten eskutokiak arinak izan ziren, material galkorrez eginikoak. Salbuespen bakarra printzeen ezpatak dira, urrez eta perlaz eginiko errematxez apainduta baitaude. VII. mendean zehar, burdinazko eskutokiak agertu ziren. Beraz, armak astunago bihurtzeaz gain, grabitate zentrua eskutokirantz mugitu zen. *Spatha*ren neurriak ondokoak dira: 80-90 cm-ko luzera eta 4,5 cm-ko zabalera.

Salbuespenetan baino ez da *scramasax*ekin lotzen edo nahasten. Apaindura damaskinatua ere izan zezakeen.

c) *Francisca* —aizkora jaurtikari disimetrikoa— oso ugaria izan zen VI. mendean; baina VII eta VIII. mendeetan, pixkanaka-pixkanaka, *franciscа*ren ordez borrokarako aizkora simetriko bat erabiltzen hasi ziren. *Franciscа*k 300 eta 900 gramo bitarteko pisua zuen eta eragin handiko arma izan zen. Kronologikoki V. mendean sortu zen, eta, aipatu bezala, VI. mendean ere iraun zuen.

d) *Framea* edo lantza. Hauxe zen herri germaniarren artean armarik erabiliena. Bere metalezko zatiak 19-60 cm-ko luzera eduki zezakeen (1,80 m hartuko zituen, zurezko makilan sartu eta gero). Kasuen arabera, punta obala edo losangikoa (erronbo-itxura hartzen zuenean), zabala edo estua, simetrikoa edo disimetrikoa izan zitekeen. Kirtena sartzeko eginiko hutsunea irekia zen normalean, sekzio tubular edo poligonala agertuz.

e) Beste arma batzuk ere berreskuratu ohi dira merobingiarren hilobietan: gezi-puntak, sastagaiak edota ezkutu unboak, esate baterako.

Labanak ezin ditugu armamentuaren barnean sartu, hauen erabilera egunerokoa —etxekoa— izango zen eta. Izan ere, emakumezkoen ostilamenduetan maiz aurkituko ditugu.

Armekin lotuta, lehen esan dugunez, gerrikoen goarnizioak ditugu (3. irudia). Hauen artean oinarrizko hiru mota bereiz daitezke: gerrikoen belarriak; plaka artikulatudun gerrikoen zarrailuak eta plaka zurruneko gerrikoen zarrailuak.

a) Gerriko-belarriak: Bi motatakoak izan daitezke: giltzurrun-itxurako belarriak, ezkutu-itxurako oinarria duen orratza dutenak; eta zabalera bereko orratza duten belarri errektangeluarrak. Mota biak apaindura edo apaindurarik gabe aurki daitezke. Teknikoki, burdinazko edo brontzezko piezak dira. Kasu batzuetan urreztatuta agertzen dira.

   Morfologiari dagokionez, obalatuak eta giltzurrun-itxurakoak dira normalenak, askotan apaindura ildaskatua dutelarik.

   Kronologia aldetik, honelakoak erabiltzen V. mendean hasi zirela esan dezakegu, eta batez ere VI. mendean zabaldu zirela. VII. mendean hauen ordez gero aipatuko ditugun zarrailu landuagoak erabili ziren (aldaketa pixkanaka-pixkanaka burutu zen).


   Belarri hauek aplike ezkutiforme (ezkutu-itxuradunak) txikiekin erlazionatuta egoten dira. Aipatutako aplikeak belarriaren atzean, uhala finkatzeko erabili ziren, eta sarritan agertzen dira ostilamenduetan.


b) Plaka artikulatudun gerriko-zarrailuak. Hauen garapen tipologikoa oso argia da: hasieran gerrikoen zarrailuak txikiak ziren, hau da, belarria eta bere orratza plaka bezalakoak edo plaka baino handiagoak ziren. Horrela hasita, pixkanaka-pixkanaka plakaren luzera eta neurria handituz joan ziren, eta baita apainduraz aberasten ere.


   Lurraldeen arabera aniztasuna nabaria dela esan behar da, eta ez da batere erraza tipologia argiak bereiztea. Plakaren formaren arabera egiten dira multzoak: errektangeluarrak, diskoidalak, trapezoidalak... izan daitezke.

   Plakak ez ezik, kontraplaka deritzonak ere ager daitezke. Izan ere, VII. mendean gauza normala zen plakak beste kontraplaka bat izatea (alde bakoitzetik bat, beraz). Normalean kontraplaka hau aurpegialdekoaren antzekoa izaten da. Belarriak kasu guztietan giltzurrun-itxura du, eta orratza ia beti ezkutu formakoa da. Plaka giltzatuak izaten dira. Plaka horretan bariante asko atzeman daitezke, bai itxura aldetik (triangeluarrak, hiru lobulodunak, 5, 7 edo 9 irtenunerekin...), bai teknika aldetik (burdina, brontzea, aleazioa...), bai apaindura aldetik (apaindurarik gabe, apaindura geometrikoaz, landarezkoa, animalien irudiak...).


c) Plaka zurrundun gerriko-zarrailuak. Forma oso ezberdinak azaltzen dira talde honen barnean, baina ezaugarri orokorra pieza bakarra —ez artikulatua— izatea da; hau da, belarria eta plaka pieza bakar batean lantzen dira.








3. irudia. Ostilamendu merobingiarra. Taula tipokronologikoak. Fibulak.





3. irudia. Jarraipena.

2. Fibulak

Fibulak emakumezkoen ostilamenduetako elementuak dira, batez ere. Herri germaniarren bitxigintzak gorengo maila lortu zuen pieza hauekin.

Kasu honetan bariazio tipologikoa oso-oso konplexua da, baina oinarrizko banaketa bat egingo dugu (3. irudia):

a) Arku-itxurako fibula disimetrikoak. Hiru zati ezberdin dituzte: erresorte erdizirkularreko edo errektangeluarreko plaka (irtenuneekin edo irtenunerik gabe); engantxe-plaka, errektangeluarra, losangikoa edo obala izan daitekeena; eta azkenik, pieza bien arteko lotura burutzeko, arkua edo zubia. Barianteak sortzeko aukerak izugarrizkoak dira: erresorte-plakaren edo engantxe-plakaren formaren arabera, dekorazioaren arabera (laua edo festoiez dekoratua; animalien figurazioz errematatua...), eta abar.

b) Arku-itxurako fibula simetrikoak. Berantiarragoak dira: VII-VIII. mendeetakoak. Kasu honetan arkuak edo zubiak: bi elementu lau elkartzen ditu. Elementu lau horiek itxura anitzak dituzte: diskoidalak, eskutiformeak, gurutze-itxurakoak, trapezoidalak... Batez ere ekialdeko germaniarren artean

ikusiko ditugu horietarikoak (longobardo eta burgundioen artean), nahiko arraroa izanik Frantzia, Belgika edo Alemanian ikustea.

c) Fibula diskoidalak eta polilobulatuak. Barianteen arabera, kronologia oso zehatza eskaintzen dute.

d) Azkenik S-itxura duten fibulak eta abere-itxura hartzen dutenak ere aipatu behar ditugu, hau da, akiliformeak edo grifo edo animalia fantastikoen itxurakoak.

Honelako piezak egiteko, askotan material nobleak erabili zituzten; baina ahalik eta material noble gutxien erabiltzea izan zen beraien kezka. Horregatik xaflatxo meheetan lantzen zuten (ijezketa, mailukatuz egiten zena), eta beste aukera bat aleazioaren legea gutxitzea izaten zen. Ildo berean, urrearen ordez letoia erabiltzen zuten askotan. Metal noblearen legea gutxitzea, urrea eta zilarrarekin gertatzen zen batez ere.

Bestalde, harri bitxiak ere erabili ziren apaindurak egiteko. Merobingiarren artean, harri bat da nagusi: granatea, bere bariante guztietan (kolore argiago edo ilunagotan, edo kolore arraroetan). Granaterik ez zeukatenean —oso sarritan gertatzen zena—, beira koloredunak erabiltzen zituzten. Esmalteak ere erabili zituzten, baina gutxiagotan, eta baita nakarra eta hezurra ere.

Materialak aipatzeaz gain, interesgarria izan daiteke erabilitako teknikak ere aipatzea. Lehenago ijezketa deituriko teknika aipatu dugu, baina beste teknika batzuk ere oso erabiliak izan ziren merobingioen artean: *cloissonée* edo albeolatua, esate baterako. Albeolatua lortzeko, metalezko zeldatxoz osaturiko sare batean harri bitxiak, beira-zatiak edo esmalteak xartatzen ziren, horrela kolore askotako mosaikoa lortuz. Era berean, filigrana izeneko teknika ere nahiko erabilia izan zen. Teknika hori urre edo zilarrezko "hari" meheak metalean aplikatzean zetzan. "Hari" horiek aukeratutako metalezko orri batetik kadeneta-tirak ebakiz egiten ziren. Tirak elkarrekin loturiko arabeskoak osatuz kokatzen ziren. Era berean, nikelatua urreztatua eta damaskinatua ere erabili ziren.

3. Zeramika eta beira

Metalezko piezak ez ezik, zeramika eta beirazko ontziak ere agertzen dira hilobietan. Zeramika eta beira hileta-deposituaren zati dira; hau da, sinesmenekin dute erlazioa, hots, heriotzaren ondoko bizitzarekin, aurreko piezak ostilamendu pertsonalaren elementuak izanik, hildakoak bere eguneroko bizitzan erabilitakoak.

Zeramikak ere maiz aurkituko ditugu. Formari dagokionez, karenaduna edo bikonikoa da ohikoena. Oreak grisak edo horixkak izaten dira. Askotan txarto egosita agertzen dira, eta oso gogorra den engobe beltzez estaltzen ziren hormak. Apaindura oso sinplea izaten da (gehienetan, gurpiltxoduna).

Kasu honetan ere, tipologiak nahiko konplikatuak eta bariatuak dira, baina batez ere pieza karenatuak dira nagusi, tradizio germaniarra erakusten dutenak.

Merobingiarren artean, gutxiagotan aurkitzen da beira; baina ez da falta nekropoli askotan.

4. Sinesmen eta errituekin erlazionatutako beste elementu batzuk

Nekropoli merobingiarretan badaude beste elementu atipiko batzuk, autore askok kutunekin erlazionatzen dituztenak. Nahiko ugariak eta anitzak izaten dira: abere-hezurrak, basurde-letaginak, haragijaleen letaginak, maskorrak, erretxina, anbarra, suharria... Dirudienez, azken bidaian babesa izateko eramaten zituzten honelako piezak; edo honela interpretatu dira gehienetan, behintzat.

Bestalde, sakrifizio erritualak ere aurkitu izan dira, erritual merobingiarren arteko elementu karakteristikoak direlarik, batez ere beraien ikusgarritasunagatik. Galian gutxitan aurkitu dira sakrifikatutako animaliak lurperaturik, Alemanian aurkitutakoekin konparatuz behintzat. Zaldi-ehorzketak dira aipatuenak.

Erritu-suei buruz ere zerbait esan behar dugu. Askotan suertatzen da, hilobiaren barrualdean errautsak, egurrikatza eta suz gorritutako harriak aurkitzea. Hauen presentziak ere interpretazio bat baino gehiago sortu du[8].

C) Facies akitaniarra

Orain arte ikusi ditugun ezaugarriak zibilizazio merobingiarrari —orokorrean hartuta— dagozkionak dira. Baina, gure gaiari hurbiltzen goazen heinean, beste zerbait aipatu beharko dugu: autore batzuek (modernoena, E. James), Frantziako hego-mendebaldeko nekropolietako ostilamenduak aztertu dituztenak, bariante edo *facies* "akitaniarra" ezberdintzen dute iparraldekotik (iparraldekoa edo frankoa). Beraz, bi *facies* ezberdinen aurrean egon gaitezke: akitaniarra eta iparraldekoa. Galiaren hego-mendebaldeak ezaugarri bereziak izango zituen, bere lurraldetik kanpo ere eragina izango zutenak. Akitanian atzemandako berezitasunen artean, aipagarriena gerriko-zarrailuen dekorazioa da. Ondokoak dira ezaugarri horiek:

a) Dekorazioa era zeiharrean dago eginda.

b) Puntillatua erabiltzen zen plaken hondoak dekoratzeko eta motibu linealak osatzeko.

c) Apaindura zoomorfoa dute, lau hankako abereak batez ere.

d) Dekorazio geometrikoa: medailoiak, elkarturiko lineak, lau lobulodunak, plakaren ertzean zirkuluerdi bikoitzak, etab... James-en arabera, hauxe da motibo geometriko garrantzitsuena.

e) Ezaugarri teknikoak (aurrekoak dekoratiboak izanik) ere aipatu behar dira: pieza gehienak brontzezkoak dira, gainetik eztainu-bainuaz. Horren ondorioz, itxura distiratsua eta zilartsua hartzen dute. Ia ez da agertzen bur-

8. Errautsen kokapenaren arabera, garbitze-erritualaren aztarna izan daitezkeela esaten da, edo aldamenean eginiko erritu-suen aztarnak, edo hildakoaren etxeko supazterretik ekarritako hautsa.

dinazko piezarik damaskinatuaz dekoratuta, iparraldeko Galian gertatzen den bezala.

Arkeologia franko-akitaniarraren ezaugarriak ikusirik, Pirinioen hegoaldeko materialak aztertzera edo ezagutaraztera pasatuko gara, horrela baino ezin izango baitugu ikusi "iparraldeko" izaera hori.

3. HEGO EUSKAL HERRIKO NEKROPOLIAK

Iruñea (Nafarroa)

Iruñeko nekropolia aspaldidanik da ezaguna, 1895ean indusi baitzuten. Baina nekropoli honetako materialen izaerari buruzko iruzkinak oso ezberdinak izan dira autore ezberdinen arabera.

Argitalpenak kontuan hartuta, badakigu nekropoli honek ehun bat harlauzadun hilobi eskaini zituela. Lurperaketak hobian zuzenean eginikoak dira, eta haien norabidea mendebalde-ekialdea motakoa da. Berreskuratutako materialak ugariak dira, bai ostilamendu pertsonalarekin lotutakoak, bai hileta-deposituaren zati direnak.

Materialen artean, armak aipatu behar dira: sei gezi-punta, hiru *scramasax*, belarriak, brotxe giltzatuak eta zurrunak, orratz ezkutiformeak, etab. Bestalde, bi fibula-zati, besokoak, belarritakoak, berrogeita hamabi eraztun —zilar, brontze edo burdinazkoak— ere berreskuratu ziren. Hileta-deposituarekin erlazionatuta zeramikazko zortzi ontzi, bi txanpon (Suintila-renak), basurde-letagina, eta sukarrizko bi xafla ditugu.

Aurreratu dugunez, nekropoli honek interpretazio ezberdinak jaso ditu. Adibidez, F. Ansoleaga-k (induskatzaileetariko bat eta lehen argitalpenaren autorea) nekropoli "frankoa" aipatu zuen; Zeiss-ek ere izaera merobingioa defendatu zuen, bisigodoa baztertuta; eta M. A. Mezquiriz-ek "bisigodo" adjektiboa erabili du, baina aurkikuntzaren kronologia kontuan hartuta, ez hildakoen izaera etnikoa kontuan hartuta. Dena den, azken autore honen arabera, bertan lurperatutako jendea ez zen izango ez frankoa ez bisigodoa, baskoia baizik.

Nekropoli honen ezaugarriak nahiko nahasiak izan arren, ukaezina da iparraldeko eragina nabaria dela ostilamenduetan, eta, beraz, alde bien arteko erlazioa ageri dela bertan. Ezaugarri nagusi hau gerrikoen goarnizioetan ikusten da batez ere.


Datu guztiak laburbilduz, hauxe esan daiteke: hamaika (11) gerriko-zarrailuen artean, seik Pirinioen iparraldeko ezaugarriak adierazten dituzte, argi eta garbi, baina bosten ezaugarriak, aldiz, Penintsulako hileta-deposituetan sarriago aurki daitezke. Dena den, azpimarratzekoa da Iruñean ez dagoela bisigodoen toreutikaren barne-pieza tipiko eta erabilienik, esate baterako, zarrailu liriformerik.

Ezaugarri hauetaz gain, armen presentzia aipatu beharra dago.

B) Buzaga (Elorz, Nafarroa)

Nekropoli hau, izenak adierazten duenez, Buzaga-n dago kokatuta, Elorz-en, Iruñetik hamairu kilometrora. Aurkitutako materialak ez dira indusketa baten emaitzak, kasualitatez eginiko aurkikuntza batenak baizik.

Hemen hogeita bat lantza, ia osorik geratzen den *scramasax* bat, eta beste batzuen zatiak, geziak, zazpi gerriko-zarrailu eta bi kontraplaka, belarriak, orratzak, aplike ezkutiformeak, etab. aurkitu ziren (ikus 4. irudia).



4. irudia. .

Buzaga-n aurkitutako piezek zalantzatik kanpo dauden iparraldeko ezaugarriak agertzen dituzte; hau da, aztarnategi honetan ez da atzeman inolako "ezaugarri-nahasketarik". Kasu honetan ere azpimarratzekoak dira gerriko-zarrailuak. Egia esan, gehiago zehatz daitezke iparraldeko ezaugarri horiek, zeren eta lehen aipatu ditugun ezaugarri akitaniarrak baitira hemen agertzen direnak. Ildo berean, apainduraren berezitasun akitaniarrak oso nabariak dira. Metalezko tira bat erabiltzen da plaka enmarkatuz eta, botoiak agertzen direnean, hauek ere bordeatuz. Oinarriko botoi bien artean normalean forma lauangeluarreko hutsune txikitxo bat geratzen da. Erabiltzen diren motiboak geometriko edo zoomorfoak dira, intzisioz eginikoak. Buzaga-n puntillatua erabiltzen da (puntzoiz eginikoa), eta banda horien erdian zerra-hagina ikusten da. Motibo dekoratiboak ere oso bereziak dira, eta testuinguru akitaniarrera garamatzate. Zirkulu-erdiz eta zirkulu-laurdenez osatutako arkuak, lerro bikoitza plakaren perimetroa markatuz, eta erdiko motiboa (batzuetan medailoi-itxura hartzen duena).

Buzaga-n, plakek ez ezik, gainerako materialek ere iparraldeko eragina azaltzen dute: armak ugariak dira (hogeita bat lantza-punta, *scramasax* bat osorik eta beste batzuk zatika...), *briquet*-ak[9], aplike eskutiformeak, etab.

C) Finaga (Basauri, Bizkaia)

Finaga aztarnategia Malmasin mendiaren hegoaldeko aldapako terrazamendu batean dago kokatuta. Zoritxarrez nekropoliaren zati txiki bat baino ez da konserbatzen. Bi fase nagusi dokumentatu dira bertan. Lehen faseko nekropolia IV. mendean eraikitako neurri txikiko edifizio baten inguruan garatzen da. Printzipioz, eta hipotetikoki, arkeologoek tenplu moduan interpretatu dute. Garai honetakoak dira lurperaketa zaharrenak, zurezko hilkutxetan eginikoak; eta kasu batean, hilobiaren barruan utzitako hileta-depositua ere berreskuratu da. Ehorzketa-tipologiari dagokionez, Finaga-ko hilobiak arrokan induskaturikoak ziren, hauetariko batzuk harri irregularrez indartuta zeudelarik barruko aldetik, eta harlauza horizontalez estalita. Beste batzuk, aldiz, hobi sinplekoak ziren.

Nekropolian atzemandako bigarren fasea VI. mendekoa da. Izan ere, mende horretako hileta-erritualak aldaketa nabariak jaso zituen: hemendik aurrera ostilamendu pertsonala ikusiko dugu hilobien barruan (armak —*spatha*—, lantza-puntak, *francisca* bat; eta apaindura pertsonalerako elementuak —belarria, eraztuna—). Pieza hauen tipologia eredu germaniar-merobingiarrekin lotu behar da. Dena den, ezaugarri hau beste aldaketa konplexuago batzuen isla baino ez da izango, ziurrenik, Pirinioen alde bietako errealitate historiko berrian oinarritua, alegia.

9. *Briquet* deritzon pieza pizgailu modukoa zen. Itxura kurboa duen pieza da.

D) Aldaieta (Araba)

Aztarnategi hau Ulibarri Ganboa udalerrian dago kokatuta, eta aurkikuntza 1987an suertatu zen, nekropolia Zadorra urtegiko urez erdi estalita zegoelarik. Indusketa-kanpainak amaitu ondoren, ehun ehorzketa baino gehiago deshobiratu dira, eta urtegi artifizialak beste berrehun gutxienez suntsitu dituela baiezta daiteke[10].

Lurperatze gehienak tipologia berekoak dira: hobi sinpleko hilobiak, gorpua egurrezko hilkutxen barruan jarri zelarik.

Hilerriaren barne-antolaketari buruz ondokoa esan behar da, alegia, hilerri barruan espazio librez mugatutako taldeak bereiz daitezkeela. Talde hauek —adin eta sexu ezberdinetako pertsonak— odolezko edo gizarteko loturak izan zituzten beren artean, segur aski. Diogun, bestalde, antolatzeko bi modu atzeman izan direla.


Batzuetan, ilara luzeetan egin ziren lurperaketak[11]. Nekropoliaren mendebaldean atzeman zen antolaketa-mota hau, eta gorpuek norabide zehatza erakusten dute: mendebalde-ekialdea (burua-oinak). (Antolaketa horizontala).

Bigarren antolaketa-mota nekropoliaren ekialdean atzemandakoa da: kasu honetan hilobi baten inguruan antolatzen dira lurperaketak, elkarren gainean jarrita. Hilobi nagusi hori, ostilamenduaren aberastasuna kontuan izanik, gizartearen goren mailako pertsonaia batena izango litzateke. Kasu honetan norabidea hegoalde-iparraldekoa da. (Antolaketa bertikala).

Aipaturiko gainjarritako talde bat paradigmatikoa dela esan daiteke: hemen hiru ehorzketaz osaturiko lehen maila atzeman zen. Hauetatik, erdikoa izan zen aberatsena. Hilobi fundazionala dela ematen du, denboran zehar "familiaren panteoi" bihurtu zena. Lurperatze honetako pertsonaia nagusia (28. ehorzketa) eskuineko zangarraren ondoan bi lantza-mutur handi zituela hobiratu zuten, eta ezkerreko zangarraren diafisiaren gainean borrokarako aizkora bat utzi zioten. Izterrezur bien gainean brontzezko kaiku eder bat, barruan beirazko edalontzi oso bat zuelarik. Pelbis inguruan *scramasax* bat, bere egurrezko azalaren hondakin fosilizatuarekin, eta bi aizto. Gerriaren parean giltzurrun-itxurako belarria ageri zuen, eta bere ezkutu-itxurako orratza, ezkutu-itxurako aplikea eta tipologia anitzeko beste bi aplike gehiago. Azkenik, bular gainean, iduneko bat, anbarrezko 51 ale zituena, eta hartzaren letagin zulatua. (5 eta 6. irudiak).

10. Jadanik argitaratu da Aldaieta nekropoliari dedikatutako lehen atala (2.000. urteko uztailean), inbentario osoari dagokiona, hain zuzen. Jakina, hau lehen urratsa baino ez da, beste bi atal ere kaleratzeko asmoa baitago, kasu honetan fenomenoaren interpretazioari dedikatuak.

11. Historiografia tradizionalak merobingioen ezaugarritzat hartu du antolaketa hau Galiako nekropolietan.



Aldaieta: 28. ehorzlekua.
1. Bi lantza-mutur.
2. Gudu-aizkora bat.
3. Brontzezko gopor bat, ertz perlatua, eta beirazko ontzi bat (oso osorik biak).
4. «*Scramasax*» edo aho bateko ezpata bat, bere gerriko euskarriarekin, eta bi aizto.
5. Giltzurrin-antzeko gerriko-belarri bat, ezkutu-antzeko orratz bat, eta bi aplike.
6. Anbarezko 51 ale dituen iduneko bat eta hartz-letagin zulatu bat.

5. irudia.

Baina Aldaieta-ko nekropoliari dagokionez, beste berezitasun bat ere aipatu eta azpimarratu behar da: lurperaketak egiteko orduan erakusten diren ohiturak. Izan ere, atzemandako errituak mota askotakoak dira, bai hilobien norabideari dagokionez, bai gorpuen jarrerei dagokienez: lepamozketaren bat daukagu, eskeletoak jarrera bortxatuetan, gizakien haginak buruhezurraren inguruan edo bularrean lerroan jarrita, asto eta zaldien haginak hildakoaren buruaren ondoan jarrita, etab. Lurperatzeko ohitura hauek kontuan hartuta, argi dago ez dela kristautzearen seinale txikienik ere aurkitu.

Ostilamendu militarra bakartzat jo daiteke Penintsulan: tipologia anitzeko berrogei lantza-punta baino gehiago berreskuratu dira, eta hauetariko batzuk oso egoera onean; baita hogeita bi *francisca* edo borrokarako aizkora, eta *scramasax* bat, orein-adarrezko eskutoki apaindu eta guzti, larruzko kasko baten metalezko egitura, eta hamaika (11) labana.

Hauez gain, belarritakoak, zildaiak, brontze eta zilarrezko eraztunak, ezkutu-itxurako oinarridun orratza duten giltzurrun-itxurako belarriak, anbar eta beira-orezko hainbat ale, gerriko aplike ezkutiformeak, zeramikazko hamar ontzi eta brontzezko beste bi, beirazko edalontzi txiki bat, oso-osorik berreskuratua, igitai eder bat, ganibetak, brontzezko orratzak, burdinazko hainbat tresna eta ehundaka iltze, errematxe, hogeita hiru eraztun (burdina, zilar eta brontzezkoak), etab.



6. irudia.

Indusi den zatia nekropoli osoaren zati txiki bat dela kontuan izanik, aurkikuntzaren garrantziaren ideia izango dugu.

Kronologiari dagokionez, hauxe esan behar da: C-14a erabiliz eginiko datazioak Aldaieta VII. mendean kokatzen du. Material batzuek, ordea, *francisca* direlakoek esaterako, gutxienez VI. mendera daramate kronologia.

Deskribaturiko ostilamenduak iruzkinen bat merezi du ondorio gisa, edo puntu batzuk azpimarratzea gutxienez:

Lehenik eta behin armamentu ikaragarria zegoela esan behar da. Aldaietako nekropolian lurperatutako jendeak gudan bizi ziren, eta ederki prestatuta zeuden, bai defensarako, bai erasorako. Aldaieta-k nekropoli merobingiarrak ere gainditzen dituen arma-portzentaia eman du. Hori argumentu argia da, aurkikuntza hori bisigodoekin ez lotzeko. Gainera, mundu bisigotikoaren ezaugarriak diren elementu materialik ere ez dago.

Jakina, aztarnategi hau bisigodoa ez izateak arazo historiko interesgarriak sortzen ditu. Esate baterako, dokumentuen arabera badakigu Leovigildo-k *Victoriacum* hiria fundatu zuela (ustez, Vitoria, Vitoriano, hau da, Aldaietatik hurbil) baskoien lurraldean. Aldaieta-koa finkamentu egonkorra zela kontuan hartuz, ez bisigodoa, eta sendo armaturiko jendea zela pentsatuz, zalantzan jarri beharko

litzateke fundazioaren kokapena (ez fundazioa bera). Eta benetan zalantzan jarri behar dena, Penintsularen ustezko unitate politikoa da, garai hartako kronistek erreibindikatua.

Aldaieta-k Ipar Pirinioetako eragin argiak erakusten ditu, eta honek ere arazo interesgarriak sortzen ditu, frankoek Pirinioen hegoaldean izan zuten eragina azpimarratu egiten baitu. (7. irudia)



7. irudia.

4. BI HILARRI-MULTZOREN BERRINTERPRETAZIOA. KRONOLOGIARI BURUZKO EKARPENAK

Antzinaro Berantiarreko nekropoliekin estu-estu lotuta dagoen beste gai bat, hilarriena da. Egia esan, kasu honetan, arkeologiak eskainitako datuetan oinarrituta, aldez aurretik ezagutzen ziren piezak berrinterpretatu ahal izan dira. Berrinterpretazio honek hilarri-multzo biren kronologia atzeratzea ekarri du, orain VII-VIII. mendeetan kokatzen direlarik, eta bestalde, kulturalki ere gehiago zehaztea, zeren eta hauetan ere nahiko nabaria baita Ipar Pirinioetako eragina. Berrinterpretazio

honen autoreak A. Azkarate eta I. García Camino dira[12]. Egia esan, autore hauek lortu dutena ondokoa da, alegia, aurreko historiografiak eskainitako ikuspuntua zalan-tzan jartzea eta eskema interpretatibo berria artikulatzea.

Esan bezala, momentu honetakoak (VII-VIII. mendeak) dira bi hilarri-multzo. Biak, nahiz eta ezaugarri tipologiko ezberdinak eta filiazio zehatza izan, denboran bat datoz bi lurralde ezberdinetan. Orain arte multzo bietako piezak IX-XI. mendeetakoak zirela uste izan da, edota berantiarragoak. Adskripzio berantiar hau Argiñeta-ko hilobi bateko hileta-epigrafean oinarritzen zen (883)[13]. Egia esan, data hau beti izan da *post quem* eran erreferente modura hartua. Honez gain, erreferentzia idatzi zaharrenak (Arabako lurraldean hasi zirenak) ere bat datoz data horrekin, eta horregatik abiapuntu moduan hartu izan da. Izan ere, historialari dokumentalisten hipotesiak ere bide beretik hasi ziren, zeren beraien ustez hegoaldetik zetorren akulturatze-prozesua hasi baitzen IX. mendean, lurralde atlantikoetan eragin handia izango zuena, hain zuzen. Laburbilduta, hauxe esan daiteke: IX. mendea muga bihurtu zen, horren aurretik ezin zelarik ezer ezagutu.

Puntu honetara iritsiz gero, berriz ere azken urteotako aurkikuntzak aipatu behar dira, hots, Aldaieta eta Finaga-ko aztarnak, zeren eta, datu berriak eskaintzeaz gain, datu eta berri zaharrak interpretatzeko bide berri bat eskaini baitute.

Autore hauen sailkapenari jarraitu eta hori onartuz, momentu honetako hilarri--multzoak bigarren eta hirugarren paradigma edo ereduak dira. Hona hemen hauen ezaugarriak.

Bigarren Paradigma: hilarri tabular edo diskoidalak, Pirinioen iparraldeko filiaziodun apainduraz.


Multzo hau hamar hilarrik osatzen dute. Hauetariko sei tabularrak dira, eta beste laurak diskoidalak.

Tabularretariko bi, ikusgarrienak eta ondoen konserbatuak, Arrigorriaga-koak dira, eta beste hiru Arrigorriaga-tik hurbil aurkitu dira, Abrisketa eta Finaga-n hain zuzen. Bloke prismatikoak dira, neurri lirain eta serailak dituztenak. Lantze-teknika oso zaindua da, eta batez ere apaindura da aipatzekoa, batzuetan lau aurpegiak okupatzen dituelarik. Hauen kalitatea eta konplexutasun ikonografikoa kontuan harturik, hauetariko batzuk pieza berantiartzat jo zituzten, erromanikoan ere datatutakoak, hain zuzen (8. irudia).

12. Beraien argitalpenetik batutako datuak dira hemen adierazten direnak (Azkarate Garai--Olaun, A. eta Garcia Camino, I. (1996): *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. Mendeak). I Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo.

13. Gogoratu Argiñeta multzo artifiziala dela: apaiz batek, XIX. mendean, toki ezberdinetan aurkitutako piezak bertara eraman zituen, eta horren ondorioz sortu zen multzoa.

Pieza hauen berrinterpretazioa eta adskripzio kronologikoa berriz ere merobingio/frankoen eraginaz lotu behar da (hitzaren esangura kronologiko-kulturalaz ari gara). Kontuan hartu kasu honetan Finaga aztarnategiaren hurbiltasuna. Baseliza honetan, San Martinen, Arrigorriaga-koaren eskema ikonografikoaren antzekoa ageri zuten hilarri-zatiak berreskuratu ziren. Era berean, Penintsulako hilarrietan ere aurki daitezke antzekoak; baina mundu merobingioarekin dituen antzekotasunak dira nagusi.




8. irudia. Arrigorriaga-ko hilarri tabularra.

Hilarri hauetan apaindurak jarraitzen duen antolaketa motibo zentral baten arabera egiten da. Motibo zentral hori prozesio-girtenarekiko gurutze hankatu batek eta peana triangeluar batek osatzen dute. Honez gain, eta honekin batera, beste motibo bariatu batzuk ere ageri dira: zirkulu-erdiak eta zirkulu-laurdenak erantsita, triangelu atxikiak, zerra-haginak, angelu solteak, gurutzeak, galburu-motiboak, etab.

Hauetariko batzuk (zerra-haginak, esate baterako) oso ezagunak dira antzinatik. Beste batzuk —gurutze prozesionala, esaterako— ere ez daude aurrerromanikoaren ikonografiatik at. Baina motiboek osatzen duten multzoa, hots, beraien arteko artikulazioa, eta xehetasun batzuk dira testuinguru kontinentalera hurbiltzen gaituztenak, eta ez hainbeste testuinguru penintsularrera.

Peana gaineko girtendun gurutzeak Santa Maria del Naranco-n ere ikus daitezke; baina kasu honetan peana edo oinarri hori tabularra da. Aldiz, mundu merobingiarrean nagusiak dira peana triangeluarren gainean eginiko gurutzeak (adibideak, benetan, asko dira: Maule, Ableiges, Saint-Geneviève, etab). Angeluetan eginiko kateak galburu-itxurako apaindura hartzen du, eta honek ere antzeko asko ditu. Baita ere euskarri diskoidalak edo tabularrak enmarkatzen dituzten hagindun orlak. Horrelakoak oso maiz aurkituko ditugu mundu merobingiarrean. Formaren aldetik aurki daitezkeen antzekotasunak ere nabariak dira (9. irudia).



Atxikitako zirkulu-zatiak euskarri tabularretan: paraleloak.
30-31. Arrigorriaga.
Arrigorriaga.
A. Cubierta de sarcófago del cementrio merovingio de Villers-Agron-Aignisy (Aisne) [Recuil *III, LX, 271*].
B. Cubierta sepulcral frangmentada del cementerio de Chellers (Oise) [Recuil *III, XLIII, 231*].
C. Cubierta del cementerio de Villers-Agron-Aignisy (Aisne) [Recuil *III, LX, 272*].


9. irudia.

Baina berdintasun nabarienetarikoak estela tabularren hegaletan ebakita ageri diren zirkulu-zati atxikiak dira. Arrigorriaga-ko hilarriek ere zirkulu-zati atxikiak ageri dituzte, antzekotasun nabarienak Aisne-ko (nekropoli merobingiarra) sarkofagoen estalkiekin izanik. VIII. mendeko gerriko-zarrailuetan ere motibo berdina ageri da. Plakaren perimetro osoa zeharkatzen duen lerro bikoitzean oinarritzen diren zirkulu-erdidun arkeriak dira nabarienak.

Merobingiarren munduan zirkulu-zatiak orla tabular edo diskoidalei atxikita egon daitezke. Era berean, honen antzekoak Okariz, Mesterika eta Goiogana-n ere ikus daitezte. Beraz, hauek ere Arrigorriaga-ko paradigmaren barnean sartu beharko dira, nahiz eta formatu ezberdina izan.

Hirugarren Paradigma: izar apaindura duten hilarri diskoidal handiak

Mota honetako hilarriak batez ere Argiñeta-ko nekropolian (Elorrio) kontzentratzen dira. Motibo zentrala ageri dute, esangura astrala duena, eta beste dekorazio batzuk ere errepikatzen dituzte: hagindun zenefak edo eraztun kontzentrikoak (10. irudia).



10. irudia.

Honelako hilarrien antzekoak oso zaharrak dira —K. a. II. mendean hasi eta garai erromatarra iritsi artekoak—, eta geografikoki Burgos, Kantabria eta Asturias-en ere badaude horrelakoak.

Hilarri hauek dituzten antzekotasun estereometriko eta ikonografikoak direla eta, zalantzan jarri da askotan Erdi Aroko kronologia. Dena den, Argiñeta-koak beti konsideratu izan dira Erdi Aroko hilarri kristautuak, IX-XI. mendeetakoak. Horren arrazoia, Argiñeta multzoan egotea izan da (dakizuenez, multzo artifiziala), bertan inskripziodun sarkofagoa konserbatzen delarik, 883. urtekoa, hain zuzen. Argiñeta-ko Erdi Aroko izaera sendotzeko, beste hilarri batzuk aipatu behar dira, estereometria eta ikonografia aldetik oso antzekoak direnak, baina epigrafeak dituztenak. Epigrafe hauek kristauak dira, eta ezaugarri paleografikoak kontuan hartuta, IX. mendera eraman behar dira.

Hala ere, Goi Erdi Aroko hilarrien eta aurreko hilarrien artean hausturarik ez dagoela esan dezakegu; eta ildo beretik, antzekotasun nabarienak ikonografian ikus daitezke. Beraz, jarraikortasuna da nagusi. Era berean, harrigarria da multzo honetako hilarriak igeltsuzko sarkofago merobingiarrekin dituzten antzekotasunak.

Dena den, nola justifikatu hilarri-multzo honen kronologia hain goiztiarra? Hori egiteko, epigrafedun hilarriak hartu behar dira kontuan —lehen aipatutakoak—, IX. mendera eraman behar direnak. Jakina, pieza anepigrafikoak beti izaten dira goiztiarragoak.

Azkenik, esan behar da, Garcia Camino-k eta Azkarate-k antzekotasun ikonografikoak ikusten dituztela hauen eta Arrigorriga-koen artean; baina azpimarratzekoa da multzo honek bere ezaugarri zehatzak izatea, nahiz eta besteen eragina jaso.

V. ONDORIOAK

Aurkikuntza eta berrinterpretazio hauek garai horretarako Penintsulari buruzko osatutako ideiak apurtu dituzte, eta emaitzek interpretazio historiko berriak iradokitzen dituzte. Historiografia tradizionalarentzat datu “deserosoak” dira, beraien egituretan sartzen ez direnak. Beraz, ikerketetan erabilitako eskemen aldaketa ekarri beharko lukete; eta, inolako zalantzarik gabe, Euskal Herriko garai horretako historia ezagutzeko ezinbestekoak dira datu hauek.

Honez gain, aurkikuntzak gero eta gehiago dira —hemen garrantzitsuenak baino ez ditugu aipatu—; izan ere, honelako materialak beste aztarnategi batzuetan ere atzeman dira, Alegria-Dulantzi-n (Araba), esate baterako. Horregatik, argi dago ez dela fenomeno isolatu bat, hau da, momentu konkretu batean eta puntu geografiko batean sorturiko zerbait, batzuek ikusi nahi izan duten bezala. Fenomeno egonkortzat hartu behar da, beraz. Gogoratu Aldaieta-ko nekropolia epealdi luzean erabili zutela: VI. mendearen azkenetan hasi eta VII. mende osoan, eta bertan sexu

eta adin ezberdinetako jendea lurperatu zela. Honek guztiak zerbait adierazten du, alegia, fenomeno egonkorra, ez-bisigodoa eta armatua dela.

Ukaezina da, bestalde, Iparraldeko eragina hegoaldeko ostilamenduetan nabaritzen dela; antzekotasunak pieza akitaniarrekin dira harrigarrienak, batez ere. Jakina, datu honek beste zerbait adierazten du: alde bien arteko erlazioa duela gutxira arte pentsatu izan dena baino askoz sendoagoa izan zela. Honela azaltzen dira antzekotasun etniko eta kulturalak, esate baterako, eta jakina, zalantzan jar daiteke Penintsularen —bisigodoen— batasun politikoa. Ikus daitekeenez, bidea zabalik geratu da, eta ideia bat azpimarratu nahi nuke amaitu orduko: asko dago oraindik egiteko arkeologiaren arlo honetan, eta oraindik oso gutxi dakigu —bai iturri idatziak, bai iturri arkeologikoak erabiliz— garai ilun eta polemiko honi buruz. Ukaezina da talde horien presentzia gaur egungo Hego Euskal Herrian. Gero, interpretazioak ezberdinak izan daitezke; baina hemendik aurrera, historia berregiteko orduan, kontuan hartu beharko dira datu horiek.

BIBLIOGRAFIA

Azkarate, A. (1990): "Algunas consideraciones sobre la Arqueología de Época Germánica en Euskal Herria", *Munibe (Artropologia-Arkeologia)*, **42**.

————————, (1992): "The Western Pyrenees during the Late Antiquity. Reflections for a consideration of the issue", in *Il territorio tra tardoantico e altomedioevo. Metodi di indagine e risultati*, Biblioteca di *"Archeologia Medievale"*, Firenze, 1992.

————————, (1992): "Algunos apuntes sobre el tránsito entre la Antigüedad y la Alta Edad Media en el País Vasco", *Ilunzar/92*, Bilbo.

————————, (1993): "Francos, aquitanos y vascones. Testimonios arqueológicos al sur de los Pirineos", *Archivo Español de Arqueología*, **66**.

Azkarate Garai-Olaun, A. eta Garcia Camino, I. (1996): *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. Mendeak). I Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo.

James, E. (1977): *The Merovingian Archaeology of South-West Gaul*, Oxford, bi liburuki.

Perin, P (1980).: "La datation des tombes mérovingiennes", in *Historique-Méthodes-Applications,* Genève.

Zenbaiten artean (1973): "Problemes de chronologie relative et absolute concernant les cime-tières mérovingiens déntre-Loire-et-Rhin", in *Actes du lle colloque archéo-logique de la Ive Section de l'Ecole Practique de Hautes Etudes*, Paris.

————————, (1991): *Gallo-romains, wisigoths et francs en Aquitaine, Septimanie et Espagne. Actes des VIIe Journées internationales d´Archéologie mérovingienne*, *Toulouse, 1985*, Rouen.

MATERIAL GRAFIKOA

1. Ostilamendu hispano-bisigotikoari V. mendetik VIII. mendera arte dagokion taula tipo-kronologikoa. (Ripoll Lopez, Gisela: "Materiales funerarios de la Hispania visigoda: problemas de cronología y tipología", in *Gallo--romains, wisigoths et francs en Aquitaine, Septimanie et Espagne. Actes des VIIe Journées internationales d´Archéologie mérovingienne*, *Toulouse, 1985*, Rouen, 1991, 120. or.). Testuan pieza tipikoenak aipatu ditugu, adibidez, III. mailan agertzen den mesetako lantegietan eginiko fibula, krokagailu-plakan gurutzea agertzen duena, eta zazpi irtenune erresorte-plakan. V. mailakoak dira plaka liriformeak (eskuinekoak) eta kruziformeak.
2. Ostilamendu merobingiarra. Taula tipo-kronologikoa. Armak eta gerrikoen goarnizioak (EHUko Arkeologia Saila).
3. Ostilamendu merobingiarra. Taula tipo-kronologikoa. Fibulak (EHUko Arkeologia Saila).
4. Buzaga-ko nekropolia (Elorz, Nafarroa). Gerrikoen goarnizioak: plaka giltzatuak eta plaka zurrunekoak. (Azkarate Garai-Olaun, A.: "Francos, aquitanos y vascones al sur de los Pirineos", in *Archivo Español de Arqueología*, **66**, 1993, 161 eta 163. orr.).
5. Aldaieta-ko 28. ehorzketa (Azkarate Garai-Olaun, A. (1992): "Necrópolis tar-doantigua de Aldaieta (Nanclares de Gamboa)", *Arkeoikuska 91*, 47. orrialdea).
6. Aldaieta. Ilaratan antolaturiko ehorzketak, nekropoliaren mendebaldean atzeman zirenak, mendebalde-ekialdera begira. (A. Azkarateren argazkia).
7. Aldaietan indusitako 28. ehorzketan aurkitutako ostilamendua. (A. Azkaratek utzitako argazkia).
8. Arrigorriaga-ko hilarria, bigarren paradigmaren ezaugarri guztiak betetzen dituena (Azkarate Garai-Olaun, A. eta Garcia Camino, I.: *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. Mendeak). I Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo, 1996, 157. orr.).
9. Arrigorriagako hilarriak eta aurkitu izan diren antzekotasun merobingiar batzuk. Antzekotasunak oso nabariak dira (Azkarate Garai-Olaun, A. eta Garcia Camino, I.: *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. Mendeak). I Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo, 1996, 333. orr.).
10. Hirugarren paradigmaren adibide bat, Argiñetakoa, motibo zentral gisa izar-apaindura duelarik. (Azkarate Garai-Olaun, A. eta Garcia Camino, I.: *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. Mendeak). I Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo, 1996, 181. orr.).

Lehen euskal hagiografia kondaira eta historiaren artean

Roldán Jimeno Aranguren
Nafarroako Unibertsitatea. Erdi Aroko Historia Saila

Erromanizazioa jasan zuten Euskal Herriko eskualdeak pentsamolde kristau sakonarekin sartu ziren Erdi Aroan; aitzitik, erromanizazioa ailegatu ez zen eskualdeetan pentsamolde paganoa mantentzen zen[1]. Gure lurraldeko VIII. eta IX. mendeetan historia eta kondaira, errealitatea eta fikzioa nahasten dira; momentu arras interesgarria da aztertua izateko, bai errealitate objektibotik, baita irudizko pentsaeratik ere. Literatura garaikideak hainbat obratan agerian azaldu du garai honekiko daukan lilura, berez mitologizatuegia den momentua gehiago eraldatuz. Francisco Navarro Villosladaren *Amaia* eleberri klasikotik hasita[2], Patxi Zabaletak argitaratu berri duen *Errolanen Harria* arte[3]. Santuen kondairek edo hagiografiek garai honetako legendazko irudia areagotzen dute. Europaren Mendebaldeko gainerako eskualdeekin alderatuz, Euskal Herrian ia ez dugu adibide garbirik eta, agian, hori dela eta, ditugunen balioa kontuan izan beharko genuke, eta, aldi berean, haietatik ahalik eta probetxu handiena atera.

1. Ikusi Jimeno Aranguren, R. (1999): "Red viaria y cristianización. Pamplona"*, Hispania Sacra*, 104, LI , 717-740. orr.

2. Cfr. Mata Induráin, C. (1995): *Francisco Navarro Villoslada (1818-1895) y sus novelas históricas*, Iruñea: Gobierno de Navarra. *Ibid.*, "Notas sobre la documentación histórica en *Amaya*. Cinco cartas de Luis Echeverría a Navarro Villoslada", *Archivum*, XLVI-XLVII (1996-1997), 325-346. orr. *Ibid*., "Sobre la génesis de *Amaya o Los vascos en el siglo VIII*, de Navarro Villoslada. Documentos inéditos", *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, LIII (1997), 445-464. orr. *Ibid*., "Para el epistolario de Navarro Villoslada: cuatro cartas inéditas de José Manterola (1880-1881)", *Letras de Deusto*, XXVII, 76 (1997), 207-217. orr. *Ibid*., "Correspondencia inédita entre J.M. Ortí y Lara y F. Navarro Villoslada acerca de *Amaya*", *Sancho el Sabio*, 7 (1997), 97-105. orr. *Ibid*., "De García Jiménez a los Albret: los orígenes y las postrimerías del reino de Navarra en la narrativa histórica de Navarro Villoslada", *Mito y realidad en la Historia de Navarra*, II, *Actas del IV Congreso de Historia de Navarra*, Iruñea: Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, 1998, 95-105. orr.

3. Zabaleta, P. (1998): *Errolanen harria*, Tafalla: Txalaparta. Cfr. Jimeno Aranguren, R. (1999): "Recensión a Patxi Zabaleta, *Errolanen Harria*", *Memoria y Civilización*, **2**, 386-388. orr.

KONDAIRA HAGIOGRAFIKOAK ETA HAUEN ERALDAKETA HERRIKOIA

Fededun eta jainkozaleentzat pizgarri izanik, hagiografiek santuen bertuteak eta mirakuluak kontatzen dituzte. Erdi Aroko legendarioetatik aurrera, santuen, martirien eta konfesoreen bizitzak ugaldu egin ziren, hauetatik ezagunena *Giacome da Varazze*-ren *Urrezko kondaira* izanez[4]. XVI. mendearekin batera beste santuen bizitzak agertuz joan ziren: Luis Lipomano, Surio, Viel eta Tigeon, Simon Martin edo Albano Butler-renak, besteak beste. XV. mendearen bukaeratik aurrera, *Flos Sanctorum* hispanikoak sortu ziren. Urrezko kondairaren eragin handia izan arren, estilo berri kritikoagoa azaldu zuten. Santu berriak ere sartu izan zituzten, haien artean apokrifo batzuk. Gure santuen artean, adibidez, Antzinako Erregimenaren euskal erlijiozkotasunaren irudirik garrantzitsuenaren kasua dugu: Ostiako Jaun Done Gregorio. Libururik zabalduenak Alonso de Villegas eta Pedro de Ribadeneyra-renak izan genituen[5].

Hagiografia idatzia ezagutu arren eta mende luzez horretatik edan arren, Euskal Herrian literatura idatzia eraldatu duen legendario herritar aberatsa dugu. Jatorrizko ereduak aldatuz eta aberastuz, herriak irudizko kondairak sortu zituen, hauek belaunaldiz belaunaldi zerbait bizi bihurtuz. Legenda herrikoiaren sorrerari buruz luze idatzi da. Kondairak ez dira bat-batean sortzen eta, halaber, ez dira *anonimoak*. Irudikatzen eta sortzen dituen pertsona bat dago atzetik. Hala ere, kondaira--izaera ahozko transmisioak ematen dio[6]. Kristau-komunitatean monje eta apaizen esku garatzeagatik, literatura hagiografikoa jakintsua eta egile ezezagunekoa da. Herriak, berriz, mirarizko sendaketekin zerikusia duten santuen kondairen sorreran parte hartu du[7].

Etimologikoki, *legenda* kontzeptua, oro har, santuen mirakulu eta bizitzei buruz egin beharreko irakurketa gupidatsua dugu. Kondairak herritar kontaketa didaktikoak dira, historia nahiz erlijioari buruzko indar erakusgarri handikoak, egiazko muina duten informazio poetiko miresgarriak. Mitoetatik desberdintzen dira benetako pertsonaiak dituztelako, hauek berezko izenak dituztelako, eta istorioa leku geografiko zehatz eta historikoetan kokatzen delako. Gertakari historiko hauek mirespena sorraraztekoak dira, beti ere erabat apainduta egonik[8]. Zentzu

4. J. de la Vorágine (1995): *La leyenda dorada*, Madril: Alianza, (7. ed. 2 liburuki).

5. Cfr. Jimeno Aranguren, R. (1999): "Fuentes para el estudio de la religiosidad"*, Erlijioa eta Sinboloak. Zainak*, **18**, 55-56. orr.

6. Literaturaren aldetik ikusi Caudet Yarza, F. (1995): *Leyendas de Aragón*, Madril: M.E. Editores. Anclares, G. de (1995): *Leyendas de Extremadura*, Madril : M.E. Editores. Antropologiaren aldetik ordea, ikus Propp, V. (1977): *Morfología del cuento*, Madril: Fundamentos, (4. ediz.). *Ibid*., (1979): *Las raíces históricas del cuento*, Madril: Fundamentos, (2. ed.). Lévi-Strauss, C. (1964-1971): *Mythologiques*, Paris: Plon, (4 liburuki). Sahlins, M. (1977): *Islas de historia. La muerte del capitán Cook. Metáfora, antropología e historia*, Bartzelona: Gedisa.

7. Van Gennet, A. (1982): *La formación de las leyendas,* Bartzelona: Alta Fulla.

8. Manrique de Lara, J.G. (1971): *Leyendas y cuentos populares españoles*. Bartzelona: Bruguera, 9-21. orr.

berean, kondairan errealitate historikoaren osagarri subjektibo bat sartzen dela adierazi zuen Hippolyte Delehaye-k, informazio anitza eta deskribapen hunkigarriak dituen irudi polit bat sortzen ahaleginduz[9].

Egile ezberdinek gertakaria zehaztasun osoz kokatzen duen ipuin gisa definitzen dute kondaira, hain zuzen ere, pertsonaia zehatz eta definituak dituen ipuin modura. Istorioa herriak eraldatzen du, irudimen herritarraren produktua izanik. Istorio hauek herritar usadioaren oroimena aberasten dute, hauen bidez herriek beren nortasuna definitzen baitute[10]. Gainera, kontuan eduki behar dugu, pietate--toki bati loturik dagoen kondairak herriaren fantasia areagotzen duela. Herriaren irudimena bere santu ospetsuen istorioetan, erlikietan eta mirarietan berregiten da. Elizaren historia unibertsalaren gertaera garrantzitsuenei soilik lotuta dauden herritar kondairak, berriz, gutxi batzuk baino ez dira[11].

Kondaira herrikoien ezaugarri modura, anonimatoa, denboraz kanpokotasuna eta kontaketaren sinplifikazioa aipatuko ditugu. Sentimenduen justifikazioa bilatzearren, maiz sinesgarritasuna axolagabeko zerbait bihurtzen da. Kondaira askok datu historikoren bat besterik ez dute aldatzen; beste batzuk, berriz, ikuspegi historikoak lortzeko oinarri modura erabili izan dira, bestelako gertaerak justifikatu ahal izateko, alegia. Mota hauetako kontaketa herrikoietan zehaztasun historikoaz hitzegitea ezinezkoa izan arren, momentu historikoak zehazten dituztela dio Alfredo Asiáin-ek. Denbora historiko horiek, pertsonaiak, giroak eta egiazkotzat hartzen diren zenbait aipamenek osatzen duten nebulosan zehazten dira[12]. Gainera, Goi Erdi Aroan kokatzen diren kondairetan aurrekoa areagotu egiten da.

Antza denez, eta kondairen toki-elementuei kasu eginez, beren eskualdeko jatorrizko zerbait ditugu. Hala ere, Mendebaldeko munduko kondairen artean harreman handiak daude —baita Ekialdekoekin ere—, gaiak, protagonistak eta giroak gurutzatuz. Hartara, garai eta eskualde ezberdinetako kondairen artean, paralelotasun morfologikoak ezartzen dira. Arnold Van Gennep-ek gai-eskualdeak daudela dio, non eragile askok bat egiten duten, kondairen sorrera eta igorpena aintzat hartzeko era guztietako ezaugarriak kontuan hartuz: kokapena, garaia, bakarkako ala taldekako harremanak eta gizarteko heldutasuna. Izan ere, kondairen ikerketari dagokionez, ezin dugu ukatu etnografia, historia eta geografiaren artean dagoen harreman estua. Horregatik, kontaketen bilakaera eta igorpena ikertzerakoan, gai-zikloen erabilpena aldarrikatzen du frantziar etnografo horrek, kondairek

9. Delehaye, H. (1906): *Le leggende agiografiche. Con appendice di Wilhelm Meyer. Traduzione italiana*, Firenze: Libreria Editrice Fiorentina, 25-29. orr.

10. Bayard, J. P. (1957): *Historia de las leyendas*, Bartzelona: Vergara. Caudet Yarza, F. (1995): *op.cit.* Llorens Camp, M.J. (1995): *Leyendas españolas*, Madril, M.E. Editores.

11. Delehaye, H., *op.cit.*, 61-62. orr.

12. Asiáin Ansorena, A. (1999): *Narraciones folklóricas navarras. Recopilación, clasificación y análisis. Tesis doctoral presentada en el Departamento de Literatura española y Teoría de la Literatura de la Facultad de Filología, Universidad Nacional de Educación a Distancia*, Madril: UNED, 636. orr.

gehienetan ez baitute gai bakar bat jorratzen[13]. Gainera, ereduak osatzeko ahaleginak ez ditu beti emaitza berdinak ematen. Ondorio hori Georges Dumézil-ek Antzinaroko legenda eta mitoei buruz egindako ikerketa bikainetan azaldu da agerian[14]. Bestetik, Peter Burke-k bere buruari bertako eta atzerriko ipuinen arteko proportzioez galdetu dio; eta funtsean arlo honetan ikerketak hasi berriak direla azaldu du[15]. Euskal Herriko ikerketei dagokienez, egoera hau askoz ere latzagoa dugu.

KALITATE EZBERDINEKO IKERKETAK EUSKAL HERRIAN

Bollandistek kritika hagiografikoa sartu bazuten ere[16], Euskal Herrian XX. mendearen hasiera arte *Flos Sanctorum*-en estilo sineskorra erabiltzen jarraitu zen, Joakin de Lizarragaren (1748-1835) lana adibiderik esanguratsuena izanik[17]. Ipar Euskal Herrian, gutxi gorabehera akademikotzat har ditzakegun ikerketek ez zuten egiaztatze-kritika eskaintzen[18].

Euskal hagiografiaren lehenengo ikertzaile kritikoa Antonio Pérez Goyena dugu, eta gaur egun ere nafar santu askoren ikerketa egiterakoan, egile honen lanetatik hasi behar dugularik[19]. Ondoren, beste egile batzuk ere arduratu dira ikerketa orokorraz[20] eta santu jakin eta ezagunen bizitzaren azterketa kritikoaz, ikusiko dugun bezala. Nolanahi den, ondorengo zenbait egileren artean, ahalegin zientifiko horrek arrakastarik izan ez zuela ematen du. Joera apologetikoaren jarratzaile eta espiritu kritiko gutxikoen artean, Jesús María Aldayren obra aipa dezakegu adibide gisa[21]; eta eskerrak Euskal Herrian oraindik zentzugabeko santuen inguruko liburu *rappeliano* modukoak ez zaizkigun ailegatu[22]. Ikuspegi ezberdin batetik, ikerketa antropologikoek, mitoak[23], kondairak eta ipuinak aztertzeko ahalegin

13. Van Gennep, *op. cit.*

14. Dumézil, G. (1996): *Mito y epopeya*, México: Fondo de Cultura Económica, (3 liburuki).

15. Burke, P. (1991): *La cultura popular en la Europa moderna*, Madril: Alianza, 101. orr.

16. Cfr. Delehaye, H. (1959): *L'oeuvre des bollandistes à travers trois siècles, 1615-1915*, Bruxelles: Société des Bollandistes.

17. Lizarraga, J. de (1994): *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak*, Iruña: Nafarroako Gobernua. J. Apecechearen edizio kritikoa.

18. Adibidez Jaurgain, J. de (1917): *L'évêché de Bayonne et les légendes de Saint Léon*, Saint-Jean-de-Luz. Menjoulet, J. (1869): *Saint Amand, apôtre des Basques*, Auch: imp. Foix.

19. Pérez Goyena, A. (1947): *La santidad en Navarra: santos, beatos y personas*, Iruñea.

20. Iparralderako ikus, adibidez, Moreau, R. (1964): *La religion des Basques. Esquisse historique*, Bayonne: Imprimerie des Cordeliers. Narbaitz, P. (1981): *La cristianización del País Vasco-francés*, "I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco", Gasteiz: Caja Provincial de Álava; Facultad de Teología, 43-67. orr.

21. Alday, J. M. (1994): *Santoral vasco. Santos, Beatos y Siervos de Dios*, Bilbao: Misioneros Claretianos.

22. Rappel, (1997): *El santoral de Rappel*, Madril: Temas de Hoy.

23. Titulu aipagarri eta klasikoen artean ditugu Barandiarán, J. M. (1996): *Mitología vasca*, Donostia: Txertoa, (11. ed.) eta Satrústegui, J. M. (1980): *Mitos y creencias*, Donostia: Txertoa.

handia egin dute[24]. Hala ere, adibide ohoragarri batzuk izan ezik, ikerketa-mota hauek gutxitan arduratzen dira modu kritiko batean beren kontaketen Aintzinaro Berantiarreko edo Goi Erdi Aroko jatorriaz.

Ondoren aztertuko ditugun adibideak, kristautasunaren hastapenetatik hasi eta IX. mendera arteko euskal hagiografiak dira. Azalpen honetan Jaun Done Grat-i buruz ez dugu hitz egingo. Lixozen (Zuberoa) jaioa eta Oloron-go apezpiku izana, V eta VI. mendeen artean bizi omen zen[25]. Baina haren hagiografiak ez zuen ia islapenik izan Erdi Aroko euskal erlijioan. Aztertuko ditugun santuen sailkapena bere ustezko kronologia historikoaren arabera egingo dugu.

APOSTOLUAK EUSKAL HERRIA KRISTAUTZEN

Lehen kristautasunaren inguruko kondairak baditugu Euskal Herrian[26]. Gure ohitura herrikoi batzuek apostoluak dituzte protagonistatzat. Tradizioaren arabera, Jaun Done Paulo Nafarroako Bianan prediku egiten egon omen zen, tontor baten gainean Jaun Done Mikelen ermita eraikitzeko parada izanez ere. Baseliza horren ateburuan Behe Erdi Aroko bertso-inskripzioa zegoen. Antonio Pérez Goyena-ri jarraituz, hauxe litzateke itzulpena: *Santu edo Paulo, Gurutzearen pregonaria, guretzat argiaren hasiera*[27]. Historiografiak argi utzi duenez, ordea, apostolu honek ez zuen lurralde hauetako kristautasunean parte hartu.

Bizkaiko Gaztelugatxeko monasterio zaharra ere apostolu bati zor diogu. Nahiz eta Bermeoko ermita honen sorrera XI. mendean gertatu, kondairaren arabera Jaun Done Joanes erraldoiak sortu zuen. Anton Erkorekak erraten duenez, Bermeoko *San Juan Portale*ren azpian, oin-itxurako zulo bat duen harri bat daukagu, San Juanek berak utzi zuen oinatza, herriko jendearen ustez. Santuak, Bermeoko portuan lurreratu ondoren, hiru pauso emanez iritsi omen zen Gaztelugatxera, lau oin-aztarna utziz: *"San Juanek leelau-leelau imin zauen kaderie Morondon, arkupien. Gero imiñ zauen kaderie Arenen, itxurri zelan dauen Salomeneko beko partien, an leelengo kaderie. Bigarrena Martin Koixoneko mandijjen, an Landatxuen, Landako beko partien, da irugarrena San Juanen. Zelako oñek okin sauen San Juanek!"*[28].

---

24. Apalategi Begiristain, J. M. (1987): *Introducción a la historia oral a través de los "kontuzaharrak" (cuentos viejos) de la comunidad gipuzkoana de Ataun*, Bartzelona: Anthropos. Asiáin Ansorena, Alfredo, *Narraciones folklóricas*, *op.cit*. Azken hau ikuspegi filologiko-antropologiko batetik.

25. Alday, J. M., *Santoral*, 200-201. orr.

26. Multzo honen barnean *San Martinico* eta basajaunaren mitoa ez dut sartzen. Cfr. J. M. Barandiaran, *Mitología vasca*, *op.cit*., 88-89. orr.

27. Pérez Goyena, A. (1953): "Epigrafía navarra en verso latino", *Príncipe de Viana*, XIV, 52-53, 388-389. orr.

28. Erkoreka, A. (1999): *Doniene. San Juan de Gaztelugatx*, Bermeo: Doniene Santutegiko Zaintzaile Taldea, 1999, 18. orr.

Kondaira honek santu erraldoi bat aurkezten digu, hain zuzen ere, jentilak, Errolan, Sanson eta mairuak bezalako pertsonaia mitologikoak parekoak izanik. Bermeoko *Donienen* bezala, Errolan erraldoiak bere oin-aztarnak Nafarroako Erron utzi zituen, eta hatzen aztarnak, aldiz, Aralartik Madozen kontra jaurti zuen menhirrean. Azken honekin ez zuen bere helburua lortu, gure pertsonaia behi gorotz batean irristatu eta Atako bailaran erori baitzen[29].

JAUN DONE FERMIN

Kristautasunaren sarrera Nafarroan, Jaun Done Ferminekin harremana duena, ez zen era kritikoan ikertu 70eko hamarkadara iritsi arte, iskanbila sorraraziz gainera[30]. Euskal kristautasunarekin erlazioa duten azken ikerketek frogatu duten bezala, aski garbi dago nafarren patroia den Ferminek ez zuela baskoien ebanjelizazioan parte hartu[31].

Iruñeko kale Nagusiaren eta Jarauta kalearen artean San Zerningo putzua dago. Horretan irakurri ahal da: *Hemen dagoen putzuko ururekin, usadioaren arabera, Jaun Done Saturdik hiri honetako lehen kristauak bataiatu zituen.* Santu honek ez zuen Nafarroako eta Iruñeko patroiarekin deus ikustekorik, Jaun Done Ferminen kondaira apokrifoaren sorrera arte. Bere kultua Iruñeko burgesekin etorri zen, bere izena hiriko burgo bati emanez[32]; gainera, Jaun Done Ferminen ustezko bataioa izan zenerako, Jaun Done Saturdik jadanik martirioa jasan izan zuen[33].

Elkanoko Joakin Lizarragak jasotzen duen bezala, bere kondairak hauxe dio: *San Fermin edo Firmio ta Firmino deitua. Nafarroco Patrono dena jaiozé Iruñean. Buratsoac Firmo ta Eugenio, gend nobleetáic: eta usa Senadóre edo Consejúco jaun principala. Bataiatuxitue S. Saturinoc Tolosaco Obispo xénac. Onen Discipulo zen sacerdote bátec Honesto deituac, edo honesto zénac azizué ta eracútsi San Fermin erreligióne Christioarén doctrinan ain óngui, ezi eguinzue*

29. Jimeno Aranguren, R. (1996): "Mitos y Leyendas", *Etnología de Navarra*, II, Iruñea: Diario de Navarra, 488. orr.

30. Jimeno Jurío, J.M. (1974): *Historia de Pamplona. Síntesis de una evolución*, Iruñea: Ediciones y Libros, p. 35-53. Bere garaian izandako zentsuraren inguruan, ikus Alli, J. C. (1995): "Prólogo", J. M. Jimeno Jurío, *Historia de Pamplona y de sus lenguas*, Tafalla: Txalaparta, 13. orr.; eta Jimeno Aranguren, R. (1998): *José María Jimeno Jurío. Manuel Lekuona Saria*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 12. orr., Cfr. Goñi Gaztambide, J. (1979): *Historia de los Obispos de Pamplona*, I, Iruñea: EUNSA-Diputación Foral de Navarra, 31-36. orr.

31. Jimeno Aranguren, R., "Red viaria y cristianización", *op.cit.* Bertan ikerteken egoera gaurkotu bat aurkitu daiteke.

32. Jimeno Aranguren, R. eta Martínez Arce (1998): *Historia de Pamplona. De los orígenes a nuestros días*, San Sebastián: Txertoa, 86. orr.

33. Ordóñez, V. (1967): *San Fermin y sus fiestas*, "Navarra. Temas de Cultura Popular", 2, Iruñea: Diputación Foral de Navarra, 2. orr.

Maéstru, eracustecó bercéei doctrina bera: eta alá zebila Iruin aldéco lecuetán arguitzen géndeac Jangoicoaren guizón sandu bat bezala[34].

Beraz, Jaun Done Fermin erromatar senadore baten semea, kristautasunera pasa zen San Zerningo putzuan, beste Iruñeko lehen kristauekin batera, Jaun Done Saturdiren eskutik. Honesto-k Tolosa-ra bidali zuen —gaur egungo Frantziako Tolosara—. Han apezpiku izendatua izan eta gero, Iruñera itzuli zen eta bertako elizbarrutiaren lehen apezpikua izan zen. Baina gure Ferminek ez zuen Iruñean asko iraun, laster lur berriak ezagutzeko irrika izan baitzuen. Fermin, hogeita hamaika urterekin eta kristau berriak bihurtzeko asmotan, Frantzia aldera itzuli zen. Bere helburua arrisku aunitz pasa ondoren lortu zuen. Azkenean Picardia-ko hiriburura, Amiens-era, ailegatu zen, apezpiku modura. Han hiru mila arima kristautasunera konbertitu eta hainbat mirari egin zituen. Baina bertako botere idolatrikoak horrelakorik ezin izan zuen jasan, eta Fermin atxilotzeko agindua eman zuen. Hori entzunda, prefektuaren aurrean agertu zen bere kabuz. Prozesu gogorra pasa ondoren, burua moztu zioten, martiri bihurtuz[35].

Kondaira apokrifo honen jatorria Amiens-en dago. Mende askotan zehar, Picardia-ko hiriburuan santuaren bizitzaren inguruko ikerketak egin ziren. Ikerketa horiek aktetan eta bestelako iturri berantiarretan oinarritu ziren, Nafarroatik plazaratutako obrekin ere osatuz[36]. Lan horiek frantziar[37] eta euskal[38] historiografia berriak gainditu dituzte, Jaun Done Ferminen existentzia kondairazko esparru apokrifora eramanez.

Seguruenik, Erdi Aroko kondairetan maiz gertatzen den bezala, Amiens-en exotikoa eta urruna suertatzen zitzaielako, santuaren aberritzat baskoien lurraldea

34. J. de Lizarraga, *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak*, ik. "San Fermin".

35. Jimeno Aranguren, R. (1996): "Santu baten argi-itzalak", *Argia*, **1585**, 31. orr.

36. J. B. M. de Sachy (1770): *Histoire des Évesques d'Amiens*, Abbeville: Veuve de Vérité Libraire, 28-35. orr. Dufour, Ch. (1864): *L'Apostolat de saint Firmin, 1er évêque d'Amiens, rétabli au IIIe siècle. Discours prononcé à la séance publique du 7 décembre 1863,* Amiens: Lemer aîné. Salmon, Ch. (1865): *Histoire de Saint Firmin, premier Évêque d'Amiens*, Amiens: Société des Antiquaires de Picardie, 1858. *Ibid*., *Recherches sur l'époque de la prédication de l'évangile dans les Gaules et en Picardie et sur le temps du martyre de Saint Firmin, premier évêque d'Amiens et de Pampelune*, Amiens: Lemer aîné. *Ibid*. *L'Église Notre-Dame de Saint-Acheul. Le tombeau de saint Firmin...*, Amiens: Langlois, 1877. Corblet, J. (1870): *Origines de la foi chrétienne dans les Gaules et spécialement dans le diocèse d'Amiens*, Paris: J. B. Dumolin; Amiens: Prévost-Allo, 1-97. orr. Soyez, E. (1878): *Notices sur les Évêques d'Amiens*, Amiens: Libraire-Éditeur Langlois, 1-6 orr. Bouvier, H. (1921): *Histoire religieuse de la ville d'Amiens des origines au XIVe siècle*, Amiens: Imprimerie Yvert & Tellier, 6-11. orr.

37. Ikus, adibidez, Cadoux, J. L. (1986): "Amiens dans l'Antiquité: Samarobriva Ambianorum", R. Hubscher (zuz.), *Histoire d'Amiens*, Toulouse: Privat, 44. orr. Desportes, P. eta Millet, H. (1996): *Fasti Ecclesiae Gallicanae. Répertoire prosopographique des évêques, dignitaires et chanoines de France de 1200 à 1500,* I, *Diocèse d'Amiens*, Turnhout: Brepols, 3. orr.

38. Jimeno Jurío, J. M. (1995): *Historia de Pamplona y de sus lenguas*, Tafalla, Txalaparta, 42-51. orr.

hautatu zuten. Jaun Done Ferminen kultua Nafarrora, Artaxoa edo Parisko Pedroren —Iruñeko apezpikua zenaren— eskutik heldu zela frogatuta dagoela dirudi[39]. Iruinxeme izandako santuaren "aurkikuntza" izan zela eta, bere omenean ospatutako festa ezarri zen[40]. Bere kultuaren sustraipen azkarraren eredu ezin hobea 1217. urtean katedralak martiriari eskainitako aldarean dago[41]. Hurrengo mendeetan festaren liturgia osatuz joan zen.

JAUN DONE LEOI

Jaun Done Leoi Euskal Herriarekin zerikusirik duen erromatar garaiko beste martiri bat dugu. Bere kondairaren arabera Carentan-en sortua zen. Normandiako Rouen-go artzapezpikua izendatu eta gero, bere anaiak ziren Felipe eta Gervasiorekin, Iberiar Penintsulara paganoak konbertitzera jaitsi zen. Baiona piratek hartuta zeukaten garaian, Lapurdiraino ailegatu zen. Hiru prediku-egun egin ondoren, herria kristau bihurtu zuen. Hau ikusita, piratek Jaun Done Leoiri burua moztu zioten, eroritako lekuan mirariak egiten zituen iturri bat sorraraziz. Beste kondaira batzuen arabera, mirariak egiten ez uzteagatik, Marte jainkoaren zerbitzariek hil zuten. Bestalde, XVII. mendeko Rouen-go kondairaren arabera, Itun Berria zabaltzeko Jaun Done Leoi hegoaldera pasatu zen. Horrela, bere kultuak Baztanen, Malerrekan, Bortzirietan eta Gipuzkoako ekialdean duen garrantzia azalduko litzateke[42].

Baionako elizbarrutiko historiaren aipamen zaharrenak zalantzagarriak dira. Akitaniako erresuma karolingioaren eskutik, Baionako elizbarrutia 830. urtearen inguruan agertu zela diote azkenengo ikerketek. 1039. urtean Gaskoniako apezpikutza osatzen zuten egoitzetan parte hartu zuen. F. Bériac-en ustez, Akizeko elizbarrutiaren zatiketa hori euskal bailaren ebangelizatze-prozesuaren ondorioa izango litzateke, Akizeko apezpikuak bere gain Mixa eta Ostabaret-eko herrialdea ia bere osotasunean izanez. Bitartean, Baionako egoitza berriak bere boterea Lapurdi osotik eta Pirinioetako hegoaldetik ere zabaltzen zuen[43].

39. Kultuaren lehen testigantza 1186. urtean Amiens-ko apezpikuak santuaren garezurraren erlikia bat lortu zuenean etorri zen. Jimeno Jurío, J. M. (1995): *Historia de Pamplona y de sus lenguas*, 50. or., Goñi Gaztambide, J. *Historia de los Obispos*, 33. or. Aro modernoan eliteko pertsonaien eskutik erlikia berriak ailegatu ziren: Azpilkuetako Martin (1522), Beaumonteko Beatriz (1592) eta Olagueko Migel kapitaina. López, C.M. (1969): *La aventura de los santos*, "Navarra. Temas de Cultura Popular", 43 zkia., Iruñea: Diputación Foral de Navarra, 6. or.

40. *Dono tamen et concedo tali pacto atque tenore, quatinus in festo Sancti Firmini procures conuentum canonicorum ad honorem eiusdem Sancti Firmini, cuius festiuitatem solemnius quam prius agebatur, celebrari decreuimus, dupplicatis scilicet cantoribus in choro, ut in festis apostolorum fiere solet*. Goñi Gaztambide, J. (1977): *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona, 829-1243*, Iruñea: Gobierno de Navarra, **374**.

41. *Ita tamen quod semper teneat capellanum unum in ecclesia Sancte Marie Pampilone, qui cotidie Missam defunctorum ad auroram celebret pro anima mea et parentum meorum in altare Sancti Firmini et prouideat ei*. J. Goñi Gaztambide, *Colección*, **515**.

42. P. Narbaitz, *La cristianización,* 65-66. orr.

43. Bériac F. (1991): "Bayonne au Moyen Âge"*, Histoire de Bayonne*, Toulouse: Privat, 27. or.

JAUN DONE AMANDO ETA ANDRA DONA RIKTRUDIS

VII. mendeko Amando eta Riktrudis santuak ere apokrifoak dira[44]. Lehenengoaren bizitzak nazioarteko interesa izan du[45], eta baskoiak ebangelizatzeko izan zuen saiakeraren porrota aski ezaguna da. Errealitatearekin bat etorri ahal izan bazen ere, pasarte apokrifo horretan euskal mendietako biztanle idolatrak deskribatzen ditu[46]. *Vita Amandi Episcopi*-ren sorrera VIII. mendekoa dela uste da[47]. Gertakari hau, garai horretan herrialde germaniarretan egiten ziren misio jardueretarako adibide, misiolarien bilketan izandako interes handiarekin parekatu behar dugu[48].

Hagiografiari dagokionez, Jaun Done Amandoren irudia Andra Dona Riktrudisekin duen erlazioagatik interesatzen zaigu. 614. urtean Iparraldeko familia aberats batean jaioa, haurtzaroa eta gaztaroa bertutea erakutsiz bizi izan zuen. Jaun Done Amandok baskoiak kristautzen pasaturiko urteak frankoek Akitania konkistatu zuten urteak izan ziren. Adalbaldo nobleak Riktrudis-i ezkontza eskatu zion. Neskaren gurasoen hasierako oposizioa gaindituz, azkenean esposatu egin ziren, kristau bertuteak egunero azalduz. Frankoen erresuman bizi eta lau semealaba izan zituzten. Senarraren heriotzaren ondoren, bere maisua zen Jaun Done Amandok aholkaturik, 646. urtean Marchiennes-ko monasterioan bildu zen, bertan bere heriotzara arte abadesa izanik (687). Bere istorioari buruzko dokumentu eta iturri garaikideak falta zaizkigu. Dena den, IX. mendean bere ohoretan egindako kantu batzuk gorde dira. Bere izena letanietan eta Percey-ko Sakramentarioan ere agertzen da. Azkenik, Ubaldok idatzi zuen Riktrudisen bizitza 907. urtean. 1164ko abuztuaren 2an bere gorpuzkinak urre eta zilarreko erlikario batera aldatu zituen Frantziako Luis VII.aren anaia zen Reims-ko artzapezpikuak[49].

---

44. Cfr. P. Narbaitz, "La cristianización", 61-64. orr. F. Bériaz, "Bayonne", 27. or.

45. Caro Baroja, J. (1971): "San Amando y los Vascones", *Príncipe de Viana,* XXXII, **122-123**, 7-26. orr. Abou-El-Haj, B. F. (1994): *The Medieval cult of saints: formations and transformations*, Cambridge: Cambridge University Press. Azken hau bibliografia gaurkotuarekin.

46. Caro Baroja, J. "San Amando", 16-26. orr. Goñi Gaztambide, J., *Historia de los Obispos*, 54-56. orr. Mañaricúa, A. E. (1986): "Cristianización del País Vasco. Orígenes y vías de penetración", *Congreso de Estudios Históricos Vizcaya en la Edad Media. Bilbao, 17-20 diciembre 1984*, Donostia, 46-47. orr. Sayas, J. J. (1994): *Los vascos en la Antigüedad*, Madril: Cátedra, 287-288. orr.

47. Ikus K. Larrañaga-ren edizioa, *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan*, Leioa: EHU, 193. orr.

48. Collins, R. (1986): "El cristianismo y los habitantes de las montañas en época romana", *Antigüedad y Cristianismo. VII. Cristianismo y aculturación en tiempos del Imperio Romano*, Murcia, 552-555. orr.

49. Narbaitz, P., "La cristianización", 63-64. orr. J. M. Alday, *Santoral*, 345-351. orr.

ARMENTIAKO JAUN DONE PRUDENTZIO

Aurreko kasuan bezala, usadioaren arabera VII. mendearen bukaeran jaiotako Jaun Done Prudentziok santu apokrifoaren itxura dauka. Bere kondaira berantiarra da, baina jadanik honen kultua 959. urtean Pedrosoko San Migel monasterioaren konsagrazioan azaltzen da, non santuaren erlikiak erabili ziren. Bestalde, X. mendean bertan, Jaun Done Prudentzioren ospakizun liturgikoa apirilaren 28an ageri zaigu, egutegi mozarabiarrean eta kodize Emilianense delakoan[50].

Bere hagiografiaren arabera, Arabako Armentiakoa zen. Hamabost urte zituela, Soria aldera joan eta zazpi urte pasatu zituen San Saturiorekin eremita modura. Bere maisuaren heriotzaren ondoren, Kalahorrako lurretara kristautasuna zabaltzera abiatu zen. Tarazonako elizbarrutiko apezpikua izendatu zuten, eta, han lan itzela burutu ondoren, Osma-n hil zen. Gorpua, berak errana zuen bezala, mando baten gainean igo zuten. Animalia kobazulo batera ailegatu arte ez zen gelditu. Lurperaturik zegoen lekuan, Clavijo-ko monasterioa eraiki zen.

Arabako patroiaren historikotasuna alde batera utziz —argitzea ezinezkoa baita[51]—, beraren kondairak Behe Erdi Aroko eta Garai Modernoko beste askoren ezaugarriak dituela esan beharra dago. Jaun Done Prudentzioren kondaira beste kontaketa hagiografikoek hornitzen dute, gertakari miragarri batzuk azpimarratuz eta exageratuz. Bizitzaren elementuak, mirakuluak eta santuaren heriotza bera, beste kondaira askotan ere aurkitzen ditugu: Buxandako Jaun Done Fausto (Araba), Labioko Andra Dona Felizia, Lodosako Atsege edo Angustiasko Ama, Ostiako Jaun Done Gregorio (Nafarroa), Santa Quiteria (Vallés, Catalunya) edo Sopetrangoko Ama Birjina (Jarandilla, Cáceres)[52]. Gainera, Jaun Done Prudentzio, Soriako patroia den San Saturioren ikaslea dugu, azken honen apokrifizitatea garbi aski frogatuta dagoelarik.

GOÑI-KO TEODOSIO ETA ARALAR-KO JAUN DONE MIKEL

Euskal Herriko kondaira ezagunenen artean Goñiko Teodosiorena daukagu[53]. Honen arabera, Goi Erdi Aroko mende ilun haietan Goñi ibarreko jauna zen Teo-

50. Alday, J. M., *Santoral*, 341 eta 344. orr.

51. Cfr. Fernández Alonso, J. (1968): "Prudenzio, vescovo di Tarazona, santo", *Bibiotheca Sanctorum*, X, Roma: Città Nuova Editrice, 1230-1231. zutabeak.

52. Jimeno Aranguren, R. (1997): "San Gregorio Ostiense. Abogado contra plagas agrícolas y males del oído", Francisco Javier Campos y Fernández de Sevilla (zuz.), *Religiosidad popular en España. Actas del Simposium I*, San Lorenzo del Escorial, 1-4-IX-1997, San Lorenzo del Escorial: Instituto Escurialense de Investigaciones Históricas y Artísticas, 310. or.

53. Lan garrantzitsuenen artean ikusi Caro Baroja, J. (1969): "La leyenda de Teodosio de Goñi", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, I, 3, 293-345 orr. Lacarra de Miguel, J. M. (1969): "Milagros de San Miguel de Excelsis", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, I, 3, 347-361 orr. Navarro Salazar, M. T. (1995): "Aspectos de la religiosidad popular en la leyenda de Teodosio de Goñi", *Sukil. Cuadernos de Cultura Tradicional*, 1, 162-173. orr.

dosio. Gerrara abiatu zenean, beraren emaztea, Butrongo Konstanza, etxean itxaroten gelditu zitzaion. Konstanza polita, aberatsa eta bertute handiko emakumea zen. Bere bakardadea hausteko eta aitaginarrebak zaindu ahal izateko, Teodosioren gurasoak berarekin bizitzera eraman zituen. Teodosio Goñira itzultzean, bidean, emaztea beste gizon batekin egona zela kontatu zion ermitau batek. Jauregira ailegatu bezain laster, logelan sartu eta ohean zeuden bi pertsonak ezpataz hil zituen. Emaztea logelan sartu zen, Teodosio gaixoak bere gurasoak hil zituela ohartaraziz. Sarraskiagatik sumindurik, Iruñeko apezpikuarengana jo zuen, honek Erromara bideratuz. Aita Santuak, penitentzia gisa, bere bizitza osorako eta Jainkoaren graziagatik erori arte kate lodi bat eramatera behartu zuen. Penitentzia horrekin Aralarko Mendikatean zazpi urte eman eta gero, behin dragoiaren itxura zeukan deabrua zulo batetik agertu zitzaion. Teodosiok lurrera erorita eta belaunikaturik, Jaun Done Mikel Aingeruaren faborea eskatu zuen. Ekaitz baten ondoren zeruko gudarien printzea buruan gurutzea zeramala agertu zen, monstruoa akabatuz. Teodosiori kateak hautsi zitzaizkion eta etxera bueltatu zen, bere emazte fidela zain zeukalarik. Jainkoaren miserikordia eskatuz, Aralarko muinoan santutegi bat eraiki zuten, han heriotza ailegatu arte ermitau egonik[54].

Nahiz eta historikoki Jaun Done Mikelen lehenengo agiria 1027. urtekoa izan, leku honetako izaera sakratuaren eta izaera paganoaren jarraitasuna sumatzen da. Hasiera batean *Ara Coeli*ri —'zeruko aldarea'-ri— eskainita, kristau bihurtu zen, Jaun Done Mikel *in Excelsis*en izenpean[55]. Gailur honetarako aukeratutako hagionimoa ohikoa da kristautasunaren aurretiko gurtza-tokietarako. Gargano mendiaren agerpenetik aurrera, leku hauek sinbologia berezia duten mendietan aurkitzen ditugu[56].

Kasu batzuetan gaur egun arte ailegatu diren jarduera erritualetan, eta Pedro I.arengan Jaun Done Mikelen bitartekotzari esker gauzatutako mirakulua bezalako testigantza historikoetan oinarrituz, kristautasunaren aurretiko *aracellitani*en gurtzak ugalkortasunarekiko kultuaren ezaugarriak izan zitzakeela aditzera eman du José María Satrustegik[57]. Arruazuko antropologo eta lagun minaren teoriarekin ez nator bat. Dedukzio-metodologia hau praktika erritual taumaturgikoetako gurtza paganoa izan zuten lekuetan kokatzen diren beste santutegietara estrapolatuz gero, kristautasunaren aurretiko medikuntza herrikoia sakonki ezagutzeko bidean egongo ginateke. Ikus dezagun antzeko adibide bat: Ostiako Jaun Done Gregorioren santutegi nafarra, antza denez tenplu pagano baten gainean kokaturik dago. XIII.

54. Jimeno Aranguren, R., "Mitos y Leyendas", 460. or.

55. Cfr. Caro Baroja, J. (1995): "El culto y la leyenda. San Miguel de Excelsis", *Príncipe de Viana,* LIII, **206**, 1081. or. Jimeno Jurío, J. M. (1970): *San Miguel de Aralar,* "Navarra. Temas de Cultura Popular", **78**, Iruñea: Diputación Foral de Navarra, 8-9. orr.

56. Cfr. Caro Baroja, J., "La leyenda de Teodosio de Goñi", 1079-1080. orr.

57. Satrústegui, J. M. (1971): "Reminiscencias de culto precristiano en la devoción a San Miguel", *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, **6**, II, 290-294. orr.

mendearen bukaeratik eta XIV. mende hasieratik, belarriko gaixotasunak santuaren eraginez eginiko sendaketen mirakuluen testigantzak daude, gaur egun arte mantenduz[58]. Honetan, Aralarko Jaun Done Mikelen kasuan bezala, ezin dezakegu atzeratu errituala denboran hain urrun dagoen garai batera. Gainera, Jaun Done Mikel *in Excelsis*en gainerako Erdi Aroko mirakuluak ikertzen baditugu, hauek sexu-organoekin ez dutela inolako zerikusirik antzemango dugu[59]. Hartara, Julio Caro Barojak santutegi honi buruz erraten zuenaren aurrean gaude: gaur egungo nekazarien bizitza historiaurreko munduarekin harremanetan jarri nahi duen folklorismoaren aldarrikapenak ez ditu kontuan hartzen bitarte honetan dauden hainbat eta hainbat ziklo historiko ezberdin[60].

Begibistakoa da, Goñiko Teodosioren kondairako herensugeak ezaugarri arkaikoak dituela. Satrustegik oroitarazten digun bezala, Jaun Done Mikeli eskainita dauden basilika askok, santu babeslearen laguntzari esker zenbait pertsonaiek hildako mamuen inguruko pairatutako kondairak dituzte, Italiako Gargano mendiko eta Tancia mendiko santutegiek, esate baterako. Irudi honek badu zerikusia antzinako Elizak Jaun Done Mikeli buruz zabaldutako irudiarekin: Satanen garailea eta paganismoaren aurkako borrokaren aitzindaria[61]. Frogatuta dago, Goñiko Teodosioren kondairaren sorrera berantiarra dela, bere kronologia Erdi Aroko bukaeran kokatzen baita, eta Judas Iskariote, Jaun Done Albano, Jaun Done Gregorio, Jaun Done Julian edo Vincula-ko Jaun Done Pedroren kondairekin berdintasunak ditu, gainera[62].

Aralarko kondairako herensugearen kristautasun aurreko elementuak zalantzan jarri behar ditugu. Julio Caro Barojaren esanetan, mamu honen berezitasuna, beti Aralar mendizerrako kobazulo batean bizi izatean datza, gainerako ezaugarriak, berriz, Erdi Aroko beste herensuge edo deabruenak bezalakoak izanik[63].

Herensugea euskal mitologiako ohiko pertsonaia dugu[64]. Izan ere, bere jatorri kronologikoa zehaztea ezinezkoa zaigu. Antza denez, Aralarko herensugearen jatorria Erdi Aroko kondairan dago, beste santu askoren hagiografiekin antzekotasunak dituelarik. Herriak, bere aldetik, kondaira eraldatu du, elementu batzuk mitologizatuz, Euskal Herriko beste kontaketetan ikus dezakegun bezala. Bestetik, lehenago *Ara coeli*-ri buruz aipatutako teoriak, ez luke herensugearen gurtzarekin zerikusirik izanen; aitzitik, mendien tontorretan kokatutako santu batekiko erlazioa adieraziko luke, Jainkoaren aurrean gizakien artekaria izango litzatekeen santuarekikoa, hain zuzen ere.

58. Jimeno Aranguren, R., "San Gregorio Ostiense", 311 eta 329-330. orr.

59. Cfr. Lacarra, J.M., "Milagros de San Miguel de Excelsis", 347-361. orr.

60. Caro Baroja, J., "La leyenda de Teodosio de Goñi", 339. or.

61. Satrústegui, J.M., "Reminiscencias", 289-290. orr.

62. Caro Baroja, J., "La leyenda de Teodosio de Goñi", 293-345. orr.; Navarro Salazar, M.T., "Aspectos", 162-173. orr.

63. Caro Baroja, J., "La leyenda de Teodosio de Goñi", 337-341. orr.

64. Barandiarán, J. M., *Mitología vasca*, 90-93. orr.; Dueso, J., *Nosotros los Vascos*, 82-87. orr.

IKERKETARAKO BIDEAK.

Kristautasunaren hastapenetatik IX. mendera arteko euskal hagiografiaren ikuspegi azkar honetan, homogeneotasun-falta antzematen dugu kondairen ezaugarrietan. Arrazoi horietariko bat kronologia da. Gertaerak Aintzinaroaren bukaerako eta Goi Erdi Aroko mendeekin bat etorri arren, kondairen sorrera, zenbait kasutan, askoz ere berriagoa da. Kondaira hauek guztiek duten ezaugarri komun bakarra lehenengo santu euskaldunen apokrifotasuna bide da. Eliza, historian zehar, hagiografiaz baliatu da santuen gurtza zabaltzeko eta debozioa suspertzeko, beti ere Elizako hierarkiak eratutako santutasun-ereduari jarraituz[65]. Baina ohitura hagiografiko anitz funts historikorik ez duten gertaeretan oinarrituta daude. Eric Hobsbawn-ek eta Terence Ranger-ek zabaldutako esamolde antropologikoa erabiliz, apokrifotasuna *usadioaren asmaketa* bat dela esan dezakegu[66].

Historiako irakasleok Goi Erdi Aroari buruz hitz egin behar dugunean, Erromantizismotik gaur egun arte azaldutako iturrien lelo topikoak eta ilunak apurtzen saiatzen gara. Hala eta guztiz ere, ikerketa-mota hauetan ezinezkoa zaigu garai honetako legendazko ikuspegia aldatzea, pentsamolde erlijiosoaren munduaz ari bagara bereziki.

Kondaira hagiografikoak ez ditugu bakarrik ikuspegi historizista batetik ikertu behar, hori, praktikan, historiaren kontrakoa izango litzatekeelako. Kondaira hauek pentsamolde herrikoiaren barnean daude, honen zati bat dira eta pentsaera honek kondaira hauen egiazkotasuna ez zuen zalantzan jartzen. Sakratuaren kontaketa dimentsio metahistorikoaren barnean dago, eta dimentsio horren froga historikoa bere izaera erlijiosotik dator[67]. Gainera, ikerketa hagiografikoak dimentsio teologiko-moral batez inguratuta egon dira urte luzez, denboraz kanpokotasunean erortzeko eta ondo zehaztutako testuinguru politiko-sozial bat eraucteko zorian[68]. Horregatik, dagokion ikuspuntu historikoan kokatu behar ditugu santuen sorrera eta bilakaera hagiografikoa, haien kondairen errealitate politikoa, soziala, ekonomikoa, kulturala eta, dudarik ez, erlijiosoa erakutsiz; hau da, santuaren *memoria historikoa*, Guy Philippart-en hitzetan[69].

---

65. Russo, C. (1976): "La storiografia socio-religiosa e i suoi problemi", *Società, Chiesa e vita religiosa nell'Ancien Régime*, Napoli: Guida, CXLIX. orr.

66. Hobsbawn, E. J. eta Ranger, T. (ed.) (1983): *The Invention of Tradition*, Cambridge: Cambridge University Press.

67. Penzo, G. (1984): "La leggenda popolare religiosa o il problema del rapporto tra storia e sacro", *Memoria del sacro e tradizione orale. Atti del Terzo colloquio interdisciplinare del Centro studi antoniani, Padova, 4-6 gennaio 1984* (*Il Santo. Rivista Antoniana di storia, dottrina, arte*, XXIV, Padova: Messaggero; zenbaki monografikoa), 61-66. orr.

68. Boech Gajano, S. (1976): Sofia, "Introduzione", *Agiografia altomedioevale,* Bologna: Il Mulino, 8-9. orr.

69. Philippart, G. (1994): "Introduction", *Corpus Cristianorum. Hagiographies. Histoire internationale de la littérature hagiographique latine et vernaculaire en Occident des origines à 1550,* I, Turnhout: Brepols, 13. or.

Antzinako panegirikoak eta laudoriak alde batera utziz, eta santua eta bere kondaira dagokien testuinguruan kokatuz, etorkizuneko euskal Erdi Aroko hagiografiaren ikerketa berriak norabide honetatik bideratu beharko dira. Artikulu honen izaera laburragatik, ezin izan dut alderdi hauetan sakondu, etorkizuneko beste lan batzuetan egingo dudan bezala.

Historia eta literatura: zurubi luzean gora eta behera

Anjel Lertxundi

Gaugiro eder batez, lagunarteko afari batean geundela, emakume adiskide batek Larramendiren *El imposible vencido* gramatikaren lehen edizioa zeukala esan zidan. Liburuaren nondik norakoaz galdetu nion, irrikaz eta erne, xehetasun bibliografiko interesgarri batzuen esperantzan. Ustekabean, ordea, gerrako istorio eder bat entzun nuen, nire bibliofiliak espero zituen zehaztapen tekniko eta lehorren ordez.

Irabazian irten nintzen.

Gerraren erdi-erdian, gau hotz batez, soldadu-talde batek etxe tzar erdi-erori bat hartu du gaua bertan pasatzeko. Nire adiskidearen aitak, ohantze ahalik erosoena non osatuko dabilela, liburu batzuk ikusi ditu bazter batean. Kandela baten argi doiarekin begiratu ditu banan-banan, eta interesatzen zaizkionak apartatzen hasi da: Espainiako historia, otoitz-liburu bat, biografiaren bat… Tartean, apartatu du Larramendiren gramatika ere, baina ez haren balio bibliografikoaz ohartu delako, lubakiz lubaki nahikoa urri entzuten duen euskara hauspotzeko baino. Biharamun goizean, etxe tzarretik alde egin dutenean, gure gizonak sei bat liburu daramatza motxilan, tartean andoaindarraren gramatika eta Espainiako historia. Motxilako zer trepeta utzi ote ditu bazter, liburuei tokia egiteko?

Soldadutza egin duen orok daki mandoaginte kastrentseak zenbat maite dituen soldadu irakurzaleak, liburua eta *gizontasuna* etsaiak baitira militar gehienentzat. Horregatik egiten zait deigarriagoa lubakiz lubaki eta frontez fronte dabilen gizon hori: aise imajina dezaket atseden pixka bat noiz hartuko dabilela, motxilan daramatzan liburuei begiradatxo klandestinoa botatzeko: bizitzen ari diren tragediaren arrazoiak ulertu nahi lituzke Espainiako historian, eskolan irakatsi ez zioten euskara landu nahi luke gramatikarekin…

Gure gizona bizi da oraindik. Beste modu batez begiratzen diot orain nik, burutik kendu ezinik —ezta bihotzetik ere— gerra-garaian liburuz beteriko motxila zeraman soldaduaren irudia: gizon hura mundua ulertzen lagunduko zion elementuen bila zebilen. Ikuskera hautsia osatu eta hobetu nahian. Beste ikuskerekin ikusten zituen kontrasteak orain nabarmentzen, orain bere egiten…

Ez dago pertsonarik eta herririk imajinariorik gabe. Herri bat bere iragana osatuz hazten da, gu geu ere geure iragana osatuz hazten garen modu berean. Oroitzapen zehatzekin batera, badaude mistifikazioak eta asmazioak ere gure imajinario horretan. Betelana egiten dugu hutsuneak nabarmentzen ditugunean, hainbat oroitzapen deseroso baztertzen, beste batzuk edertzen eta osatzen…

1. KONBENTZIOA, MORALEJADUN IPUIN BATEZ ILUSTRATUA

«Bizpahiru usapalen bat-bateko hego-zalapartak dardarazi zuen airea. Zerua bezain grisak ziren hegaztiak, eta bateratsua zuten hegaldia. Basoaren ertz batetik erreka ondoko borda-itxurako eraikuntzaraino egin zuten txango. Teilatuaren ertz batean gelditu ziren, suge-irudiko harrizko utegi baten gainean doi. Aurrez aurre neuzkan, nik zer egingo».

«Zalditik jaitsi nintzen. Ureztatua zegoen belar azpia. Zaldiari bridatik eutsi, eta oin-puntetan egin nuen eraikuntzarainoko bidea. Ataria babesten zuen teilatu laburreko hagetako batean lotu nuen animalia. Ataurreko harrizko zoldak hankekin joz astindu nituen oinetako lokatzak».

«Atean deitzera nindoan, baina zabalik zegoela ohartu nintzen. Astiro-astiro bultzatu nion, oin-puntaz beheko partean presio eginik. Astuna zen atea, baina aise zabaldu nuen, ondo olioztatuak baitzituen gontzak. Begiak ilunpeetara ohitu arteko astia hartu nuen. Sortaldeko hormako leiho biribil txiki bat eta ate zabaldu berria nituen argi-iturri bakarrak. Leiho biribileko argi motelduak eraikuntza-barrena zeharkatzen zuen aldenik alde, eta presbiterio-moduko baten isla itzaltsuak erakusten zituen ekialdeko horman. Ateko argiak, berriz, hezetasunez inarturiko lurreko harlauza zabal hezeak nabarmentzen zituen».

«Egun hotzaren bisutsa sentitu nuen erraietan. Besoak estutu nituen bularraren kontra. Ezker-eskuin begiratu nuen berriro. Ez zen deus entzuten, ez zen inor ageri. Ekialdeko hormaraino joan nintzen. Erretaula txiki baten irudi itzaltsuak nabarmendu nituen lehendabizi. Soldadu bat, sitsak jandako aurpegi irribarretsuaz, kapa bat bere ezpataz erditik mozten. Haren oinetan, eskeko erkindu bat belauniko. Egurraren etendura fin sakon batek diagonalean zeharkatzen zizkion eskekoari soldaduaren kaparantz luzatutako besoa, sorbalda, bularraldea. Zain egon nintzen pixka batez. Hotsik ez. Bakar-bakarrik nengoela ikusirik, labana txiki bat atera nuen patrikatik, eta haren punta sartu nuen egurraren arrakalan. Labanaren puntak eskekoaren besotik azkeneraino segitu zuen arrakalako erretena, harik eta zerbaitekin topo egin zuen arte. Gogorra zen eta biribila. Labanaren puntari eragin nion eskumuturraren behetik gorako mugimendu batez, eta gutun moduko paper--mutur bat atera nuen. Galtzarbeko joskera ezkutu batean gorde nuen papera. Labanaren ahoa bildu nuen gero. Hots metalikoa atera zuen kirtenaren erretenean sartzean. Erdi-ilunbeak irentsi zuen hotsa».

Horraino ipuin baten edo eleberri baten hasiera izan daitekeen testu bat.

Giroketa zein garaitakoa den galdetuko banizue, hamarretik bederatzik Erdi Aroari buruz ari naizela erantzungo zenidakete.

Zerk gauzatzen du, ordea, gure irudikazio hori?

Zaldia aipatu ordez, borda-itxurako eraikuntzara oinez noala esango banu? Edo kalesa batean? Edo bizikletaz? Edo autoz?

Errotik aldatuko litzateke giroketa, eguzki beteak bat-batean lanbroa urratzen duenean bezala.

Zaldi bat aipatu orduko, irudimenak iraganera garamatza. Konbentzioak dira, irakurriaren irakurriz edo entzunaren entzunez edo ikusiaren ikusiz gure irudimenean txertatu diren konbentzioak.

Gure ikuskera lotuta dago (lotura kulturalaz ari naiz) beste ikuskerekin eta baita hainbat artegintzak eskaini dizkiguten ereduekin ere (literaturak eta zineak eskainitako ereduekin, batez ere): Walter Scott-ek bere ondorengo nobela historiko guztietan izan zuen eragina, eta, ordutik, Erdi Aroko ezein istoriotan, literarioetan zein zinematografikoetan, ez da torneorik falta.

2. SEHASKA ETA LIBURUTEGIA

Etxean eta gure inguruan oso liburu gutxi zegoen, eta, agian, eskasia horregatik gogoratzen ditut txokolate-tabletetan bildurik zetozen ipuin liliputiense haiek: *Cenicienta, Caperucita Roja, Ali Babá, Pulgarcito, La casita de chocolate*.

Liburuxketako hizkuntzak —gaztelaniak—, letra idatziaren lustreaz gainera, *plus* bat oparitzen zidan: ai, txokolatezko etxearen ipuina txokolate-usainarekin irakurtzeko pagotxa hura!

Entzuten nituen ipuinak, berriz, euskaraz kontatzen zizkidaten, eta gogoan dut bat, amonak kontatzen ziguna, zorri-larruz egindako danbor bati buruzkoa. Amonaren ipuinak ez zuen, ordea, liburuaren lustrerik.

Hamabost bat urte pasatu behar izan zuten, harik eta amonari entzuten nion ipuin huraxe Azkueren *Euskalerriaren Yakintza*-n aurkitu nuen arte. *Errege-zorria* zuen izenburua eta ez zegoen alde handirik Azkuek Baztango Elbeteako gizon baten ahotik jasotako ipuinaren eta nik txikitan entzundakoaren artean. Beste batean, berriz, paper zahar batzuei begira nenbilela, Lapurdiko egitura erritmiko bat aurkitu nuen:

«Halako gisaz, halako gisaz
ez dakit zerk eman zidan gogora
eskua sartzeko golkora,
handik atera nuen zorri handi bat,
hartaz egin nuen ehun kantaretako zahagi bat.
Gezurra badiat ez badiat, egia diat».

Bi gertakizun horiei esker ikasi nuen nire amonaren ipuinek ere bazutela liburuaren lustrerik.

Handik urte batzuetara, berriz, *resonaba su viejo tambor de piel de pulga* esaldia irakurri nuen Daudet-en *Tartarín de Tarascon* liburuaren gaztelaniazko bertsio batean. Garai bertsuan esan zidatenez, Alemaniako tradizioan ba omen da *Zorri-larrua ezagutu zuen deabrua* izeneko ipuin bat. Oraintsu hamar urte, Giovambattista Basile-ren *Lo cunto de li cunti* zabaldu nuen: nire amonak kontatzen zidan ipuin bera ezagutu nuen XVII. mendeko ipuin-bilduma hartan, *La pulce* (Zorria) izeneko kontakizuna irakurtzean.

Nire amonaren ipuinen eta txokolate tabletetakoen oihartzunak datozkit Baudelaire-ren liburutegitik:

«Nire sehaskak atzean zuen liburutegia, Babel itzaltsua, non eleberria, jakintza, fabulak, guzti-guztia, hautserre latindarra eta hauts greziarra, nahasten baitziren…».

Gure iragana, gure giza taldeak eta espazioak, geure begiez ikustea: literaturak zeresan handia du horretan. Navarro Villoslada-k abarkekin eta ardi-larruekin ikusi zituen, oraintsu ehun urte, Erdi Aroko euskaldunak, eta, ordutik, abarkekin eta ardi-larruekin ikusten ditugu geuk ere euskaldunak; halatsu ikusten gaituzte besteek ere. Baina jantzien kontu hori baino haragoko gorabehera bat ere ageri da horren guztiaren atzean: Navarro Villoslada edo Campion Nafarroako erresumaz ari zaizkigu. Frankoen agintetik askatu eta Nafarroak bere burujabetza galdu bitarteko garai luzeaz.

3. IKUSKERA ETA KITSCH*-A, ITZALA ETA EUSKALDUN IKUSTEZINAK*

Geure ikuskera eraiki nahi, eta egin izan ditugun gehiegikeriak —mistifikazioak eta mito asmatuak, gezur izugarriak ere barne— aurpegiratzen zaizkigu. Baina horietako asko eta asko nondik sortuak izan diren begiratzen badugu, laster ohartuko gara modu tontoenean ideologizatutako saihesbide batetik etorri zaizkigula.

Esan beharra dago, beste inon ere esana dudan bezala, gaztelaniaz egindako literatura fueristak sukarra kutsatu ziola euskarazkoari. Tradizio batek eragin nabarmena izan zuen bestean, eta euskararen munduan zizelkatu ez zen erromantiko

atzerakoien klixe horrek kalte handia egiten dio, oraindik ere, euskarari: euskararen oilalurreko gaurko bizipen egunerokoak ezin du, anartean ere, sukar hori aspaldi gainditu zuela sinetsarazi, bizirik dagoen mundu batek bizi gaituela jakinarazi. Euskararen zailtasun deabruaren topikoa langa bat da tradizioen arteko komunikaziorako, baina ni nago (eta oker egon ninteke) bi tradizioen arteko komunikazioa eragin behar luketenek (agintariek, hedabideek, eragile sozialek…) ez dutela komunikazio horretarako premia ikusten, eta, halaber, ez direla konturatzen komunikazio hori joan-etorrikoa (berdintasunezkoa) ez den bitartean euskal gatazka deitu zaion horrek iraun egingo duela: arazo izaten iraun ere, alegia.

Gaztelaniaz egindako literatura nazionalista tradizionala deitoragarria egiten zait, euskarak aspaldi arbuiatu eta baztertu zuen euskal munduari buruzko idealizazio atzerakoi *kitsch* idiota batek bizi baitu literatura hori. Ni nago euskaltzale nazionalisten eta ez-nazionalisten fedea eta pazientzia frogatzeko daukagula euskara *souvenir* soiltzat hartzen duen nazionalista-klase hori. Berek jakingo balute nolako kaltea egiten dioten defendatu uste duten euskal munduari!

Hala ere, eta osasunak agintzen duen legean, bada hortik landa euskal hiritar askoren literatura interesgarria. Eta, sarritan, besteen sentsazioak eta bizikizunak ezagutuz, gure herriaren aniztasuna hobeto ezagutzeko ere balio izaten dit. Miguel Sánchez-Ostiz-en *No existe tal lugar* nobelako narratzaileak, gaztetako *mugida* politikoetan onartua izateko ahaleginak eta nekeak kontatu eta gero, hainbaten desplazatu-sentimendu halako bat islatzen duelakoan nago:

«En el fondo de todo aquello estaba una enfermiza necesidad de ser admitido, acogido también, que me ha hecho transigir con idiotas y gente abusiva».

Baina urrutira eraman nau gaztelaniaz egiten duten nazionalista mitotontoen kontu horrek eta itzul nadin hartutako bidera.

Inoiz idatzi da, Aldabert von Chamisso-k, gerraz gerra zebilelarik, euskal soldadu bati entzun ziola itzalik gabeko gizonaren kontua, Axularri buruzko istorioa izan zuela inspirazio. Ezin jakin. Baina egia da Chamisso-k izan zuela euskal poeta baten ezagupidea, *Des Basquen Etcheon's Klage* izeneko poema luzea eskaini baitzion Etxahunen bizitza gorabeheratsuari. Idazleak berak aitortzen duenez, Buletin Judizial baten bidez ezagutu omen zuen Etxahunen kasua, baina, Chamisso-ren poema irakurrita, ni nago itzalik gabeko Schlemihl gogoangarriaren asmatzaileak ezagutzen zuela, ez dakit Etxahun, baina bai Etxahunen poema autobiografikoren bat, antza handia baitute Chamisso-renak eta Etxahunen *Mundian malerüsik* poemak. Baina bada besterik: zein irizpide baliatu zuen Chamisso-k *Etxahun* forma xuberotarra *Etcheon* bihurturik, ia euskaldun gehienok erabiltzen ditugun *etxe* eta *on* formak baliatzeko?

Nolanahi ere den, eta zehaztapenak zehaztapen: itzala tradizioa da Chamisso-rentzat; herri baten kultura eta sena. Horiek galtzea, aberririk gabe gelditzea da

Chamisso-rentzat, eta horretaz bazekien zerbait frantses jaio, aleman bizi eta inondar sentitzen zen Chamisso-k: hain zuzen ere, kritikariek harreman zuzena ikusi izan dute Chamisso-ren sorterri-ezaren eta Schlemihl-en itzal galduaren artean. Itzala galdurik, bakar-bakarrik eta maitasunerako aukerarik gabe geratzen da Schlemihl. Itzalik gabe, ezin du gizartearen ukapena besterik jaso.

Itzala norberaren arimaren metafora baldin bada, herri batek ere, itzala galtzen duenean, arima galtzen du. Gauzak horrela, normala da jaso duguna gorde nahi izatea, eta ez da inolako eskandalurik sortzen frantses batek edo espainiar batek esaten badu, tentuz ibili beharra dagoela ingelesaren itzal luzearen aurrean. Baina logika hori desagertu egiten da, untxia prestigitadore baten kapeluan bezala, eremu urriko hizkuntza eta literaturei aplikatzean. Paradoxak!

4. TRADIZIOA

Hiztegiaren arabera, hona zer den tradizioa:

«Ahoz nahiz idatziz, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den eta denboraren poderioan finkatzen den kultur ondarea eta portaera-ereduen multzoa (kondaira, ohitura, balore-eskala, erlijio-sinesmenak, literatura, hizkuntza, etab.)».

Uste baino askoz ere komunikatuagoak egon dira beti herri desberdinen arteko tradizioak: herrien arteko komunikazioak arindu ahala, tradizioen arteko harremanak ere ugaritu egiten dira. Areago gaur: gure munduan gero eta derrigorrezkoagoa eta saihestezinagoa dugu tradizio batetik bestera txango egitea. Baina nola egiten da txango, nola gordetzen da leialtasuna eta oreka, norberarenari bizkarra erakutsi gabe eta bestearenaren alde onak onartu gabe?

«—Transilvanian gaude —esan zion Drakula-k Jonathan Harker gazteari—, eta Transilvania ez da Ingalaterra. Gure ohitura eta usantzak ez dira hangoak, eta hemengo gauza asko ezohiko eta harrigarriak irudituko zaizkizu».

Desberdintasunaren sentsazio horixe sentitu zuen Jonathan Harker-ek ere lurralde haietara iritsi orduko: «Mendebaldea utzi eta Ekialdeko munduan sartzen nintzela iruditu zitzaidan».

Claudio Magris-ek, ordea, aspaldi itzalitzat jotzen du Harker-ek sentitutako arrago hartako goritasuna bere *Danubio* eleberri-saio harrigarrian:

«Mundu hura desagertu da, eta lurralde haietako ahotsik garrantzitsuenak, Paul Celan poetarenak, desagerketa, heriotza, mututze horren erabateko egia espresatu du».

Horixe ekarri digu gogora, besteak beste, Balkanetako gatazkak: mendebaldearen eta ekialdearen arteko mugatzat jotzen den lurralde hura aniztasunaren

arragoa da, kontrasteena, kultura desberdinen topagunea… Eta oro berdindu nahiak ez dakar gatazka eta hondamendia besterik.

Baina Bram Stoker-en nobelako gauza bakar bat hautatu beharko banu, Drakula-k Jonathan Harker-i bi aldiz egiten dion gonbiteko hitzekin gelditu ko nintzateke ni:

«—Ongietorria izan zaitez nire jauretxera! Sar zaitez zeure borondatez eta inolako beldurrik gabe, eta uztazu atarian zurekin dakarzun zorion-zatiñoren bat».

Drakula-k Jonathan Harker-i egiten dion gonbite horrek badu halako erritu iniziatiko baten antza. Drakula-ren etxera sartzeko erabakia *borondatezkoa* da. Borondatezko ekintza eskatzen zaigu mendebaldarroi ere, ezagutzen ez dugun lurralde bat ezagutzen saia gaitezen… horrek atarian geure zorion-zatiño bat uztera behartuko bagaitu ere.

5. IMAJINARIOA ERAIKITZEN

Iraganeko gertaeren kontakizun erromantikoak halako argi-printza miresgarri batez ederresten ditu garai zaharretako kontuak (Erdi Arokoak, batez ere). Idazle erromantikoaren NI sukartuak interesatzen zaion guztia irensten du, eta bere interesaren arabera moldatzen. Erromantikoentzat NIa da artearen giltza, ez imitazio objektibozalea: NIaren benekotasunak ematen dio zilegitasuna artegintzari. Idazlearen barne-mugimenduei irakurlearen barne-mugimendua erantsi behar zaio, eta, halatan, kontakizuna NIaren galbahe pertsonal horretan iragazten da: idazle erromantikoek beren irakurleak ere halako, ez da harritzekoa hemeretzigarren mendearen hasierako irakurleak negar-malkotan egon izana Goethe-ren *Werther*-ekin, edo gure aitona-amonek begiak malkotan entzun izana *Brabanteko Genobeba*-ren historian oinarritutako bertso eta kontakizunak.

Hamahiru bat urte nituen nik Erdi Aroa euskaldun baten begiez ikusi nuenerako: Yon Etxaide-ren *Alostorrea*ri zor diot hori. Ordurako, ordea, ezaguna nuen Cid Campeador-en istorioa (1961. urtekoa da Anthony Mann-en El Cid filmea), buruz nekizkien hainbat espainiar erromantze, Erdi Aroaren halako irudi aventurero bat ere jasoa nuen El Capitán Trueno-ren ipuinetatik… Beranduxeago, nire liburutegian bada Ramón Menéndez Pidal-en liburu bat, nire garai hartako afizioak agertzen dituena, *Poesía árabe y poesía europea* izenekoa, eta nire izenarekin batera (Ler*ch*undi) data bat ageri da bertan: 1963. Hamabost urte nituen nik orduan.

«NI naiz MUNDUAREN neurria», zioen Arestik.

Nigandik hasita, edo, nahiago bada, neure etxetik hasita —neure iruditeria domestikotik, alegia—, formulatzen, irudikatzen eta eraikitzen dut mundua. Eta ni hori denbora eta espazio jakin batean bizi da, beste ni batzuen ondoan; eta beste ni

horiek ere denbora eta espazio jakin baten jabe dira. Bizitza koespaziala da gurea, eta elkar-bizitzaren (koexistentziaren) premia agertzen du.

Idazle batek, elementu domestiko (eta ustez xalo) horiek guztiak baliatzen dituenean, oharkabean badarik ere, elementu horiek duten karga sinbolikoa aktibatzen du, eta denbora eta espazio historikoak baino harago dauden denbora eta espazioa sortzen ditu.

Gure balada eder zaharrenetako batek —Alostorrea izenekoak— arkitekturazko bi aipamen zuzen egiten ditu. Lehendabiziko aipamena baladaren hasieran dator:

> «Etxe eder leiho bage honetan
> ez naiz sartu zazpi urte hauetan
> eta zortzigarrenian
> neretzat zorigaitzian
> Aita Beltranen hiltzian».

Bigarren aipamena errepikan ageri da, eta nire lan honi izenburua ematen diona da:

> «Alos Torrea bai, Alos Torrea,
> Alos Torreko zurubi luzea,
> Alos Torrean nengoanean
> goruetan bela beltzak
> kua-kua-kua leihoetan…».

Tradizioaren arabera, bele beltza zorigaitzaren sinboloa da, eta balada honetan iragartzen zaigun zorigaitza Alosko etxearen desohorea dugu: Beltran Perez, Alosko jauna, zazpi urtez mairuen kontra gudan ibili zebilelarik, Alos etxean sasiko seme bat jaio zen. Etxeratu zenean, gertatutakoaz galdetu zuen. Emazteak, bere infideltasuna ezkutatzeko, Beltranen lehendabiziko ezkontzako alaba Usuari leporatu zion sasiko semea. Beltranek, ordea, asko estimatzen zuen Usua, eta ez zion emazteari sinetsi. Halatan, bada, hilarena egitea erabaki zuen, erruduna nor zen jakiteko. Hil-beilan, emazteak ez zuen sufrimendu handirik erakutsi. Alabak, aldiz, guk gaur ezagutzen dugun hil-eresi hunkigarria inprobisatu zuen, esanez, Beltran hilik zegoelarik, ezinezkoa izango zela etxeko desohorea garbitzea. Bide batez, eman zuen, modu kriptikoan eman ere, sasiko haurraren aitaren —Bela Beltz goitizeneko auzo baten— berri:

«…bela beltzak kua-kua-kua leihoetan…».

Beltranek, hilkutxatik irten eta gero, hantxe bertan hil zituen emaztea eta emaztearen amorantea.

Honaino legendak dioena. Baina goraxeago aipaturiko bi apunte arkitektoniko horietara itzuli nahi nuke berriro. Errepara diezaiogun lehendabizikoari:

> «Etxe eder leiho bage honetan
> ez naiz sartu zazpi urte hauetan…».

Usuaren hitzak dira, eta etxeari buruzko lehendabiziko apunte labur estilizatu horiekin tragediaren nondik-norako guztia iradokitzen digu: ederra da etxea, jatorri ohoretsua du; leihorik gabea da, ordea: esperantzarik gabea, itsua, tristea.

Alos etxea ez da eraikuntza fisiko soila: bada familia, leinua, dinastia ere. Eta leinu hori orbaindua izan da. Zikindua. Horregatik dago garai bateko etxe ederra orain leihorik gabe eta itsu.

Bigarren apunte arkitektonikoan, Usuak zurubi batez hitz egiten digu. Zurubi batek, kontu jakina da, zerua eta lurra batzen ditu sinboloen munduan. Baina zein zeru eta zein lur batzen ditu baladako zurubiak, ez baldin bada Usuaren zintzotasuna eta amaordearen gaiztakeria; Alostarren bertutea eta Bela Beltzaren ankerkeria? Bestalde, zurubia dorre batean egon ohi da, eta dorrea kartzela da, ez du irteerarik ez goitik ez behetik. Bertako leiho txikiak dira kanpoarekin harremanak izateko bide bakarrak, baina Usuak Bela Beltza ikusi du, *kua-kua-kua* eginez —etxearen jabe eginda, alegia— Alosko leihoetan.

Baladan, gauza askoren artean, elementu arkitektoniko esanguratsuak ageri zaizkigu, artegintzan oro har eta literaturan bereziki berebiziko indar sinbolikoa duten elementuak: leihoa eta zurubiaz gainera, atea, ataria, horma, teilatua, ganbara, sotoa, sua eta sukaldea, zutabea eta habea…

Ez dira elementu fisiko xalo eta soilak. Ez dira esanahirik gabeak.

6. ANALOGIAK

Erdi Aroko euskal istorio hiritar bat kontatu nahiko banu, zein hiri hautatuko nuke horretarako? Hauta nezake Tutera… Baina Espainiako historia ofizialetik begiratuko al dut orduko Tutera? Orduko euskaldun baten begirada birsortzen —asmatzen— ahaleginduko al naiz? Nola begiratuko ditut mairuen inbasioa, juduen jarduera, batzuek zein besteek euskaldunekin dituzten harremanak, orain gatazkatsuak, orain baketsuak? Egokiera polita nuke kultura desberdinen arragoaz idazteko…

Erdi Aroko euskal istorio bat kontatu nahiko banu, hauta nezake, kokagune moduan, Donibane Garazi. Edo Uxue…

Baina bil ditzagun begiak eta ahalegin gaitezen garai bateko Baiona irudikatzen: bertako arkitekturak gordetzen du oraindik ere halako kutsu bat, niri oso iradokitzaile egiten zaidana. Egia aitortu behar badut, iraganera jo, eta hiri bat irudikatu behar dudan orotan, Baiona da burura lehendabizi etortzen zaidana: *Azkenaz beste* nobelan, XIX. mendeko Baiona irudikatu nuen; *Lilith* izeneko ipuin luzean, Erdi Arokoa izan daitekeen Baiona atenporala ageri da; *Otto Pette* eleberriko errege-hiria ez da Baiona, baina baditu Baionaren ezaugarri batzuk…

Halatsu joka dezakegu —jokatzen dugu— pertsonaia historiko zein asmatuekin, paisaiekin, giza taldeekin, ohiturekin… Historia, antzinakoa zein gaurkoa, almazen handi bat bezalakoa da idazlearentzat. Asmamenak komeni zaion materiala hartzen du bertatik, eta idazleak nahi duenerako erabiltzen ditu materialok. Batzuetan, dekoratu gisa erabil ditzake, nik Baionarekin sarri egin dudan bezala. Besteetan, historiako pasarte jakin bat hautatzen du idazleak bere testuaren motore. Hainbatetan, modu analogikoan erabiltzen du historia…

Demagun Sienkievich, Poloniako literatura nazionalaren aita: *Quo vadis?* eleberri famatuak Neron-en garaiko Erromaren dekadentzia eta kristautasuna kontrajartzen ditu. Hautamena ez da xaloa: Sienkievic-ek Polonia askatu nahi luke inperio austro-hungiar dekadentearen atzaparretatik, eta, horretarako, beharrezkoa ikusten du Poloniarentzat balore kristauen defentsa. Halatsu ari da Erdi Aroan kokaturiko *Zaldun teutoiak* nobelan ere: Erdi Aroko Polonian gertaturiko germanizazioaz ari delarik, Poloniak daukan bere izaera galtzeko arriskuaz ari da idazlea.

Otto Pette eleberria idatzi nuenean —eta hartaz hitz egiten badizuet, hura idatzi izanagatik hitzaldi hau ematera deitu didazuelako da— nik ez nuen nobela historikoa idatzi nahi; nirea ez da nobela historikoa. Aginteen arteko harremanak, elizaren gehiegikeria, agintearen eta hiritarraren arteko dialektika… Horien inguruko kontakizun bat idatzi nahi nuen, eta Erdi Aroa-edo egokitzat jo nuen horretarako, nik kontatu nahi nuena girotzeko: aginteen arteko harremanetan Erdi Aroko elizak zuen papera eta gaur duena erkatzea interesatzen zitzaidan: Erdi Aroko gizartearen irudi estatikoan elizak zuen zerikusia aztertu nahi nuen, besteak beste, gaurkoan zer nolako eragina duen ere ikusteko.

Halatan, garai hartako hainbat gorabehera baliatu nahi izan nituen, eta haien barne-muinetako auziak (atenporalak direnak) geure garaira —neurera— ekarri, Brecht-ek argudiatu zuen urrutiramendu ezagunaren bidetik: plazerra bekatua zen eta plazerra bekatutzat jotzen zuen gizarte bihotz-estu batean bizi izan gara oraintsu arte; orduko artearen inguruko lehia ere interesgarria egiten zitzaidan, oraingo hainbat gorabehera ulertzeko; giza taldeen satanizazio-prozesuak aztertu nahi nituen; agintarien harrokeria ulertzen saiatu…

Neure nobelan ari naiz, bada, gaurko euskal gizarteaz ere, eta ez naiz sekretu bat argitzen ari. *Otto Pette* nobela analogikoa da, ez historikoa. Hala ere, nobela

historikoaren hainbat konbentzio errespetatu behar izan ditut. Adibidez, artearen gorabeheraz eztabaidatzen dutenean, nik Erdi Aroaren amaieran eta Errenazimentuaren hasieran arteak, erlijiosoak batik bat, bizi zuen debatea jasotzen dut testuan. Gauza bertsua egiten dut aginte zibilaren eta erlijiosoaren artean zeuden gatazkei buruz. Edo izurriteaz zituzten usteen inguruan. Gorabehera ideologikoak nituen, batez ere, dokumentaziogai. Giroketa edo hizkera, berriz, nire asmamenari zor zaizkio.

Adibide bat jarri behar eta, demagun Otto Pette-ren pattarra egiteko modua: Baronetak elurtzulo batean sartzen omen zituen pattar-barrikak, edariaren irakite--prozesua astirotzeko. Nik ez nekien inoiz horrelakorik egin den, baina oso ondo zetorkidan gorabehera hori halako giroketa berezi bat lortzeko. Txakolinzale bati galdetu nion nire kontakizunaren zilegitasunaz. Txakolinzaleak ez daki horrelakorik sekula egin den, baina logika omen du nik asmatutakoak. Aski nuen. Eleberria argitaratu eta gero jakin dut nik irudikatu moduan jokatzen zutela Erdi Aroan ere. Baina jokatu ez balute ere: historialariak ez bezala, idazleak *si non é vero, e ben trovato* legea baliatzen du bere lanerako.

7. SINESGARRITASUNAZ

Horretarako, ordea, idazlearen zeregin nagusia sinesgarritasuna lortzea da, alegia, halako garaiko halako pertsonaiak darabilen halako hizkera, halako uste eta kezkak, halako gertakizunak niri, irakurle naizen honi, sinesgarritasunaren zelofanaz eskaintzea.

Garapen literario handiko hizkuntzetako idazleek ez bezalako arazo bat du euskal idazle batek iragana lantzerakoan. Honelatsu formula daiteke auziaren muina:

Nola lor dezaket antzina bateko istorio bat kontatzea, irakurleak kontakizuneko hizkera arbuiatu gabe? Izan ere, hizkeraren sinesgarritasunak bi mutur baztergarri baititu: garaiko hizkera imitatu nahi, eta arkaismoaren muga-mugan legokeen hizkera zaharkituarena, batetik; gaurko hizkerarekin istorio zaharrak kontatzearen ahalegin anakronikoarena, bestetik. Orduko hizkerak ez dit balio, oraingo irakurleak ez baitu ulertzen; irakurlea karkarka hasiko litzaidake, oraingo hizkera orduko pertsonaien ahoetan jarriko banu.

Idazleak sinesgarritasuna (irakurlearekin sinatzen duen itun berezi aparteko hori) du arazoa konpontzeko bide bakarra: Yon Etxaidek, demagun, bazekien VI-VII. mendeko baxenabartarrek ez zutela bere *Eneko Agerroa* eleberriko pertsonaiek bezala hitz egiten; baina Yon Etxaidek sortutako hizkerak halako eremu asmatu (itunezko) batean bildu ditu idazlea, irakurlea eta eleberri horretako pertsonaia guztiak, sekula betiko bildu ere.

Otto Pette idazten hasi nintzenean, honako galdera hau egiten nion neure buruari:

—Nork sinetsiko ditik Erdi Aro-edo omen den garai horretako pertsona eta gertakizun horiek hire hizkerarekin?

Arazoa areagotu egin zitzaidan liburua lehendabiziko pertsonan idaztea erabaki nuenean: gauza jakina da, kontakizunaren denbora nagusia iragana dela —kontakizunaren eta kontatutakoaren arteko distantzia kronologikoa markatzen da horrela—; lehendabiziko pertsonan idatziz gero, narratzailearen eta narratuaren arteko distantzia desagertu egiten da.

Narratzaile orojakile baten konbentziotik, sor nezakeen, agian, halako ahots atenporal bat, nobela historiko gehienetan gertatzen den antzera, hirugarren pertsona neutroak ematen duen erraztasunarekin: aski nuen elkarrizketak saihestea; edo elkarrizketen sinesgarritasuna lantzea.

Eleberria lehendabiziko pertsonan jartzeak ez zidan, ordea, horrelakorik errazten. Eta arazo asko eta asko —nagusiak— hizkera literarioarekin lotuta zeuden.

Zehatz ditzadan *Otto Pette* eleberriko hizkeraren hainbat iturri, sinesgarritasunaren auzia hobeto ulertuko delakoan:

1. Lehendabiko iturria euskara idatziko tradizioarena izan nuen, jakina. Bi ubide baliatu nituen batez ere:
   - Nire garaikoa (batez ere, *Alos-Torrea*-koa, Yon Etxaiderena)
   - Klasikoena: autore bat aipatzekotan, ez dut zalantzarik Laphitzekin geratzen naizela esaterakoan, euskal liburu klasikoen artean *Bi santu hescualdunen bizia* iruditzen baitzait narratiboena.
2. Bigarren iturria: ahozko literatura (kantutegi zaharrekoa, batez ere).
3. Hirugarren iturria: hiztegia. Baina hitz zaharren bila baino, narrazioari kolorea emango zioten hitzen bila ibili nintzen: *baronet, musde, aba, bilaun, fraile doktrino…*

   Horrela sortu zen izenburua bera ere: *Otto Pette.* Bide beretik baliatu nuen hainbat harridura: *et, helás, ut…*

   Hitz zaharrak erabiltzerakoan, ordea, hitzok beti kontestualizatuta ematen saiatu nintzen. *Maripolisa* zer den ez dakienak, *maripolisa sartu zuen burutik behera* irakurtzen badu, badaki janzki batez ari naizela…

   Nobela historikoak betidanik izan duen gaitz kronikoa ekidin nahi nuen: historiaren ahotsa sinetsarazteko, ez nuen eszenategien eta objektuen gehiegizko deskribapenean eta arkaismo linguistikoen erabileran erori nahi.

4. Laugarren iturria: herri-tradizioak uztartzen dituen Europako herri-tradizio komuna.
5. Hainbat euskal baliabide imitatzearen iturria: irakurleak nirean irakurriko zituen lehendabizikoz *zornezorro, urdeziringa*… eta horrelako hitzak. Gaztelaniazko itzulpenean ere egin genuen horrelakorik: euskaraz *Erret Hiria* zena izendatzeko, *Hiriburgo* asmatu genuen. Inolako gurdi-nekerik gabe funtzionatzen duten adibideak dira, ez besterik.

Idazketak, idazleon zorionerako, asko du intuiziotik, eta hizkuntzaren senetik askoz ere gehiago dago *Otto Petteko* hizkera literarioan gramatikakeriatik eta planifikaziotik baino.

Alderdi horretatik begiraturik, hizkuntza txiki bateko idazle batek sorkuntzarako aukera zabalagoa du tradizio handi baina eginegi bateko idazle batek baino. Nekea ere bai, egia da, baina sorkuntzaren pozak nekearen zamak arintzen ditu askotan.

Horregatik, maiz esana dut: euskaldunok, zer? Tradizio laburra dugula eta kexuka? Utikan, utikan, beste hizkuntzetako idazle askok eta askok ez duten pagotxa daukagu-eta: eremu zabal bat ikusten dut neure aurrean, giza oinak zapaldu gabea agian, eta…

8. HISTORIA ETA LITERATURA

Historialariak egia du lanbide; idazleak, egiantza.

Kontatzen direnak idazlearen buruan bakarrik gertatu badira ere, kontatutakoak gerta zitezkeen historiaren eremuetan. Goncourt anaietako batek oso ondo laburbildu zuen nobelaren eta historiaren arteko desberdintasuna:

«Historia: gertatu den nobela bat. Nobela: gerta zitekeen historia bat».

Sarritan ahaztu egiten zaigu literatura asmazioa dela; asmazioa eta asmazioaren emaitza. Literatura ez da, inondik ere, historiaren sukurtsala, historia ere asmazioa ez den neurri berean. Historiak gertatutakoaren egia aztertzea eta adieraztea du helburu; eta, neurriren batean, azterketa horretatik bizimoduaren eta giza harremanen legeen nondik norakoa deskribatzea.

Literaturaren eremua ez da, ordea, gertakizun historikoa, erreka horretako urak behin eta berriro bere errotara erakartzen baditu ere. Gertatu gabea eta gertatu ote den ez dakiguna edo gerta litekeena ere adierazten dizkigu literaturak, literaturaren helburua ez baita egia mugatu eta aztertzea, egia baino haragoko eremuetan bidaiatzea baizik.

Beste modu batera ere ager daiteke auzi hau: Kafka-k soziologorik zorrotzenak baino lehenago aurreratu zigun burokraziaren makineriak ezdeus bihurtzen gaituela. Roa Bastos-en *Yo, el Supremo* nobelak historiagileek han-hemenka bildutako tirania ugarien deskribapen eta azterketa guztien ezaugarri nagusiak, tirania guztietan errepikatzen direnak eta errepikatuko direnak, bildu zituen. Filosofoek ez bezala (beste bide batetik, alegia) narratu zuen Cervantes-ek idealismoaren eta erralismoaren arteko lehia.

Kontua hauxe da: literatur tradizio oro apokrifoa dela, eta hizkuntza guztietan eraiki den jauregi literarioa ere giza errealitatearen interpretazio desberdinen biltokia dela.

«Literatura asmatua da —dio Patxi Zabaletak *Nafarroako azken mariskala* liburuaren hitzaurrean—; asmaketa eta asmaketaren ondorioa. Historia, berriz, gertatutakoaren kondaira eta azterketa da».

«Beraz, historiak egia adieraztea eta aztertzea dauka helburu eta, neurriren batean, azterketa horretatik bizimoduaren eta giza harremanen legeak erabakitzea».

«Literaturak, ordea, gertatua bezala, gertatu gabea eta gertatu ote den ez dakiguna edo gerta litekeena adierazten digu; eta bere helburua ez da egia mugatu eta aztertzea, baizik eta ederrak eta politak giza senean izan lezakeen hunkidura eta ondorioak nolabait sorraraztea».

«Arazoa sortzen da, ordea, egiazki historian zehar izan diren pertsona eta gertakizunei erabilpen literarioa ematen diegunean».

Arazoak, jakina, literarioak eta historiografikoak dira. Egiantza edo sinesgarritasuna dago jokoan. Baina badira arazo ideologikoak eta etikoak ere: idazleak iraganaz, orainaz, testuaz eta idazle-zereginaz duen pentsamenduarekin lotuta daudenak: irudimenaz, behaketaz eta azterketa historikoaz gainera, idazleak bere desioen proiekzioa bideratzen du, aldez edo moldez.

9. DOKUMENTAZIOA ETA INTERPRETAZIOA

Jende asko da literatura diziplina akademiko eta *serioen* morrontzan ikusten duena: halakoentzat, agiri historikoaren zeregina betetzen duen neurrian hartzen du literaturak garrantzia.

Ezin ukatuko dugu literatura iturri dokumental garrantzitsua dela ohituren, jantzien eta jokabide sozialen garapena aztertzeko. Guk geuk ere, irakurle garen aldetik, zenbat zor diegu Dostoievski, Chejov, Tolstoi edo Turgueniev-i, Errusiaz daukagun irudiari dagokionez? Edo Dickens-i, aurreindustrializazio garaiko giro soziala (umeen explotazioa eta abar) irudikatzean? Chaucher-en *Canterbury-ko ipuinak* liburuaren hasieran, garaiko tipo sozialen azterketa zehatza ematen zaigu.

Geure balada zaharretan informazio eskergaitza daukagu geure Erdi Aroko jauntxoen gatazkei buruz.

Baina idazlearen talaia ez da historialariarena. Idazleak, bere subjektibitatean eta bere aukera ideologikoan jartzen du talaia, islatu nahi duen gizartea goraipatzeko edo kritikatzeko, satirizatzeko edo poetizatzeko. Edo baita gizarte horri, bizkarra erakutsirik, lerro bakar bat ere ez eskaintzeko.

Jarrera zilegiak —eta literaturaz ari naiz— guztiak ere.

Idazleak, historialariaren gertakizun historiko berberak jorratzen dituenean ere, historialariak ez bezalako tresnak ditu: ironia, umorea, tonu desberdinen aukera (malenkoniatik haserreraino), irudimena eta asmazioa, fantasia, asmabidea edo konjetura, bere ideologiak markaturiko apeten eta ametsen proiekzioa…

Baina obra literarioak agiri dokumental gisa hartzen dituenak ere eskarmentua behar du. Badaezpada. Demagun garai jakin bateko senar-emazteen arteko harremanak ditugula aztergai, eta, horretarako, xaribariak ere baliatzen ditugula dokumentu moduan:

«—Errak to.
—Zer duk to.
—Badakika berri?
—Zer berri?
—Gurdoenean oiloa nagusitu zaiola oilarrari.
—Zer ari dituk? Oilarra erruten?
—Ez oraino, baina oiloa kukurruku egiten.
—Josepe dea oilotu?
—Bai, eta Margarita oilartu.
—Berri horren ohoretan,
jo adarra errepikan, klin, klan!».

Testu horretan eta antzekoetan, emazte senar-jipoitzaileak aurkituko ditugu, eta gizonezkoak edale eta ganoragabeak direla ikusiko. Baina emakume bulartsu senar-jipoitzaile horren jokabidea garai bateko arautzat hartzen duena oso oker dabil: arautik kanpoko egoera bat salatzen ari da xaribaria (hain zuzen ere, senarra oilo eta emaztea oilar den hankaz-gorako egoera batena). Beste modu batera esanda: rolen erreibindikazioa ageri da hor, senarrak oilar eta emazteak oilo izan behar duela dioen gizalege matxista baten erreibindikazioa: inor jipoitzekotan, oilarrari legokioke oiloa jipoitzea; hori da dokumentu horretan ageri den araua.

Historialari adituak testu literarioetako lerro artean —irakurketa literarioak ematen dion aukeran— informazio gehiago aurkituko du maiz, lerroek zuzen diotenetan baino. Orain artekoa argiago uler dadin: Robert Laxalt-en aitak kontatzen

zuena —Hawthorn-ek *Letra gorrimina* eleberri famatuan erabili zuen gertakizun bera— hurbilago dago errealitatetik xaribarietan kontatzen zaiguna baino:

«Atarratzeko neska bat haurdun gelditu zen. Behartu egin zuten letra gorri bat eramatera soinekoan. Apaizak behartu zuen hartara».

Literatura ez da soziologiaren, politikaren edo historiaren suzedaneo edo sendabelar bat: literaturak bere baitan ditu helburua eta zuriketa.

10. GURE ELEBERRI HISTORIKOA

Literatura ingelesak bereizketa interesgarria egiten du erromantzearen (*romance*) eta nobelaren *(novel*) artean. *Novel* delakoa norbere garaiko bizitzaren eta ohituren pintura litzateke. *Romance* delakoak inoiz gertatu ez dena eta gertatuko ez dena kontatzen du estilo goratsu batez.

Guk hitz bakar batez, *eleberria* edo *nobela* formulaz adierazten ditugu bi-biak. Idazlearen garaiko ispilutza, nahiz edozein garaitan gerta zitezkeen gorabeheren kontakizuna, biak biltzen ditu *eleberri* hitzaren kapak.

Nolanahi ere den, gauza jakina da nobela historikoa erromantizismoaren asmazioa dela, eta erromantikoak izan zirela, halaber, Erdi Aroa erreibindikatu zutenak. Luze joko liguke erreibindikazio horren arrazoiak aztertzeak: garai ilunen misterioa, artista gosegaitzaren iheserako beharra, *sprit* kutsagabe baten egarria…

Erdi Aroa izan da nobela historikoaren aro kuttuna. Genero historikoaren jaiotzak badu zerikusirik horretan; halaber, Erdi Aroak, bere sekretu ugariekin, aukera handia ematen du idazlearen irudimena pizteko.

Erromantikoek, Erdi Aroko historiarekin batera, Erdi Aroko testu literarioak erauzi dituzte ahanzturaren atzaparretatik, testu gehienak kutsatu gabeak baitira: herriaren ahotik sortuak eta herriak belaunaldiz belaunaldi jaso dituenak. Baina, maiz, Erdi Aroak ez du eman lezakeena ematen; edo ez da aurkitzen egon balegokeenaren arrastorik. Halakoetan, erromantikoek mistifikatzeko jokabideari ekin diote: hor dauzkagu Ossian-en kasu famatua edo gure *Altabizkarko kantua*rena.

Dena den, erromantikoei zor zaizkie kontzientzia nazionalarekin zer-ikusi zuzena duten hainbat kontu: harrotasun nazionala (identitateari, lurraldetasunari, hizkuntzari eta literaturari dagokiona); iraganari buruzko halako oroitzapen kolektibo bat; folklore hitzak biltzen duen ahozkotasunaren garrantzia eta herri-altxorrarekiko arreta…

Talde baten tradizioak talde horren nortasuna indartzen duenez, askatasunaren eta nazio-batasunaren aldeko borrokaren parte gisa hartu izan da tradizioaren defentsa.

Geure erromantizismoari gagozkiolarik, hona segidan, labur-beharrez zirriboraturik, erromantizismoak gurean izan dituen hiru jokabide, kronologiaren arabera emanda:

1. Lehenik eta behin, Navarro Villoslada-ren *Amaya, o los vascos en el Siglo VIII* liburua erromantizismo literarioaren eredu bikaina bilakatu zen.
2. Mistifikazio-garaia. Karlistadetako garaian gaudela kontuan hartzen badugu, giroa ez zen oreka gordetzeko egokiena. Honelaxe dio Mitxelenak:

   > «El clima artístico no era demasiado propicio para la producción de obras de calidad. Imperaba en el país un trasnochado romanticismo pseudo-historicista que construía tradiciones legendarias con supuestos heroísmos de los antiguos vascos, rivales nunca vencidos de los romanos, la gesta de Roncesvalles, horrores medievales y briznas de consejas y creencias populares».

   Bigarren etapa honetan, burujabetasunaren kontakizun epikoak dauzkagu: Goizueta-ren *Leyendas vascongada*s, Manteli-ren *La Dama de Amboto*, Arana-ren *Los últimos íberos*, Arakistain-en *Tradiciones vasco-cántabras* edo *El Baso-jaun de Etumeta*.

   Eta Mitxelenak berak: «Se comprenden los sarcasmos del joven Unamuno contra toda esta decoración mitológica, sombra de una sombra, que son quizá más acerados por lo mismo que alguna vez debió experimentar su seducción».

   Bigarren sasoiko emaitza horiek berebiziko garrantzia izan zuten idazle horien garaiko jendearengan eta ondorengoengan. Hona Txirritaren bertso-sail bateko perlatxo batzuk:

   «Orain milla milla urte inguru
   bezela ziran asiak
   erromatarrak berendu nairik
   gure zazpi probintziak;
   garai artako abarkadunak
   ziran jenioz biziak.
   Baziran penaz amildu eta
   beren ezurrak hautsiak.
   Lastimosuak izango ziran
   aien orduko antsiak.

   …

   Lekobide eta Osobal ziran
   Kantabriako buruak.

…

Gure izeben amen amonen
osaben aiten aitonak,
emen Fueroak (?) defenditutzen
ibilitako gizonak».

Osaben aiten aitonak nekez ibiliko ziren Fueroak defenditzen, forurik ez zen edo foruak defendatu beharrik ez zegoen garaietan.

Horretan guztian zer da bihi, zer lasto? Berdin dio, anakronismoak *etxerako on* bihurtzen diren garai nahasietan.

3. Arturo Campionen naturalismoa. Egia da, bigarren ataleko halako kutsu mitologiazale bat nabarmentzen zaiola sarri, baina Campioni zor diogu Nafarroako erresumaren Antzinaroa modu eraginkor eta historikoki aski zuzen batez narratu izana. Ez da harritzekoa, Yon Etxaidek betidanik erakutsi duen Campionen obrak euskaraz jartzeko afana.

11. DENBORA SORTZEN, ESPAZIOA ASMATZEN

Sailkapenak sailkapen eta aurrera baino lehen, kontakizunari eta denborari buruzko aipamen labur bat —laburtu beharrak garrantzia lanbrotzerik nahi ez nukeena— egin nahi nuke.

«Orduak egin ditut idazten, irakurtzen, zure zain, hausnarrean…», esan ohi dugu.

Idazlea denboraren sortzailea da ororen gainetik: denbora eraikitzen du denboraren baitan.

Ordu-egileak gara.

Baina bagara espazioen sortzaile ere: espazioa erakitzen dugu espazioaren muinean. Istorioak ere *eraiki* egiten ditugu, etxeak eta hiriak bailiren.

Narratutakoak, narratzaileak eta irakurleak, hirurek dute beren denbora irakurketaren gertakizun literarioan. Egoerarik garaikideenean ere (narrazioa = narratzailea = irakurlea, hirurak sinkronikoak liratekeen kasuan), sekuentzia hori kronologikoa da beti, eta denbora-ordena horretan gertatzen da. Elkarren arteko urrutiramendu denporalen luze-laburrak testu desberdinak sortzen ditu.

Narrazioaren barnean, berriz, narratutakoa eta narratzearen ekintza dauzkagu, eta hor sarri hausten da logika kronologikoa.

Baladetan, adibidez: narratutatakoa eta narratzearen ekintza —narratzailearena berarena sarri— garaikideak dira, eta irakurleok gara testutik erabat urruti gaudenak.

Oraintsu arteko nobela historikoan (demagun Yon Etxaideren batean) gertakizunak dira urruti daudenak, baina idazlea (inoiz baita testu barruko narratzailea ere) eta irakurlea garaikideak dira.

XIX. mendeko nobela historikoan, berriz (demagun Navarro Villosladaren *Amaya*), gertakizunak eta idazlea elkarrengandik urruti daude, eta idazlea eta gu ere elkarrengandik urrun gaude.

Dena den, erromantikoak, iragana aztertu eta islatu baino, iragana birsortzen du, datu jakin batzuetan —maiz gehiegi dokumentatu gabeetan— oinarriturik, eta bere sormenari bururatutakoak ere datu historikoak balira bezala aurkeztuz.

Espazioaren eraikuntzari dagokionez, Erdi Aroko geografia politikoa ez zen gaur ezagutzen ditugun estatu handiena, horien aurreko giza talde naturalagoen antolamenduarena baino. Idazle erromantikoak egoera hori aurkitzen du (eta laudatzen) bere idazkietan: Walter Scott eskoziarrak, Aribau kataluniarrak, Navarro Villoslada nafarrak eta Xaho zuberotarrak, Manzoni eta Leopardi italiarrek, Sienkievich poloniarrak, Alois Jirosek txekiarrak…

12. IZUA

Mende honetako arteak tribializatu egin du izugarrikeria, hiperbolearen bidetik, eta orain kostatu egiten zaigu giza tragedia baten aurrean erreakzionatzea. Kosovoko izugarrikeria dugu adibide.

Erromantizismoak eragindako gotikotasunari egozten zaio tribializazioaren errua, baina Erromantizismoak, izuaren erraiak aztertzen eta kontatzen hasi zenean, gure bazter ezkutuenean argi egitea zuen asmoa, ez gure bazter ezkutuenez trufatzea.

Hasiera batean, gotikotasuna klasikotasunaren aurkaria izan zen: *ordenaren* aurrean *kaosa*; irrazionaltasuna kontrajarri nahi zitzaion arrazionalismoari; orekaren aurrez aurre hiperbolea eta basatikeria jarri zirenean, arrazionaltasunaren gehiegikeriak salatzeko izan zen…

Gotikotasuna eta Erdi Aroa iradokitzen zuen oro zerbait ezkor eta ilun zen XVIII. mendera arte. Baina izen bereko eleberrigintzak —eleberri gotikoak—, erromantizismoaren eraginez, buelta eman zion galtzerdiari, ordu arte beltz eta ilun ikusten genuena argitara ekarriz. Klasizismoak txartzat zuena, baliogarritzat hartu zuen erromantizismoak, gotikoa indartsua baitzen, sua baitzuen, kemena transmititzen baitzigun.

Ilustrazioak arrazoiaren eremuaren aldeko hautamena egin zuen, arrazoiaren galbahetik pasatzen ez ziren beste eremuen kaltetan. Zer gertatzen da, ordea, zentzumenek edo arrazoiak berak kontrolatzen ez duten egoeretan? Erromantizismoak hauxe erakutsi zigun bereziki: arrazionaltasunaren erresuman elementu ezrazionalen bat —gaueko irudikeriak, ametsak, ilusio optikoak, animalia higuingarriak, elementu atabikoak…— agertu orduko, hor, arrazionaltasunaren eremu horretan, geure baitan gorderik ditugun izua, espantua edo higuina bezalako sentimenduak berpizten dira. Halakoetan, arrazoia zalantzan hasten da eta, azkenik, beldurrak gainezkatzen gaitu…

13. AZKEN KODA

Pentsamendu kultural klasikoak iraganeko ereduetan jartzen zituen begiak, hilezkortasuna lortzeko. Petrarka-k zioenez, loria ez da heriotzaren ondoren baizik hasten. Stendhal-ek hogeigarren mendean ulertuko genuela espero zuen. Baina, horretarako, iragana bere garaira taxuz eta zuzen erakartzen zuenak bakarrik espero zezakeen heriotzaren ondoko loria.

Gaur oso bestela da. Zer loria handiago *carpe diem* ahal den luzeena bizitzea baino? Zer axola heriotzaren ondorengo loriak eta iraganeko iturrietan egarria asetzeak, bata zein bestea momentuko atseginaren etsai porrokatuak direnean?

Berriaren lilura, moderno izan beharraren antsia. Gombrowicz-en *Ferdydurke* nobelako ama Lejeune pozarren dago moderno izaten ikasi zuenetik: lehen ezkutuan joaten zen komunera, eta orain inolako lotsarik gabe.

Mundu zaharra bizi dugu, baina arnasten dugun ezinegona berria da. Lehen, ideologiak edo erlijioak bideak zehazten zizkigun eta aginduak ematen, orok zehaztasunaren (ondo eginaren) itxura izan zezan. Orain, ordea, lehen ondo egintzat geneukanak, etengabeko egokipena behar du.

Claudio Rodríguez-en poema batek zorroztasun poetikoz zehazten duen egoera da:

> «Lo que antes era exacto, ahora no encuentra
> su sitio. No lo encuentra y es de día…».

Munduaz pentsatu, mundua pentsatzeko, horra idazleon lan apal bezain sukartia.

Baina horretarako, geure mundu anitz hau modu anitzean ordenatu beharko dugu, ezta?

Mila esker.

Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Eta tiro baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon
Mikel Aizpuru
1990ean argitaratua
ISBN: 84-86967-22-8

Historia: Zientzia ala literatura? Histoiari buruzko gogoeta sorta
Pruden Garzia eta Iban Zaldua
1995ean argitaratua
ISBN: 84-86967-66-X

Ekonomia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean
Agirre, Jaione, *Uztaro* **24**, 29-47.

Frantziako iraultza: modernitate eta tradizionalismoaren artean
Aldekoa, Iñigo, *Uztaro* **0**, 21-35.

Eliza, euskal abertzaletasuna eta Ameriketarako erbesteratzea. Ikuspegi orokor bat. (1898-1940)
Alvarez, Oskar, *Uztaro* **13**, 69-86.

Kontrabandisten aurkako neurriak XVIII. mendeko Euskal Herrian: "leku sakratuen" desagerpena
Angulo, Alberto, *Uztaro* **21**, 45-67.

Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariek izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)
Angulo, Alberto, *Uztaro* **28**, 37-58.

Euskal Herriko inprentaren historia
Arana, Jose Antonio, *Uztaro* **12**, 37-53.

Basoa Euskal Herriko historian zehar
Aragón, Alvaro, *Uztaro* **29**, 28-38.

Bengoetxeako Anbrosio. 1552-1625
Aranburu, Pello Joxe, *Uztaro* **20**, 17-69.

Demokrazia Heletan Frantziako iraultza aintzin
Arbelbide, Xipri, *Uztaro* **2**, 103-117.

Europa bakarra, Europa anitzak
Arregi, Joseba, *Uztaro* **15**, 55-66.

Goi paleolitoaren hasierako faseak
Arrizabalaga, Alvaro, *Uztaro* **1**, 53-75.

Frantziako kexu-koadernoen azterketa bat
Chueca, Josu, *Uztaro* **2**, 119-128.

Faxismoa Nafarroan 1936.az geroztik
Chueca, Josu, *Uztaro* **6**, 77-87.

Faxismoa frantzian: 1918-1930.
Garzia, Pruden, *Uztaro* **5**, 31-45.

Europako langile-mugimenduaren protohistoria: Ingalaterrako eta Frantziako langile-elkarteak Erregimen Zaharraren bukaeran eta Aro Garaikidearen hasieran
Gracia, Juan, *Uztaro* **7**, 55-75.

Pobrezia eta gizarte laguntza XVIII. mendean Bizkaian
Gracia, Juan, *Uztaro* **14**, 3-20.

Bigarren *Aintzina*
Hernández, Amelia, *Uztaro* **15**, 37-53.

Nazionalismoaren historia eta ideologia
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **25**, 3-26.

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hiz neurtuetan (1823-1840)
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* **30**, 61-84.

Bizkaitar eta gipuzkoar nekazariak 1718ko matxinadan
Lamikiz, Xabier, *Uztaro* **33**, 21-41.

Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak
Lema, José Angel, *Uztaro* **18**, 17-39.

Aintzinako Erregimeneko herri baten giza ekonomi azterketa: Villaverde de Trucios, 1753 urtean
López, Ernesto, *Uztaro* **10**, 33-59.

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea
López, Emilio, *Uztaro* **23**, 45-63.

Nazionalismoa eta bere teoria
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 15-27.

Langileak ba al dauka aberririk? Euzko Langileen Alkartasuna sindikatuaren sorrera eta garapena
Mees, Ludger, *Uztaro* **11**, 29-36.

Paleolito ondorena Metal-arora arte Euskal Herrian
Mujika, Joxean, *Uztaro* **4**, 33-84.

Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze eta Burdin Aroa
Olaetxea, Carlos, *Uztaro* **1**, 77-103.

Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan
Riaño, Eugenio, *Uztaro* **8**, 35-52.

Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa
Ugarte, Felix M., *Uztaro* **4**, 25-31.

Euskal nazionalismo motak, nazioaren ikuskeraren arabera
Zabalo, Julen, *Uztaro* **26**, 27-46.

Ekonomi historiaren historia: sarrera bat
Zaldua, Iban, *Uztaro* **6**, 59-75.